


Araba Erdialdeko

eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partizalaren berrikuspena

Revisión del Plan Territorial Parcial del área funcional de

Álava Central



AURRERAPENA

AVANCE

2022



Ezquiaga
Arquitectura,
Sociedad y
Territorio S.L.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Jesús María Erquicia Olaciregui
Lurraldearen Antolamendu eta Planeamendurako Zerbitzuaren arduraduna

Rafael Sánchez Guerras
Arabako Lurralde Antolamenduaren arduraduna

Leire Urcola Alberdi
Lurralde Antolamenduaren arkitektoa

EUSKO JAURLARITZA
LURRALDE PLANGINTZA ETA
HIRI AGENDAREN
ZUZENDARITZA
ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

Jose María Ezquiaga Domínguez
Zuzendaria, Arkitekturan doktorea eta soziologoa

Salvador Rueda Palenzuela
Ekologoa

Javier Barros Guerton
Sektoreko Taldeen koordinatzailea, arkitektoa

Ainhoa Ezquiaga Bravo
Hirigintza-arkitektoa eta antropologoa

Claudia Robledo Baeza
Ingurumen-zientzialaria

Maria Kristina Rustad Nordang
Politologoa

Mariano Rodríguez Fernández
WSP

Gonzalo Antolín San Martín
WSP

Gemma García Blanco
Tecnalia

Efrén Feliu Torres
Tecnalia

Thais Ibarrondo Robleda
Canicca

Carlos Muñoz Sánchez
Canicca

Uxue Jauregui
Canicca

EZQUIAGA ARQUITECTURA,
SOCIEDAD Y TERRITORIO S.L.
IDAZLE TALDEA



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

AURKIBIDEA

1	Sarrera	5
1.1	Aurrekariak	5
1.2	Lurralde Plan Partzialaren eduki erreala eta berrikuspenaren irismena, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera.	5
2	Oinarritzko metodologia-irizpideak.....	7
3	Erreferentzia esparruak.....	10
3.1	Lurraldearen antolamendurako oinarritzko esparrua.....	10
3.1.1	4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa	12
3.1.2	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG, 128/2019 Dekretua)	13
3.2	Europako esparrua lurralde-matrizearentzat	18
3.3	Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050	19
3.4	Espainiako Hiri Agenda	21
3.5	2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia	22
3.6	Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategia 2030	23
3.7	Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia.....	23
3.8	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana ZTBP Euskadi 2030	23
3.9	Euskadiko Landa Garapeneko Programa 2015-2020	25
3.10	Klima-alaketaren arazoa	27
3.11	Prozesu parte-hartzailea erreferentzia esanguratsua da Aurrerakina egiteko.....	28
4	Diagnostikoaren laburpena	30
4.1	Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea	30
4.1.1	Aurretiko gogoetak	30
4.1.2	Baldintzatzaile fisikoak.....	31
4.1.3	Biosferaren mugak	31
4.1.4	Sektoreko afekzioak	33
4.1.5	2004ko LPParen eragina.....	33
4.2	Landa-habitata	34
4.2.1	Landa-habitat bizia izateko lurzorua da oinarritzko baliabidea	34
4.2.2	Landa-ingurune dinamika sozioekonomikoak.....	35
4.2.3	Kalteberetasun sozioekonomikoa landa-ingurunean.....	37
4.2.4	Zerbitzuak, konektibitatea eta ekipamenduak.....	37
4.2.5	2004ko LPParen eragina.....	37
4.3	Hiri-habitata	38
4.3.1	EAEko hiri-nodo egituratzaileetako bat.....	38
4.3.2	Landa-ingurune dinamika sozioekonomikoak.....	38
4.3.3	Hiri-berroneratzeko beharrak	40
4.3.4	Zuzkidura-sistema eta kokaguneak	43
4.3.5	Ekonomia-jardueretarako eta merkataritzako ekipamenduetarako lurzoru publikoa sortzeko LPSa 46	
4.3.6	Arabako Lautadako eraldaketa-ardatza: egoera	47
4.3.7	2004ko LPParen eragina.....	48
4.4	Paisaia, kultura eta natura ondarea, eta baliabide turistikoak.....	52



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

4.4.1	Paisaia	52
4.4.2	Kultura eta natura ondarea.....	55
4.4.3	Baliabide turistikoak.....	55
4.4.4	2004ko LPParen eragina.....	56
4.5	Baliabideen kudeaketa jasangarria	56
4.5.1	Baliabide hidrikoak eta azpiegitura hidraulikoak: hornidura-sare zatikatua, Vitoria-Gasteizen bakarrik egituratzen da	56
4.5.2	Energia-azpiegiturak: petrolioaren kanpo-horniketaren mendekotasun handia.....	63
4.5.3	Hondakinen azpiegiturak	65
4.5.4	Ekonomia zirkularra garatzeko potentziala.....	65
4.5.5	2004ko LPParen eragina.....	66
4.6	Mugikortasuna eta logistika.....	66
4.6.1	Errepideko, trenbideko eta aireko mugikortasuna	66
4.6.2	Logistikaren inbrikatzea tokiko ekoizpen-sisteman	69
4.6.3	Errepideen, trenbideen eta aireportuen logistika.....	69
4.6.4	Arabako Foru Aldundiko bidegorrien LPSa (tramiteak egiten), 2 ibilbide mota (bidegorriak eta ibilbide berdeak). Turismo irisgarriarekin eta jasangarriarekin duen harremana.	71
4.6.5	2004ko LPParen eragina.....	74
4.7	Zeharkako gaiak	75
4.7.1	Irisgarritasun unibertsala	77
4.7.2	Genero-ikuspegia	77
4.7.3	Klima-aldaketa	78
4.7.4	Osasuna.....	79
4.7.5	Euskara.....	79
4.7.6	Lurralde arteko harremana	80
4.8	Gobernantza	81
4.9	Diagnostikoaren laburpena eskualdeen arabera	83
4.9.1	Arabako mendialdea: biziberritze demografikoa, herritarrentzako zerbitzuen hobekuntza, landa-munduari lotutako bizitza biziberritzea.....	83
4.9.2	Arabako Ibarak: demografiaren biziberritzea, herritarrentzako zerbitzuak hobetzea, ondoko lurraldeekin harremanak artikulatzea, azpiegitura turistikoa indartzea	84
4.9.3	Gorbeialdea: Goiaingo industria-nodoaren artikulazioa. Audio eta Bilborekin harremana.....	86
4.9.4	Arratia-Nerbioiko udallerriak Arabako Erdigunean: Bizkaiarekin duten harremana.....	87
4.9.5	Arabako lautada: nekazaritza-ereduaren eboluzioa, Lautadako ardatzaren artikulazioa, AHT Nafarroan integratzea, Altsasurekin harremana	87
4.9.6	Vitoria-Gasteiz: industriako joera berrietara egokitzea, hiri-berroneratzea, trenbideen azpiegitura berriak txertatzea, Plan Orokorren berrikuspena	89
5	Lurraldearen erronkak	90
5.1	Lurralde-ereduaren jasangarritasuna	90
5.1.1	Ingurumenarena	90
5.1.2	Soziala	91
5.1.3	Ekonomikoa	92
5.2	Hiriko eta landako habitata.....	93
5.3	Baliabideen kudeaketa jasangarria	94
5.4	Mugikortasuna eta logistika.....	95
5.5	Lurraldea eremu hurbilekin egituratzea	95
5.6	Klima-aldaketa Araba Erdialdeko LPPn txertatzea	97
6	Lurralde-eredu berria.....	98



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.1	Lurralde-eredu berriaren laburpena	98
6.2	Eredu berria lurraldeko erronkei aurre egiteko	99
6.3	Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea	101
6.3.1	Lurzorua zonakatzea	102
6.3.2	Azpiegitura berdea	107
6.4	Landa-habitata	120
6.4.1	Landa-kokaguneak mantentzeko irizpideak	120
6.4.2	Nekazaritza-eredu berriturantz trantsizioa egin behar da landako susperraldi demografikoaren euskarri gisa	121
6.4.3	Landa-kokaguneak eta azpiegiturak nahiz ekipamenduak gaitzea	122
6.5	Hiri-habitata	123
6.5.1	Eremu Funtzionalako kokalekuen hierarkia	123
6.5.2	Hiri-berroneratzea behar duten eremuen definizioa	125
6.5.3	Arabako Lautadako eraldaketa-ardatza	129
6.5.4	Hiri-hazkundearen perimetroak	129
6.5.5	Ekonomia-jardueretarako pakete handien dimentsionatua eta horiek ezartzeko jarraibideak	141
6.5.6	Bizilekuen kuantifikazioa	142
6.6	Paisaia, kultura eta natura ondarea, eta baliabide turistikoak	145
6.6.1	Eremu Funtzionalako paisaiari buruzko Katalogoaren ondoriozko zehaztapenak	145
6.6.2	Kultura- eta natura-ondarea eta baliabide turistikoak	148
6.7	Baliabideen kudeaketa jasangarria	149
6.7.1	Ura	149
6.7.2	Energia	153
6.7.3	Ekonomia zirkularra	167
6.8	Mugikortasuna eta logistika	169
6.8.1	Irizpide orokorrak	169
6.8.2	LAGen proposamenak eta zenbait mugikortasunerako (oinezkoak, bizikletak, bideak, trenbideak, aireportuak eta logistika) arloko plangintza txertatzea	170
6.8.3	Mugikortasuna garraio publiko intermodalean eta garraio garbiko moduak	173
6.9	Zeharkako gaiak	176
6.9.1	Irisgarritasun unibertsala	176
6.9.2	Genero-ikuspegia	177
6.9.3	Klima-aldaketa egokitzea	177
6.9.4	Osasuna	177
6.9.5	Euskara	178
6.9.6	Lurralde arteko harremana	178
6.10	Gobernantza	179
6.10.1	Ohar orokorrak	179
6.10.2	Fluxu metabolikoak kudeatzeko gobernantza	179



1 Sarrera

1.1 Aurrekariak

Indarrean dagoen Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu zen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluko abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez. 2018an aldatu zen urriaren 9ko 145/2018 Dekretuaren bidez, Jundiz-Billodako Terminal intermodal logistikoa eraikitzea baimentzen zuena. Dokumentu hau, bere kartografiarekin batera, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialeko Berrikuspenaren Aurrerapena da. Irizpideak, helburuak eta proposatutako konponbide orokorrak zehazten ditu; haiei esker Eremu Funtzionalaren eredua eta lurralde-antolakuntza orokorra zehazten dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei jarraiki.

Eremu Funtzionalaren egungo lurraldetasun-eredua Arabako lurraldean abian dauden dinamiken gainezarpenaren emaitza gisa aurkez daiteke, bai ingurumen arloan, bai arlo sozialean eta ekonomikoan. Hain zuzen ere, indarrean dagoen Lurralde Plan Partzialean jasotako edukia aplikatzearen eta bata bestearen atzetik etorri diren lurralde-, hirigintza- eta sektore-plangintzako tresnen emaitza da. 2004an Plana egin zen abagunearen eta gaur egungoaren artean egon diren joeren aldaketek dinamika eta politika horien azterketa kritikoa egitea eskatzen dute.

Dokumentu honen abiapuntua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatutako 2020ko udan aurretiaz egin eta aurkeztu zen LPParen berrikuspenerako diagnostikoa eta ikerketa da, eta egungo lurraldetasun-eredua sortzen lagundu duten hainbat faktoreen inguruko gogoeta erantsi da, baita diagnostiko argia eta zehatza egiteko bilakaeraren aurreikuspenak zein diren eta zein saihestu beharko liratekeen ere. Diagnostiko horretatik abiatuta eraiki da Aurrerakinaren dimentsioaren proposamena.

1.2 Lurralde Plan Partzialaren eduki erreala eta berrikuspenaren irismena, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG), uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin-betiko onartu zirenek, jarraian aipatu ditugun artikuluetan eta aginduetan zehazki xedatzen dituzte lurralde-plan partzialetan zehaztu behar diren edukiak:

1. 3.3. artikulua: Eremu Funtzionalaren **lurzorua**ren zonakatzea, **gainjarritako baldintzatzaileak** eta **erabilaren erregulazioa** barne.
2. 4. artikulua: **azpiegitura berdea** mugatzea eta hirigintza-plangintza irizpideak zehaztea maila lokalera arte, **jarraitasun ekologiko** eraginkorra eta **azpiegitura berdearen eta grisaren arteko interakzio** egokia lortzeko ekintzekin batera
3. 20. artikulua: **landa-habitataren** inguruko irizpideak hirigintza-plangintzak kokaguneen mantentzea ingurunera lotu dezan, nekazaritza-jardueraren egikaritzapenetik.
4. 6. eta 9. artikulua eta memoriaren 6.1.1. eta 6.1.3. atalak: **kokaguneen hierarkia** zehaztea Eremu Funtzionalarentzat Vitoria-Gasteiz burutzat eta Salvatierra/Agurain azpiburutzat izanda, **Arabako Lautadako Eraldaketa-ardatzaren antolamenduaz** gain, hiri euskal sisteman LAGek Arabako hiriburuari esleitzen dioten papera kontuan hartuta.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

5. 10. artikulua: **berroneratu beharreko espazioak** zehaztea, erabat degrada daitezen saihesteko, edo erabat edo zati batean beste erabilera baterako berreskuratzeko Hiri-berroneratzeari, urbanizatutako **espazioen dentsifikazioari** eta **espazio zaharkituak birziklatzeari** lehentasuna eman behar zaie.
6. 11. eta 13. artikulua, eta IV. eranskina: **hiri-hazkundeko perimetroak** zehaztea lurzoruaren artifizializazio handiena izateko, egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Indarrean dagoen LPPak zehaztutako lur-erreserbak aztertuko dira eta kontuan hartuko dira udalerri guztien bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako eskariak. **Bizitegi-kuantifikaziorako** prozedura garatuko da bizitegi-lurzoruaren eskaintza zehazteko, lurralde-ereduaren osagaia justifikatuz.
7. 12. eta 18. artikulua eta memoriaren 6.4. atala: **Lurzoruaren dimentsionamendua jarduera ekonomikoentzat** eta hori ezartzeko jarraibideak, lehendik dauden azpiegiturak eta hiriguneak berritzeko, birziklatzeko, berreskuratzeko eta berrerrabiltzeko jardunei lehentasuna emanez, zabortege zahar zigilatuak esate baterako.
8. 14. artikulua: **Eremu estrategikoak** adieraztea, zenbait kontu ebatzi behar dituztenak eta arreta berezia behar dutenak. Adibidez, ondokoak adierazi dira:
 - a. Vitoria-Gasteiz - Altsasu
 - b. Vitoria-Gasteiz- Iruña Oka
 - c. Vitoria-Gasteiz - Urtegiak
 - d. Arminon- Erriberabeitia - Berantevilla
 - e. Arabako Mendialdea
 - f. Arabako Ibarrek
9. Lurralde arteko harremana beste LPP eta lurralde mugakide batzuekin (Trebiñu, Miranda de Ebro, Altsasu).
10. 21. artikulua: **paisaia babestea** jardunak egokitzearen bidez. Eremu Funtzionalaren Paisaia Katalogoa eginda dagoen modua aintzat hartuta, LPPak bere zehaztapenak barne hartzen ditu.
11. 22. artikulua: **kultura ondarea** biltzea eta tipologiaren arabera egituratzea.
12. 23. artikulua: **natura ondarea** biltzea eta lurraldeari buruzko jardunak egokitzea, azpiegitura berdea sendotzeko eta biodibertsitatearen aldagaia integratzeko.
13. 24. artikulua: **baliabide turistikoak** antolatzea, baliabide naturalen eta ingurumenaren babesarekin eta antolamenduarekin bateragarri direla bermatuz.
14. 15., 16., eta 17. artikulua: **baliabideen kudeaketa jasangarria**, uraren lurralde-dimentsioa, energia eta ekonomia zirkularra garatuz.
15. 25. artikulutik 28.era: **garraio publiko intermodaleko sistema integralak**, garraiobide garbiei arreta berezia eskainiz, bere edukiari Donejakue Bidea, Inaziotar Bidea, Itsasoaren Bidea, Ardoaren eta Arrainaren Bidea, Bidezidor Historikoa, Arabako Artzaintza Naturbidea eta Ebroko Bide Naturala erantsiz.
16. **Bide-mugikortasuna** eta paisaia-interesa duen Vitoria-Gasteiz- Urizaharra- Laguardia ibilbidea egituratzea, baita LAGetan bildutako trenbide-sareko eta logistikako aurreikuspenak ere.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

17. 19., 29., 30., 31., 32., 33. eta 34. artikulua: **zeharkako kontuak**, hala nola, irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasun, euskara eta lurralde-erlazioa, **hiri-eredu jendetzatu, erabilera-nahasketaren aldetik konplexua eta sozialki kohesionatuta** sustatuz.
18. 36. artikulua: LPPak bere proposamenen **ebaluazio-sistema** izango du, baita zerikusia duten udalerrietako bakoitzarentzako ondorioen dokumentu osagarri bat ere.
19. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikulua arabera, Euskadiko Tokiko Erakundeena, **Eragin Linguistikoaren Ebaluazio Txostena** erantsiko da, euskararen erabileraren normalizazioan dituen eraginaren inguruan.
20. Ingurumen Araudiari dagokionez, Planak **Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoa** egingo du eta **Energia Jasangarritasunaren Ikerketa** ere gehituko du, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera.

2 Oinarrizko metodologia-irizpideak

Diagnostikoa, lurralde-proiektua formulatzeko oinarri objektiboa

Printzipio hauen oinarrian dago diagnostikoaren proposamena egiteko metodologia, eta irizpide hauek jarraitzen ditu:

Informazioaren eta lurraldetasun-diagnostikoa irizpide analitikoaren eta teknikoaren arabera egin eta prozesatu da, eta helburua erabakiak oinarri objektiboaren arabera hartzea eta maila guztietan lurraldetasun-politikak ezartzea da.

Informazio faseen, diagnostikoaren eta jarduteko estrategien adierazpenen arteko elkarreragina sortzea, informazioaren deskripzio hutsetik harago joateko. Alabaina, garrantziaren irizpidearen arabera ezarri behar da, eta hala, mugatu gakoak diren lurralde-erlaketak, egiturazko arloak eta dinamika homogeneoak nahiz horiekin zerikusia duten eta Plangintzatik, Arautik eta Lurraldetasun Politiketatik tratatuak izan behar diren arazoak, azpi-lurraldetasun eta udalerrri mailetan.

Lurraldearen errealitate eta Lurralde Antolamenduaren diziplina konplexuek “zeharkako” ikuspegia eskatzen dute. Ideia horrek bi ondorio ditu. Lehenik eta behin, ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren, hirigintzaren eta lurraldeko legeko arloak elkar eraginean kontuan hartzeko beharra. Bigarrenik, sektoreetako ebazpenak artikulatzea komeni da (babestutako zoruen definizioa egokitzea, lurraldeari erabilerak esleitzea, azpiegituren diseinua, hiriguneen hazkunderaren neurria, etab.), aztertutako lurraldearen antolaketarekin eta egiturarekin koherentea den estrategiaren arabera.

Berrikuspena indarrean dagoen LPParen oinarrien gain eraikitze prozesutzat hartuta

Araba Erdialdeko LPParen berrikuspena prozesu bat da, eta bertan koherentzia eskatzen da 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zehaztapenekin. Gainera, prozesuak azken 16 urteotan indarrean egon den LPPa ezartzearen esperientziatik ikasitakoa sartu behar du.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Akzio eta operazio estrategikoei buruzko Planaren zehaztapen asko gauzatu ez diren arren, zenbait elementu daude jarraibideak gehitu ditzaketenak plan berria konfiguratzeko, adibidez, indarrean dagoen LPParen artikulazioa udal-plangintzen inguruan.

Gai berrietara zabaltzea

2019ko LAGek gai berri batzuk dituzte, zeharkakoak deritzenak, eta lurraldearen jasagarritasunari, bertako bizi-kalitateari, gizarte-talde guztientzat duen zentzu zabalean eta inklusiboan ulertuta, eta bere Eremu Funtzionalari eragiten diote, mugakideak dituen eremuekin bai EAE barruan, bai beste erkidego batzuetan, eta garrantzia nabarmena dute Trebiñurekin, Miranda de Ebroekin eta Altsasurekin dauden harremanek.

2019 LAGen gizarteratzerako nahiak zenbait aspektu ditu. Irisgarritasun unibertsala funtsezko gaitzat agertu da bizi-kalitaterako, ez bakarrik ezgaitasun iraunkorra dutenentzat, baita aldi baterako egoerak jasan ditzakeen edozein pertsonarentzat ere. Bestalde, 2005eko otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoa betez, eta LAGen zehaztapenen arabera, generoari dagokionez planek duten eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin behar da, eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onartutako desberdintasunek desagerrarazteko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak txertatu behar dira.

Klima-aldaketak irizpide arduratsua ezartzeko beharra dakar, zehazki aurreikusi ezin daitezkeen baina eguneroko bizitzan geroz eta garrantzia eta eragin argiagoa duten eta kontuan hartu behar diren aldaketa-fenomenoen aurrean.

Duela urte batzuetatik, eta XIX. mendean zehar sortu zen hirigintza garaikidean funtsezkoa izan zen pentsamenduaren ildo berreskuratuz, osasuna puntu interesgarria da hirigintzaren eta lurraldetasunaren pentsamenduan. Ekipamenduen hornidurarako kontua izatetik, ingurune egoki batean bizitza osasungarria izatea osasunerako faktore erabakigarria dela ulertzera igaro da. Bestalde, COVID-19aren osasun-krisiak erakutsi du kalitatezko eguneroko eremuak izatea zein garrantzitsua den eta pandemia berrien aurkako segurtasuna, zoritxarrez, aldi baterako baino ez zela. Krisi honek ekoizpenerako eta komunikaziorako moduak aldarazi ditu eta baliteke ondorio iraunkorrak izatea.

Euskara lurraldeko gai nagusi gisa ageri da, eta LPPeko ekintzak haren normalizazioa laguntzeko ahalegina egingo da.

Erakunde- eta gizarte-partaidetza gehitzea

Lurraldetasun Proiektuaren helburua lurraldea antolatu eta egituratzeko oinarritzko elementuak ezartzea da, sektoreko eta udalerrietako plangintzarako gainerako tresnentzat erreferentzia izateko. Beraz, hirigintza-jarduera lurralde-proiektu koherente batean sintetizatzea eta integratzea bideratutako ikuspegi estrategiko batetik ulertzen da, arauaren ikuspegi hutsetik harago.

Lurralde antolakuntzaren ikuspuntu "estrategikoaren" asmoa da dauden sinergiekin baliatzea eta ahalmenak koordinatzea eremuaren errealtatea gai izan dadin etorkizun dinamikora eta



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

aldakorrera moldatzeko, ezinbestean lehiakortasuneko eta espazio-osagarritasuneko esparru globalaren baitan dagoena. Arazoa, beraz, oinarritzko bi premisatan dago: nondik abiatzen den eta zer-nolako ahalegina egiteko prest dagoen lehen adierazitako xedea lortzeko. Finean, esku artean dagoen hipotesia da lurraldearen plangintza honakoa izatea:

Lurraldea antolatzeko neurria, hau da, inbertsore-sektore pribatuen eta publikoen arteko itunketa-akzio gisa, garapen jasangarrirako aukerak garatzera bideratuko dena, baita ingurune-, gizarte- eta ekonomia-desorekak zuzentzera ere, hazkundea berma dezan.

Eremura proiektu bat hornitzeko pautak, ilusioa sortuko duena, bideragarria dena eta azaldutako helburuen arteko ildo koordinatuak ezartzen dituena.

Eremuko gizarteko, ekonomiako eta administrazioako **indar guztien adostasun, konpromiso eta parte-hartze prozedura**, helburu komuna lortzeko.

Nazioarteko esperientziek eta nazionalak erakutsi dute eremu bateko biziberritze eta berraktibazio sozialak, ekonomikoak eta lurraldekoak gogoeta-ahalegin handia eskatzen duela. Hala ere, ahalegin hori epe laburrera saritua ikusten da ilusioz beteriko Proiektuarekin eta epe ertainera-luzera proiektuaren emaitzen egiaztapenarekin dagokion lurraldearen ekonomia-hazkundearekin eta gizarte-sustapenarekin.

Garapen-proiektu beraren inguruan indar sozialen, ekonomikoen eta politikoen adostasun sendoa lortzea eta lurraldean eragina duten eta planteamendu orokor honekin koherentzia duten politiken sustapen koordinatua izatea dira, funtsean, langintza on baten oinarritzko baldintzak, eta, finean, horrek zehaztuko du benetako garrantzia.

Horrelako helmena izango duen Proiektua egiteko aukerak **esku-hartzeko erronka kolektiboa ekarri behar du, espazio-ingurune jakinean kokatu behar dena; beraz, inguruneak eta estrategiak funtsezko elementua osatu behar dute gizarte beraren heldutasunerako eta batasunerako.**

Administrazioetik antolatutako baina alde batez onartuko proposamena planteatzeak ez luke ahalbidetuko lurraldeko proiektua bera gizarte-kohesiorako elementua izatea, komunitate bakoitzak bere interesak eta nahiak moldatzeko prozesu parte-hartzaileak mugatzen dituelako. **Gizarte-, ekonomia- eta erakunde-eragileen lehiaketa helburu bera bihurtu behar da.** Horretarako, beharrezkoa da hasieratik gizarte zibil osoa gidalerroak eta helburuak zehazteko eztabaida eta definizio prozesuan inplikatu duen irudimenezko prozesua eta eragilea planteatzea, onartzen diren ondorioak eta ebazpenak erabat bere gain hartu ahal izateko eta garapena sustatzeko ekarpen erabakigarria egin ahal izateko.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-



Graf 1. Añanako gatzagak.

3 Erreferentzia esparruak

3.1 Lurraldearen antolamendurako oinarrizko esparrua

Lurralde antolamenduaren politika 1990ean hasi zen EAEn, maiatzaren 31eko 4/1990 Legea onartu zenean, Euskadiko lurralde-antolamendurakoa. Lurralde konplexu eta baliotsu baten kudeaketa-eredu neurritsua eta ikuspegi orokorra ezartzen zituen Estatuko lehengoetako legea izan zen, eta 1997an Gidalerroak onartzearekin osatu zen. Gerora, hamabost lurralde plan partzial eta hamar lurralde plan sektorial egin dira. Horrek guztiak **lurraldearen politikaren eta lurralde-antolamenduaren kulturaren egonkortasuna** ekarri du eta administrazioari lotuta dagoen edo lurraldearen antolamenduan, hirigintzan edo ingurumenean lan egiten duen pertsona orori eragiten dio.

Lurralde-antolamenduaren lanen bigarren zikloa LAGen berrikuspenarekin hasi zen eta uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren behin betiko onarpenarekin amaitu zen. Zikloa LPPren parte da eta LAGak garatu eta politika sektorialak koordinatu beharko ditu. Horrek komunikaziorako eta koordinaziorako ahalegina eskatzen du objektiboki aplikagarria eta egokia izango den dokumentua lortzeko, lurralde jasangarri, inklusibo, bizi, azkar, orekatu, elkarrekin harremanetan dagoen eta parte-hartzailea izango dena lortzeko bidean.

Jasangarria, **hiru aldagaiak batzen ditu: ingurumena, ekonomia eta gizartearen dimentsio kulturala**, belaunaldien arteko kezkarekin eta ekosistema aberatsagoak eta hobeto zainduak dituen lurraldearen aldeko apustuarekin, kokagune jendetzatuekin, hiri-berroneratzearen, garraio kolektiboaren eta energetikoki jasangarriagoa denaren aldeko apustuarekin, besteak beste, inklusiboa, zaintzaren hirigintzarekiko kezka duena, bizia, pertsonen ekintzek planetan duten eragin orokorra aztertzen duena.

LPP honetan aldatu behar diren gutxieneko xedapenek azpiegitura handientzako eremuen definizioa osatzen dute, interes komuna duten ekipamenduen kokalekuarena, berritu, berroneratu edo berregokitu behar diren eremuena, bizilekurako kuantifikazioarena,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

industriarako zoruaren azaleraren kuantifikazioarena, jasangarritasunean eta erresilientzian gailendu behar den ereduarena, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloak behar bezala txertatzeko eta horiek kulturaren sartzeko, antropizatutako lurraldearen erabileraren ikuspegi zabaletik, belaunaldien arteko kezkarekin eta ekosistema aberatsagoak eta hobeto zainduak dituen lurraldearen aldeko apustuarekin, kokaguneen dentsitate egokia dutenekin, hiri-berroneratzearen aldeko, landa-eremuaren lehiakortasunaren aldeko apustuarekin, eta garraio kolektibo eraginkorraren, energia jasangarritasunaren eta norberak sortzearen aldeko apustuarekin. Horri erantsi behar zaio udalerriko plangintzaren dokumentuek jarraitu behar duten hirigintzako aginduen alderdi orokor horiek irizpideetan, baldintzetan eta arauetan nola islatzen diren.

LPPk bere arloko ordenamendu integrala ezartzen du eta udalerrri hauek osatzen dute: Dulantzi, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Zigoitia, Kuartango, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Lagran, Lantaron, Legutio, Otxandio, Urizaharra, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Añana, Agurain, Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Gaubea, Harana, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zanbrana, Zuia eta gainera barne hartzen ditu Badaia, Entzia Partzuergoa, Urizaharrako komunitatea eta Lagran eta Laño.



Graf 2. Vitoria-Gasteizko Andra Mari zuriaren plaza

LPP berri honen lurralde-estrategiaren oinarriek **bat egin behar dute mundu mailan NBEk identifikatu dituen lurralde-erronkekin**, esaterako, Agenda 2030ekin, Garapen Jasangarrirako Agenda Berriarekin, 2015eko Garapen Jasangarrirako Helburuekin, 2016ko urriko Quitoko III: HABITAT Hiri Agenda Berriarekin, Europar Batasuneko Hiri Agendarekin, Espainiako Hiri Agendarekin, edo Euskadi mailan, 2016ko Bilboko Hiri eta Herri Jasangarrien Euskal Adierazpenarekin.

Halaber, dokumentu horiek guztiek aukera ematen dute ordura arte **garatu eta ezarri diren plangintza-ereduen inguruan gogoeta egiteko**. Gehienetan, hazkunde ekonomikoaren testuinguruetan eta aro modernoko gizarteetan funtzionatzeko daude diseinatuta eta hazkunde txikiagoa dagoen garaiotan eta, batez ere, gizarte-eredua aldatzen ari den honetan ez da eraginkorra. **Landa izaera nahiko nabarmena duen lurralde horien eraldaketa desberdinen**



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena


-AURRERAKINA-

baturak zailtasunak eragin ditu linealki planeatu zena eta planetan ohikoenak diren aginduak ezartzeko: plangintzaren eta ezarpenaren arteko denbora ezin da aurreikusi arrazoi teknikoengatik, ingurumen-kostuengatik, eta muga ekonomiko edo sozialengatik.

Faktore eta aldaketa horiek iraganean baino maiztasun eta abiadura handiagoarekin ematen dira eta guztiek eragin nabarmena dute hiri-eremuaren ekoizpenean eta nekazaritza-zorua okupazioa eta ustiaketa aldarazten dute. Horrela, agerian gelditzen dira denborak, erabilerak eta kudeaketarako ereduak esku hartzen den arloaren errealtate jakinera egokitzeko beharra. **Hiri-eremuak zaharkituta geratzen direlako edo berritzeak beste lur-eremu bat erabiltzeak baino zailtasun eta kostu altuagoak dituelako abandonatzeak aukeren kostu askoz ere handiagoa du landa-eremuetan hiri-eremuetan baino, beraz, landa-paisaiaren galera eta komunitate-sentimenduaren galera dakar.**

3.1.1 4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa

4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoak bere izenburuaren II. atalean Lurralde Plan Partzialen baldintzak zehazten ditu. 12. artikulua tresnaren edukiak eta antolaketa zehazten ditu dokumentuetan, 13. artikulua formulazioaren prozedura eta onarpena eta 15.ak hirigintza-planetarako LPPen lotura.



Idazketa-data dela eta, **LALak ez ditu zenbait gai barne hartzen, hala nola jasangarritasuna, klima-aldaketa edo genero-eragina.** Hala ere, indarraldia mantentzen duten bloke sistematiko handietan oinarritutako formulazioak estaldura eskaintzea ahalbidetzen du.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

3.1.2 Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG, 128/2019 Dekretua)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ondoko printzipio gidariak ezartzen dituzte:

1. **Zerbitzu ekosistemikoak** kontuan hartzea, eta beraz, **azpiegitura berde** kontzeptua zerbitzu horien oinarri espazial egituratzaile gisa.
2. Landa-habitataren tratamendu espezifikoa
3. Hiri-sistemara **eraldaketa-ardatzak** gehitzea
4. **Dagoeneko artifiziala den lurzoruaren erabilera optimizatzea**, bai etxebizitzak dituztenei, bai jarduera-ekonomikorako erabiltzen direnei ondorengo irizpideak ezarritik, **espazioen eskariaren erantzunean** azkartasuna eta eraginkortasuna bilatzeko:
 - a. Hiri-berroneratzea
 - b. Erabilera-aniztasuna
 - c. Hiri-hazkundearen perimetroak
5. **Paisaia** ordenamenduan gehitzea
6. Baliabide hidrikoen eta energetikoen kudeaketa jasangarria, **ekonomia zirkular** eta lehengaien sarbidean lotuta dagoen **autosufizientziarako** aurrerapausoak egiteko.
7. **Mugikortasun eta logistika jasangarriranzko** aurrerapausoak egin, ibilgailu pribatuaren mendekotasuna murrizteko eta hainbat mugikortasun mota txertatu ahal izateko.
8. **Lurraldearen antolamenduan berrikuntzak** egitea, gai berriei protagonismoa emanez:
 - a. Irisgarritasun unibertsala
 - b. Genero-ikuspegia
 - c. Euskara
 - d. Klima-aldaketa
 - e. Osasuna
 - f. Lurralde arteko harremana
9. Lurraldearen antolamenduan **governantza ona** sustatzea, ulertuz ez dituela soilik plangintzaren dokumentuak egin behar, baita jarraipena eta ebaluazioa, horien inguruko integrazio administratiboa eta prozesuen parte-hartze publikoa ere.

LAGetan, Araba Erdialdeko arlo funtzionalaren LPParentzako baldintza espezifiko gisa ezartzen da **Arabako Ibarretako eta Araba Mendialdeko eskualdeak bereizi eta nabarmentzeko beharra**, haien landa-izaera eta arazo espezifikoak kontuan hartuta, eta eskualde bakoitzaren hasierako oinarritzko azterketa egin behar da.

Bestalde, hauek dira hurrengo LPPerako zehaztu diren LAG nabarmenenak:

1. **“Arabako Lautadaren Eraldaketarako Ardatza”** Langraiz/Iruña Oka eta Agurainen artean dago, eta aldirietako, distantzia luzeko eta merkantzientzako zerbitzua sostengatuko lukeen garraio-sistema kolektiboan oinarritzen da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

2. Vitoria-Gasteizko metropolialdean “Bikaintasun eta Berrikuntza Arloa” zehaztea, hiriaren iparraldean berritzen ari diren industriguneekin eta aireportua-autobus geltokia. Hirigunea-unibertsitatea ardatzarekin batera.

Etorkizuneko LPPak LAGak zehazten dituen **Lurralde Plan Sektorialen xedapenak** izan behar ditu. Gainera, gehienak egungo Araba Erdialdeko LPPa indarrean sartu zenean onartu ziren, beraz, komeni da bateratze-lana egitea. LPParen etorkizunerako ondorengoak garrantzia berezia dute:

1. EAEko Ibaien eta Erreken Antolamendurako LPS. Kantauriar isurialdea -1- eta Isurialde Mediterraneo -2 (1998ko 415 eta 455 Dekretuak), azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatuak.
2. Trenbide Sarearen LPS (41/2001 Dekretua)
3. Energia Eolikoaren LPS (104/2002 Dekretua)
4. Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Egokia den Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurraldeko Plan Sektoriala (262/2004 Dekretua)
5. Hezeguneen LPS (160/2004 Dekretua eta aldaketak 231/2012 Dekretuaren eta 2011/05/3 Aginduaren eskutik)
6. Nekazaritza eta Basozaintzako LPS (177/2014 Dekretua)
7. Arabako bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen LPS (4/2010 eta 1/2012 Foru Arauak).
8. Euskadiko energia berriztagarrien PTS (egiten)




Graf 3. Entziako mendilerroa.

Ondorengo eskemek Lurralde Plan Partzialentzat Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek eskatzen dituzten edukiak azaltzen dituzte:




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena


-AURRERAKINA-






Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Europar Batasunak erreferentziatzeko eta interes handiko zenbait dokumentu idatzi ditu, garrantzia berezia dutenak Araba Erdialdeko lurralde matrizearen tratamendurako. Bestalde, Euskadiko zein Estatuko hiri-agendek Europako hiri-agendaren edukiak garatu dituzte eta esparru kontzeptual berritua gehitu dute; izaera doktrinala duten dokumentuak dira, zeinen transposizioa lege-esparrura aribideko prozesua den. Bestela, hiri-agendek zein Europako dokumentuek klima-aldaketa gehitu arren, funtsezkoa da gaiari buruzko oinarri zehatzak gogoratzea.

3.2 Europako esparrua lurralde-matrizearentzat

Europar Batasunak onartu egin du garapena ekologikoa bakarrik izan daitekeela. Berdearen aldeko apustuan, Europar Batasuneko hiru dokumentu estrategikok eskaintzen dute Itun berdearen barruan nekazaritzako elikagaien sistema jasangarriak lortzeko trantsizio orokorra babesteko jarraibidea eta konpromisoa, eta merkatu bakarra sortu zenetik Europar Batasunak izan duen erronka eta aukerarik handiena izan da.

Europako Itun Berdea honetan ardazten da: landa-eremua sustatzean Baserritik mahaira estrategiarekin eta ekosistema naturalak sustatzean Biodibertsitatearen estrategiarekin.

Itun berdearen asmoa da berotegi-efektuko isuriak erdira murriztea 2030rako, eta 2050ean Europa karbonoan neutroa den lehen kontinentea izatea. Horretarako guztirako, Europako politiken multzoa berriz ebaluatu beharko da inor atzean uzten ez duen hazkunde berde jasangarria eusteko. Era berean, Covid-19aren krisiak agerian jarri ditu trantsizio berdeak Europako susperraldi sozioekonomikorako eta etorkizunerako eskaintzen dituen aukerak.

Europako Batzordeak Baserritik mahaira estrategia argitaratu zuen 2020an, elikadura-sistema zuzenagoa, osasuntsuagoa eta ingurumena errespetatzen duena bultzatzeko. Estrategia hori Europako Itun Berdearen parte da eta 2030erako Bioaniztasunerako Estrategiarekin batera



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

argitaratu da. Helburua elikadura-segurtasuna babesten duen eta planeta osasuntsu batetik dieta osasungarriak izateko aukera bermatzen duen elikadura-sistema jasangarria sustatzea da EBN. Estrategia hori ez da agiri legegilea, nahiz eta Europako legegintzaldi honetan zehar aurkeztuko diren proposamen batzuk jasotzen dituen, eta horietako batzuek arauak izan arren.

Estrategiaren helburuak dira:

1. Pestizida sintetikoen erabilera eta ureztatzea % 50ean murriztea.
2. Arrisku handiko pestiziden erabilera % 50ean murriztea.
3. Ongarri sintetikoen erabilera % 20an murriztea.
4. Elikagai galera, gutxienez, % 50ean murriztea, eta lurzoruak emankortasuna galtzen ez duela bermatzea.
5. Nekazaritza ekologikoan aritzen direnen lurzorua % 25era heltzea (egun % 8)
6. Abeltzaintzan erabiltzen diren antibiotikoen salmenta % 50 murriztea
7. Landa-eremu guztiek banda zabal azkarra izatea 2025erako.

Europako Batzordeak 2020ko maiatzean Biodibertsitatearen Estrategia berria ere argitaratu zuen, Europako Itun Berdearen zati gisa.

Bertan jorratzen dira biodibertsitatearen galeraren arrazoi nagusiak, esaterako, lurraren erabilera sostengaezina, baliabide naturalen gehiegizko ustiapena, kutsadura eta espezie exotiko inbaditzaileak, besteak beste, proposatzen du 2030erako helburu lotesleak ezartzea eta egungo legedia ezartzeko modu berriak zehaztea, eraginkorrakoak, konpromiso, neurri, helburu eta gobernantzarako mekanismo berriekin.

Estrategia berriaren helburu nagusiek arreta handiagoa jartzen dute biodibertsitateak ongizatean eta gizakion garapenean duen garrantzian.


Estrategiaren abiapuntuetako bat da “gizarteak naturak eskaintzen dizkion askotariko onurak baliatu ahal izateko, beharrezkoa da prozesu naturalak babestea eta sustatzea”. Ondorioz, helburuen artean dago 2020rako kaltetutako ekosistemen % 15 berrezartzea eta ekosistemen zerbitzuak mantentzea eta hobetzea. Horretarako, Azpiegitura Berdeen Estrategia garatzeko konpromisoa hartu du eta biodibertsitatea zaintzea da lehentasuna.

3.3 Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050

Bultzatu 2050 Euskal Hiri Agenda Agenda Basque Country 2030 testuinguru zabalagoan erregistratu da eta 8 ekintza-ildo ditu, 32 ekintzatan banatuta (ondoren eskeman ikus daitekeen moduan), eta horiek 104 neurritan banatzen dira, horietatik 52k LAGekin koordinatzeko beharrari egiten diote erreferentzia, eta, beraz, LPPan eragina izan dezaketela uler daiteke.




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

3.4 Espainiako Hiri Agenda



Agenda 2019ko otsailaren 22ko ministroen kontseiluak onartu zuen eta 2030 arteko bide-orria da. Lehen mailako 10 helburuak eta bigarren mailako 30ak goiko koadroan ageri dira.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Ezartzeko estrategia Ekintza Planen irudian oinarritzen da, eta egoeraren diagnostikoa egin eta esku hartzeko neurriak definitzen ditu oinarrian. Hiri Agenda ezartzeko Estatuko Administrazio Nagusiaren Ekintza Planak araudiaren, plangintzaren, finantzaketaren, gobernantzaren, herritarren parte hartzearen, elkartrukearen eta urbanismoaren hedapenaren arloan proposatzen ditu jarduketak, baita fenomeno urbanoei dagokienez ere, ondorengo eskemaren arabera:

- 1) Ekintzak **araudiaren** arloan
- 2) Ekintzak **plangintzaren** arloan
- 3) Ekintzak **governantzaren** arloan
- 4) Ekintzak **finantzaketaren** arloan
- 5) Ekintzak **ezagutza trukatzearen eta hedatzearen** arloan

3.5 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia

Giza-jarduerak kliman duen eraginaren eta klima-aldaketak pertsonon bizitzan izango dituen ondorio larrien aurrean, ezinbestekoa da eraldaketa digitalaren ikuspegia txertatzea edozein lurralde-planetan, klima-aldaketa murrizteko eta lurraldearen erresilientzia areagotzeko.

2015ean, klima-aldaketaren KLIMA 2050 Estrategia argitaratu zen, Eusko Jaurlaritzak onartu ostean. Estrategiak ingurumeneko sei erronka jorratzen ditu energia/klima, osasuna/ingurumena, baliabideen eraginkortasuna/zirkulartasuna, biodibertsitatea/kapital naturala, hezkuntza/etorkizuneko belaunaldien konpromisoa eta gobernantza/erantzunkidetasun publiko-pribatuaren inguruan. Estrategiak 9 helburu ditu guztira eta 24 jarduera-ildo. Horiek 2019an EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartu zirenean sartu ziren lurralde-antolamenduan.

Halaber, EAE estatuen eta erkidegoen arteko aliantzaren parte da eta 2050 baino lehen zero isuri izateko konpromisoa dute. Horretarako, klima-aldaketaren aurkako neurrien % 80 erkidego mailan ezarriko lirateke. KLIMA 2050 klima-aldaketaren euskal estrategia EAEko 2020ko Ingurumenaren Esparru Programetan ezarritako konpromisoetan oinarrituta egin da. Helburu orokorrak dira berotegi-efektuko gasen isurpenak % 40 murriztea 2030 baino lehen eta % 80 2050 baino lehen. Bestalde, espero da kontsumo energetiko osoaren % 40 iturri berriztagarrietatik etortzea 2050 baino lehen. Halaber, lurraldea klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko, berrikuntzaren lehiakortasuna hobetzeko, enpresen eta industriaren efizientzia eta gizarteak ingurumenaren hobekuntzarekin duen konpromisoa hobetzeko neurriak ezarriko dira.


KLIMATEK 2016 proiektuetan, IHOBE Erakunde Publikoak bere diagnostikoan nabarmendu zuen klima-aldaketak Euskadin izango dituen eragin nagusiak izango direla tenperaturak igotzea eta euriaren erregimenean aldaketak; urtean euria egiten duen egunen batezbestekoa jaitsi egingo da, baina egun berean egiten duen euri kantitatea handituko da.



3.6 Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategia 2030

Giza-jardueren beste ondorioetako bat da ekosistemak eta milioika urtetan eboluzionatu duten espezieen biodibertsitatea hondatzea. Kalkulatzen da desagertzen maila 100etik 1.000ra aldez handiagoa dela ohiko erritmoa baino, giza eraginaren ondorioz, eta soilik Europako espezieen eta habitaten % 17k eta ekosistemen % 11k dute eboluzio egokia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategiak 4 helburu ditu, 10 ekintza-ildo eta 40 ekintza jakin.



3.7 Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia

EAEko Geodibertsitatearen Estrategia burutu zen Euskadi osoko Geologia Interesdun Lekuen (GIL) inbentarioa sortzeko eta leku horiek kudeatzeko irizpideak eta proposamenak finkatzeko. EAEko geodibertsitatea kudeatzeko lehengo esperientzia Urdaibaiko Biosferarena izan zen (2011-2018) eta horrek Autonomia Erkidego osoko estrategia egiteko oinarria ezarri zuen. Halaber, Geodibertsitatearen Estrategiak diagnostikoa, EAEko Interes Geologikoko Tokien inbentarioa, eta Estrategiaren lau helburu handiei dagozkien kudeaketaren araudiaren eta jarduteko proposamenen berrikuspena ere baditu.

- Geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren politika instituzional bat eta kudeaketa-eredu integral bat definitzea.
- EAEko geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren kontserbazioa bermatzea.
- Geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren erabilera jasangarria sustatzea eta geoturismoa bultzatzea.
- Geodibertsitatea eta ondare geologikoa kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko heziketa eta trebakuntza sustatzea, eta nazioartean haren berri ematea.

3.8 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana ZTBP Euskadi 2030

Garapen jasangarrirako Helburuek sortutako eztabaidaren eta Agenda 2030ek garapenerako estrategiak birdefinitzeko planteatzen duen beharraren harira, eskualdeak indartu egin dira



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako helburuak txertatzeko eskala egoki moduan eta jarraitu beharreko gidalerroak koordinatu eta zehazteko eragile ugariren gaitasunak indartzeko.

Ikerketako adierazleen eta berrikuntzaren inguruan Europako erkidegoen artean dagoen arrakalak tokiko testuingurura egokitutako garapen-politikak sustatzera eramanez, Europako eskualde guztietan berrikuntzak sortu eta egiturazko aldaketak egiteko gai izan ahal izateko. Hala, duela urte batzuetatik eskualdeetako garapen-politikek duten ikuspegia da “espezializazio adimentsuarena” (RIS3). Helburua eraldaketa ekonomikoa sustatzea eta tokiko aktiboen eta alderaketa abantailen gainean egindako berrikuntzek sustatutako Europako eskualdeak bereiztea da. Europako eskualde bakoitzak bere inbertsio-ahaleginak pilatzen ditu lehentasun kopuru mugatu batean. “Aurkikuntza ekintzailea” izendatutako prozesuaren bidez identifikatzen dira, eta horietan helize laukoitzeko lurralde-eragileak (publikoak, pribatuak, akademikoak eta sozialak) dira protagonista.



Graf 4. Euskadi 2030 ZTBPe lotutako politikak. Iturria: Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritzak


Eusko Jaurlaritzak **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana ZTBP Euskadi 2030** argitaratu zuen 2019ko abenduan, Euskadi 2020 ZTBP eta hedatutako RIS3ren emaitzak kontuan hartuta.

2030eko ikuspegiak honela dio: “2030. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako herrialde aurreratuenetakoa da berrikuntzaren arloan, bizi maila handiarekin eta kalitate handiko enpleguarekin”. Lehentasunak industria adimendunean oinarritzen dira, energia garbietan eta pertsonalizatutako osasunean, eta aukera duten ingurunetzat hartzen ditu osasuna, ekoberrikuntza, hiri jasangarriak eta Euskadi sortzailea.

Horrekin batera, Torontoko Unibertsitateko Net Laben egindako ikerketek defendatu dute norbanakoa dela antolamendu-unitate berria. Lurralde mailako ekosistemak edo kooperazio-sareek, alde horretatik, sare bakoitzaren kohesiorako katalizatzailearen papera duten eragile espezifikoak identifikatu behar ditu. LPPa egiterakoan, 2030ko ZTBPren printzipioekin koherentzia izatea bilatuko da lurralde honen ikuspegi espezifikoetik.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-



Graf 5. Euskadiko RIS3 Estrategia 2030 ZTBPN. Iturria: Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza


3.9 Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020

5. aldaketa egin ostean, indarrean dagoen programaren bertsioa aztertu da, 2020ko uztailaren 30ekoa. Dimentsio endogenoaren garapena lurraldearen antolamenduan duen eragin zuzena baino garrantzitsuagoa den dokumentua den arren, ulertzen da bereziki esanguratsua dela **Arabako Erdiguneko Eremu Funtzionaletako eta, batez ere, Arabako Haranetako eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako eremu landatarreneko espazioen errealitatera egokitutako proposamenak formulatzeko**. Dokumentuak arreta berezia jartzen duen arren ekoizpen-sektorearen laguntzan zuzeneko laguntzen bitartez, Eusko Jaurlaritzako ekintza publikoko beste adar batetik planteatzen dituen gidalerroek eragina dute lurraldearen bilakaeran eta hainbat arlori eragiten diete, hala nola klima-aldaketaren egokitzapenari edo azpiegitura berdeak modu zuzenean babesteari. Landa-testuinguruan LAGen helburuak txertatzeko hurbileko neurri multzotzat har daitezke eta Gidalerroak dituzten ingurune urbanizatu espezifikoenen xedapenak osatzen dituzte.

Etorkizuneko Landa Garapenerako Euskal Estrategiarako erreferentzia gisa hartu diren bere 19 neurrien artean, LPPk hauek izan beharko ditu bereziki kontuan:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-





3.10 Klima-aldaketa-aren arazoa

Klima-aldaketa-ri buruzko Gobernuarteko Taldeak (IPCCk) bere bosgarren ebaluazio-txostenean klima-aldaketa errealitate egiaztagarritzat eta, maiz, ondorio konponezinak izan ditzakeen krisi sakontzat berretsi du. Gainera, lehendabizi, hiri-sektoreari garrantzia eman zion moldaketan funtsezko sektore gisa (IPCC, 2014).

Klima-aldaketa-ak muturreko gertaeren (uholdeen, bero-olatu...) maiztasun eta zorrotasun handiagoak dakartza, eremu geografikoaren arabera aldatzen direnak. Era berean, klima-aldagaien (prezipitazio-erregimenen, batezbesteko tenperaturen...) aldaketa progresiboa gertatzen da; hori ere eremu geografikoaren arabera.

Gaur egun funtsezko bi erantzun politiko daude klima-aldaketa-aren aurrean. Alde batetik, arintzea, hau da, gizakien esku-hartzea isurketa iturriak murrizteko edo klima-aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gasen (BEG) isurbideak hobetzeko. Bestetik, moldatzea egungo edo espero den klimara eta eraginetara egokitzeko prozesu gisa (IPCC, 2014)¹.

IPCC ebaluatzeko bosgarren txostenak ondorioztatu du botere ekonomikoko eta politikoko guneek eta gobernuak berotegi efektuko gas guztien isurketak eta kutsadura eteteko asmo irmoa edukita ere, neurri handiko kalteak izan dira jada eta kasu askotan atzeraezinak eta konponezinak dira.

Arintzea, hau da, gizakien esku-hartzea isurketa iturriak murrizteko edo BEGen isurbideak hobetzeko, funtsezkoa da, beraz, baina ez da nahikoa, eta klimara eta eraginetara moldatzea saihestezina da. Bi politika gako horiek bat egin dute denboran zehar sinergiak bilatzeko, borroka eraginkorrago baterako ahaleginak artikulatzeko eta politika publiko landuagoekin egokitzapena eta arintzea txertatzeko.

Politika horiek barne hartzen dute hiriaren eta lurraldearen antolamendua; izan ere, beste politika sektorial batzuen eta lurralde bakoitzeko eragile pribatuen ekintzaren koordinatutako hedapena kudeatzeko bokazio argia dute, lurralde-eredu egokitu eta erresilienterako aurrerapausoak egiteko.

Europako esparruan, nabarmentzekoa da, berriki argitaratu baita, Klima Aldaketara Egokitzeko Europako Estrategia (2021)². 2013ko aurreko estrategiaren modura, espazioaren plangintza eta hiriena dira ekintza klimatikoa ezarri behar diren diziplina nagusiak, politika sektorialak eta lurzorua-aren erabileraren erabakiak koordinatzeko duten gaitasunarengatik. Europako lehenengo klima-legearen aldeko Batzordearen proposamenak³ Europako Itun Berdean

¹ http://www.ipcc.ch/pdf/assessment-report/ar5/syr/SYR_AR5_SPM.pdf IPCC 2014 WGIIAR5-Chap8 Urban areas

² https://ec.europa.eu/clima/policies/adaptation/what_en#tab-0-1

³ https://ec.europa.eu/clima/policies/eu-climate-action/law_en



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ezarritako helburua gauzatu nahi du⁴: Europako ekonomia eta gizartea klima aldetik neutroak izatea 2050ean.

Eusko Jaurlaritza klima-eremuaren inguruan aritu da Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia, 2002-2020tik, eta bere lehenengo plangintza gai horretan honakoa izan zen: 2008-2012 aldirako Klima Aldaketaren aurkako lehen Euskal Plana.⁵ Plangintza hori 2050erako Klima-alaketaren Euskadiko Estrategian eguneratu zen⁶, bi helburuekin: batetik, isurketak murrizteko xedea, % 40, 2030erako, eta % 80, 2050rako; bestetik, egokitzeari buruzkoa, euskal lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-alaketarekiko.

Oraingo Trantsizio energetikoari eta Klima-alaketari buruzko Legeak honakoa bete beharko du:

1. Klima-neutraltasunerako trantsizioa laguntzea
2. EAEko lurraldearen erresilientzia laguntzea
3. Trantsizio zuzena bermatzea
4. Trantsizio energetikoaren eta klima-alaketaren inguruan zeharkako ekintzak sustatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege-proiektuak indarrean dagoen araudia eguneratu du eta gai horren inguruan garatu den Europako legedi zabalera moldatu du. Helburuak dira ondare naturalaren ikuspegi osoa eskaintzea, ingurumenaren kudeaketan eskumenak dituzten administrazioen arteko koordinazioa hobetzea eta klima-alaketaren politikekin zuzeneko lotura ezartzea, arreta garapen ekonomiko eta sozialerako aukera berriak sortzean jarritz. Legeak natura-ondarea kontserbatzea ere sartu beharko du klima-alaketako politiketan; berotegi efektuko gasak xurgatzeko gaitasuna indartu beharko du.

3.11 Prozesu parte-hartzailea erreferentzia esanguratsua da Aurrerakina egiteko

Euskadiko Tokiko Erakundeek 2/2016 Legeak IV. Atalean jasotzen du arauak, plangintzarako tresnak eta erabakiak hartzeko prozesuetan pertsonen eta erakundeek edo elkarteek parte hartzea bermatzeko baldintzen erregularizazioa. 46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, honakoa zehazten du: lurralde-antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat, parte hartzeko gida bat, jendaurreko bilkurak eta prozesuaren dibulgazio-materiala egin beharko dira.

Bestalde, Araba Erdialdeko LPParen Berrikuspenaren Idazketak bete behar duen Baldintza Teknikoen Pleguak prozesuan duen garrantzia agerian uzten duten xedapenak jasotzen ditu. 4/1990 Legean, Euskadiko Lurralde Antolamenduari buruzkoan, ezartzen diren informazio publikorako epeen eta audientziez gain, dokumentu osoan zehar diziplinen arteko lanaren eta erakundeetako eragileen eta gizarte eragileen arteko koordinazioaren alde egiten da.

⁴ https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_en

⁵ https://www.ehu.eus/documents/2201416/2378380/Plan_Vasco_Lucha_Cambio_Climatico_2008_2012.pdf

⁶ https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/klima2050/es_def/adjuntos/KLIMA2050_es.pdf



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Horretarako, bost bide edo estrategia paralelotan oinarritzen diren ekintzen inguruan osatutako metodologia proposatzen da:

1. Zabalkundea edo Ikusgarritasuna
2. Herritarrak edo Pedagogia
3. Parte-hartzea edo Adostasuna
4. Gobernantza edo Erantzunkidetasuna
5. Dokumentazioa edo Erregistroa.

Herritarrek Parte Hartzeko Programak, 2021eko martxoaren 30ean argitaratuak, kontu horiek jasotzen ditu eta parte hartzeko mekanismoak ezartzen ditu. Adierazpena parte-hartze digitalean oinarritzen da COVID-19aren pandemiaren intzidentziaren eta egiteko aukeren determinazio faltaren eraginez, eta hauetarako da parte-hartzea:

1. Online edo aurrez aurreko tailerrak zeinetan ikaskuntza eta elkarsorkuntza ahalbidetzen den.
2. Online edo aurrez aurreko ekitaldiak zeinetan idazketa-prozesuaren hedapena eta jarraipena egiten den.
3. Jarraipen digitala, Eusko Jaurlaritzako (Lurraldea) sare sozialeko profilen bidez eta Lurralde Plan Partzialerako gaitutako webgune honen bidez: https://www.euskadi.eus/1_plan-territorial-parcial-de-alava-central/web01-a3lurral/es/. Bide horren bidez informazio-pilula txikiak eta parte hartzeko gida eskainiko dira.
4. Parte hartzeko beste bide bat herritarrentzat orokorrean webgunean gaitutako galdeketa da, eta bertan ondorengoa lantzen da:
 - a) Eskualdearen arazoak lehenestea.
 - b) Araba Erdialdearentzat etorkizuneko aukerak antzematea.
 - c) Gaiei hauei buruzko iritzia:
 - Lurralde-egitura
 - Ingurunea, baliabideak eta paisaia
 - Garapen ekonomikoa
 - Herritarrak eta lan-merkatua
 - Bizi-kalitatea
 - Mugikortasuna

Prozesuaren egitura LPPren fase desberdinen idazketa denborara eta informaziora egokitzen da. Pleguak hala eskatzen duenez, Aurrerakinaren prozesu informatiboarekin batera herritarren parte hartzerako aldia hasten da, Behin Betiko Dokumentuaren osteko aldiarekin gertatzen den moduan.

Orain arte, Aurrerakina egiterakoan hasitako partaidetza- prozesuan adituen diagnosi-prozesu kualitatiboa egin da. Horretarako elkarriketa erdiegituratuak egin dira erakundeetako,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

akademiako, gizarte eta ekonomia arloko 25 aditurekin, esperientzia eta erantzukizun maila desberdinetakoak. Elkarriketa horietan sei gai nagusiren inguruan duten iritzia jaso da: ingurumena, landa-habitata, hiri-habitata, industria, energia eta mugikortasuna. Halaber, lan-arlo bakoitzetik emandako informazioa ere jaso da.

Jasotako ekarpenekin txosten espezifikoa egin da eta diagnostikoaren sintesiaren gogoetara eta proposamenetara gehitu da.

4 Diagnostikoaren laburpena

4.1 Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

4.1.1 Aurretiko gogoetak

Araba Erdiguneak kalitate handiko ageriko landaredia du, batez ere, baso autoktonoak eta ibaien erriberen inguruko ekosistemak. Horren arrazoia da, hein handi batean, ondasun horien kudeaketa komunitarioa egiteko erakundeen sareek indarrean jarraitzen dutela. Hala ere, azken mendean zehar emandako modernizazioak osagai nagusien (basoa, bazka, landa eta ibai lurraldea) segregazioa eman du. Laborantzak kudeatzeko egungo ereduak bere ekosistema-maila pobretzen du, ekoizpena eta prozesu naturalak bateratzeko gaitasuna murrizten du eta zenbait arazo sortzen ditu: kutsadura, ura eta lurzorua galtzea eta mikrobio-mailako biodibertsitatea murriztea. Biztanleria eta hazkundearen dispersioa handitzeak uretan eta lurzoruan eragindako presioak bere kalitatea murrizten du.

Lotura funtzionala eta lurralde-integrazioa Araba Erdialdeko biodibertsitatea babesteko gakoetako batzuk dira. Ibaien ardatzek osatzen duten natur-igarobideen sareak babestutako hainbat eremu lotzen ditu, eta azpiegitura berdea hobetzeko oinarrietako bat da, lurzoruen erabilera hobeto txertatzeko eta lurraldearen zatiketaren ondorioak arintzeko tresna modura. Igarobide horiek, baina, lurreko garraioen azpiegituren bitartez mugitzeko eremuak ere izaten dira sarri, eta ekosistemen fluxuentzako barrera garrantzitsua izaten dira. Landaredia instertzialek (irla-basoak, heskaiak, mugak, etab.) biodibertsitatea babesten dute, masak homogeneizatu eta basoen azpiegitura konplexua sinplifikatu, horregatik, horiek murrizteak habitat naturalen eta erdinaturalen kalitatea okertzea dakar. Faktore horiek, aurreikus daitezkeen klima-aldaketaren efektuekin batera, Araba Erdialdeko biodibertsitatearen kapitala babestea baldintzatzen du.

Araba Erdialdeak ondorengora aurrera egin behar du:

1. **Bere geografiaren osagai guztiak hobeto integratzea, matrize berdearen eta matrize grisaren arteko bereizketa erredukzionista saihestea.** Horretarako, lurzoru bizia mantendu behar da, kalitate edafologiko handiko eremuekin, baliabide berriztagarria osatzeko, eta ekosistemekin batera, lurraldeko fluxu metabolikoei eusteko. Era berean, eremuaren muga biosferikoen gainezkatzeko leheneratu behar da.
2. **Ingurumen-baliabideen erabileran muga biofisikoen gainezka egitea lehengoratzeko,** kategoria guztietan gainditzen baita. Baliabideen erabilera jasangarriaren erreferentziatzat % 100 hartuta, Erdialdeko Araban CO₂ emisioak % 470,6koak dira, fosforoarenak % 591, nitrogenoarenak % 399, lurzoruen aldaketak % 148n daude, aztarna ekologikoa % 274n eta materialen aztarna % 477n.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Baliabide hidrikoen kasuan da soilik % 100 baino baxuagoa, % 55. Arabako nekazaritza, ongarrien bidez, da nitrogenoaren eta fosforoaren inguruko egoeraren arduraduna.

4.1.2 Baldintzatzaile fisikoak

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala bi bioeskualdek baldintzatzen dute: Eurosiberiarra ipar-ekialdean tenperatura leunekin eta uda hezeekin, eta Mediterraneokoa hego-mendebaldean, uda lehor eta epelekin eta negu hotzekin. Morfoegituraz bezainbatean, iparraldean, Eremu Funtzionala Euskal Mendiek mugatzen dute eta hegoaldean, Toloñoko mendilerroak; erdialdean, Arabako Lautadako sakonunea eta beste mendilerro eta sakonune batzuk daude, hala nola, Urbasa eta Kodes mendilerroak edo Obarenes Mendietako mendi-adarrak.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko sare hidrografikoa Ebroko Arro Hidrografikoan dago. Lautadako ibaiak laburrak eta emari gutxikoak izan ohi dira, goi-ibarrak ahokatuak eta ibilbide bihurriak izan ohi dituzte, eta haran zabalak sortu ohi dituzte, oso garatuta dauden haran-hondo eta ibai-terrazekin. Zadorrak du paper egituratzaile handiena.

Klima-dibertsitateak paisaia aniztasuna dakar. Arabako Lautadaren landaredian harizti eutrofiko subatlantikoa da bereizgarri. Ipar-ekialdean, Aratz edo Urkilla mendi-hegalen gertuko eremuan sastrakak eta zuhaitziko karraskak daude, baita erkametzak edo haritz ilaundura ere, ordea, Urbasa-Entzia mendilerrotik gertu pagadiak eta urkidiak daude, izaera askoz ozeanikoagoa eta menditarra dutenak. Eta, hegoalderantz, erkamezti submediterraniarra dago karraskadi menditar lehorrarekin batera.

Nabarmentzekoa da pagadien estalitako azalera handia Toloñoko Mendilerroan, Kodesko mendilerroan, Andia mendilerroan, Gasteizko mendietan, Iturrieta mendietan, Urkilla mendilerroko hegaletan eta Elgeako mendilerroan. Halaber, erkamezti ugari daude Gasteizko eta Izkizeko mendietan; eta mendebaldeko eremua artadi eta garrigek hartzen dute, nahiz eta Kanpezu eta Kodesko haranetan ere badiren. Erriberako landarediaren artean Zadorraren ingurukoa nabarmentzen da.

Araba Erdialdean 145 animalia ornodun espezie daude, Euskadin katalogatuta dauden espezieen % 89. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Eremu Naturalen Sarearen barruan 4 natura-parke daude eta beste bat tramiteak egiten ari da (Gasteizko mendiak); Babestutako Biotopo 1 eta beste bat tramiteak egiten; eta 9 zuhaitz berezi. Babestutako azaleraren 31.201 hektarea hartzen ditu, probintziako azaleraren % 10,3. Natura-parke guztiek dagokien Baliabide Naturalak Antolatze Planoa dute.

Halaber, lurraldean hiru RAMSAR hezegune daude eta Natura 2000 Sareari dagokionez, Kontserbazio Bereziko 23 Eremu daude, Hegaztien babeserako 6 Eremu Berezi eta Garrantzia Komunitarioa duten 23 Toki, hau da, 79.936 hektarea daude babestuta, probintziako azaleraren % 26,3.

4.1.3 Biosferaren mugak

Arloak adierazle sozioekonomiko oso gogobetegarriak ditu, biosferen mugen gainezka egitea argia baita. A Good Life For All Within Planetary Boundaries (AGLFA-WPB) 5 metodologiaren bitartez egindako azterketak emaitza kezkarriak utzi ditu biogaitasunaren gainezka egitearen inguruan adierazle biofisiko gehienetan, eta bereziki kezkarriak dira berotegi-efektuko gasak,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

nitritoak eta fosfatoak. Horietako batzuek lotura dute ongizatearen mailarekin, industria-jardueraren garrantziarekin eta mugikortasun-fluxuen intentsitatearekin (hirigunea-industria-zerbitzuak), baina beste batzuk nekazaritzaren ekoizpen-ereduarekin daude lotuta zuzenean.



Graf 6. Araba Erdialdeak munduko mugen erreferentziako baloreen arabera duen kokapen erlatiboa

AGLFA-WPB metodologiaren hamar adierazle sozioekonomikoek adierazi dute Arabako egoera oso ona dela, mundu mailako testuinguruarekin alderatuta. Izan ere, alderaketa biofisikoaren erreferentzia ere mundu mailakoa da. Gainezkatzeko horren zati batek lurzorua erabileran izandako aldaketekin du lotura. Aldaketa nagusiak eraikita dagoen gainazala handitzeak eragin ditu (hiri-ehundura eta industriarena eta garraiorako azpiegiturak).

- Bizitzarekiko gogobetetasuna. Kapital Sozialaren Inkesta 2012. 7.06
- Bizitza osasungarriaren aurreikuspenak. Jaiotzerakoan duten bizitza osasungarriko esperantza. 74,9 urte
- Elikadura. 3.183 kcal/cap. egunean
- Saneamendua. Estalduraren % 100.
- Energia sarbidea. Biztanleen % 100ek du elektrizitaterako sarbidea.
- Hezkuntza. Biztanleen % 100ek derrigorrezko bigarren hezkuntza du.
- Babes soziala. % 89,15ek uste du babes soziala duela.
- Kalitate demokratikoa. Freedom House kalitate demokratikoaren indizea 8,08/10.
- Berdintasuna. 74,2. Gini indizea.
- Enplegua. % 92,61. Biztanleria okupatua biztanleria aktiboaren gainean.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Hala ere, metodologia horrek ez dio jasangarritasun demografikoaren arazoari heltzen.

4.1.4 Sektoreko afekzioak

4.1.4.1 *Nekazaritza eta Basozaintzako LPS*

Lurralde Plan Sektorial honen helburua da Euskadiko landa-garapena artikulatzea. Horretarako bere natura-baliabideak modu egokian antolatuko dira eta modu jasangarrian ustiatuko dira, LAGak kontuan hartuta, adibidez, 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

4.1.4.2 *Ibaien eta Erreken Antolamendurako LPS*

EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duen 449/2013 Dekretuak, azaroaren 19koak, onartuta, Lurralde Plan Sektorial honen helburua da Euskadiko ur kontinentalen azterketan eta antolaketa sakontzea. Era berean, araudiaren aldaketak eta legediaren eguneraketak sartu nahi ditu, eta Kantauriar isurialdeko eta Mediterraneoko plangintzak bateratu.


4.1.4.3 *Hezeguneen LPS*

Lurralde Plan Sektorial hau 160/2004 Dekretuaren bidez onartu zen eta gerora aldaketak izan ditu (231/2012 Dekretua eta 2011ko maiatzaren 3ko Agindua). Plan honek Lurralde Antolamenduko Gidalerroen zehaztapenak garatzen ditu, EAEko hezeguneen inbentarioaren eta sailkapenaren bidez eta antolakuntza espezifiko behar duten hezeguneetan gunen horien gaitasunaren arabera erabilerak eta jarduerak arautzearen bidez. Halaber, gomendio eta irizpide orokor batzuk ematen ditu, inbentariaturako hezegune guztiak babesteko.

4.1.5 2004ko LPParen eragina

LPPak eragin eskasa izan du ingurune-fisikoaren antolamenduan, ez duelako barne hartzen lurzoru urbanizagarri eta bere antolamenduari buruzko arauketarik. Planak lau prozesu identifikatzen ditu eta horietako batzuetan Eremu Funtzionaleko lurzoru osoa sartzen da, lurraldea babesteko prozesuan duen zaintzatik, lurraldearen eraldaketarako lurzoruen aukeraraino:

1. **Lurraldea eraldatzeko** prozesua: lurzoruaren azalera handiagoa edo txikiagoa har ditzaketen aukeren kokaguneak dira, udal-plangintzak egiten duen sailkapenaren eta kalifikazioaren arabera.
2. **Lurraldea babesteko** prozesua: ingurumenari dagokionez balio handiko esparruak barne hartzen ditu, denborak aurrera egin ahala iraunarazi beharrekoak. Urbanizazio-prozesu posibleak jasotzetik salbuetsita daude.
3. **Lurraldea birkualifikatzeko** prozesua: "Lurralde-babesaren" mende dauden horien ezaugarri berberak dituzten esparruetan aplikatzen da eta horietarako lehentasunezko ekintzak aurreikusi dira, beren izaeraren birkualifikaziora eta kontsolidaziora bideratutakoak.
4. **Baliabideak erreserbatzeko** prozesua: aurretik aipatu diren prozesuetako batean ere barne hartzen ez diren esparruak biltzen ditu. Potentzialki eraikigarriak diren lurzoruak nahiz ingurumenari dagokionez balioa duten espazioak biltzen ditu.



Graf 7. Indarrean dagoen LLPak zehaztutako prozesuak. Geuk egina

Prozesuen karakterizazio hori ez doa lurzoruen balizko izaera urbanizagarria baino harago, eta urbanizatu ezin den lurzoruari buruzko erregulazio orokorrak gomendioak edo lehendik dauden araudi sektorialetara igorpenak jasotzen ditu. Horregatik, plan orokorrak Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan oinarritu dira, eta 2014tik aurrera, nekazaritza eta basozaintzako LPSetan. Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak onartu izana eta KBE-en garapenak eragin garrantzitsua izan dute lurraldean.

4.2 Landa-habitata

4.2.1 Landa-habitat bizia izateko lurzorua da oinarritzko baliabidea

Araba Erdialdeko lurzorua bertako landa-jarduera tradizionalen oinarria da, eta landa-habitataren osasuna hura egoera onean egotearen mende dago. Lurzoruko fauna prozesu edafikoek, klimatikoek eta antropikoek baldintzatzen dute, eta ekosistema konplexuak, tokiko baldintzetara egokituta daudenak eta zerbitzu ekosistemikoak eskaintzeko gai direnak osatzen dituzte, hala nola atmosferako karbonoaren finkapena, lurzoruan harrapatuta dagoen karbonoaren zatiaren mineralizazioa, materia organikoaren deskonposizioa (ura mantentzen ere laguntzen du) edo mantenu gaien zikloaren erregularizazioa. Nekazaritzaren kudeaketa intentsiboak eta lurzorua zigilatzeak eragin negatiboa du ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuetan, biota edafikoan eragina baitu.

Araba Erdialdean lurzoruen osasuna kaltetu dute nekazaritzan erabiltzen diren biozidek eta ongarri kimikoek eta industria-eremuetatik sartu diren kutsatzaileak. Nitrogeno inorganikoaren



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ugaritasunak atmosferako nitrogenoaren finkapen-tasa murrizten du; horrek karbonoa-nitrogenoa harreman naturala aldarazten du, eta materia organiko gehiago kontsumitzen da, eta, ondorioz, lurzoruko karbono erreserba gehiago.

Lurzoruek duten karbono organikoaren batezbesteko edukia EAEkoa baino txikiagoa da (150 eta 50 tona karbono hektareako lehenengo 30 zentimetroetan). Alabaina, balio horiek erlatiboki altuak dira klima epel submediterraneoko nekazaritzako lurzoruentzat. Arkamo, Gillarte, Badaia, Elgea, Urkilla, eta Entzia mendilerroak eta Gasteizko mendiak dira Eremu Funtzionalako karbono-isurbiderik eraginkorrenak, hektareako 250 tona baino gehiago baitituzte.

4.2.2 Landa-inguruneko dinamika sozioekonomikoak

Araba Erdialdeko ezaugarri nagusietako bat da nekazaritza eta abeltzaintza jarduera, batez ere Lautadan eta Arabako Ibarretan. 2010etik aurrera, nekazaritza-lurzorua % 12 murriztu da, baina amaierako nekazaritza-ekoizpenak % 43 gora egin zuen 2010 eta 2016 artean. Beraz, lurzoruaren ekoizpenak gora egin du eta, ondorioz, baita ureztatzeko uraren eskaerak ere. Hala ere, lurra uztea arrisku bat da zenbait eskualderentzat azken hamarkadetan izandako gazteriarren emigrazio-pautak direla eta.


Emigrazioaren faktoreetako bat zerbitzu eta goi-mailako ikasketen ekipamendu-gabezia da, ondorioz, gazte asko hirietara doaz. Aurreko ikerketaren arabera, Araba Erdialdeak landa-eremutan ekipamenduak eta zerbitzuak modu nabarmenean hobetu ditu, baina hobekuntza horiek ez dira nahikoak izan biztanleria gaztearen emigrazioa eteteko. Oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak (osasuna, hezkuntza eta sozialak) lehen ordenako 13 hirigunetan pilatzen dira (Vitoria-Gasteiz) eta neurri txikiagoan bigarren eta hirugarren ordenako hiriguneetan.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren landa-eremua despokatze-prozesua bizitzen ari da, prestakuntzak eta ekipamenduak hobetzeko ahalegina egin den arren. Eskualdeko Landa Garapeneko Programetan, ebaluatzen da landa-eremuko gizarteak eta bertako lehenengo sektoreak dituen ahultasunak eta mehatxuak zuzenean lotuta daudela herritarren zahartzearekin eta, kasu batzuetan, biztanleriaren beherakadarekin. Esparru batzuek joera hori arindu arren, arazo bat izaten jarraitzen du orokorrean landa-garapenerako. Landa-biztanleriaren maskulinizazioa da beste arazo demografiko bat, batez ere lehen sektorean. Emakumezkoen emigrazioaren arrazoi gisa aipatzen da askotariko lan-eskaintza falta.

Katastroan dauden etxebizitza-kopuruaren eta Vitoria-Gasteiztik kanpo erroldatuta dauden pertsonen arteko kopurua da etxe bakoitzeko 1,74 pertsona daudela batez beste (1,02 Arabako Mendialdean eta 1,2 Arabako Ibarretan). Vitoria-Gasteizko batez bestekoa, ordea, 2,3 pertsonakoa da etxebizitzako; beraz, landa-eremuko etxebizitzaren kopuru handi bat hutsik daude edo pertsona bakarrekoak dira. Etxebizitza guztien kopurua igo egin da eskualde guztietan, baina etxebizitza nagusien kopurua jaitsi egin da Araba mendialdean eta igoera eten egin da Arratia-Nerbioin eta Arabako Ibarretan.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 8. Araba Erdialdeko eremu Funtzionalen landa-eremuko biztanleriaren adierazleak. Eusko Jaurlaritzako dagozkien sailen datuen arabera egina.

	Biztanleria osoa		Gizonen ratioa	
	2013	2020	2013	2020
ARRATIA-NERBIOI	1.604	1.577	52,18%	51,55%
GORBEIALDEA	7.667	7.649	52,89%	52,56%
ARABAKO LAUTADA	17.862	17.814	51,85%	52,02%
ARABAKO MENDIALDEA	3.287	3.047	56,04%	55,76%
ARABAKO IBARRAK	6.077	5.911	54,76%	54,66%
VITORIA-GASTEIZ	260.654	268.346	49,24%	48,73%

Graf 9. Araba Erdialdeko eremu Funtzionalen landa-eremuko biztanleriaren adierazleak. Eusko Jaurlaritzako dagozkien sailen datuen arabera egina.

	>65		<15	
	2013	2020	2013	2020
ARRATIA-NERBIOI	18,89%	19,97%	13,90%	15,85%
GORBEIALDEA	13,53%	17,79%	16,21%	14,09%
ARABAKO LAUTADA	12,53%	15,19%	16,76%	16,01%
ARABAKO MENDIALDEA	25,62%	25,43%	10,59%	10,83%
ARABAKO IBARRAK	19,42%	21,21%	12,98%	11,96%
VITORIA-GASTEIZ	17,17%	20,03%	13,07%	13,85%

Graf 10. Araba Erdialdeko eremu Funtzionalen landa-eremuko biztanleriaren adierazleak. Eusko Jaurlaritzako dagozkien sailen datuen arabera egina.



4.2.3 Kalteberetasun sozioekonomikoa landa-ingurunean

EAEko eremu zaurgarrietako bisoreak esku-hartzea behar izateko baldintzak dituzten errolda-sekzioak identifikatzeko aukera ematen du. Eremu gehienak Vitoria-Gasteiz hirian egon arren, zenbait kasutan kalteberetasun handia edo erdi mailakoa dago eremu zehatzetan. Hala gertatzen da Lagraneko udalerri-multzoari eragiten dioten errolda-sektorean. Halaber, Haranako udalerri-multzoari eragiten dionean (eremu oso zaurgarri gisa kalifikatuta dago), baita Añanako Gatzaga eta ingurua ere (zaurgarritasun handiko gisa kalifikatuta dago). Zaurgarritasun ertaina dute Gaubea, Berantevilla, Bernedo, eta Kanpezu udalerri osoek. Zaurgarritasuna kasu honetan ez da bizigarritasun-dimentsioaren araberakoa, faktore sozioekonomikoen eta irisgarritasunaren araberakoa baizik.

4.2.4 Zerbitzuak, konektibitatea eta ekipamenduak

Eremu Funtzionaleko eskualde landatarrenetan, konektibitatea eta garraio publikoko eskaintza ez da nahikoa lekuko eskaera asetzeko.

Autobus publikoko sareak (Álava Bus) 19 ibilbide eskaintzen ditu Eremu Funtzionalan, egitura erradiozentrikoarekin, Vitoria-Gasteiz hiriburutik abiatuta. Sarearen estaldura 157 gunetara heltzen da (29.741 biztanle) eta biztanleria txikiagoa duten udalerriak baztertuta geratzen dira (168 gunetan banatuta dauden 7.176 biztanle). Lineen maiztasuna egunean (lanegunak) hiru ibilbidetik hamabi ibilbidetara doa; beraz, garraio publikoko eskaintza biztanleria kopuruaren eta mugikortasun fluxuen araberakoa da, hau da, eskaeraren araberakoa zerbitzuak dira.

Ondorioz, eskaintza bat dago aukera ematen diona trakzio mekanikoko banakako garraioari, eta landa-biztanleria Araba Erdialdeko hirigune nagusiekin eta bertan bildutako ekipamenduekin lotzen ditu. Hala ere, eskualdeen biztanleriaren hedapena, batez ere Arabako Ibarretan, eta egonlekuen arteko garraio publikoko lotura urria direla eta, ikusten da garraio publikoa ez dela aukera bideragarria Eremu Funtzionaleko landa-eremuetan.

Arabako Mendialdean ez dago gaitasun handiko bide-ardatzik, Vitoria-Gasteizko ingurunearekin eta Lizarrarekin lotzen duten autonomia-erkidegoko bi errepide baizik. Arabako Ibarretan A1a dago, eta, gainera, Gaztela-Leon eta Araba arteko mugikortasunean garrantzitsua den AP-68 autopista dago.

4.2.5 2004ko LPParen eragina

2004ko LPParen jarduketa gehienak Vitoria-Gasteiz inguruko industria-jardueraren eta hirugarren sektoreko jardueraren eremuak indartzeko egituretara bideratu ziren, eta landa-eremuko arazoei tratamendu mugatua izan zuten. Alabaina, eremu horietan lurraldearen dinamizaziorako borondatezko jarduera-eremuak planteatu ziren. 2004ko plana Lurzoruari eta Urbanismoari buruzko 2/2006 Legearen aurrekoa zenez, xedapen batzuk aldatu behar izan dira eta horretarako ereduia izan da Arabako herrixken inguruko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen 2008ko zirkularra, dentsitatearen baldintzei ezarri beharrekoa.

LPParen mugak gorabehera, urbanoa den lurzoruaren zati handi batek ez ditu oraindik legezko eskakizunak edo sakabanatuta dauden hirigune txikietako baldintza urbanizagarriak betetzen. Proportzioan, gune txikiek hazteko gaitasun handiagoa dute hirigune nagusiek baino. Arabako



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

udalerrien artean, Legutiok eta Armiñonek dute soilik landa-eremu bana eta Otxandiok bi gehiago ditu. Nekazaritza eta abeltzaintzarako ustiapenerako etxebizitzarik ez dago ia, herri txikiak laborantza-eremuetatik hurbil baitaude.

4.3 Hiri-habitata

4.3.1 EAEko hiri-nodo egituratzaileetako bat

EAEko antolamenduan hutsik dauden etxebizitzaren gaitasunaren % 22 Araba Erdialdean dago.

Hirigintza-antolamenduaren inguruko UDALPLAN 2020 datuen arabera, nagusiki etxebizitzetara zuzendutako lurzoruek 4.663 hektarea hartzen dituzte, Eremu Funtzionalako % 2. Bertan 129.577 etxebizitza daude eta 41.523 eraikitzeke daude, horien artean, % 54 babes-publiko erregimenen baten mende daude. Antolamenduan aurreikusitako etxebizitzaren % 24 eraikitzeke daude.

EAEn hutsik dagoen industria-lurzoruen % 34 eta hutsik dagoen industrial-eraikigarritasunaren % 37 Araba Erdialdean dago. Eremu Funtzionalako 32 udalerrien hirigintza-antolamenduaren inguruko UDALPLAN 2020 datuen arabera, jarduera ekonomikora zuzendutako lurzoruek 3.946 hektarea hartzen dituzte, Eremu Funtzionalaren % 1,7, eta hutsik dagoen lurzorua % 40,5 da. Bernedon, Haranan eta Berantevillan horretarako kalifikatuta dauden lurzoruak erabat hartuta daude, aldiz, Lagran edo Urizaharran, eskuragarri dagoen industria-lurzoru guztia dute oraindik. Hutsik dagoen lurzoruko 1.600 hektareen % 60 Vitoria-Gasteizko udalerrian dago. Lehenengo ezarpenak nekazaritzaren, larreen, basoen eta uraren hurbiltasuna baliatuz lehengo sektoreko tokiko ekoizpenarekin lotuta zeuden, baina, gaur egun, logika hori ez da oso garrantzitsua, eta garraio-azpiegitura handiek eskaintzen duten irisgarritasunak ordezkatu du, batez ere, Miranda de Ebro, Dulantzi, Agurain eta Legutio inguruan dagoen A-1 ardatzak, baita metropolietako eskala geografikoaren logikak ere, nahiz eta Vitoria-Gasteizen kasuan ezin den esan metropolialdea denik zentsu hertsian.

Industria-lurzoru sendotuaren zati handi batek, berez, ez du jarduera eraginkorrik, eta Vitoria-Gasteizko erdiguneko eremuek biztanleria galdu dute hiri-inguruko eremuen mesedetan. Hiriak hiri-berroneratzearen bidean aurrera egin behar du.

4.3.2 Landa-inguruneko dinamika sozioekonomikoak

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak hiru Eremu Funtzional nagusien demografia dinamikoena du. Azken 20 urteetan, biztanleria % 15,9 handitu da, neurri batean Vitoria-Gasteizek jasotzen duen migrazio-saldo handiaren ondorioz.

Kokaguneen sisteman, Vitoria-Gasteiz da hirigunerik jendetsuena, eta Araba Erdialdeko bigarren hiriguneak baino 50 aldiz biztanle gehiago ditu. Beraz, desparekotasun demografiko benetan nabarmena duen lurraldea da, biztanleriaren zahartze-prozesuaren aurrean dagoena. Etxebizitzaz eta mugikortasunaz, ondorengo datuak ditugu:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

67.890	49.992	11.751
Bloke irekiko etxebizitza kolektiboak 2020ar katastroaren arabera	Etxebizitza kolektiboko etxadien ondasun higiezinak 2020an, katastroaren arabera	Familia bakarreko etxebizitzaren ondasun higiezinak 2020an, katastroaren arabera
63	10.857.514	2.052.827
Etxebizitza/biztanleko eraikitako m2-ak 2020an, eroldaren eta katastroaren datuen arabera	Etxebizitza kolektiboko ondasun higiezinaren eraikitako m2ak 2020an	Familia bakarreko ondasun higiezinaren eraikitako m2ak 2020an
85,3%	217	175
Eremu Funtzionalako etxebizitza nagusiak 2018an	ondasun higiezinengatik	Familia bakarreko ondasun higiezinengatik eraikitako m2ak 2020an
3.950	1.600	1.160
Eremu Funtzionalan ekonomia-jardueretarako 3.950 hektarea zeuden guztira UDALPLANen arabera	Eremu Funtzionalan ekonomia-jardueretarako libre dauden hektareak UDALPLANen arabera	Arabako Lautadan, ekonomia-jardueretarako 1.160 hektarea daude libre UDALPLANen arabera
180	9	1.168
Autopisten eta autobideen km-ak	Estatuko errepideen km-ak	Bestelako ohiko errepideen km-ak
103	16	% 61
Ohiko trenbideen km-ak	tren-geltoki	geltoki batetik 10 km baino gutxiagora
1.180.649	3.6	% 94,6
Arabaren egiten diren eguneroko joan-etorriak	Arabaren eguneko eta pertsonako egiten diren lekualdatzeak; EAEn, aldiz, 3 dira	Eguneko lekualdatzeetatik Araba barruan egiten direnak
% 55,1	% 30	% 6,8
oinaz Araba Erdialdean egindako joan-etorriak	automobilez Araba Erdialdean egindako joan-etorriak	bizikiletaz Araba Erdialdean egindako joan-etorriak

Azken hogeitaz urteetan, 15.990 pertsonak Vitoria-Gasteiz utzi dute Lurralde Historikoko beste udalerri batean herritartzeko, batez ere Iruña Okan (1.988), Alegria-Dulantzin (1.490), Agurainen (1.366) edo Zigoitian (1.080). Kontrakoa, guztira 11.796 pertsona heldu dira Vitoria-Gasteiz; batez ere, Agurainetik (1.227), Iruña Okatik (1.050) eta Alegria-Dulantzitik (813). Azken 3 urteotan pilatu den sarrera-irteeren saldoa 4.200 pertsona ingurukoa da, landa-eremura lekualdatzearen alde. Fluxu gehienak Vitoria-Gasteizetik Iruña Okara (hiriburutik datozen 950 biztanle), Zigoitiara (713) edo Alegria-Dulantzira (677) erregistratu dira. Arrazoiak izan daitezke etxebizitza ekonomikoagoak eta hornidura gehigarriak (aire librea, lorategia, etab.) dituzten ingurune hurbila topatzea, nahiz eta oinarritzko funtzioak (lana, ikasketak eta aisialdia) hiriburuan egiten dituzten oraindik ere. Horrek metropoliko mugikortasuna sustatzen du.

Krisiaren aurretik izan ziren etxebizitza-aldaketa ugariak bizilekurako lurzoruen kalifikazio berria estimatu zuten, eta 41.523 etxebizitza gehiago aurreikusi ziren guztira, hau da, egungo etxebizitzaren parkea % 35 handitzea. Aurreikuspen horiek ez dira bete, baina 2019an,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

salerosketan dinamismo nabarmena zegoen Armiñon, Burgelu, Zigoitia, Urkabustaiz eta Alegria-Dulantzin. Bertan, etxebizitza-parkearen % 6 baino gehiago dago salgai. Hala ere, kuadrilla periferikoenetan eta landatarrenetan, ia ez dago alokairuan edo erosketa-salmentan dauden etxebizitzak eskaerarik. Berriz ere, igarobideko herrien arteko harremanen garrantzia azaltzen da, biztanleriaz zein etxebizitzaz bezainbatean.

Hiriko biztanleak landa-eremura mugitu arren, erroldatze-datuek adierazten dute Vitoria-Gasteizko biztanleriak gora egin duela, batez ere migrazio-fluxuak direla eta. 2004 eta 2020 artean erroldak erakusten du Lurralde Historikoko hiriburuan 14.014 gehiago zirela Espainiako nazionalitatearekin eta 16.280 atzerriko nazionalitatearekin. Denbora-tarte horretan 16 eta 64 urte arteko erroldatutako Espainiako herritarren kopuruak 11.156 pertsonatan behera egin zuen. Aldiz, adin-tarte berean atzerriko nazionalitateenak 12.283 pertsonatan gora egin zuen. Aldi horretan 16 urtetik beherako eta jatorri espainiarra duten 6.816 erroldatu gehiago egon izanak, adin ertaineko murrizketarekin eta etxebizitzak aldatzekin alderatuta, pentsaraz dezake etxebizitza eraginkorraren eta aitortuaren artean bat ez etortzeak daudela, zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetzeko, esaterako hiriburuan heziketa jasotzeko. Ziurrenik, horrek ez luke eraginik izango Eremu Funtzionalako biztanleen kopuru osoan, bai ordea bertako biztanleriaren banaketan.

4.3.3 Hiri-berroneratzeko beharrak

4.3.3.1 Bizitegi-lurzoruak

Nagusiki bizitegi-erabilera duten eta hiri-berroneratzea behar duten hiri-espazioak definitzeko kontuan izan behar dira bai faktore teknikoak, hala nola etxebizitzaren energia-eraginkortasuna, bai faktore sozioekonomikoak. Oro har, pobrezia energetikoak eta antzeko fenomenoek adierazten dute eremu askorekin lotura duten aldagaiak direla.


Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sustatutako QOR c.i. Proiektuaren emaitzak 2020ko maiatzean argitaratu ziren eta EAEn 2011an egin zen hirigune zaurgarrien identifikaziorako eta geopolitizaziorako eredu eguneratu du, zaurgarritasun-egoeran dauden hiriguneen katalogotik abiatuta. Zaurgarritasunerako parametrotzat harturik eraikuntzaren egonkortasuna, bizigarritasuna, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta zaurgarritasun soziala, eta aukeren irizpidetzat, berriz, herritarren dentsitatea, 2011ko errolda-sekzioen agregazioaren arabera analisi-perimetroak planteatzen dira. Emaitzak kontsultatzeko gaitu den eremu zaurgarrien bisoreak bost zaurgarritasun-kategoria bereizten ditu, LPPren eskalan eraginkorrenak izango direla uste direnak; zaurgarritasun oso altua (batezbestekoa baino % 20 okerrago), eta altua (batezbestekoa baino % 10 eta % 20 okerrago). Mugako eraginak hobeto aztertu ahal izateko, zaurgarritasun ertaina (batezbestekoaren inguruan) ere zehaztu da; lurraldearen zati gehienak zaurgarritasun baxua edo oso baxua duenez, zaurgarritasun egoera erlatiboa du. Adierazleen bitartez aztertu izanak erakusten du Araba Erdigunean Vitoria-Gasteizen pilatzen direla hirigunerik zaurgarrienak argi eta garbi. Beste udalerrri batzuetan kategoria horietako errolda-sekzioak dauden arren, ikuspuntu urbanotik esanguratsua den bakarra Aguraingo mendebaldeko sekzioa da, gehiena urbanizatu ezin daitekeen lurzoria edo industriarako erabiltzen dena izan arren, Langarika kalearen inguruko etxebizitza-eremuari eragiten dio eta zaurgarritasun ertaina du.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Kontuan izan behar da errola-sekzioak udalerriaren arabera mugatzen direla eta lurralde osoa hartzen dutela. Horrenbestez, eremu batzuk zaugarri ageri dira etxebizitza-parametroei dagokienez, nahiz eta lurzoruen zati handi bat jarduera ekonomikorako edo nekazaritzarako erabiltzen den. Beraz, LPPrako bizileku-eremu zaugarrienak identifikatu ahal izateko, UDALPLANEN bizileku-lurzoruen geruza duten nabarmendutako errola-jatorriaren perimetroak EAEko eremu zaugarrien bisorearen arabera zaugarritasun oso altua, altua edo ertaina duten eremuekin gurutzatu dira. Eraitza jarraian aipatuko ditugun eremuak dira:



Graf 11. Vitoria-Gasteizko bizileku-eremuen zaugarritasun oso altua, altua eta ertaina. EAEko eremu-zaugarrien bisorearen eta UDALPLANen datuetatik abiatuta egin

Vitoria-Gasteizen kasuan, zaugarritasun tarte horien barruan daude alde zaharra eta alde zaharraren iparraldeko eta hego-ekialdeko auzoen zati gehienak, baita Abetxuko ere. Aipatu behar da eremu horien zati bat trenbidearen gainazalaren egungo ibilbidearen igarobidean kokatzen dela.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 12. Agurainen zaugarritasun ertaina duten bizileku-eremuak EAEko eremu-zaugarrien bisorearen eta UDALPLANen datuetatik abiatuta egina

Agurainen kasuan, termino erlatiboetan zaugarritasun handiena duten arloak hiriguneko ehunduraren proportzio garrantzitsua dira.

4.3.3.2 Jarduera ekonomikoko lurzoruen

Diagnostiko aurreko lanen jarduera ekonomikoko lurzoruen okupazio-mailaren azterketak UDALPLANen plangintza gauzatzeko inguruko datuei erantsi dizkio Araba Garapen Agentziaren datuak eta 2020an Vitoria-Gasteiz udalerriko Ehari-Gobeu, Betoñu, Gamarra, Jundiz, Gasteizko Garraio Zentroa, Uritiasolo eta Miñao Teknologia Parkeko poligonoetan egindako landa-lana. Ondorioek erakusten dute udalerriko jarduera-eremu nagusiek lurzoruen % 58,4 hartzen dutela; nabeen eta pabilioien okupazioa % 82,3 inguruan egongo litzateke. Jundizek eta Vitoria-Gasteizko Garraio Zentroak hartzen dute orubeen % 63. Eraikinek duten egoera txarra ikusita, Betoñon daude egoera txarrean, abandonatuta edo erortzeko zorian dauden nabe eta pabilioi gehien, % 6. Gainera, Gamarra, Betoñu, Ehari Gobeu eta Uritiasoloko poligonoek kutsatuta dauzkate lurzoruen % 50 baino gehiago, Gamarraren kasuan % 80 eta Betoñun % 100. Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronkaren Sailak emandako datuen arabera, Vitoria-Gasteizko Garraio Zentroa ia gainezka eginda dago, bai nabeetan, bai partzeletan; aldiz, Arabako Teknologia Parkearen okupazioa 2021eko abenduan % 75 ingurukoa zen; % 75 partzeletan, % 70 pabiloietan eta % 62 bulegoetan.

Bestalde, Araba Garapen Agentzian salgai dauden pabilioi eta partzela industrialen informazio geografikoaren sistemaren datuen arabera, 2021eko irailaren amaieran, 155 partzela inguru




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

zeuden salgai erabilera horietarako, eta haietako 98 Vitoria-Gasteizen. Duela gutxi urbanizatu direlako partzela kopuru handia salgai dituzten arloak daude, S-21 Jundizen 60 partzelak esaterako. Datu horiek bat datoz diagnostikoaren aurreko datuekin. Gainerako partzelak nahiko sakabanatuta daude eremu desberdinetan.

Nahiko kutsatuta dauden orube eta lurzoruei eta ezarpenen antzintasunari dagokionez, hiri-berroneratzerako lehenetsitako lurzorutzat hartzen dira Gamarra, Betoñu, Uritiasolo, eta Ehari Gobeuko industria-poligonoen eremuak.



Graf 13. Ekonomia-jarduerarako hiri-eremuak berroneratzeko lehentasuna duten arloak

4.3.4 Zuzkidura-sistema eta kokaguneak

Eremu Funtzionalak udalerriaz gaindiko irismena duen esleipen-sistema du eta Vitoria-Gasteizen pilatzen da argi eta garbi, baina, gaitasunak murriztagoak izan arren, beste udalerrietan ere badira egiturazko elementuak hiriguneko eta landa-eremuko herritarrei zerbitzua emateko. Funtziorik konplexuenak, esaterako, unibertsitatea eta ospitale publikoak Vitoria-Gasteizen daude. Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak Vitoria-Gasteizen eta Agurainen ditu egoitzak, osasun-etxeak daude Vitoria-Gasteizen eta Kanpezun eta kontsultategiak herritar kopuru



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

handieneko eremuetan. Bigarren hezkuntzako ikastetxeak ere biztanle gehien dituzten kokalekuetan daude. Ondorengo koadroak Eremu Funtzionalan tamainarik handiena duten kokalekuen egoera laburbiltzen du:


	<i>Lanbide- Enpleguaren Euskal Zerbitzua</i>	<i>Osasun publikoko eskualdeko zentroa</i>	<i>Osasun- zentroa</i>	<i>Osasun- kontsultategia</i>	<i>Bigarren hezkuntza</i>
<i>Vitoria-Gasteiz</i>	x	x	x		x
<i>Agurain/ Salvatierra</i>	x			x	x
<i>Alegria- Dulantzi</i>				x	x
<i>Langraiz Oka</i>				x	x
<i>Legutio</i>				x	
<i>Otxandio</i>				x	
<i>Araia (Asparrena)</i>				x	x
<i>Rivabellosa</i>				x	
<i>Murgia</i>				x	
<i>Kanpezu</i>			x		x
<i>Maeztu</i>				x	
<i>Gopegi (Zigoitia)</i>				x	

Graf 14. Biztanleria gehien duten kokaguneen zuzkidurak. Dagozkien Eusko Jaurlaritzaren sailen datuen arabera egin da.


Zuzkiduren hedadura-eremuek ez datoz bat Kuadrillen ikuspegiarekin, osasunean eta hezkuntzan agerikoa den bezala. Hori argi eta garbi gertatzen da Añanako kuadrilla-Arabako Ibarretan; izan ere, hiru osasun-eremutan daude eta Arabako Ibarrek I. osasun-eremua eten egiten da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 15. Kuadrillen banaketaren (kolore beltzeko etiketak eta mugak puntudun lerroekin) eta osasun-eremuen banaketaren (etiketa gorriak eta koloretako eremuak) gainezarpena. Goeuskadiko datuen arabera geuk egina.



Graf 16. Kuadrillen banaketaren (kolore beltzeko etiketak eta mugak puntudun lerroekin) eta hezkuntzako barrutien banaketaren (etiketa gorriak eta koloretako eremuak) gainezarpena. Eskoletako barrutiak zehazten dituen ekainaren 26ko 16/2007, Dekretuaren arabera geuk egina.



4.3.5 Ekonomia-jardueretarako eta merkataritzako ekipamenduetarako lurzoru publikoa sortzeko LPSa

2005ean onartu zen ekonomia-jardueretarako eta merkataritzako ekipamenduetarako zoru publikoa sortzeko LPSa eta 2016an aldatu zen merkataritzako ekipamenduei dagokienez. LPS honek Vitoria-Gasteizen erdigunea eta Miranda de Ebro, Bilbo, Durango, Debagoiena, Gipuzkoa eta Nafarroarantz dituen irteerak ekonomia-jarduerako eta hirugarren sektoreko garapen berriak kokatzeko lehentasunezko eremutat ditu, A-1 eta A-68 batzen dituen komunikazioen nukleoaren elkargunearekin batera, Miranda de Ebroren iparraldean. LPSk Euskadiko udalerrriak hiru taldetan sailkatzen ditu eta izaera iragankorra dute dagokion LPPan behin betiko definizioa izan arte. LPPren arlorako LPSan ezartzen diren taldeak honako hauek dira, eta hazkunde txikia eta garapen baxua duten udalerrientzat gomendagarria da eskualdeetako hirigune nagusietara bideratzen diren ekintza publikoetara bideratzea:

1. Ekonomia-jardueretarako lurzoru antolatu eta sustatzeko lehentasuna duten udalerrriak: Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka, Lantaron, Erriberabeitia, Armiñon, Berantevilla, Agurain, Donemiliaga, Asparrena. Bertan ondorengo politikak proposatzen dira:
 - a. Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzea.
 - b. Zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzea, enpresak lekualdatzeko eta hutsik dauden espazioak jarduera berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez.
 - c. Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzea, egungo poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.
 - d. Planean interes estrategiko orokorreko hartutako gunetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzea.
2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren hazkunde neurritsua duten udalerrriak: Gaubea, Erriberagoitia, Zigoitia, Arrazua-Ubarrundia, Elburgo, Alegria- Dulantzi, Arraia-Maeztu, Kanpezu, Otxandio eta Ubide. Horietan xedatzen da plangintza urbanistikoak ekonomia-jarduerarako lurzoruen hedapena gehienez ere 15 hektareakoa izango dela isurialde mediterraneoan, bertan baitago Eremu Funtzionala, betiere harrera-gaitasuna kontuan hartuz eta ingurumenean kalte esanguratsuak eragitea saihestuz.
3. Ekonomia-jardueretarako lurzoruen garapen baxua duten udalerrriak: Eremu Funtzionalako gainerako guztiak. Gutxieneko garapena duten eta landa-eremuan dauden udalerrri txikietan, ez da logikoa ikusten eraikuntza edo jarduera industrial espezifikoak ezartzea. Apur bat handiagoak direnetan, gehienez ere 3 hektareako lurzoru erabil daiteke horrelako jardueretarako.

LPSren kartografiak hauek erakusten ditu Eremu Funtzional honetan:

1. Miñaoko egungo teknologia-parkea.
2. Aireportuaren inguruan egitera iritsi ez diren enpresen zerbitzuetarako eta jarduera aurreratuetaarako bi parke.
3. Logistika-plataformak eta intermodalak Vitoria-Gasteizen mendebaldean eta Miranda de Ebroekin muga. Espezifiko aipatzen da Jundizeko plataforma intermodala, Eremu Funtzionalerako indarrean dagoen LPParen aldaketa puntuala izan baitu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

4. Garraioaren jarduerarako eta merkantziak banatzeko poligonoak Vitoria-Gasteizen mendebaldean eta Armiñonen.
5. Eskualde mailako poligonoak Legution, Agurainen, Berantevillan, Vitoria-Gasteizen eta Iruña Okan.
6. Operazio puntualak eta Udalerriaz gaindiko interesa duten industria-eremuak Gaubean, Erriberagoitian, Arraia-Maeztun eta Kanpezun.
7. Erreserba estrategikoko eremuak Lantaron eta Asparrenan.

4.3.6 Arabako Lautadako eraldaketa-ardatza: egoera

2019ko LAGek 6. artikuluan xedatzen dute eraldaketarako ardatzak direla lurralde mailako hiri-sistemaren funtsezko elementuetako bat, eta horien artean espezifikoki adierazten dute Arabako Lautadakoa. LAGen memoriak ardatz hori Langraiz Oka, Agurain eta Araia artean dagoen trenbidearen ardatzean kokatzen du eta dentsitate handiko eremuak eta jasangarriak sortzen ditu, Lautadako paisaia tradizionalak eta lurraldean dauden hutsuneak mantenduz, lurzorua kontsumoa eta sakabanatutako urbanizazioa ahalik eta gehien murriztuz. Egungo trenbidearen geltokien hiriguneak eta, beraz, ardatz hori itxuratzeko aukera gehien dituztenak dira Vitoria-Gasteiz gain, bere konplexutasunarengatik beste ardura batzuk dituelako, jarraian aipatuko ditugunak, haien indarra garatzeko baldintzatzaile nagusiekin batera:

1. Iruña Oka: udalerrak bikoiztu egin du biztanleria ia 2000tik, eta hirigune nagusiaren mendebaldea hazi da. Trenbidea oztopoa da hiriko ehundura Zadorraren ibilguarekin lotzeko, nahiz eta iragazkortasunak hobera egin duen Los Molinos kalean egokitu diren espazio publikoekin. Uholdeen arriskuen mapak ez du arriskurik erakusten, Zadorra hirigunetik gertu dagoen arren. Tren-geltokia periferian kokatzen da, baina udaletxetik eta udalerriko kontsultategitik gertu. Azken urteotan etxebizitza kolektiborako sustapen batzuk agertu diren arren, hirigunearen ehunduran familia bakarreko etxeak dira nagusi. Ez dago hurbileko harremanik ekonomia-jarduerak dituzten eremuekin. Bizileku-eremua ia guztiak hartuta daude, N-1 sektorean izan ezik, A-2622 errepidearen iparraldean. Eremu horretan 140 etxebizitza hartzeko gaitasuna dago, baina ez dago garatuta. 2018ko Plan Orokorra berrikusteko hasierako dokumentuak errepidearen iparraldean ere urbanizatu daitekeen lurzoru zabaltzeko aukera planteatzen du, baina ekialderantzago joanda, bigarren hezkuntzako instituturaino.
2. Burgelu trenbidetik gertu dagoen arren, ez du geltokirik, beraz, ardatzarekin batzeko punturik hurbilena Dulantzi du, 3 kilometrora. Azken 2 hamarkadetan, hego-ekialdean zabaltzen den eremutik handitu da eta hazkunde erlatiboa garrantzitsua izan den arren, artikulatzeko gaitasuna tamainak baldintzatzen duen korapiloa da. 2020an 174 pertsona zeuden erroldatuta. Gainera, uholdeen kartografiaren arabera, kokapenaren zati bat arriskuan dago.
3. Alegria-Dulantzi: udalerriko biztanleak bikoiztu egin dira ia 2000tik eta nukleo nagusia 1.300 biztanle izatetik 2.800 izatera igaro da. Bizileku-dentsitate nabarmena duten eremu batzuk ditu, nahiz eta hazkunde gehiena familia bakarreko etxebizitzetan izan den. Hirigunea tren-geltokitik 400 metrora dago eta erdigunean eragina dute uholde-arriskuek. Trenbidearen inguruko eremuak industrietan hartzen dituzte, baina badago ekonomia-jardueren sektorearena ez den lurzoru urbanizagarriaren 15 hektareako arloa ere (AL.34 San Pelaio) etxebizitzetan eta tren-geltokiaren artean, ez du uholde-arriskurik eta etxebizitza gehiago eta ekipamenduak egiteko eskariak bideratzeko gaitasuna izango luke, Lautada indartuz. Alabaina, trenbidearen hesiaren parean dago eta etorkizunean iparraldean ezarri nahi den abiadura handiko trena bertatik igaroko da, eta Ekialdean eta Mendebaldean industriak izanik, udalerrik kanpoko irisgarritasuna



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

trenbidea indartzearen esku dago. Indarrean dagoen plangintzak sailkatutako bizilekuen Hegoaldeko eta Ekialdeko eremu urbanizagarrien kokalekua ez da garatu.

4. Salvatierra/Agurain: udalerriko biztanleria % 20 hazi da 2000 eta 2020 artean. Erdigunean bizi dira biztanle gehienak eta horrek izan du hazkunderik handiena, hein handi batean, ekialdeko AIU 15 zabalgunea egin delako harresi historikoaren ekialdeko aldean. Indarrean dagoen plangintzan mendebaldeko hirigunearen alderako (AIU 6, AIU 7, AIU 8, AIU 9) aurreikusi diren hazkunde-arloak ez dira egin, ezta Ugarteren AIU.38 sektorerik gabeko lurzoru urbanizagarria ere, Iparraldean. Agurain Lautadako ardatzaren kokalekua da. 2020an ia 5.000 pertsona zeuden bertan erroldatuta eta etxebizitza kolektiboko eremu nahiko zabalak ditu. Geltokiaren ingurua ere horrelakoa da, nahiz eta beheko solairu gehienetan aparkalekuak daudenez, zaila den bestelako erabilerak izatea. Etxebizitzak nagusitzen diren eremuaren mendebaldean, zaurgarritasun urbanoaren baloreak gainerako eremuetan baino altuagoak dira. Uholdeen kartografiaren arabera, Santa Barbara eta Egileor erreken ertzak arriskuan daude, eta biztanle gehiago dituzten eremuei eragiteko arrisku nabarmena dute. Abiadura handiko trenarentzat aurreikusi den ibilbide berria hirigunetik nahiko distantziara dago, eragina mugatzeko moduan.
5. Albeniz/Albeiz: geltokitik 500 metrora dago eta 2000tik 2020ra, 91 biztanle izatetik 73 izatera jaitsi da. Horrek udalerritik kanpo artikulatzeko duen indarra mugatzen du, Asparrena udalerraren esparruan. Udalerririk horretako biztanleriaren hazkundera mugatua izan da 2000 eta 2020 artean. Araia, udalerriko hiriburua, % 7 hazi da eta 2020an 1.265 biztanle izatera heldu da, nahiz eta aztarna urbanoa ez den handitu ezta hazkunde-eremuen garapena ere. Geltokitik 2 kilometrora dago, beraz, trenbidearekin duen harremanak baldintzatu egiten du, onurak izateko modu bakarra bizikletaren bitartez loturak garatzea da. Uholdeen datuen arabera, Araian arriskua dago izen bera duen ibaiaren uholdeak pairatzeko. Antzinako Ajuria eta Urigoitia Fundazioak egoera txarrean dagoen industria-ondarea du bertan, baina ezaugarri bereziak ditu, itxurarengatik eta paisaian duen kokapenarengatik.

4.3.7 2004ko LPParen eragina

32.516	71.441	+18.562
16 urterako LPPren etxebizitza berrien gutxieneko atalasea	16 urterako LPPren etxebizitza berrien gehieneko atalasea	Etxeen hazkundera 14 urtetan
13	1.645	15.8
udalerririk onartu dute Plan Orokorra LPPren barruan (32tik)	Lurralde-babeserako prozesuan dagoen lurzorua km ² kopurua (% 70)	Eragiketa estrategikoetan dagoen lurzorua km ² kopurua

Graf 17. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren 2004ko LPPren inguruko laburpen-koadroa

2004ko LPPak definitzen zuen **urbanizazio-sistemak** kokaguneen sisteman hierarkizazioa zegoela zioen eta geruza hauetan banatzen zen:

1. Vitoria – Gasteizko hirigunea. Bere hazkundera eta udalerriko erakunde txikiena bermatzen du.
2. Hirigune nagusiak izateko bokazioa duten nukleoak (hiri ertainak)
 - i) Hazkunde selektiboa: Agurain eta Iruña Oka sartzen dira hemen (bigarren maila).
 - ii) Eskualde barruko interesaren hazkundera: Alegria-Dulantzi, Asparrena, Kanpezu, Legutio, Otxandio eta Erriberabeiti (hirugarren maila)



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

3. Dentsitate baxuan hazkunde lausoa izan duten hiriguneak: Arratzua-Ubarrundia, Burgelu, Urkabustaiz, Gaubea, Zigoitia eta Zuia, bizilekuen garapenean jarri dute arreta.
4. Dimentsio txikia duten hiriguneak
 - i) Egitura bereziak dituzten hiriguneak: Añana, Armiñon, Berantevilla, Bernedo, Lagran, Lantaron, Arraia-Maeztu, Urizaharra, Harana, Zalduondo, Zanbrana eta Ubide
 - ii) Biztanleria sakabanatua duten hiriguneen egitura: Barrundia, Iruraiz/Gauna, Kuartango, Erriberagoitia eta Donemiliaga.


LPPa indarrean sartu zenean, **ekonomia-jardueretarako lurzoruen azalera** zabala zegoen, ia 3.900 hektareakoa. Kopurua 100 hektarea baino gutxiago handitu da ordutik, eta lurzoru horren % 10 baino gutxiago urbanizatu da, beraz, eskuragarri dago gaitasun handi bat oraindik ere.

Plana indarrean zegoen aldian, katastroaren datuen arabera, industriarako eraikuntzak eraiki ziren Vitoria-Gasteizen batez ere eta 100 hektarea ere urbanizatu ziren bertan eta Erriberabeitin, Arasur poligonoarekin (urbanizatutako 144 hektareatik 80 okupatu dituzte). Halaber, pilaketak daude Agurainen, Iruña Okan, Legution eta Lantaronen. Guztira, Arabako Lautadak Eremu Funtzionaleko lurzoru kalifikatuaren % 75 du.

Berrikuntzarako eta ekonomia-jarduerarako lurzoruen garapena eragiketa estrategikoen 11 proposamenetan islatzen da eta ardatz logistiko handien inguruan pilatzen da batez ere. Jarduketa horien muga orientatzailea da eta ez da lurzoru zuzenean sailkatu behar, jarduketaren kokalekua orientatu baizik, orain arte ez da inolako eragiketa estrategikorik egin. Horietako 8ren barruan (OE-1, OE-4, OE-5, OE-6, OE-7, OE-8, OE-10 eta OE-11) ia 200 hektareako bizilekuen-jarduketak sartzen dira, baina ez dira garatu. Jundizeko terminal intermodalaren aldaketa puntuala da orain arte jarduketa horiei eman zaien jarraipen bakarra.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 18. Indarrean dagoen LPPren ekimen estrategikoak

	Lurzorua erabilera (Hektareak)						
	Ekoizpena-logistika	Hirugarren sektorekoa	Etxebizitzak	Hornitutako espazioa	Aireportua	Lurralde-zuzkidurak	Jardura ekonomikoak
OE-1 Subijana-Morillas / Pobes lurralde-eremua.	10	6	25	1.5			
OE-2 Iparraldeko Berrikuntza Arkua: Logistika, produkzio eta aireportuaren multzoa.	249	50			105		293
OE-3 Hegoaldeko Berrikuntza Arkua. Arabako Atea	56.1	9.9		25		2	60
OE-4 Araia hirigunea finkatzea.			36	1		3	
OE-5 Gesaltza-Bergonda-Espejoko lurraldearen artikulaziogunea.	11		30	1			
OE-6 Aguraingo lurraldea finkatzea.	112	24	32				63
OE-7 Eguiletako lurraldearen artikulaziogunea							



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

	Lurzoruaren erabilera (Hektareak)						
	Ekoizpena-logistika	Hirugarren sektorekoa	Etxebizitzak	Hornitutako espazioa	Aireportua	Lurralde-zuzkidurak	Jarduera ekonomikoak
OE-8 Izkiko ingurumenaren interpretazio zentroa.	6.7		9.9			2	
OE-9 Hegoaldeko Arkuko jarduera ekonomikoak.	93.5	13.5					210
OE-10 Peñacerrada-Urizaharreko hornikuntzarako lurralde-espazio berria			18			2	
OE-11 Santikurutze Kanpezuko garapen berriak			25.6	1			

Etxebizitzen lurzoruari dagokionez, LAGak garatzean LPPk kalifikazioaren zehaztapen lotesle bat ezarri zuen 16 urtetan, 32.516 eta 71.441 unitate berri artekoa Indarraldian zehar 19.000 etxebizitza inguru eraiki dira, gehienak 2013 arte eta batez ere Arabako Lautadan. Bertan, etxebizitzen kopurua 17.291 unitate igo da 2006tik 2018ra. Gainerako eremuetan gorakada apalagoa izan da, baina esanguratsua termino erlatiboetan, esaterako, Gorbeialdeko dentsitate baxuko garapenen kasuan.


Vitoria-Gasteizen, LPPk 8 urtetan 18.483 eta 38.391 etxebizitza arteko eskaintza aurreikusten zuen eta LPParen aurreko plangintzarekin, 12 urtetan 16.000 etxebizitza gehiago izan dira, 2000 urtean 2013ra arte eta 960 inguru ordutik. Dulantzik 205 etxebizitzarekin, Agurain 207rekin eta Iruña Oka 400ekin dira Eremu Funtzionalen artean hazkunderik handiena izan duten udalerriak eta, guztiek, Vitoria-Gasteizen modura, 2013 aurretik bizi izan dute gorakada hori. Dagoeneko adierazi dugun moduan, bizilekuaren osagaiak dituzten operazio estrategikoak, gainerakoak bezala, ez dira garatzera heldu.

LPPak ez zuen babestutako etxebizitzaren inguruko plangintza espezifikorik kontuan hartzen, indarrean zegoen legediari eutsi zion. Lurzoruaren eta Urbanismoaren 2/2006 Legeak Eremu Funtzionalen babestutako etxebizitzak areagotzea ekarri du eta 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan ere ezarri dira, legeak behartzen ez dituen arren.

Indarrean dagoen LPPren baitan Eremu Funtzionalen 32 udalerrietako 13ren plangintza orokorra onartu dira. Vitoria-Gasteiz eremuko hiri-nodo nagusia den arren, 2001ean behin betiko onartu zen plangintza orokorra jarraitzen du eta berrikusten ari dira orain.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-



Graf 19. LPPren indarraldian zehar plangintza orokorra onartu zuten udalerriak Geuk egina

4.4 Paisaia, kultura eta natura ondarea, eta baliabide turistikoak

4.4.1 Paisaia

Paisaiari dagokionez, dokumentu berriena Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Paisaiari buruzko Katalogoa da. Tresna honen bidez, paisaiaren unitateak Paisaiaren Europako Hitzarmenaren eta EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko Dekretuaren (90/2014 Dekretua) arabera kudeatzen dira.

Katalogo horren arabera, Araba Erdialdeko paisaia-unitateak hiru bloketan banatzen dira:

1. Lautada zabalak
2. Mendi-oinarriko hegalek eta ibarrak
3. Mendilerroak




Graf 20. *Araba Erdialdeko paisaia-unitateak Geuk egina, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Paisaiari buruzko Katalogoaren datuetatik*

Unitate bakoitzean paisaiaren kalitateari buruzko zenbait helburu definitzen dira, beharrezkoak baitira Paisaia Interes Bereziko Eremuetan. Eremu horiek berariazko zehaztapenak edo proposamenak eskatzen dituzte babestu, antolatu eta kudeatzeko, honako irizpideren bat edo batzuk betetzen dituztelako: berezitasuna, paisaia bitxiaren edo mehatxatuaren tipologia, kalteberatasuna, narriadura edo kalte berezia, herritarrentzat ikusgai izatea, nortasun-balioa eta/edo pertzepzio- eta estetika-ezaugarri bikainak.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 21. Paisaia-interes bereziko eremuak Geuk egina, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Paisaiari buruzko Katalogoaren datuetatik

Katalogoak zenbait Paisaia Interes Bereziko Eremu multzo identifikatzen ditu:

1. 14 PIBE (P): babes bisualeko ekintzak ezinbestekoak dira, paisaiak kalitate handia baitu edo kaltebera baita. Hauek kontzentratzen dira Lautadaren ertzetan, Baia ibaiko ibarrean eta Arabar Errioxako mugatik gertu.
 - a. Paisaia-unitate zehatzak, osotasunean proposatuta, kalitate- eta kalteberatasun-balioak dituztelako.
 - b. Paisaia-unitateen mugatan oinarritutako kokaguneak, osotasunean kontuan hartu gabe. Kalitate bikaina duten unitateak, baina haien kalteberatasun-balioak heterogeneoak dira. Kalteberatasun altua duen eremua identifikatu da, babes bisualeko neurri bereziak behar baititu.
 - c. Kokagune partikularrak, kultura, natura edo nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalako osagaiekin.
2. 12 PIBE (I): azpiegitura berdeari eta ekosistemen zerbitzuei dagokienez, paisaia naturala kontserbatzeko ekintzak behar dira. Zona altuak dira eta ondorengo talde hauetan multzokatzen dira:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

- a. Paisaia-unitate zehatzak, osotasunean proposatuta, kalitate- eta kalteberatasun-balioak dituztelako
 - b. Paisaia-unitateen mugatan oinarritutako kokaguneak, osotasunean kontuan hartu, kalitate bikaina dute, baina kalteberatasuna heterogeneoa da.
3. 9 PIBE (G): kudeaketa-ereduaren bidez kontserbazio-ekintzak gauzatu behar dira. Talde honetan sartzen dira Vitoria-Gasteizko eraztun berdea eta beste eremu aipagarri batzuk, hala nola Baiako ibaiadarrek.
 4. 5 PIBE (O): antolamendu-ekintzak behar dira, egungo balioak eta/edo etorkizuneko balizko lurralde-dinamikak kontuan hartuta. Eremu hauek Miranda de Ebro-Vitoria-Gasteiz-Altsasu komunikazio-ardatzetik gertu daude, eta antropizazio-maila garrantzitsua dute, bai orain, bai etorkizunari begira.

4.4.2 Kultura eta natura ondarea

Kultura ondarea oso sakanabatuta dago, kontzentrazio zonal argiak egon arren. Araba Erdialdea ondare-balio handiko lurraldea da, bai higiezinetan, bai immaterialetan, Euskal Kultura Ondarearen 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen sailkapenaren arabera. Ondare horrek babes bereziko eta ertaineko ondasun kultural gisa aitortutako elementu asko biltzen ditu, hala nola monumentu multzoak, Alde Zaharretako edo Zadorrako zubietakoak, adibidez. Horietan biltzen dira 37 kultur intereseko ondasun aitortu eta beste hainbat elementu, izendatuta ez egon arren, hala nola Alegría-Dulantzi edo Otxandioko hirigune historikoak, arkitektura erlijioso anitza, Zadorrako zubien multzoa edo Añana Ibarreko kultur paisaia. Ondasunak lurralde guztian zehar banatzen dira, nahiz eta zenbait kokagune eta eremu ezagunak diren, besteak beste, Vitoria-Gasteizko hirigune historikoa edo Jundiz mendiko ingurunea Iruña-Veleiako aztarnegiarekin edo Zadorraren gaineko Billoda eta Trespuentes zubiak. Erromes-ibilbideek (Euskadiren barnealdeko Donejakue bidea edo Inaziotar bidea) elementu horien zati garrantzitsu bat ardazten dute.

Ondare immaterialean sartzen dira euskara, herri-tradizioak eta -ohiturak, hala nola Alegria-Dulantziko jaiak edo Agurain/Salvatierra eta Zalduondoko landa-inauteriak. Añanako Gesaltzetan Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) herritarren egiteko modua Munduko Nekazaritza Ondare aitortu du.

4.4.3 Baliabide turistikoak

Orain arte gutxi garatu den turismo-eredua. Eremu Funtzionalean egungo turismo-ereduaren arabera, % 92 nazio mailako turistak dira (guztien % 42, Kataluniakoak eta Andaluziakoak). Oporraldietan Euskadira etortzen dira, eta etenaldi laburra egiten dute Vitoria-Gasteizen, gaua pasatuta edo gabe, beraz, orokorrean, bisita hirigune historikora mugatzen dute. Hala, batetik, batez ere abuztuan etortzen dira eta, bestetik, jomugan gutxi gastatzen dute. Gainera, asko erabiltzen dute ibilgailu pribatua, eta ostatua turismo-etxebizitzatan gorantz doa. Faktore horietan guztietan oinarrituta, turismo-enplegua kalitate baxukoa da, diru gutxi uzteaz gain. Hiria nodo ekonomikoa denez, bileretako turismoa ere garatu da, baina Arabako Lurralde Historikoa batera hartuta, EAEko ostatu-plazen % 15era doi-doi iristen da, eta plaza ia guztiak Eremu Funtzionalean eta, batez ere, Vitoria-Gasteizen daude.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Arauz guztira 4.674 ostatu-plaza ageri dira eta gutxi gorabehera alokairuko etxebizitzaren beste 1.500 erantsi behar zaizkie, azken urteotan asko hazi baita sektore hori. Gehienak Vitoria-Gasteizen kontzentratzen dira eta gentrifikazio-arazoak ekar ditzakete, nortasuna galtzearekin batera. Bestalde, Eremu Funtzionalan bigarren bizilekuko etxebizitza gisa 26.680 plaza daude, eta aisialdiko jarduera islatzen dute, gehienetan Araba Erdialdeko egoiliarren beraien aisialdiari lotuta.

Bien bitartean, turismoa Eremu Funtzionalako gainerako tokietan natura, kultura eta/edo etnografiako ondarearekin zerikusia duten baliabideetara mugatzen da. Horiek guztiak Arabako egoiliarrek edo probintzia mugakideetako turistek bisitatzen dituzte, gehien bat.

4.4.4 2004ko LPParen eragina

Turismoari dagokionez, indarrean dagoen LPPak ekintza estrukturalak proposatzen ditu, lurraldean mugikortasuna egituratzeko eta naturan oinarritutako turismoa sustatzeko helburuarekin. Honakoa proposatzen da:

- Baia ibaiko tren-ibilbidea (AE-3): lehendik dagoen trenbide-azpiegitura aprobetxatu nahi du zientzia, kultura eta aisialdiko ibilbidea sortzeko.
- Ipar-mendebaldeko ibilbide alternatiboa (AE-8): helburua da natura-parkearen inguruan turismoa bultzatzea.
- Beste batzuekin osatu nahi da, besteak beste, Euskadi-Nafarrokoarekin, eguneko turismoa dezente dinamizatu baitu. Bakoitzean lagundu duten neurriak aipatu beharko dira.
- Euskadi-Nafarroa trenbideko bide berdea, AE-6.


4.5 Baliabideen kudeaketa jasangarria

4.5.1 Baliabide hidrikoak eta azpiegitura hidraulikoak: hornidura-sare zatikatua, Vitoria-Gasteizen bakarrik egituratzen da

Araba Erdialdean baliabide hidriko garbiak ugariak dira: 1.055 hm³/urte (ebapotranspirazioa eta infiltrazioa barne). Azpimarratzekoa da baliabide guztiak ez direla probintzian aprobetxatzen, zenbait baliabide Kantauri-isurialdera pasatzen baitira. Baliabide hidriko guztietatik 200 hm³/urte inguru Nerbioko Barazarreko zentral hidroelektrikoan energia ekoizteko erabiltzen dira, eta horietatik 153,5 hm³/urte gero, sistemara bueltatzen dira Bilbo Handiko giza eta industriaren horniduran erabiltzeko.

Ebroko Plan Hidrologikoan azaltzen diren datuetatik abiatuta, zorupean 475 hm³ baliabide hidriko daudela uste da, beraz, Araba Erdialdeko zorupeko ur masek probintziako baliabide hidrikoari ekarpen handia egiten diote. Horrenbestez, oso garrantzitsua da urak kudeatzean zorupeko ur masak babestea.

Baliabide hidrikoak lortzeko iturriei dagokionez, nabarmendu behar da Urrunaga-Uribarri urtegien sistema. Zorupeko hodi baten bidez konektatua daude elkarri, eta guztira 219,2 hm³-ko ekarpena egiten dute (Uribarrik 147,2 hm³-ko edukiera du, Urrunagakoak, ordea, 72 hm³-koa).




57



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Zadorrako arroaren balantze hidrikoa




Graf 23. Zadorra arroko balantze hidrikoa Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurreiazko azterlanak eta diagnostikoa.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Baia arroko balantze hidrikoa




Graf 24. Baia arroko balantze hidrikoa Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurreiazko azterlanak eta diagnostikoa.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Jugalez arroko balantze hidrikoa




Graf 25. Jugalez arroko balantze hidrikoa Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurreiazko azterlanak eta diagnostikoa.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Omeçillo arroko balantze hidrikoa



Graf 26. Omeçillo arroko balantze hidrikoa Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurretiatzko azterlanak eta diagnostikoa.

Arabako herritarren hornidurarako baliabide hidriko gehiena Uribarri-Ganboa, Urrunaga eta Albina urtegietatik dator. Gainera, 300 ur-bilketa hidrauliko baino gehiago daude iturburu eta zorupeetatik lortuta. Azkenik, nekazaritza eta abeltzaintza hornitzeko putzuetako ura gehitu behar da (120 puntu baino gehiago). Aipamen berezia merezi du, garrantziagatik, Subijanako akuiferoak 70hm³ baino gehiagorekin, Autonomia Erkidego osoko urpeko uraren erreserba handiena baita. Zadorrako urtegiaren horniketarekiko alternatiba gisa baliabide estrategikoa da ur gutxi denerako. Edateko ura tratatzeko, edateko uren tratamendurako zenbait estazio eta klorazio-instalazio daude, eta arestian aipatu diren hornidura-azpiegiturak osatzen dituzte. Horrez gain, Eremu Funtzionalan zehar banatuta 300 ur-biltegi baino gehiago aurki daitezke (183.000 m³). 2016-2026rako Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzaileak aipatutakoaren arabera, lurraldeko zenbait eremutan hornidura bermatzeko gabezia puntualak daude. Horiek batez ere Zuia eta Urkabustaiz udalerriei eragiten diete,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Gorbeialdean, eta ekialdeko Lautadaren eremuari, Agurain eta Araia izanik kontsumitzaile nagusiak, bertako industrialdeekin batera.

Bi kasuetan ere, uren arloan eskumena duen agintaritzak Baia eta Zirauntza erreketarako ezarritako ur-emari ekologikoak errespetatzearekin lotuta dago baliabidearen bermearen arazoa.

Saneamendu-azpiegituraren diseinuak eta dimentsioek arazoak dituzte, batik bat, arazteko sistemetan. Hori guztia larriagotu da azpiegiturak kudeatu eta mantentzeko zailtasunak baitaude, Arabako administrazio-antolaketan funtsatuta. Administrazio Batzarrek berariazko eskumenak dituzte. Aspaldiko urteetan ur zikinak eta euri-urak bereizten esfortzu handia jarri den arren, gaur egun oraindik ere arazketa-sistemetara ur garbien fluxu handia iristen da, eta horrek, dakartzan arintzeengatik ingurumenari eragiteaz gain, kalte egiten dio arazketa-prozesuari berari eta haren eraginkortasuna murrizten du.

Eremu Funtzionalaren arazketa-arazo garrantzitsuena, Vitoria-Gasteiz alboratuta, Alegría-Dulantzin identifikatzen da; alde batetik, neurri handi samarreko herria delako, eta bestetik, haren isuriak bideratuak direlako, Dulantzi ibaiko kanalaren bidez, Uribarri-Ganboa urtegitira, eta hura hornidura-iturri gisa erabiltzen da.

Arazketaren errendimendu ona eta ustiaketaren erraztasuna dela eta, eta gainera mantentze-kostu baxuak dituztenez, azken urteetan hezeguneetan oinarritutako arazketa-sistemak instalatzearen alde ari dira egiten Arabako herrigune txikietan.

Aurrez aipatutako arazoak larritu egiten dira azpiegitura horiek kudeatzean eta mantentzean izaten diren zailtasunekin; izan ere, Arabak duen antolaketa administratiboa Administrazio Batzordeen eskumenetan oinarritzen da. Kudeaketa- eta mantentze-sistema bera erabiltzen da ur-hornidurarako. Lurraldeko erakunde kudeatzaileen kopurua murrizteko eta baliabidearen erabilera arrazionalagoa lortzeko, eta hala, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta teknikotasuna handitzeko, Arabako Ur Partzuergoa, URBIDE, sortu zen 2019an. Bertan, Arabako 104 erakunde daude.

Hornidurari eta saneamenduari buruzko gabeziak zuzentzeko, 2016-2026rako Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzaileak jarduketa ugari ditu. Jarduketa horiei esker, sistemak hobetuko dira, eta baliabide hidrikoen kudeaketa jasangarriagoa egiten lagunduko da. Edonola ere, Plan Zuzentzaile horrek altan dauden sistemei soilik egiten die erreferentzia, Vitoria-Gasteiz salbu, eta badira tokiko erakundeek exekutututako uraren ziklo integralaren inguruko bestelako jarduerak eta beharrak ere. Gehienetan tokiko erakundeek kanpoko batez ere Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreaka Saileko laguntza eta dirulaguntzen bidez gauzatzen dituzte horiek.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

4.5.2 Energia-azpiegiturak: petrolioaren kanpo-horniketaren mendekotasun handia.

Araba Erdialdeak energia garraiatzeko sare nabarmena du. Elektrizitatea garraiatu ahal izateko, sareak 23 linea elektriko (400 kV-ekoak eta 220 kV-ekoak) ditu, eta guztira 7 azpiestaziorekin osatzen dira.


Baliabide berriztagarrien bidez energia ekoizteaz bezainbatean, Araba Erdialdeak ondoko ezaugarriak azaltzen ditu:

- Zentral hidroelektrikoak dira instalazio ohikoenak Araba Erdialdean. Araba Erdialdean 11 zentral hidroelektriko daude (guztira 33,7 MW-eko potentzia instalatua), eta horiei, gainera, Barazarreko zentral hidroelektrikoa (84 MW) gehitu beharko genioke, Eremu Funtzionala hornitzen baitu, lurraldetik kanpo egon arren.
- Haize-energiaren bidez Elektrizitatea sortzeko dagokionez, Araba probintzian bi haize-parke daude: Elgea-Urkilla haize-parkea (32,3 MW) eta Badaiaiko haize-parkea (50,1 MW). Gaur egun, beste lurralde batzuen antzera, Araban eztabaida-prozesuak daude haize-parke berriak instalatzeko proposamenen gainean.
- 5 planta fotovoltaiko aurki daitezke, baina eragin txikia dute Araba Erdialdeko energia-panoraman. Duela gutxi, ARASUR industriagunean EAEko parke fotovoltaikorik handiena, Ekian izenekoa, gehitu zaie, eta guztira 24 MW-eko potentzia instalatua du, 55 hektarea inguru hartzeaz gain. Gainera, argitaratutakoari jarraikiz, Euskadiko energia-fotovoltaikoko parke handiena (Ekieneako parkea) eraikiko da ARASUR industriagunean bertan, eta 160 hektarea okupatuko ditu urtean 178 Gwh sortzeko.

Hurrengo grafikoan energiaren ekoizpen-iturriaren eta azken kontsumoko sektorearen arteko egungo banaketa ikus daiteke. Gaur egun energia-iturri nagusia petrolio da, garraioari estuki lotuta. Beraz, energia-iturri jasangarrietarantz aldatzeko prozesuan petroliorik erabiltzen ez duten erregai alternatiboko garraio-moduak eta garraio kolektiboaren moduak erabiltzea sustatu beharko da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-



Graf 27. Energia-kontsumoa Araba Erdialdean. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurreiazko azterlanak eta diagnostikoa.

4.5.2.1 Eremu honek iturri berriztagarrietatik abiatuta energia sortzeko ahalmen handia du, baina hidrokarburoekiko mendekotasuna altua da.

Araba Erdialdean eguzki-orduak urtean 1.700 eta 2.200 artean mugitzen dira, EAEn Arabar Errioxaren atzetik bakarrik. Euskalmeten datuen arabera, baliabide energetiko hau gorantz doa iparraldetik hegoaldera, baina argi eta garbi urte-sasoia baino dago, zuzeneko irradiantzia abenduan $0,68 \text{ kWh/m}^2$ -koa baita eta $4,07$ koa uztailean. Haize-baliabidea Arabako Mendialdeko, Gorbeia inguruko mendietako eta Arabako Lautadako eremuetan kontzentratzen da, hain zuzen ere, gunerik altuenetan. Lurzorutik 80 m -ra batezbesteko abiadurak 7 eta $7,5 \text{ m/s}$ artekoak dira. Horrez gain, basoko biomasa aprobetxatzeari dagokionez, lurraldeak ahalmen garrantzitsua du; EAEn energia berriztagarriaren kontsumoaren % 54 da, eta zati adierazgarria Araba Erdialdean ekoizten da. Energia hidroelektrikoa historikoki garrantzitsua izan da eremuan, eta gaur egun azpimarragarria da Barazarreko zentrala. Eremu Funtzionaletik kanpo dago, baina Zadorra arroto Arratiakora eramandako baliabideek elikatzen dute. Emaria 30.000 l/s -koa eta instalatutako potentzia 84 MW -ekoa da.

Dena den, lehen sektorea eta garraioaren % 90 petrolioaren eta haren deribatuen mende dago, eta industriaren sektorean energiaren azken kontsumoaren % 50 eta etxebizitzetako % 45 gas naturalaren eta haren deribatuen baitakoa da. Elektrizitatea guztizko horniduraren % 37 ra baino



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ez da iristen eta zuzeneko erabileraren % 5 bakarrik (garraio-sare penintsularrean isuritakoa kanpo) dator iturri berriztagarrietatik, neurri handian biomasatik.

4.5.2.2 *Dagoen etxebizitza-stocka eraginkortasun energetikoaren hobi gisa*

Araba Erdialdeko bizitoki-sektoreak gaur egun urtean gutxi gorabehera 83 ktep kontsumitzen ditu berokuntzarekin (guztia % 52,5) eta beste erabilera energetiko batzuekin. Dauden etxebizitzetan eraginkortasuna hobetzeko zenbait jarduketari esker, murrizketa garrantzitsuak egin litezke. Jarduketa horiek bat datoz hiri-berroneratzearen eta energia-birgaikuntzaren eremuko Europako eta Estatuko politikekin, eta inguratzaileetan nahiz sektore energetikoetan jardungo litzateke. Egungoarekin erkatuta, berokuntzaren kontsumoa % 22 gutxitzeko aukera legoke. Egungo energia-kontsumoari eta kontsumoaren balizko murrizketari buruzko datuak aztertzen badira, familia bakarreko landa-etxebizitzetan parkean egingo luke behera gutxien (% 45 baino ez); bien bitartean, familia askoko landa-etxebizitzetan eta hiriko familia bakarrekoetan nahiz kolektiboetan, % 90 murriztuko litzateke. Guztira hartuta, % 78 jaitsiko litzateke.

4.5.3 Hondakinen azpiegiturak

Hondakinez bezainbatean, horiek tratatzeko eta kudeatzeko instalazio nagusiak Vitoria-Gasteiz inguruan daude. Gardelegiko udal-zaborteak hainbat hondakin mota jasotzen ditu, araztegiak lohiak eta I eta II motako industria-hondakin inerteak barne. Birzikla ezin daitezkeen hondakinak Jundizko tratamendu biologiko eta mekanikoko plantara, Arabako Lurralde Historikoko ontzi arinak sailkatzeko plantara edo eraikuntza- eta eraipen-hondakinak tratatzeko plantara eramaten dira. Halaber, Eremu Funtzionalean zazpi puntu garbi daude, arestian aipatu diren hondakinen instalazioak osatzeko.

4.5.4 Ekonomia zirkularra garatzeko potentziala

Ekonomia zirkularraren kontzeptupean baliabideen erabilera optimizatu nahi da urrezko lau arauen (murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu) sistemaren bidez. Gainera, helburua da ingurumen, osasun eta klimarekiko inportazioak, hondakinak eta kanpoko faktore negatiboak murriztea.

2015. urteaz gero, Europar Batasunak zenbait plan eta araudi egin ditu Europako ekonomia zirkularra sortzeko. Europar Batasuneko Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plan Berria 2020an onetsi zen, eta honako hauek biltzen ditu: Europako Itun Berde Berriko, Plastikorako Europako Estrategiako eta Substantzia Kimikoen Jasangarritasunerako Estrategiako helburuak.

Erkidego mailan Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia egin zen, eta 2030. urterako hiru helburu nagusi zehazten ditu.

- Material-ekoizpena % 30 handitzea.
- Material zirkularraren erabilera-tasa % 30 handitzea.
- BPGd-aren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 30 gutxitzea.

LAGek lurralde-plangintzan ekonomia zirkularra sartu dute bi ikuspuntu baliatuta: hondakinak kudeatzea eta lurzorua baliabide gisa hartzea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Hondakinak kudeatzeari dagokionez, LAGek 2020rako Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketako Planean garatu diren estrategiak txertatuko dituzte. Hondakinak gertuko instalazio egokietan tratatuko dira, eta eraikuntza-materialen jasangarritasun-eskakizunak eratu beharko dira, hondakinen azpiegiturei buruzko lurralde-plan sektorialetan ekonomia zirkularra sartzeaz gain.

Lurzorua baliabide gisa hartzeari dagokionez, lurzoruaren okupazioa eta haren kutsadura kudeatzeko proposamenak egiten dira. LAGen arabera, lurzorua funtsezko baliabide mugatua da ekosistema-zerbitzuak eta ingurumen-kalitateak betikotu eta, bide batez, ingurumena eta giza osasuna babestu nahi badira. Beraz, lehentasuna eman behar zaie hiri-lurzorua eraberritu, birziklatu, berreskuratu eta berrerabiltzeko jarduketei lurralde-plangintzan dauden azpiegituren aldean, eta erabilera planifikatuko da lurzoruaren kalitatearekin bat eta lurzoruaren kutsadurak giza osasunerako eta ekosistemetarako dituen ondorioak kontuan hartuta. Halaber, ikerketak egitea proposatzen da saneamendu-beharrei buruz edozein hirigintza-jarduketa egin behar denean eta bereziki hiria berroneratzera jotzen denean.

Gidalerro horiek funtsezkoak dira ekonomia-jardueretarako lurzorua hornitzeko edozein proposamen egitean.

4.5.5 2004ko LPParen eragina

2004ko LPPren ingurumen-arauketa, batez ere basoa kudeatzeari, akuiferoen kalteberatasunari eta baliabide mineralei dagokiena, ekonomia zirkularren kontzeptutik hurbil dago, eta hondakinak kudeatzea eta lurzoruaren kalitatea hobetzea ditu hizpide.

Ildo horri eutsiz, baliabide urri gisa lurzoruari buruzko ideiak ditu eta azaltzen du Araba Erdialdeak zenbait industriagune dituela, eta beste lurzoru batzuen aldean lehentasuna izan behar dutela erabili edo urbanizatzeko orduan.

4.6 Mugikortasuna eta logistika


4.6.1 Errepideko, trenbideko eta aireko mugikortasuna

Errepidea da Araba Erdialdeko motor bidezko mugikortasunaren protagonista, ibilgailu pribatuak batez ere, nahiz eta lekualdatzean % 61,9 oinez edo bizikletaz egiten diren. Autoz egiten dira lekualdatzeen % 30, eta hiri barruko eta hiri arteko autobusarekin % 4,5. Horrek berotegi-efektuko gas ugari isurtzen ditu, batez ere goi-ordokiaren eta Frantziaren arteko ibilgailu astunen trafikoarengatik.

180	9	1.168
Autopisten eta autobideen km-ak	Estatuko errepideen km-ak	Bestelako ohiko errepideen km-ak
103	16	% 61
Ohiko trenbideen km-ak	tren-geltoki	geltoki batetik 10 km baino gutxiagora
1.180.649	3.6	% 94,6
Arabaren egiten diren eguneroko joan-etorriak	Arabaren eguneko eta pertsonako egiten diren lekualdatzeak; EAEn, aldiz, 3 dira	Eguneko lekualdatzeetatik Araba barruan egiten direnak




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 28. Mugikortasunari eta logistikari buruzko laburpena. Iturria: Geuk egina.

Araba barruko lekualdatze asko eskualdean bertan izaten dira eta protagonismo berezia dute Vitoria-Gasteiz eta Arabako Lautadaren arteko harremanek.

Ondorengo grafikoan Araba Erdialdeko LPPak aztertu dituen eremu bakoitzaren ibilgailuen eta biztanleen kopuruaren arteko harremana ikus daiteke. Baliorik handienak Araba mendialdeko eta Arabako haranen artean daude, unitatea apur bat gainditzen baita bertan. Gainerako eskualdeak 1en azpitik daude, eta nabarmendu beharra dago Lautadak duen balio baxua, eta bertan sartzen da Vitoria-Gasteiz, garraio publikoaren sistema eraginkorra izanik.



Graf 29. Araba Erdialdeko ibilgailu/biztanle ratioa Iturria: Geuk egina

Garraio publikoaren mugikortasunari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak 19 autobus-linea ditu eta Vitoria-Gasteiztik konfigurazio erradiala dute. Gainera, **zerbitzu bereziak ere baditu:**

- Bakarrik edo adin txikikoekin bidaiatzen duten **emakumeentzako gaueko zerbitzua**.
- **Eskatutako eguneko zerbitzua**, garraio publikorik ez duten udalerriak dagoeneko badauden geltokiekin lotzen dituen.




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Vitoria-Gasteizko tranbiaren zerbitzua tokikoagoa da, baina ekarpen handia egiten dio barneko mugikortasunaren antolaketari eta gauza bera espero behar da Autobus Elektriko Adimendunaren partetik. Zerbitzua 2021 amaieran hasia espero da.

Gainera, aldirietako eta distantzia erdiko trenen 15 geltoki daude Miranda de Ebro-Altsasu eta Miranda de Ebro-Bilbo ibilbideetan. Egungo trenbideen loturak areagotu egingo dira Burgos eta Nafarroa lotzeko abiadura handiko trenaren proiektuekin, oraindik azterketa informatiboa egiten ari badira ere, eta Vitoria-Gasteizko lurperatzearen eta dagoeneko eraikita dagoen euskal Y-aren zatiaren loturarekin. Horrek nabarmen murriztuko du bidaiaren denbora.

Ohiko garraio publikoaren zerbitzuak Eremu Funtzionalako 155 kokalekuri eskaintzen dio zerbitzua, hau da, 29.371 biztanleri. Gainerako kokalekuek, 7.546 biztanlerekin, eskaeren bidezko garraio-zerbitzua dute eskuragarri.



Graf 30. Hiriarteko garraio publikoaren fluxuak 2018an. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa.

Hiriarteko eskalan, fluxurik garrantzitsuenak, 2018ko datuen arabera, Amurriorekin (149.000 bidaia baino apur bat gehiago), Miranda de Ebroekin (125.000 baino apur bat gehiago) eta Logroñorekin izan dira (122.000 inguru).

Mugikortasun elektrikoko sare bat (txirrindulari elektrikoa, patineteak, etab.) garatzeko aukera ematen duten nodo intermodalak konfiguratzeko ahalmena dago, egungo autobus- eta trenbide-sareak osatzeko. Horrela, garraio publikoaren aukera indartu bat eskaini ahal izango da, automobilarekiko mugikortasun biguneko beste modu batzuekin batera erabiltzea erraztuko duena.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

4.6.2 Logistikaren inbrikatzea tokiko ekoizpen-sisteman

7.488	% 59,2	% 49,5
Araban ekoiztako eta barneko merkatuan komertzializatutako milioi euroak	Araba Erdialdeko produktuen balioetatik Euskaditik kanpo komertzializatzen dira	Araba helmuga duten ondasunen balioetatik Euskadi kanpotik datoz
6.85	% 53,2	% 44,8
Araban ekoitzi eta barne merkatuan komertzializatu diren produktuen milioika Tm	Araba Erdialdeko produktuetatik Euskaditik kanpo merkaturatzen dira	Araba helmuga duten ondasunetatik Euskadi kanpotik heltzen dira

Araba jatorri/helmuga duten barne-merkatuaren merkantzien fluxua 14,4 milioi Tm dira eta, funtsean, EAEko gainerako lurraldeekin, Nafarroarekin eta Burgosekin ezartzen da. 2008ko krisi ekonomikoak 2010 eta 2017 artean errepide bidezko merkantzien fluxua % 10,7 murriztea ekarri zuen arren, 2014tik susperraldiaren sintomak hauteman daitezke, krisiaren aurreko balioetara oraindik heldu ez den arren.

Araba Erdigunean industria-jarduerak duen garrantzia faktore bereizgarria da eta tamaina handiko enpresa esanguratsuen beharrak barne hartzen ditu, hala nola Mercedes Benz, Michelin, Aernnova Aerospace, PepsiCO, BHS, etab. Enpresa horiek lurraldearen kokaleku geoestrategikoa baliatzen dute. Industriei lehengaiak hornitzeak eta haien produktuak beste merkatuetara eramateak sustatu ditu logistika-funtzioak. A-1/AP-1 autobideak, Vitoria-Gasteizko aireportuak eta trenbidearen ardatzak gune logistiko garrantzitsua osatzen dute eta erreferentzia Vitoria-Gasteizko Garraioaren eta Logistikaren Zentro Intermodala eta etorkizuneko plataforma multimodala eta trenbideko autopista dira. Horiek nabarmen hobetu dute Vitoria-Gasteizko periferiako industrialdeetako industria-fabrika eta enpresa handien produktuak garraiatzeko gaitasuna. Jundizeko intermodal geltoki berriak eta trenbidearen autopistarekin duen loturak errepide bidezko garraioa trenbideetara pixkanaka aldatzen lagun dezake.

Bestalde, Eremu Funtzionalera logistikako ehundura garrantzitsua dago, 1.315 enpresa ingururekin, gehienek tamaina txikia dute eta horietako % 88 errepidearekin dago lotuta.

Faktore horien guztien ondorioz, Araba Erdialdeak iberiar penintsulako bigarren mailako nodoen arteko eskaintza multimodal osoagoak hartzea pentsa dezake, Atlantikoko ardatzaren barruan eta aireko garraioa garatzeko indarrarekin. Gainera, Arabak tradizio eta esperientzia nabarmena du ekonomia-jardueren lurreko politikak garatzeko, oro har, eta logistikak espezifikoki, eta esperientzia du sustapenean aritzen diren esku-hartze agentzietan. Izan ere, hori izan behar da paradigma berrien pean garapen logistikoa edo industrialari laguntzeko etapa berri baterantz joateko abiapuntua.

4.6.3 Errepideen, trenbideen eta aireportuen logistika


Arabako merkantzien garraiorako sarea gehienbat errepide bidezko ardatzen bitartez dago antolatuta, eta trafikoaren ardatz nagusiak A-1 autobidea (Iparraldeko Autobidea), AP-68



Araba Erdialdeko Ereku Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

autopista (Euskadi-Aragoi autopista) eta N-102 eta N-104 errepide nazionalak dira. Horiek tokiko eta eskualdeko sarean bitartez osatzen dira.



Graf 31. Bide-sistema nagusia. IGN/GeoEuskadiren datuen arabera egina.

Garraio-azpiegituren terminoetan, Araba historikoki Iparraldeko-Hegoaldeko merkataritza-fluxuen erreferentea izan da, eta, egun, protagonismo berezia dute errepideko garraioek, aldiz, trenbide bidezkoak oso ekarpen txikia egiten dio erkidegoko merkantzien garraioari.

Zenbait proiektuk, hala nola **Jundizko Terminal Logistikoak**, Frantzia iparralderaino doan trenbide-autobide batera sartzeko nodo gisa, eta hainbat proiekturen arteko elkargunearen bidezko **abiadura handiak** trenbide-fluxu horiek indartzen lagunduko dute, errepideko garraioa arrazionalizatzea ahalbidetuko duten aukera desberdinak irekitzeko aukera eskainiz, eta, horrela, lurraldean garraio modu horren inaktuak murriztea lortzeko. Abiadura handiaren kasuan, EAEko iparralderako ibilbidearen zati bat egina dago dagoeneko eta Burgosekin eta Nafarroarekin izango dituen loturen azterketa informatiboa egiten ari dira, baita Vitoria-Gasteizko egungo trenbidearen ibilbidea lurperatzeko proiektuak ere. Nafarroarekin izango duen loturaren kasuan, azterketa informatiboan proposatutako aukera, Aurrerakin honen ondorioetarako kontuan hartzen dena, lautadatik igarotzen da, egungo Vitoria-Gasteiz-Altsasu trenbidearen antzeko ibilbidea eginez, EAE- Nafarroa Gipuzkoatik barrena lotzeko beste aukera baten aurrean.

Araba jatorria edo helmuga zuten eta **errepide** bidez garraiatu ziren merkantzia guztien artean tonen erdia baino apur bat gehiago eskualdeen arteko garraioak izan ziren (tona guztien % 54,5).

Bestalde, **aire bidezko garraioari** dagokionez, Vitoria-Gasteizko aireportua laugarren (4) lekuan dago estatu mailan merkantzien garraioari dagokionez, eta gehienbat Europar Batasuneko



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

herrialdeetara eramaten ditu produktuak, batez ere, Alemaniara (% 36), Portugalera (% 13,4) eta Belgikara (% 11,2).

KARGA EREMUA 2018KO APRILIA (%)				
Aireportua	APRILIA		URTARRILUA/APRILIA	
	Kilogramak	%2018/2019	Kilogramak	%2018/2019
Madrid - Barajas	44.609.551	3,6%	173.371.147	5,6%
Zaragoza	15.874.297	7,7%	59.698.388	13,5%
Barcelona - El Prat	13.371.159	2,8%	55.878.278	7,1%
Gasteiz	4.974.887	-3,1%	26.442.740	-1,4%
Kanaria-Gran Canaria	1.522.153	19,0%	5.938.846	-4,1%
Valencia	1.170.048	7,3%	4.728.732	1,1%
Tenisea-Ibarrak	1.140.472	28,8%	4.563.299	8,9%
Sevilla	1.093.261	-25,7%	3.206.302	-34,1%
Palma Mallorca	765.220	-8,3%	2.830.087	-4%
Alicante - Elit	344.191	-4,4%	1.365.377	-5,8%
Gutuna	86.136.746	2,7%	338.815.154	3,3%


Forondako Aireportua DHLren hub nagusia da Espainian eta Portugalen

<https://gaceta.economia.es/directivos-y-empresas/dhl-coloca-a-vitoria-como-el-gran-aeropuerto-de-la-exportacion-galega-603329-102.html>

ADI: Forondako Mugako Ikuskaritza Postua (MIP) behin betiko itxeko arriskua dago.

2018ko datuak 62.156 Tn karga (Espainiako 4.a)

— DHLren ibilbide nagusiak
— FedEx-TNT
— UPS



AVIÓN
MERCANCÍAS

Iturria: Merkantzien Garraiorako Terminalen mapa (Sustapen Ministerioa eta ADIF)

Graf 32. Merkantzien aireko bide nagusiak. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPPa berrikusteko aurreiazko azterlanak eta diagnostikoa.

Trenbide bidezko garraioak egun errepide bidezkoak baino nahiko garrantzia txikiagoa du. Merkantiak Jundiz, Agurain eta Araia geltokietatik mugitzen dira eta merkantzien zamalanak egiteko beharrezko ekipamenduak dituzte. Jundizeko geltokian, batez beste, 239 tona mugitzen dira.

Horri guztiari esker, Arabak penintsulako bigarren mailako nodoen eskaintza multimodalik osoenetakoa du eta Garraiorako Europa Barneko Sarearen Atlantikoko Ardatzean dago sartuta (TEN-T). Egoera horrek hobera egin dezake aurretik aipatutako proiektuek duten hobekuntzarako gaitasunarekin.

4.6.4 Arabako Foru Aldundiko bidegorrien LPSa (tramiteak egiten), 2 ibilbide mota (bidegorriak eta ibilbide berdeak). Turismo irisgarriarekin eta jasangarriarekin duen harremana.

Arabako Foru Aldundiko bidegorrien LPSaren helburu nagusia hiriarteko mugikortasunean bidegorriak eta ibilbide berdeak txertatzea da, eta bi mugikortasun-eredu jasangarriek Arabako lurralde historikoko mugikortasun-sistema orokorrean tokia izatea. Jarduketa horiek aukera emango dute motorrik gabeko alternatibak garatzeko eta paisaia-balio eta balio historiko-kultural handia duten sektoreetara eta natur-ondareetara bisitak sustatzeko.

Gainera, publikoa ingurumenara hurbiltzea da asmoa, hiriguneen eta landa-eremuen arteko konexioen bitartez.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena


-AURRERAKINA-

Balizko jarduketek ingurumenean esku-hartzerik izan ez dezaten, Planaren helburua bide zaharrak, trenbideak eta erabiltzen ez diren eta bidegorri gisa balia daitezkeen bestelako azpiegitura lineal batzuk **mantentzea da, eta kasu batzuetan, berreskuratzea eta berrezartzea.**

Bidegorrien sarea garatzeak lurraldean duen garrantzia hirigune nagusien artean loturak ezartzea da, garraio jasangarrirako aukerak eskainiz eta aisialdirako eta turismorako jardueren garapena ahalbidetuz.

Planaren helburua da sare horrek eguneroko derrigorrezko lekualdatzeen fluxuaren zati bat bereganatzea, eta beste garraio-aukera batzuekin alderatuta aukera bideragarria eta garbia izatea. Ikusi da eguneroko lekualdatze zuzenen irismena 10 kilometrokoa dela, hau da, zoru lauan, 52 minutu inguruko ibilbidea.

Arabako bidegorrien Foru Sarea osatzen duten bidegorri guztietatik bakarra dago eginda egun, VC1 Bidegorria Durana eta Arroiabe artean. Gainerako bidegorriak proposamen- eta plangintza-egoeran daude Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialean.



Graf 33. Araba Erdialdeko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen proposamenen mapa.

Eragin txikia duten mugikortasunen arloan, bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen LPSak kontuan hartzen du egiten dituen proposamenen eta 2004an indarrean zegoen Araba Erdialdeko LPPan egindakoen arteko harremana. 2004an idatzitako Araba Erdialdeko LPPak ekintza hauek proposatzen zituen:

1. AE-3: Baia ibaiaren trenbidearen ibilbidea



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Trenbideen azpiegitura eta ibaiak sortutako paisaia baliatzen ditu eta ibilbideak egun duen erabilera mugatua kontuan izanik trenbideen gaineko garraio arina planteatzen du.

2. AE-4: Uribarri-Araia aisia-ibilbidea

Urkillaren mendilerroaren magalean dauden herrien ingurune naturala eta eremuak duen aberastasun ornitologikoa baliatzen ditu, Zadorrako urtegiekin batera.

3. AE-5: Zadorrako nekazaritza-ibilbideak

Zadorrako ekoizpen-balio handiena duten lurren nekazaritzako erabilera babesten du, nekazaritzaren jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak kokatzeko erreferentziazko ardatz modura.

4. AE-6: Ingurunearen aprobetxamendurako ibilbidea

Aspaldiko trenbidearen plataforma bat (antzinako Lizarra-Mekolalde) erabiltzen du Mendialdeko eskualdea Arabako Erdigunera hurbiltzeko ibilbidea sortzeko.

5. AE-7: Arabako hegoaldeko eskualde arteko ibilbidea

Arabako hegoaldea integratzea da asmoa, Trebiñuk sortzen duen banaketa funtzionala gaindituz eta Lautadaren eta Mendialdearen arteko harremana estutuz, baita Arabako Errioxarekin ere.

6. AE-8: Ipar-mendebaldeko ordezkoko ibilbidea


Gorbeia Natur Parkea eta haren eraginpeko eremua Vitoria-Gasteizekin lotzen ditu ordezkoko garraioetarako ibilbidearen bitartez eta eremua kalitatezko landa-turismorantz bideratu nahi du.

7. AE-9: Donejakue bidea

Erdi Aroko galtzadatik doan erromes-bidea berreskuratzea eta sustatzea da asmoa, ibilbide turistiko-kultural modura.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 34. 2004 Araba Erdialdeko bizikleten mugikortasunerako LPPren proposamena

Eremu Funtzionaleko biztanle gehienak, baita Vitoria-Gasteiz udalerritik kanpo ere, tren-geltokirik 10 km baino gutxiagora daude. Datu hori giltzarria da bizikletaren erabilera sustatu eta indartzeko, tren-geltokien eta erabiltzaileen jatorri/helmuga puntuen arteko mugikortasunerako.

Beraz, LPPren proposamenak nodo intermodalak sortzea sustatuko du, planifikatutako bizikleten ibilbideekin batera ibilgailu pribatua erabiltzen dutenek modu multimodalagoak erabiltzeko, bizikleta barne.

4.6.5 2004ko LPParen eragina

4.6.5.1 LPPren zehaztapenak

2004ko LPPak hiru ardatz zehaztu zituen garatu beharreko jarduketaren plangintzarako:

- **Ekintzak bideen arloan:** Etxabarri-Ibiña eta Armiñon arteko erkidegoko-nazioarteko sarearen lotura garatzea.
- **Ekintzak trenbideen arloan:** Planak Agurain, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka artean erraien gaineko sistema arina garatzea proposatu zuen, Vitoria-Gasteizko aireportuarekin ere lotura izango zuena.
- **Ekintzak paisaiaren-ingurumenaren arloan:** Lurralde naturalen loturak eta eremuarentzat garrantzia nabarmena duten ibilbide tematikoei bereizten dute.

Adierazitako hiru ardatzen bitartez 2004ko LPPak ondorengo ekintza egituratuak proposatu zituen, eta ezarpen maila islatu zuen:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

Emakumezko herritarrak	Emakumeek 2018an zuten enplegua	2017ko migrazio-saldoko →emakumeak
86.6	81	7
Arabako emakumeek jaiotzean duten bizi-esperantza, 2017	Arabako gizonen jaiotzean duten bizi- esperantza, 2017	2018an Araban urtebete baino lehen hildakoak
3.548	967	149
70 urteetara heldu baino lehen hildako emakumeen galdutako bizitza-urteak Arabian, 2017an	70 urteetara heldu baino lehen hildako emakumeen galdutako bizitza-urteak bularreko minbizia + trakea, bronkio eta biriketako minbizia dela eta Araban, 2017an	70 urteetara heldu baino lehen hildako emakumeen galdutako bizitza-urteak suizidioa dela eta Araban, 2017an
4.931	574	437
70 urteetara heldu baino lehen hildako gizonen galdutako bizitza-urteak Arabian, 2017an	70 urteetara heldu baino lehen hildako gizonezkoen galdutako bizitza-urteak trakea, bronkio eta biriketako minbizia dela eta Araban, 2017an	70 urteetara heldu baino lehen hildako gizonen galdutako bizitza-urteak suizidioa dela eta Araban, 2017an
20.761	599	% 7,4
Eremu Funtzionalako udalerrietan 2021eko otsailaren 7an izan ziren COVID-19 kasu positibo guztiak	Eremu Funtzionalako udalerrietan 2021eko otsailaren 7an izan ziren COVID-19ak eragindako heriotza guztiak	Eremu Funtzionalako udalerrietan 2021eko otsailaren 7an COVID-19an positibo izan ziren herritarrak
% 4	% 2	
Eremu Funtzionalan euskarak ama- hizkuntza gisa duen erabilera	Eremu Funtzionalan euskarak duen erabilera orokorra	

Graf 36. Zeharkako gaien laburpena

Zahartzea faktore esanguratsua da osasun-arretako politiketan eta baliteke datozen urteetan areagotzea. Bestalde, 70 urteetara heldu aurretik galdutako bizitza-urteak gazteen heriotzaren eraginaren adierazleak dira; izan ere, adin goiztiarretan izandako heriotzek balizko bizi-urte gehiago kentzen dituzte. Generoaren arabera herritarren banaketa orekatua izanik, ikus daiteke gizonen galdutako bizi-urteak nabarmen gehiago direla emakumeek galdutakoak baino eta arrazoi erabat desberdinak dira. Bularreko minbiziaren ondorioz, emakumeek tumore gehiago pairatzen dituzte, aldiz, gizonengan heriotza kausa nabarmena da kardiopatia iskemikoa (galdutako balizko bizi-urteak 8 aldiz gehiago dira). Suizidioak dira heriotzen hirugarren kausa emakumeetan (100.000 biztanleko 85), gizonetan, aldiz, laugarrena (100.000 biztanleko 128), eta 209 bizi-urte galdu ziren guztira 2017an, emakumeen kasuan baino nabarmen gehiago. Heriotza goiztiarren kausa asko bizimoduarekin daude lotuta hein handiagoan edo txikiagoan, bai faktore fisiologikoei dagokienez, bai psikologikoei, suizidioen kasuan; eta, beraz, lotura izan dezakete lurraldea antolatze eta egokitze moduarekin, batez ere, bizi-ohitura osasungarriekin zerikusia duten espazio publikoekin eta mugikortasun jasangarria eta bizilekuak birgaitze politikak sustatzearekin.

Eusko Jaurlaritzak 2021eko otsailaren 7an udalerrri bakoitzean zegoen **COVID-19**aren egoera epidemiologikoaren inguruko datuek erakusten dute, egun horretan, eta pandemia hasi zenetik



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

zenbatzen hasita, positibo izan ziren herritarren % 2,8 hil zela; 2020an Araba Erdigunean erroldatuta zeuden biztanleen % 0,215 hil zela eta Eremu Funtzionalako biztanleen % 7,4 positibo izan zela. Pilatutako kopuru osoa interesgarriagoa da lan urbanistikorako pandemiaren inguruko komunikazioan erabili zituzten 14 eguneko batezbestekoak baino. Izan ere, gaixotasunak dituen ondorio iraunkorren pilatutako tasa osoak ondorio esanguratsuak izan ditzake denbora batera. Datuak ez daude Eremu Funtzionalako eskalan duten eragin desberdina ebaluatzeko beharrezko genero-banaketaekin eskuragarri. Udalerrika, Zuiak izan zuen intzidentzia-tasarik handiena eta ehuneko eraginik altuena (2020an erroldatutakoen % 0,76); izan ere, 100.000 biztanleko 9.568 positibo izan ziren (herritarren % 9,57) eta 18 pertsona hil ziren. Vitoria-Gasteiz laugarren tokian izan zen; biztanleen % 7,65 izan zen positibo eta 2020an erroldatuta zeuden herritarren % 0,22 hil zen. Zifra horiek Eremu Funtzionalako positibo guztien % 91,4 eta hildakoen % 90,4 erakusten dute. 16 udalerritan izan dira heriotzak eta egun horretara arte 5 heriotza baino gehiago izan ziren 3 udalerritan (Vitoria-Gasteiz, Zuia eta Agurain). Egoera epidemiologikoaren bilakaera zabalik dago, baina pentsa daiteke eragin nabarmena izan dezakeela Eremu Funtzionalako kolektibo garrantzitsu baten osasunean, eta baliteke ahaleginak lurraldearen arabera sailkatu behar izatea, baita auzoka ere, intzidentzia-tasen arabera.

4.7.1 Irisgarritasun unibertsala

Araba Erdialdeko irismen unibertsaleko irizpideek askotariko irakurketa dute: Vitoria-Gasteizko hiriguneak herritarren eta jardueraren ia % 80 hartzen du eta hiriaren ehunduraren baldintzak bat datoz oro har Udalerriko Administrazioak ezarritako erabileren nahasketaren helburuekin, hurbileko zerbitzuekin, oinezkoen irisgarritasunarekin edo garraioaren intermodalitatearekin. Bestalde, landa-eremuan bizi diren herritarren ehuneko txikiagoak hurbileko zerbitzuen eskaintza murriztagoa du, bai biztanle gutxiago direlako, bai despopulatze-dinamikengatik. Horrek ez du laguntzen jarduera pribatu berriak ezartzen eta zerbitzu publikoen eskaintza ere zigortzen du. Azkenik, aniztasun funtzionala duten pertsonen, adinekoen edo haurren kasuan, eraikin eta instalazioetarako muga fisikorik gabeko sarbidea errazten duten neurrien onurak izan ditzakete, 2006ko abenduaren 13ko desgaitasuna duten pertsonen eskubideen inguruko Nazio Batuen Hitzarmenaren, Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuen eta 2010-2020 Desgaitasunaren inguruko Europako Estrategiaren ildo jarraituz. Gaiaren inguruko xedapenak ezartzen dituzte Irisgarritasunaren Sustapenerako abenduaren 4ko 20/1997 Euskal Legeak eta hura garatzen duten dekretuek, eta Lurzoruaren eta urbanismoaren inguruko 2/2006 Legeak.

4.7.2 Genero-ikuspegia

Generoaren arloan, emakumeak gehiago dira Eremu Funtzional osoan, baina horren arrazoia da Arabako Lautadan nabarmen gehiago direla, gainerako eskualdeetan gutxiago baitira. Enpleguaren % 44,2 hartzen dute, Vitoria-Gasteizen dagoen ehuneko altuagoa dela eta, eta 2017an zenbatu zen migrazio-saldo positiboaren % 61 izan ziren. Horrek esan nahi du Eremu Funtzionalaren jasangarritasun demografikoari jarraipena emateko migrazioarekiko menpekotasun nabarmena dagoela.

Indarrean dagoen legediak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta 2012ko abuztuaren 21ean Gobernu Batzordeak onartu zituen eraginaren aurretiazko ebaluazioa genero-irizpidearen arabera egiteko eta desberdintasunak murrizteko



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko jarraibideak) eskatzen du plangintza urbanistikoa egitean kontuan izateko generoaren aldetik izan ditzakeen eraginak. Horrek erabileren kokapenaren inguruko zehaztapenei eragiten die, espazio publikoaren ezarpenari edo mugikortasun-sistemekin dauden harremanei, herritar-talde desberdinen baldintzei dagokienez. Ikuspegi inklusiboa emakumeen eta gizonen arteko bereizketa bitarretik harago doa, haurren, adinekoen, desgaitasun funtzionala duten pertsonen edo bestelako baldintzak dituztenen behar espezifikoak kontuan izateko. Azken helburua da lurralde plangintzak eta urbanistikoak herritar guztien eguneroko bizitzaren kalitatea hobetzeko ekarpen eraginkorra egitea, Europako, Espainiako eta Euskadiko dokumentuen corpus zabalarekin bat eginez.

Genero-ikuspegia ezin da plan urbanistiko baten diseinuan edo lurraldearen azterketan txertatu hura gauzatzen duten plangintza-zehaztapenak kontuan izan gabe. Beraz, generoak horietan eta testuinguruan duen papera ikusarazi behar da, baita eraldaketaren helburu diren lurraldeen arazoak ere. Soilik horrela eta berdintasunaren premisaren arabera (baliabideetara sartzeko, autonomiarako, espazio publikoaren eta pribatuaren sarbide eta gozamenerako...) proposatu ahal izango dira diseinurako gidalerro berriak edo egokiagoak diren plangintzaren zehaztapenak garatu. Berdintasunaren baitan, erakundeek metodologia espezifikoak garatu dituzte hiriko zaurgarritasunen inguruan, sozioekonomikoetan, arrazari dagokionez, funtzionaltasunari eta irisgarritasunari, etab.

4.7.3 Klima-aldaketa

EAE 1990etik erregularki egiten dituen Berotegi-efektuko Gasen Igorpenen Inbentarioez gain, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen sustatu ditu eta lurraldean klima-aldaketak izango dituen eraginak karakterizatzen ditu.

Horien artean hauek nabarmendu daitezke:

1. Klima-aldaketen agertokiak Euskadin, prezipitazio- eta tenperatura-prognosiekin, zirkulazio global atmosferikoaren ereduaren emaitzen eskualdekatzean oinarrituta, lurralde-plangintzaren eskalara egokitutako ebazpenetara (12x12 km, 50x50 km). Ikerketa horiek adierazi dute urteko prezipitazioak % 15 inguru murriztuko direla XXI. mende amaierarako, gehienbat EAEko hegoaldean eta hego-mendebaldean. Prezipitazio baxuak, neurritsuak edo biziak dituzten egunak murriztu egingo dira eta euria egiten duen egunak eta eguneko gehieneko prezipitazioa areagotu. Bolada lehorren gehieneko iraupena areagotu egin daiteke. Tenperaturari dagokionez, azterketak jakinarazi du tenperaturak gora egitea aurreikusten dela, eta agertokiaren eta ereduaren arabera, 1,5 eta 5 gradu artekoa izango dela igoera. Gehieneko tenperaturaren igoera handiagoa izango da EAEko hegoaldean eta hego-mendebaldean.
2. Klima-aldaketen aurrean Euskadiko udalerriek duten eraginaren eta zaurgarritasunaren azterketa (Ihobe, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, 2018)⁷ 2018tik erkidegoan eskuragarri dagoen eta erabakiak hartzen laguntzen duen tresna da, Euskadin lehentasunezkoak diren eraginaren inguruko datuak eskaintzen baitizkio eskala horri: bero-bolada eta gizakien osasunean izan dezakeen balizko eragina; hiriguneetako ibaien uholdeak; lehorteen ekonomia-jardueran duten eragina, nekazaritza-arloan batez ere, eta itsasoko mailaren igoera. Gainera, udalerri mailan azterketa mota horiek egiteko plataforma

⁷ <https://www.ihobe.eus/publicaciones/evaluacion-vulnerabilidad-y-riesgo-municipios-vascos-ante-cambio-climatico-2>



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

berriek eskaintzen dituzten datu interesgarriak ere baditu (biztanleria, etxebizitza, ekonomia-jarduera, zerbitzuak...), esaterako, LurData⁸. Alde horretatik, nabarmendu behar da klima-aldaketaren inguruan herritarrek, enpresek eta administrazio publikoak eskuragarri duten informazio gero eta ugariagoa, GeoEuskadi datu espazialen atariaren bitartez⁹.

4.7.4 Osasuna

Eusko Jaurlaritzako Zaintza Epidemiologikora Unitateak, Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritzak 2018an argitaratutako Zaintza Epidemiologikoaari buruzko Txostenaren arabera, Lurralde Historikoaren egoera EAEko onena zen orduan. 1999 eta 2017 artean, jaiotzean zen bizi-esperantza gizonetan 76,5 urte eta emakumeetan 83,8 urte izatetik, 81 urtera igo da gizonetan eta 86,6ra emakumeetan. Generoen arteko aldea, beraz, 7,3 urtetik 5,6 urtera murriztu da. 2018an, bizirik jaiotako 7 hil ziren lurralde historiko osoan, hau da, 1.000 biztanleko 2,3ko tasa.

Zeharkako izaera dela eta, osasunera bideratutako gidalerroek askotariko arloak jorratu behar dituzte, hala nola hiri-eredua, mugikortasuna eta garraioa, espazio libreak eta berdeguneak, herritarrentzako arriskuak, zarata, elikaduraren autonomia, etxebizitza, parte-hartzea eta gobernantza. Proposamena da osasuna ikuspegi osotik ebaluatzea eta herritarrentzako eta ingurumenerako arriskuak ere txertatzea: estres termikoa, alergiak, etab.


Muturreko tenperaturek osasunean duten eraginaren inguruko ikerketak egin dira Klimatek 2016 programako OSATU Proiektuaren bitartez, eta Vitoria-Gasteizko datuak hartu dira kostaldearen eta barnealdearen arteko trantsizio-eremu gisa. Klimatek 2017-2018 programatik, OASIS proiektuak bero-boladekin zerikusia duten eta heriotza edo erikortasuna dela eta osasunean eraginak izan ditzaketen parametro atmosferikoak aztertu ditu.

4.7.5 Euskara

Euskarari dagokionez, hizkuntza euskal kulturaren eta identitatearen oinarriarik sendoenetakoa da. Etxeetako erabilerak gora egin du, baina Araba Erdialdean erabiltzen duten pertsonen ehunekoa txikiagoa da EAEko gainerako lurralde historikoetan baino. Ama hizkuntza gisa duen erabilera % 4 inguruan dago eta erabilera % 2 inguruan. Bizkaia eta Gipuzkoarekin mugan dauden udalerrietan erabilera-indize altuagoak daudela ikusi da.

⁸ http://www.eustat.eus/estad/gis_c.aspx

⁹ <http://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/es>



Graf 37. Etxean euskaraz hitz egiten duten etxeen ehunekoa, udalerrika

4.7.6 Lurralde arteko harremana

Zadorrako haranaren bitartez Astorga eta Burgos lotzen zituen Iter XXXIV erromatar bidea historikoki ardatz funtsezkoa izan da mugakide ziren eremuen arteko harremanerako eta Miranda de Ebro- Vitoria-Gasteiz- Altsasu- Iruña ardatza izatera igaro da, eta erabakigarria da Eremu Funtzionalako fluxuetan. Toloñoko mendilerroa oztopoa da Araba Erdialdearen eta Arabako Errioxaren arteko harremanetan, alabaina, Altsasuko ardatzean zehar dauden harremanek irakurketa ekonomiko eta kulturala dute.

Zerbitzu publikoei dagokienez, 2012tik, Gaztela-Leon eta EAE arteko lankidetzak espezifikoak ahalbidetzen dituen hitzarmena dago. Hitzarmena 2020an berritu zen eta esaterako, Miranda de Ebroko Santiago Apostol Ospitaleko pazienteak Vitoria-Gasteizko Arabako Unibertsitate Ospitaleko Dermatologia Unitatera bideratzea jasotzen du. Halaber, hitzarmenak daude Arabako Foru Aldundiaren eta mugakide diren udalerri batzuen artean, haien suhiltzaile-parkeetako jarduketak erregulatzeke.

Goi-lautadatik eta Arabako Lautadatik Bilbora dagoen igarobidea historikoki Ardoaren eta Arrainaren Bidea izan da, eta Trebiñu igarota, Legutio, Otxandio eta Ubidera heltzen zen. AP-1 eta AP-68ak lotura hori hobetu dute. Alabaina, A-623 / BI- 623 errepideak trafiko handia du oraindik ere Araba eta Bizkaia artean, eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta datuen arabera zerikusia du Bizkaian bizi diren eta egunero Arabara lanera joaten diren 11.000 herritarrekin. Araban beste lurralde historiko edo probintzia batean bizi diren langileak % 14 dira eta adierazle horretan lehenengo lekuan dago estatu mailan. Bizkaiarekin dituen harremanak Igorre eta Durangori dagokionez, lurraldearen kudeaketa tradizionalarekin duen harremanari dagozkio,



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Zadorratik Arratiara ura eramatearen bitartez uraren eta energiaren baliabideen trukeari eta Barazarreko zentral hidroelektrikoan turbinatik pasatzeari.

Eremu Funtzionalako ipar-mendebaldean, Gorbeiaiko erliebeak Laudioko Eremu Funtzionalarekin duen harremana baldintzatzen du; izan ere, mugan dagoen eremua balio handiko baso autoktonoek eta landa-jarduera tradizionalak zehazten dute. Amurrio eta Laudioarekin dagoen harreman funtzionala bizia da, aldiz, tradizio handia duen Lautada-Koartango-Urduña ardatza murriztu egin da azpiegitura alternatibo berriak agertu direlako. Bideko segurtasun-arazoak direla eta, Legutio eta Ubide inguruko edo Azazeta igarobideko N-240 errepidean konponbideak bilatu behar izan dituzte Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Gipuzkoaren mugetan, ezaugarri geomorfologikoak eta ingurumenarenak baldintzatzaile argia izan dira, eta hein batean agerian geratu dira AP-1 eraikitzean, Arabako Erdigunean eta Debagoieneko Eremu Funtzionalaren arteko lotura hobetu baita. Horrek aukera eman du bi lurraldeetako industria-sektoreen osagarritasun garrantzitsuak bideratzeko. 2019an, bi Lurralde Historikoetako -aldundiek osasun-garraiorako hitzarmenak sinatu zituzten eta hiru Aldundien artean hitzarmena dago suteen prebentziorako eta salbamendurako.

Hegoaldean, Miranda de Ebrok funtzio garrantzitsua du Arabako Ibarrak eskualdearekin duen harremanetan, bizilekua-lana fluxuak, logistikarenak eta energiarenak artikulatzen baititu besteak beste, EAEko goi-lautadarekin duen harremanaren barruan.

Trebiñu administrazioan alboratuta dagoen lurraldea da, baina Arabako ingurunearekin lotura biofisiko nabarmena du eta 2018tik hainbat auzi elkarlanean konpontzen ari dira, hala nola osasuna, hezkuntza, garraioa edo oinarritzko azpiegitura-zerbitzuen eskaintza.

Arabako ibarren mendebaldeko eranskinak berriro ere agerian uzten du muga administratiboaren eta lurraldeko errealitate fisikoaren arteko desberdintasun argia. Izan ere, Burgoseko lurraldeen ekosistemen, geomorfologiaren eta paisaien jarraipena da. Inguru horretako kokaleku txikien artean harreman sozioekonomikoak daude.

Arabako mendialdeak Lizarraldearekin duen harremana Ega eta Linares ibaien haranen artean artikulatzen da. Trantsiziorako eremuak dira eta nahiko baztertuta daude harreman-ardatz handiekiko duten urruntasunarengatik, baina kultur elementu komunak dituzte.

4.8 Gobernantza

Arabako lurraldean Europar Batasuneko, Estatuko eta EAEko ekintzak gauzatzen dira eta zazpi kuadrillatan dago banatuta administratiboki. Kuadrillak udalerriez kanpoko eskualdeetako erakundeak dira eta parte hartzeko, kontsultarako eta haien lurraldeari eragiten dieten interes orokorreko gaiak eta auziak kudeatzeko funtzioak dituzte. Kuadrilla horietako bi, Araiakoa eta Laguardia-Arabako Errioxakoa, ez dira Araba Erdialdearen parte, eta, Zuiako-Gorbeialdeko kuadrilla partzialki soilik da Eremu Funtzionalaren parte, hainbat udalerri hortik kanpo geratzen baitira. Bestalde, Bizkaiko Ubide eta Otxandio udalerriak ez daude kuadrillen mende eta sailkapen batzuetan Bizkaiko Durangaldearen barruan ageri dira.

Araba Erdialdeko bost kuadrillak eta hogeita hamar udalerriak 298 kontzejutako batzar administratiboek osatzen dituzte, eta argi eta garbi daude sartuta lurraldeko elementu komunalen kudeaketan, esaterako uren eta mendien kudeaketan. Herritarren partaidetzarako



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena


-AURRERAKINA-

berehalako bide tradizionala dira eta haien interesak kudeatzeko erabateko autonomia dute. Lurraldeko administrazio publikorik hurbilekoenak dira.

Egungo lurralde-antolaketaren eredua logika horien guztien gainezarpena da, tokiko lehen mailako ekoizpenaren, merkataritzaren eta komunikazioaren dinamikena, eta ia metropoliaren izaera duten dinamikena, nahiz eta konfigurazioak ez duen zehazki izaera hori. Egungo joerak lurraldeko ekosistemaren mugak errespetatzeko gai den eredurantz aldatzea da erronka.

Alde horretatik egun dagoen disfuntzioetako baten adibidea da potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen egoera. Eremu Funtzionaleko lurzoruen 1.600 hektarea baino gehiagoren egoera da hori, gehienak Vitoria-Gasteiz inguruan, baina beste udalerrietan ere badira. Lurzoruen kalitatearen kalifikazioa lortzeko izapideak arindu behar dira, gaiaren inguruan erkidegoan dagoen legediaren arabera. Izan ere, berroneratzea behar duten industria-eremuen eraldaketa lortzeko gakoetako bat da.

Eremu Funtzionala zatitzeko indarrean dagoen LPParen gobernantza-proposamena ez da garatu. Hori, hein handi batean, gobernantzako egitura historikoek dirautelako da eta elkarketa-eredu desberdinak biltzen ditu, hala nola batzar administratiboak, kuadrillak edo partzuergoak. LPPk mugatutako zatiak kontzienteki diseinatu ziren muga administratiboek baldintzatu gabe, eta kasu askotan komunikazioen sarearen elementu topografikoetan edo aurretik zeudenetan oinarritu da. Memoriaren arabera, “geometria aldakortzat” hartu ziren eta garapen-plangintzak zehaztasunez egokitu beharko lirateke, etorkizuneko aukeren arabera.






Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Graf 38. LPPn proposatutako gobernantzarako zatiak eta kontzejuen eta beste erakunde batzuen egitura. Geuk egina 2020 Arabako Foru Aldundiaren datuen arabera.

4.9 Diagnostikoaren laburpena eskualdeen arabera

4.9.1 Arabako mendialdea: biziberritze demografikoa, herritarrentzako zerbitzuen hobekuntza, landa-munduari lotutako bizitza biziberritzea



Araba mendialdeko kuadrilla da Eremu Funtzionalan biztanle gutxien dituen eta, gainera, azken urteetan biztanleen ehunekorik altuena galdu duena ere bada. Sei udalerririk (Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra) eta Entziako partzuergoak osatzen dute. Kapital natural oso garrantzitsua du biodibertsitatearen eta uraren aldetik, eta habitata ez daude ia zatituta edo deskonektatuta. Biodibertsitateari dagokionez, Vitoria-Gasteiz ekialdeko mendiak, Entzia mendilerroa, Lokiz eta Toloño nabarmentzen dira, Izki Natur Parkeaz gain. Basoen azalera handiena duen kuadrilla da, eta, oro har, egoera onean daude, nahiz eta bertako ekosistemak eta biodibertsitatea sinplifikatzeko edo pobretzeko arriskua dagoen. Kuadrillako sare hidrikoaren zati handi bateko erriberen egoera hobetu daitekeen arren, Arraia, Bernedoko eta Maeztuko zingira eta zohikaztegiek fauna eta flora bereziak dituzte. Baliabide hidrikoei dagokienez, Ega eta Jugalez ibaien arroek duten plubiometria altua da kapital horren adierazlea eta asko ustiatu ez diren lur azpiko baliabideak daude. Energia berriztagarriari dagokionez, eguzki-irradiazioa EAEko altuenetakoa da eta haizearen baliabidea ere ugaria da. Gainera, biomasa ekoizteko potentzial oso altua duen Eremu Funtzionalako lurzoruaren 1/3 eskualde horretan dago eta euriak baliabide hidroelektrikoak aprobetxatzeko potentziala sortzen du. Kalitate handiko nekazaritzako lurzoruak nahiko eskasak dira eta ibaien ardatzen ibarretan pilatzen dira, batez ere Egan, baina horiek dira, halaber, patata-laboreek eta nekazaritza-industriaren kontzentrazioak biota edafikoaren kalitateari gehien eragiten dioten guneak. Urizaharra, Lagran eta Bernedo kudeaketa tradizionala pixkanaka alde batera uzten ari diren arren aprobetxamendu intentsiboaren alde egiteko, oraindik ere jarraitzen du irla-basoekin landatutako matrize batek eta horrek nekazaritzaren egitura aberastu eta dibertsifikatzen du. Entzia mendilerroak karbono-isurbide gisa gaitasun handia du. Kultur ondarea Erdi Aroko iraganekoa da batez ere, interes handiko arkitektura erlijiosoak eta Inaziotar Bidea baititu. Araitutako plaza turistiko gutxi dauden arren, bigarren etxebizitzaren kopurua garrantzitsua da.

Demografikoki, eremurik zaharrena izateaz gain, gizonezkoak % 55,7 dira. Kopuru hori ohikoa da horrelako eremuetan; izan ere, bizi-proiektua garatzeko aukera gutxiago dituztenez, emakume gazteak eremu hiritarragoetara joaten dira, eta, ondorioz, zaildu egiten da jasangarritasun demografikoa. Sektore aurreratuei lotutako jarduera espezifikoak dauden arren, Arraia-



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Maeztuko Laminoriako kalitate handiko silizio-harrobiak esaterako, ekonomia nekazaritza-sektoreari lotuta dago gehienbat. Etxebizitza nagusiak ez direnen eta etxebizitza hutsen batura handiagoa da etxebizitza nagusia baino, eta etxebizitza kopuru handia dago egiteke indarrean dagoen plangintzaren baitan. Gainerako kuadrillekin alderatuta, salgai dauden etxebizitzak ehuneko baxua da eta esanguratsua da 2010etik etxebizitza nagusien kopurua % 5 murriztu dela, beherakada demografikoaren adierazle argia. Mugikortasunari dagokionez, beste eremuekin harreman gutxi du; Vitoria-Gasteizekin harreman funtzionalak direla eta, eta Trebiñu eta Nafarroa hurbil izateagatik. Gainera, ez du gaitasun handiko bide-ardatzik eta errepede batzuk erabilgaitz gera daitezke elurrarengatik. Trafikoaren kopuruak ez du gaitasuna handitzeko arrazoirik ematen, baina errepedeko segurtasuna eta trazadura hobetu litezke. Euskadi-Nafarroa trenbide zaharra berreskuratzeko ekimenekin eta ibilbide berdeekin ahalegindu dira dinamizazio sozioekonomikoari ekarpena egiten.

Oinarrizko azpiegituren kasuan, gabeziak daude edateko uraren tratamendu-estazioei, hondakin-uren araztegiei, egoera txarrean dauden ur-biltegi batzuei eta hobi septikoen erabilera orokorrari dagokionez. Garbigune bakarra dago Kanpezun eta landa-hondakinak jasotzeko 21 bilketa-puntu. Hondakin gehienak Jundizeko TMB Biocompost instalaziotik eta Gardelegiko zabortegetik igarotzen dira. 4G estaldura mugatua dago Urizaharran eta Lagranen eta Arraia- Maeztu eta Kanpezun soilik du herritarren %50ek baino gehiagok 10 mb edo gehiagoko ADSLa. Derrigorrezko hezkuntza maila baino goragoko hezkuntza-eskaintzak gabeziak ditu eta udalerrri batzuek ez dute osasun- edo kirol-ekipamendurik. Gainera, gabeziak daude adinekoentzako, eta desgaitasuna edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuetan.

4.9.2 Arabako Ibarrek: demografiaren biziberritzea, herritarrentzako zerbitzuak hobetzea, ondoko lurraldeekin harremanak artikulatzea, azpiegitura turistikoa indartzea



Arabako Ibarrek Araba Erdialdeko mendebaldeko eskualdea da eta udalerrri hauek osatzen dute: Añana, Armiñon, Berantevilla, Badaia Partzuergoa Erriberagoitia, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbrana Arabako Ibarren dinamika demografikoa Arabako mendialdekoaren antzekoa da. Goi-lautadarekin EAEko komunikazio-ardatz nagusiaren alboan eta Miranda de Ebroko jarduera-nukleoaren alboan dagoen arren, azken urteetan biztanleria jaitsi egin da eta zahartzeak okerrera egin du. Egoera horren adierazle da gizonak % 54,66 direla. Naturaren kapitala garrantzitsua da bai biodibertsitateari, bai ura sortzeari dagokionez, nahiz eta Araba Erdialdeko prezipitazioen baliorik baxuenak dituen. Klima-aldaketarekin okerrera egin dezake egoera horrek. Inguruan dauden Artzena mendilerroa (Burgosekin muga), Valderejoko natura-parkea eta Gibijo eta Arkamo mendilerroek natur biodibertsitate nabarmena dute. Baia, Jugalez, Omecillo eta Zadorrako azpiarroen ibilbidea da eremua eta Ebroko urek bustitzen dute.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Erriberabeitiko Baiaren arroa da egoera okerreanean dauden urak dituen. Energia berriztagarriari dagokionez, zuzeneko eguzki-irradiazioaren balioak nahiko altuak dira eguzki-energia lortzeko erabili ahal izateko, dagoeneko badauden eguzki-instalazioek eta aurreikusita daudenek, EKIENEAKoak esaterako, erakusten duten moduan. Baina haizearen baliabidea urriagoa da eremu horretan ingurukoetan baino, Badaiaiko parkean badauden arren. Izan ere, biomasa erabilgarria duten basoen eskasiak mugatu egiten du potentzial hori. Sare hidrografikoak, aldiz, baliabide hidroelektrikoetarako potentziala du. Puentelearran dagoen 220 Kv-ko azpiestazioak eta gaitasun handiko linea elektrikoek egituratzen dituzte ekoizpen-instalazio berrien konexiorako aukerak.

Termino agrologikoetan, Arabako Ibarrek Arabako Lautadaren atzetik daude gaitasun handiko lurzoruari dagokionez, nahiz eta Lantaronen, Erriberabeitian, Armiñonen eta Berantevillan dauden ureztapeneko eta industriako laborantza intentsiboek biota edafikoaren kalitateari eragiten dioten. Aldiz, Lantaron, Erriberabeitia, haran-hondo batzuetako eta iparraldeko mendiaren sorburuetako eremuetako terraza-laborantzek nekazaritzan aldekoak diren biodibertsitatearen formazioak dituzte. Basoen eremua Arabako mendialdekoa edo Gorbeialdekoa baino txikiagoa da. Karbono-isurbidearen funtzioa da hain zuzen ere Arkamo eta Badaia mendilerroetan eraginkorra. Kuadrilla hori da Araba Erdigunean higadura-fenomenoen mehatxu handiena duena, Gaubea, Lantaron eta Koartango udalerrietan izan ezik. Kultur ondarea Erdi Arokoa da; gotorleku eta arkitektura erlijioso esanguratsuak ditu, Añanako gatzagak eta Barnealdeko Donejakue bidea bertatik igarotzen da. Hotel eta bigarren mailako etxebizitza gutxi dauden arren, Gaubea, Erriberagoitia eta Erriberabeitia pilatzen dira.

Industria-jarduerari dagokionez, kimikara bideratutako Zubillagako poligonoa da eskualdeko piezarik garrantzitsuenetakoa, Lantaronen.

Nekazaritza da establezimendu gehienek jarduera nagusia, nahiz eta Miranda de Ebro inguruan industria-jarduerak ere esanguratsuak diren.

Bigarren etxebizitzaren ehunekoa altua da; Añana, Gaubea edo Zanbrana udalerrietan % 50en gainetik dago. Komunikazio-ardatz nagusietatik hurbilen dauden udalerriek, aldiz, etxebizitza nagusi gehiago dituzte. Salgai dauden etxebizitzaren kopurua baxua da.

Eskualdeko ekialdeko zatia Bilbo eta Vitoria-Gasteiz goi-lautadarekin lotzeko igarobideen gainean kokatzeak posizio geoestrategikoa dakar. Aldiz, mendebaldeko zatia urrutiago dago eta Gaubeako mendebaldeko zatiko leku batzuetara heltzeko arazoak daude. Miranda de Ebroarekin dituen harremanak biziak dira, eta, maila txikiagoan, baina Burgosko San Zadornil moduko udalerriekin ere baditu harremanak, Gaubea barneko komunikazioetarako derrigorrezko igarobidea baita. Arasurreko Plataforma Multimodal Logistikoa Bilboko Portuko terminala da eta Kuadrillako logistikarako elementu esanguratsua da. Bestalde, soilik Erriberabeitia, Armiñon eta Zanbranako herritarren % 50 baino gehiagok du 10 mb-ko ADSLa.


Baliabide hidrikoak iturburuetatik datoz gehienbat, nahiz eta zundaketekin osatzen diren. Eskualde osoan araztegi bakarra dago eta uraren tratamenduan desberdintasunak daude. Saneamenduari dagokionez, aldiz, eremu batzuetan hobi septikoak dira nagusi. Ekonomia zirkularrari dagokionez, garbigune bakarra dago, landa-hondakinak jasotzeko 38 bilketa-punturekin batera. Kuadrillako hezkuntza-eskaintzak gabeziak ditu goiko mailetan eta udalerrri



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

batzuek ez dute osasun-ekipamendurik. Alabaina, udalerri gehienek kirol-ekipamendu onak dituzte.

4.9.3 Gorbeialdea: Goiaingo industria-nodoaren artikulazioa. Audio eta Bilborekin harremana



Araba Erdigune barruko Eremu Funtzionalan, Gorbeialdeak Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zuia eta Zigoitia udalerriak barne hartzen ditu, eta Aramaio da Planaren barruan ez dagoen eskualdeko udalerri bakarra. Azken urteotan zehar, Araba Erdialdeko biztanleria egonkor mantendu da ia, beherakada oso murrizta izan du, nahiz eta zahartzea nabarmen areagotu den. Eremuak biodibertsitatearen balio altuak ditu, iparraldean dagoen Gorbeialdeko Natur Parkearen eraginez, baina baita hego-ekialdeko KBE-en eraginez ere. Iparralderen dagoen eremuan daude Araba Erdialdean urtean euri gehien egiten duen eremuak. Eremurik altuenak balizko aukera dira energia eolikoaren aprobetxamendurako, baina, halaber, balio sinboliko eta identitario handia duten eremuak dira, beraz, ez da gomendagarria halako instalazioak jartzea. Halaber, aipatu behar da erdiguneko eremuetan potentzial handia dagoela biomasaren ekoizpenerako. Berotegi-efektuko gasak finkatzeko gaitasun handiena duten lurzoruek Gorbeialde inguruan daude. Eremu Funtzionalako beste toki batzuekin alderatuta, lurzoru emankor gutxi daude eta nekazaritza eta basozaintzako LPSak lurzoruen % 9 soilik sartu ditu nekazaritzarako eta abeltzaintzarako artean. Kultur ondarearen eta turismoa sustatzeko dituen aukeren arloan Legutioko industria-ondarea, Euskal Eltzegintzaren Museoa eta Murgialdeko Ertiaren Museoa nabarmentzen dira.

Establezimendu gehienak merkataritzara, garraiara eta ostalaritzara bideratuta daude, gero, industriara, energiara eta saneamendura, eta hirugarrenik, nekazaritza eta abeltzaintzara. Legutio da enplegu eta jarduera-establezimendu gehien dituen udalerria, industriari esker.

Nagusia ez diren etxebizitzan guztien % 30 ziren 2018an. Plangintzaren arabera, 1.907 etxebizitza egiteke daude, gehienak libreak. Ia industria-lurzoruko 60 hektarea ditu libre eta 280 hartuta.

Mugikortasun-sarea AP-68 autopistak eta N-622 errepideak markatzen du eta, mendebaldean, AP-1ak eta Goiaingo inguruan, N-240ak. Bilbora doan trenbidearen papera ez da hain esanguratsua mugikortasun-fluxuetan. Audio eta Bilborekin duen harreman funtzionala esanguratsua da lotura onengatik; baita Durangorako igarobidea ere, Legutio- Ubide- Otxandio ibilbide esanguratsua ere.


Azpiegitura elektrikoak 400 kv-ko sarean igarobidea eta Goiaingo poligonoko azpiestazioa dira. Urrunaga urtegiko baliabide hidraulikoak dira hornidurarako iturri nagusiak eta 30 depositu eta edateko uren tratamendurako 3 estazio daude. Sarea oso lotuta eta bat eginda dago Vitoria-Gasteizko hornidura-sistekin. Eskualdeak hondakin-uren 8 araztegi ditu eta Gopegin berria



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

irekitzea aurreikusten da. Ez dago puntu garbirik. Eremua Vitoria-Gasteizko eskola-barrutiaren parte da. Eremuan 4 mediku-kontsultategi daude.

4.9.4 Arratia-Nerbioiko udalerriak Arabako Erdigunean: Bizkaiarekin duten harremana



Bertan sartzen dira Ubide eta Otxandio udalerriak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren eta eskualde honen parte dira. Azken urteotan, biztanleria apenas jaitsi da apur bat, nahiz eta zahartu egin den. Udalerrri horiek Eremu Funtzional osoak baino plubiositate gehiago dute eta ingurumen balioak Zadorrako urtegien sistemako KBEarekin lotuta dago. Amaiera Otxandio hegoalderaino heltzen da. Eguzkia-energia sortzeko potentzial txikiena duen eremua da eta indar eolikoa sortzeko gaitasun handirik ez duen arren, Eremu Funtzionalaren barruko eremu txikian badu biomasa sortzeko gaitasuna. Lurzorurik emankorrenak haran-hondoetan daude. Santa Engrazia ibaiak Otxandioko hirigunea inguratzen du eta Urrunaga urtegiara isurtzen ditu urak. Aldiz, Undabek urtegia bera Ubideko alde zaharrarekin lotzen du, eta bi kasuetan jarraipen berde esanguratsuak sortu dira. Lurraldearen balioei dagokienez, Gorbeiaiko natura-parkearen hurbiltasuna eta Otxandioko alde zaharra nabarmendu behar dira.


Establezimendu gehienak merkataritzara, garraiara eta ostalaritzara bideratuta daude; gero, administrazio publikora, hezkuntzara, osasunera; jarraian, industriara, energiara eta saneamendura, eta, azkenik, nekazaritzara eta abeltzaintzara.

Nagusiak ez ziren etxebizitzak % 30era heltzen ziren 2018an. 362 inguru, babes ofizialeko etxeak gehienbat, egiteke daude, plangintzaren zehaztapenen arabera. Jardueretarako okupatuta dauden 9 hektareako lurzorua du eta antzeko gaitasun hutsa.

Ubidetik doan N-240 errepidea da komunikatzeko bide nagusia. Igorre eta Durangoko Eremu Funtzionalarekin duen harremana bereziki esanguratsua da, zerbitzu publikoak eskaintzen dituelako.

Bi udalerriak Durangaldeko eskola-barrutian daude, eta espezializazio maila altuagoetarako alboko Eremu Funtzionalaren mende daude. Osasun arloan, Otxandiok kontsultategia du.

4.9.5 Arabako lautada: nekazaritza-ereduaren eboluzioa, Lautadako ardatzaren artikulazioa, AHT Nafarroan integratzea, Altsasurekin harremana





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



% 12,53

64 urtetik gorakoak 2013an

% 15,19

64 urtetik gorakoak 2020an

468

Ha industria-erabilerako hiri-lurzoru urbanizagarria

Arabako Lautadako eskualdea udalerri hauek osatzen dute: Asparrena, Alegria-Dulantzi, Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Donemiliaga eta Zalduondok. Vitoria-Gasteizen ostean, biztanle gehien dituen bigarren kuadrilla da eta etxebizitza kolektiboak dira % 26, kokalekurik handienak dituen bigarren arloa. Azken urteotan biztanleria ez da ia aldatu, nahiz eta gora egin duen 64 urtetik gorako herritarren kopuruak. Kapital natural garrantzitsua duen eremua da, hala nola Aizkorri-Aratz natur-parkea, urtegiak KBEak, Aldaiako mendiak, irla-hariztiak, Vitoria-Gasteizko eta Entziako mendi altuak eta, oro har, iparraldetik eta hegoaldetik harana ixten duten mendietan kokatzen diren eremuak. Eremurik lauenak plubiositate txikiagoa du Ekialdeko eremurik altuenek baino, bertan baitaude Eremu Funtzionaleko baliorik altuenetako batzuk. Eremua iparraldetik eta hegoaldetik ixten duten gailur-lerroek energia eolikoaren aprobetxamendurako gaitasun handia dute, eta, izatez, iparraldean dagoeneko parke bat dago martxan. Eguzki-energiari dagokionez, gaitasuna murriztagoa da haranen eta mendialdeko eskualdeetan baino, eta biomasa sortzeko gaitasuna mendi-hegalekin dago lotuta.

Lautada da nekazaritzarako lurzoru gehien duen eremua eta nekazaritzarako moduek gehien eraldatu dutena, lurraldearen muga biofisikoak gainditzen laguntzeko. Lurzoruaren higadura esanguratsua da eremu horretan. Berotegi-efektuko gasak finkatzeko gaitasun handiena duten lurzoruak harana iparraldetik ixten duten mendilerroan daude. Eremurik emankorrenak, baina sarri biota edafiko hondatuenak dituztenak Zadorrako ibarrak, Dulantzi eta Barrundia dira. Kultur ondareari dagokionez, eskualdetik igarotzen dira Inaziotar Bidea eta Barnealdeko Euskal Bidea. Halaber, Aguraingo multzo historikoa eta Araiako burdinola zaharra elementu esanguratsuak dira.

Antolamendua Lautadako ardatzak ohiko trenbidearekin duen harremanak markatzen du eta baita Nafarroarekin lotzeko abiadura handiko trenaren linea berriaren LAGEk ere. Bidegorrien sarea beste eskualdeetan baino garatuago dago. Vitoria-Gasteizekin duen harreman funtzionala oso bizia da, eta, gainera, A-1 bide-ardatz indartsuaren bidez Altsasurekin duen interakzioak markatzen du eremua.

Araba Erdialdeko zoru emankor gehienek ehunekoak daude bertan eta horrek baldintzatu egiten du ekoizpen-egitura. Industriaren eta Vitoria-Gasteizekin lotura duten jardueren ondorioz, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garrantzia mugatuagoa da ekonomian. Agurain, Dulantzi eta Asparrena dira enplegu gehien dituzten udalerriak.


Nagusiak ez diren etxebizitzak % 25 inguru ziren 2018an. Plangintza orokorretan gauzatu ez den etxebizitzaren gaitasuna ia 5.000 unitatekoa da, eta horietatik % 80 etxebizitza libreak dira. Eremuak libre dauden lurzoru industrialerako gaitasuna du, Agurainen batez ere.

Sare elektrikoak 400 Kv-ko lineetarako konexioak ditu eta uren hornikuntza Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiekin lotuta dago, elkarren artean eta Vitoria-Gasteizekin oso konektatuta dagoen banaketa-sarearekin. Ekialdeko Lautada eskola-barrutiak antolatzen ditu zerbitzuak hezkuntzaren arloan. Aguraineko anbulatorioa du, hiru kontsultategirekin batera.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

4.9.6 Vitoria-Gasteiz: industriako joera berrietara egokitzea, hiri-berroneratzea, trenbideen azpiegitura berriak txertatzea, Plan Orokorren berrikuspena



Vitoria-Gasteiz eskualde gisa aztertutako udalerrria da eta azken urteetan Arabako Erdigunean igoera demografiko garbia izan duen eremu bakarra izan da. Gainera, lurraldea polarizatzen duten baliabide eta funtzio gehienak pilatzen ditu; biztanleen % 80, ekonomia-jarduerako establezimenduen % 83 eta enpleguaren ia % 85 ditu. Naturaren kapitala Vitoria-Gasteiz Hegoaldeko Mendien KBE-ek, Zadorra ibaiak eta hirigunearen inguruan dagoen eraztun berdeak osatzen dute. Plubiositatea nahiko murrizta da Eremu Funtzionalaren barruan. Eguzki-energia sortzeko gaitasun ertaina du Eremu Funtzionaleko balioen barruan eta hegoaldeko eremuan energia eolikoa eta biomasa sortzeko gaitasun apur bat du, eremu txikia izan arren. Higadura nabarmena da, batez ere hegoaldean. Biota edafikoa nekazaritzako jarduerak eta industrien hurbiltasunak eraldatu du. Ondareari dagokionez, udalerrriak multzo historikoa eta garai askotako eraikin ugari ditu, esaterako, Arabako azukre-fabrikaren industria-ondarea.

Vitoria-Gasteizek hirugarren sektorean oinarritzen den hiri-ekonomia du, baina baita industria oso indartsua eta automobilgintzan eta jarduera aurreratuetan espezializatua ere. Nekazaritza-jarduerak garrantzia gutxi dute. Gainera, logistika-enpresa ugari dituen eremua da. Automobilgintzak paper esanguratsua du ekoizpen-ehunduran eta joera berrietara egokitu beharko da, mugikortasun elektrikoari eta ibilgailu adimendunei dagokienez.

Nagusiak ez diren etxebizitzak % 12ren azpitik zeuden 2018an. Plangintzaren barruan egiteke dauden etxebizitzaren gaitasuna 30.000 unitate baino apur bat gehiagokoa da, eta horietatik 2/3 babestutako etxebizitzak dira. Hiriko erdiguneko eremuen zati handi batek biztanleak galdu ditu, berriki sortu diren beste eremu batzuen onurarako. Beraz, zaurgarritasun sozioekonomikoaren faktoreekin eta energia-eraginkortasunarekin batera beharrezkoa egiten dute erabilerak berritzeko eta dibertsifikatzeko ekintzak egitea. Araba Erdialdeko ekonomia-jardueren lurzoruaren zatirik handiena hartzen du, eta zatirik handiena okupatua dago dagoeneko, Aireportuaren inguruan eta Teknologia-parkearen inguruan tamaina handiko erreserbak daude. Dagoeneko okupatuta dauden eremuek, oro har, nahiko kutsatuta dauden lurzoruen presentzia garrantzitsua dute eta hiri-berroneratzerako jarduketak izan ditzakete. Horiek eremu horien logika espezifikoari erantzun behar diete, bizileku-eremuen bestelakoak baitira; izan ere, hektareako jabetzen kopurua askoz txikiagoa den arren, kasuistika oso anitza du.

Vitoria-Gasteizetik igaroko da hiria goi-ordokiarekin, Nafarroarekin eta EAeko iparraldearekin lotu behar dituen abiadura handiko proiektua, eta egungo hiriko trenbideak lurperatuz artikulatuko da. Horrek erdiguneko hiri-ehundura birkualifikatzeko gaitasun handia izango du. Halaber, Jundizeko geltoki intermodal berriaren sarbidea da, Frantziara doan trenbideko



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

autopistaren hasiera, eta distantzia handiko garraio astunak murrizteko lagungarria izan daiteke. Vitoria-Gasteizek Eremu Funtzionaleko eta inguruko eremuetako erreferentziazko hiri-nodo gisa duen papera argia da.

Vitoria-Gasteiz da Eremu Funtzionaleko gaitasun handiko oinarritzko azpiegituren elkargunea, espezialitate guztietan. Gardelegiko zaborteia eta hari lotutako tratamendu-instalazioak dira Araba Erdialdeko ekonomia zirkularraren erdigunea. Arabako Unibertsitate Campusak 7 egoitza ditu eta 7.000 ikasle. Horrek paper garrantzitsua du eta udalerriko irakaskuntza-maila guztiak betetzen dituen hezkuntza-sistemaren mailarik kualifikatuena da. Gauza bera gertatzen da mota desberdinetako ekipamenduen espezialitateekin eta mailekin, eta funtzionaltasunaren buru gisa duen izaera indartzen du horrek.

5 Lurraldearen erronkak

5.1 Lurralde-ereduaren jasangarritasuna

LPP berriak lurralde-eredu jasangarriagorako bilakaera sustatu behar du. LPParen berrikuspenaren erronka nagusia da lurraldearen antolamenduan ohikoa den hiri-erkidego eredutik landa landagoa eta hiria hiriagoa izateko eredura eboluzionatzea. Hiria hiri-ekosistema eta lurraldearen ardatza izan behar da, eta haren osagaiak eta haien arteko harremana modu ekosistematikoan jorratu beha dira. Modu sinergikoan lan egiten duten eta berezko logikak dituzten bi erakunde, baina dagokien antolaketa maila kolokan jarri gabe, eta pertsonaren oinarritzko papera eta naturaren legeak ulertuz.

Ereduen erronka nagusia gehieneko konplexutasuna lortzea da hiriguneetan, hau da, pertsona juridikoen ahalik eta kopururik eta dibertsitaterik handiena lortzea, eta, era berean, lurraldeko ardatzaren ahalik eta dibertsitate biologikorik handiena, landan bizi diren herritarren bizikaltatea bermatzeko pertsona juridikoen dibertsitatea ahaztu gabe.

5.1.1 Ingurumenarena

Lotura funtzionala eta lurralde-integrazioa dira Araba Erdialdeko biodibertsitatea babesteko eta zaintzeko gakoetako batzuk. Ingurumenerako garrantzitsuenak diren eremuetako batzuk natur-igarobideen bitartez daude elkarren artean lotuta eta ibaien ardatzetan eta mendilerroetan daude artikulatuta. Proposatutako azpiegitura berdeak ekoizpen-unitate desberdinak (mendiak, larreak, laborantzak, etab.) eta ondarearen elementuak lotzen dituen ardatz biofisikoaren funtzio sistematiakoak aitortzen ditu, funtzio horiek irakurri eta erabiltzen dituen sistemaren zati gisa, lurzoruaren erabilerak bideratuz. Unitateen arteko lotura 'azpiegitura' horiek identifikatu egin behar dira eta, era berean, zaindu eta aktibatu elkarren artean konektatutako eta berriztagarria den eredu autosufizientearen bitartez, elementuen abandonua edo erabilera okerra ekiditeko.

Araba Erdialdeko azpiegitura berdeen sarea behar bezala ulertzeko, nabarmendu behar da bi ardatz nagusi dituela sareak Eginotik Sobronera lerro bat irudikatzen badugu. Hori horrela, iparraldeko eremua biodibertsitate erreserbek osatzen dute, hala nola Gorbeiak, Sobronek edo Badaia eta Arratoko mendilerroek. Urak banatzen duen lerroaren beste aldean Gasteizko



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

mendiak, Izki, Entzia, Aizkorriko mendilerroa, Alzania, Urkilla-Elgea eta Zaraia edo Lokizeko mendilerroa.

Igarobide ekologikoak konektoreak direla esan dezakegu eta haien izena lotzen dituzten espazioetatik hartzen dute: Gorbeia – Badaia eta Arrato mendilerroak iparraldean eta Gasteizko mendiak – Entzia ekialdean edo Izki – Jaundel edo Izki – mendilerroak hegoaldean. Ibai-igarobideak dira salbuespena; izan ere, osatzen duten ibaiaren izena jasotzen dute, hala nola Zallakoa, Zadorrakoa, Dulantzikoa edo Baiakoa.

Lehenengo sektorean, erronkarik handiena ohiko nekazaritza eta abeltzaintzatik nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora igarotzea da, nekazari gazteen bitartez. Lehenengo sektorea eraldatzeko funtsezkoa da Araba Erdialdeko azpiegitura berdearen parte izatea. Europako estrategia berdeak eta prozesu organikoetan oinarritzen diren kudeatzeko eredu berriek ureztatze sistemak ekoizpenean duen garrantzia murriztuko dute eta biodibertsitate mikrobiologikoaren, eta fauna eta floraren biodibertsitatearen mailak indartuko dituzte. Horrekin guztiarekin, nitrogenoaren eta fosforoaren kontsumoa nabarmen murriztea lortuko da eta nekazaritzako lurzorua karbono-isurbide handia izango da. Gainera, aldaketa horiek landa-garapenerako agertoki berria ekarriko dute baliabide endogenoen bitartez, produktua bereizteko aukera teknologiko berriak zabalduko baitituzte, ustiapenen errentagarritasunaren hobekuntza eta, ondorioz, landa demografikoaren gaztetzeko gaitasuna, lurraldearen osasun ekologikoarekin batera.

LPPak muga biosferiko jakin batzuen gainditzea aldatzeko oinarriak finkatu behar ditu. Nabarmen gainditzen den nitrogenoaren eta fosforoaren kontsumoa (% 591 eta % 399) murriztea beharrezkoa da Eremu Funtzionaleko etorkizunerako. Egungo mailek erakusten dute nekazaritzako metabolismoak industrializatua dagoela eta intentsiboa dela, energiaren eta ongarri kimikoen erabileran oinarritzen baita. Nekazaritza ekologikoak ongarrien kontsumoa geroz eta gehiago murriztea ahalbidetu dezake. Horretarako, materia organikoaren bankua sortzea proposatu da eta nekazaritzaren kudeaketarako eredu berriak erabiltzea.

5.1.2 Soziala

LPPak jasangarritasun demografikoa erraztu dezake. Arabako Erdiguneak bi alderditatik jorratzen du jasangarritasun demografikoaren erronka. Alde batetik, **eskala erantsiko despopulazio dinamiketan sartzea saihestu** behar da. Fenomeno hori sor daiteke immigrazio-fluxu indartsuei esker demografia positiboaren sentiberatasun altuaren aurrean dauden erronka ekonomikoengatik. Eta bestalde, **tokiko despopulazioaren joerei aurre egin behar zaie**, mendiko hainbat eremutan (Arabako mendialdean) eta hiriguneetan (Vitoria-Gasteizko erdiguneetan) dagoeneko agerikoak baitira. Horretarako programa sozioekonomiko eta ingurumenaren programa espezifikoak behar dira, egungo biztanleentzat eta berrientzat lanpostu eta bizigarritasun nahikoak bermatzeko dituzten kalitatezko pertsona juridikoak eta zerbitzuak sortzeko mekanismoarekin.

LPPak herritarren zahartzeari aurre egin beharko dio, bizi-kalitatearen dimentsio berriak ulertuz. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko biztanleria nabarmen hazi da azken



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

hamarkadan, bai Vitoria-Gasteizen, bai hein handiagoan landa-eremuetan, eta batez ere, kokaleku txikietan.

Vitoria-Gasteizen kasuan, 2021eko biztanleria handiagoa da 1998an baino, baina ez du bilakaera bera izan adin-taldee dagokienez: 15 urtetik beherakoen biztanleria % 26 hazi da, 15 eta 64 urte artekoena % 1 eta 64 urtetik gorakoena % 70. Azken horiek % 13 izatetik biztanleen % 24 izatera igaro dira. Landa-eremuetan emakumeak gutxitu eta zahartu egin direla hauteman daiteke, eta are gehiago kokaleku txikietan. Gainera, toki horietako etxebizitzaren eskaintza ez da beti egokia.

Egoera horrek erakusten du Vitoria-Gasteizko ekipamenduen politikek bilakaera behar dutela, baina baita landa-eremuetan ere. Izan ere, dagoeneko martxan dauden neurriak garatzea funtsezkoa da irisgarritasuna bermatzeko, hala nola eskariaren arabera garraioa.

5.1.3 Ekonomikoa

Berrikusitako LPPak kalitatezko enplegua sortzeko oinarri ekonomikoa modernizatu eta dibertsifikatu behar du, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko espezializazioa adimendunaren bitartez. Auto elektrikoak eta autonomoak zalantzak sortzen ditu Vitoria-Gasteizko industria-egituraren eta haren etorkizunaren inguruan. Beharrezkoa da Vitoria-Gasteiz industriako erabakien arloan kokatzea, ibilgailu autonomoak ekoizteko toki egokia izan dadin. Berrikuntza eta logistika dira Vitoria-Gasteizen aukerak. Robotikaren eta adimen artifizialaren garapena automobilgintzako eta logistikako sektore berriaren erdigunean daude, beraz, lehentasuna izan beharko dute.

Araba Erdigunea logistika berriaren mundu mailako erreferente izateko prozesu berritzailearen buru izan daiteke, lurraldean integrazio metabolikoa lortzeko erronka lortuz eta eraginkortasuna nabarmen hobetuz, teknologia digital berrien bidez. Horretarako, logistikak Arabako ekonomia eta Euskadikoa babestu behar ditu 4.0 erronkaren aurrean, toki merkataritza e-commerceren aurrean eta nekazaritza sektorearen zerbitzura dagoen logistika. Arabak askotariko modalitatearen eta bere berrikuntzarik aurreratuenen (sinkromodalitatea) alde egin duen apustuak aukera berriak ditu, Jundizeko Plataforma Multimodalari eta Vitoria-Gasteizko aireportuari esker. Beharrezkoa da Arasur- Foronda- Jundiz igarobidean errepide bidezko garraioa arrazionalizatzea eta garraio mota horrek lurraldean dituen eraginak murriztea, Frantziarako etorkizuneko trenbide bidezko autopista baliatuz. Halaber, aireko kargak logistika sistema indartzen du, Arabakoa ez ezik baita Euskadi osokoa ere. Alde horretatik, egungo ereduak eskari berrietara egokitzeko aukera ematen du modu egoki eta malguan, jarduera berrientzako lurzoruen eskaintza masiboa sortzeko eredu berrietara jo beharrik gabe. Eremuak aprobeztatu eta birziklatzeko aukera dago, aldaketak kudeatuz, eskaintza berri jasagarria sortuz eta eskari berrietan egokitutako garapenen kudeaketa kolaboratiboa eginez.

Jundiz, Foronda eta Miñao poligonoaren artean planteatu den Berrikuntzaren Arkua ageri da dagoeneko indarrean dagoen lurralde-plangintzan eta garatuko diren proposamenak jasotzen ditu, mugatuago bada ere. Halaber, eraldaketako energiak hiriaren barrualdea bideratzea aukera handia da kalitate handiko garraio publikoa duen eremua batzeko eta berritzeko. Ekonomiaren garapenak etxebizitzaren erdiguneko eremuetan sar daitezkeen hirugarren sektoreko eremuak behar ditu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Azpiegitura eta sare telematikoen garapenak eta herritar guztien alfabetizazio digitalak pertsonen kopuru handi baten lekualdeaketa asko mugatuko ditu jarduera telematikoein ordezkaturak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu pribatuak). Covid-19aren esperientzia oso adierazgarria izan da informazio eta ezagutza-fluxuen mugikortasunaren eraldaketaren indarraren inguruan. Digitalizazio hori lurralde adimendunak, erresilienteak eta lehiakorak artikulatzeko proposamenek osatu behar dute, ezjakintasunei aurre hartzeko gaitasun handiagoa izateko.

Duela denbora batetik **turismoaren** interes orokorra zalantzan jartzen duten ahotsak agertu dira. Alabaina, jarduerak eragin onuragarriak izan ditzake arlo periferikoetan errenta eta enplegua sartzeari dagokionez, Araba Erdialdeko landa-eremuan egiten duen moduan. Turismoaren erronka etekin sozialak eta ekonomikoak lortzea da, isurpen-fluxu esanguratsuak sortu gabe eta lurraldeko kapitalaren zaintzari kalterik egin gabe. Vitoria-Gasteizen ez da alde horretatik arriskurik ikusten, ezta landa-eremuan ere. Eskualdeetan, beharrezkoa da gainezka egiteak saihesteko neurriak hartzea, eta, aldi berean, landa-dinamikan txertatzeko gai den turismoa sustatzea.

5.2 Hiriko eta landako habitata

LPPk Vitoria-Gasteizko eta haren Eremu Funtzionaleko herrixkak suspertzeko oinarriak ezarri behar ditu.. Vitoria-Gasteizko hirigune tradizionalen hiriko nortasuna definitzen duten funtsezko elementuak eta ondare historikoa kontzentratzen dira, beraz, azken urteetan inbertsio publiko garrantzitsuak egin dira baldintzak hobetzeko. Hala eta guztiz ere, ez da lortu despokatze-joerak aldatzea. 1960az gero, udalerrian biztanleak hirukoiztu baino gehiago egin dira; alde zaharrean, ordea, biztanleen kopurua erdira murriztu da. 1998tik 2017ra udalerrian biztanleak % 14 hazi dira, alde zaharrak % 9 galdu dituen bitartean. Joera ez da beti beherantzkoa izan, 1998an 9.509 biztanle izatetik 2005ean 10.646 biztanle izatera pasatu baitzen, eta 2017an berriz ere 8.658 biztanlera itzuli zen.

Oro har, Eremu Funtzionaleko herrixkek ezaugarri erkidea dute, hain zuzen ere, guztiek tamaina demografiko txikia dute. Hala eta guztiz ere, kokapenaren arabera, bilakaera desberdina izango da. Vitoria-Gasteizko ingurune hurbilean dinamika konplexuagoak dira, baina landaguneetan udalerri buruek biztanleak irabazteko joera dute, kokagune txikien kalterako. Kokagune-sistema hau sakabanatuta dago, eta ahulezia bat da zerbitzu publikoak emateko orduan. Foru Aldundiak Mendialdea Berritzen proiektua abian jarri du. Proiektu horren helburua da Arabako Mendialdetik landa-despokatzea geldiarazteko oinarriak ipintzea. Hala, garapen endogenoa indartu nahi du eta, horretarako, lehentasunezko pertsonen eta taldeen beharrei erreparatuko die, gero, biztanleak (hala nola adinekoak eta mendeak, emakumeak eta gazteak) finkatu eta erakartzeko. Lehen ekintza izango da, ikasteko eta Arabako beste kuadrilla batzuetan errepikatzeko.

2020an Eremu Funtzionalean parametro biogeokimikoen diagnostikoa egin zen eta balioak argi eta garbi jasangaitzak dira. Horrez gain, Planen proposamen estrategiko ekonomikoak gutxi garatzen dira. Abiapuntu horietan funtsatuta eta nazioarteko nahiz nazioko agertokia (2030 Agenda eta Europako Itun Berdea) ikusita, AEko lurralde- eta hiri-ereduaren oinarriak aldatzea proposatzen da. Horrenbestez, iradoki da LPPren berrikuspenak eta ondorengo udal-planek hiri-hazkuntza (kanpoalderantz) mugatzea eta hiri-berronertzerantz eraldaketa-ahaleginak



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

(barrurantz) bideratzea, bai hirigintzaren ikuspegitik, bai parke eraikiaren ikuspuntutik. Gidalerroen zeregina izango da lurzoru urbanizagarriaren zati bat desprogramatzea eta lehendik dauden ehunak berroneratzea eta dentsitate berriak ematea.

LPPren berrikuspenean sartuko diren zehaztapenen zati substantiboa garatzeko oinarritzkoa da Vitoria-Gasteizko etorkizuneko HAPOn edukia. Ezinbestez lerrokatu behar dira ekimenak bi plangintza-irudien helburuetara iristeko. Ildo horri eutsiz, periferiako dentsitate berriari buruz zehaztutakoa garrantzitsua da: periferiako auzo berrien dentsitate berria, ingurabidean ehun zaharren eta ehun berrien arteko lotura, hustu eta zahartu den Vitoria-Gasteizko hirigunea berroneratzea, mugikortasun eta espazio publikoaren eredu berria inplementatzea eta barneko sare berdea garatzea. Sarea elkarren artean eta eratzun berdearekin zein etorkizuneko nekazaritza-eratzunarekin konektatu beharko da.

5.3 Baliabideen kudeaketa jasangarria

Metabolikoki, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak honako erronka hauek ditu: energia berriztagarriekin gehieneko energia-autosufizientzia lortzea; ur-autosufizientzia eskuratzea eta, xede horrez, ur-gorputzen kalitatea zaintzea; gehieneko material-autosufizientziara iristea eta, horretarako, ekonomia zirkularraren engranajeei esker hondar-fluxuak baliabide bihurtzea; eta nekazaritza ekologikotik datozen gertuko elikagaien gehieneko autosufizientzia. Autosufizientzia konektatuari esker, landa eta hiri txertatu behar dira.

Hiri-metabolismoa birmoldatzea. Hiri eta lurraldea berriz egokitu behar dira, autosufizientzia konektatuaren printzipioa aplikatzeaz gain. Izan ere, lurralde-antolamenduaren erronka handienetako bat da edozein eremutan: hiri eta lurraldea berriz moldatzea eta produkzio-eredua berregituratzea haren eremuko muga biofisikoetara egokitzeko. LPPren ikuskapenak tresna izan behar du, batetik, deskarbonizazio eraginkorrerako eta, bestetik, gure gizarte-metabolismoarekin zerikusia duten gainerako arazoei aurre egiteko.

Araban dago “dieta mineralaren” zati txiki bat. Eremu honetan autosufizientzia konektatuaren printzipioa aplikatzeko konponbide egokiak bilatu behar dira. Helburua da, batetik, baliabideak aprobetxatzea eta, bestetik, jarduera horiek eta haien ondoreko kaltegarriak beste lurralde batzuetara ez esportatzea. Erronkari begira, meatzaritza berria diseinatu behar da, ingurumen-eraginak eta -arriskuak minimizatzeko, materialak berriz zirkulatzen dituzten aukera teknologikoak optimizatzeko eta garapen endogenoko moduak bultzatzen laguntzeko. Araba Erdialdean sartzen diren mea guztien CO₂ aztarna zenbatu eta murrizteko konpromisoa onartuz gero, autosufizientiaren ildotik konponbideak bilatzearen beharra ulertuko litzateke.

Autosufizientzia konektatura heltzeko nahitaez aldatu beharko dira hirigintza-plangintzaren printzipioak hazkuntza zabalgarriko joera izan ordez, hiriguneak barnean berroneratzeko; bai eta mugikortasunarekin zerikusia duen arloko printzipioa ere, oraingo hiri- eta lurralde-mugikortasuna aldatzeko, etab.

Eraikinetan energia berroneratzea dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren programa batean sartuta dago, eta erronka da Araba Erdialdean garapen mailarik handiena izatea, bai hiri-eremuan, bai landa-eremuan. Energiaren kontsumoa % 85 inguru murriz daitekeela zenbatetsi da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Araba Erdialdeak ura eta energia berriztagarria helarazi behar die lurralde zabalagoi, haietan txertatu behar baita ezinbestez, baina betiere komenigarriak ez diren desorekak edo desiragarriak ez diren kapital naturalaren galerak saihestu behar dira.

5.4 Mugikortasuna eta logistika

LPPk erronka nagusi bat garatu behar du, hain zuzen, mugikortasunaren piramidea alderantzikatu behar du eskualdeen arteko harremanak areagotzeko. Harreman funtzionaletan Vitoria-Gasteizen makrozefalia gainditu behar du. Mendekotasun-harreman hierarkikoen zati baten ordeztu landa-lurraldearen esparruan truke- eta elkarlan-harremanak egituratu behar dira.

Proposamenak abiapuntutzat hartu behar ditu uneko proiektuak, mugikortasun-ereduak aldatzeko gaitasun handia dutenak, hala nola Jundizko estazio intermodala, Frantziako iparralderaino tren-autopistan sartzeko (Eremu Funtzionalaren rol logistikoa indartuko du), eta abiadura handiko trenbideak (informazio-azterketan). Euskadiko aireportu-sistemaren esparruan, Vitoria-Gasteizko aireportua garatzeak mesedegarri izan dezake Jundizko terminalarekin tren-konexioa. AEPIn aurrez ikusitako jarduketak ugariak ez izan arren, bide-azpiegiturak tokian txertatzeko adierazgarriak dira. Halaber, garrantzitsuak dira Vitoria-Gasteiz udalerriko garraio publikoaren sarea eta hura indartzeko proiektuak. Udalaz gaindiko garraio publikoa kokaguneen sareak proposatzen duen hierarkiara egokituko da, eta jarraipena emango die, besteak beste, honako formula hauei: biztanle gutxi dituzten eremuetan eskepeko garraioa. Motorrik gabeko mugikortasunari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSren proposamenei erreparatu behar zaie.

5.5 Lurraldea eremu hurbilekin egituratzea

Lurralde mugakideekin harremanetarako Trebiñu kontuan hartu beharko da, bestela, ezinezkoa baita Arabako Mendialdearen eta Arabako Ibarren arteko ekosistema-fluxuak ulertzea. Horrez gain, Arasurko jarduketa logistikoak eta Miranda de Ebron garatutakoak egituratu beharko dira. Gaztela eta Leonen azpieskualdeko lurralde-antolamenduko tresnarik ez dago, eta erreferentzia eskualde mugakiderako gidalerro orokorreari buruzko legea da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 39. Burgos eta Arabaren arteko muga Miranda de Ebro/Arasurren

Altsasurekin eta A1 errepideko igarobidearekin egituratzeari eutsiz, Nafarroako Lurralde Estrategia berrikusten hasi da, eta horri esker, Europa barneko ardatzean sartuta harreman-prozesua dinamizatzeko aukera ematen du. Altsasurekin egituratzea estrategikoa da.



Graf 40. Araia/Asparrenako industriaguneak mendebaldean, Altsasu ekialdean



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 41. Trebiñuko kokagunea Vitoria-Gasteizi dagokionez

Bestalde, Trebiñu Arabako lurraldean kokatzen denez, ekosistema-lotura argia du, baina soziala ere bai, eta bi autonomia-erkidegoen artean egindako hitzarmenetan onesten da.

EAEko beste Eremu Funtzional batzuekin harremanak aztertuz gero, Arabako Lurralde Historikoaren barruan Aiara/Ayalarekin eremu babestuek eta erliebe malkartsuak mugatzen dituzte, AP-68 errepideko igarobide linealarekin gainditu arren. Orografia- eta ingurumen-baldintzatzaile berberak aplikatzen zaizkie gainerako Eremu Funtzional mugakideekin egituratutako harremanei. Arratiarekin harremana Ubide eta N-240 errepidearen bidez egituratzen da. Debagoiena eta Arrasate/Mondragónekin lotura 2004ko LLPren indarraldian sendotu da AP-1 autobideari esker. Goierriarekin den harremanak azaltzen du Eremu Funtzionalerako Altsasuk A-1 errepideko igarobide historikoaren bidez duen garrantzia. Hegoaldean, Arabako Errioxarekin harremana Toloñoko Mendilerroaren hesiak ahultzen du, eta konexioa erkidego mugakideen bitartez egiten da.

5.6 Klima-aldaketa Araba Erdialdeko LPPn txertatzea

Lurralde Plan Partzialak udalen hirigintza-planak udalaz gaindi koordinatzeko eta beste arlokako politika batzuen eta eragile pribatuen jarduketan hedapen sistematizatua egituratzeko bokazio argia du, beraz, klimaren erresilientzia sartzeko esparrurik egokiena da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Ildo horretatik, LPP honek klima-aldaketa eta egokitzapena barneratzen ditu zeharka, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen ikuskapenaren arabera.

Testuinguru honetan, LPP funtsezko tresna da. Udalaz gaindi udalen hirigintza-planak eta tokian bestelako esku-hartze estrategikoak edo arlokoak koordina ditzake ahaleginak eta ekintzak eraginkorrak izan daitezten. Hala, LPPri esker, udalerriek klima-aldaketara egokitzeko azterlanak egiten dituztenean, lehentasunak jar daitezke eta orientabideak eman ere bai.

Lurralde Plan Partzialaren lurralde-ereduak honako hauek kontuan hartuko ditu:

- 1) Klima-aldaketa gehiago arintzeko eta hari hobe egokitzeko irizpideak eta zehaztapenak sartuko ditu eta, bereziki, klima-aldaketaren ondorioz arrisku handiena duten eremuak identifikatuko ditu. EAEn eta RCP 8.5en eragin nagusiei eta 2011-2040rako agertokiari erreparatuko die, hala nola giza osasunerako bero-boladei, hiri-ingurunean uholdeei eta jarduera ekonomikoetan lehorteei:
 - a. Vitoria-Gasteiz, Lantaronek eta Iruraitz-Gaunak arrisku ertainak dituzte giza osasunerako bero-boladengatik; bien bitartean, Bernedok, Lagranek, Legutiok eta Añanak oso balio baxuak dituzte; gainerako udalerriak balio baxuetan daude.
 - b. Lehorte-aldi gehiago izatearen ondorioz jarduera ekonomikoetarako arriskuak oso altuak dira Iruraitz-Gaunak eta Armiñonen, baxuak Ubiden eta Legution, ertzainak Arratzua-Ubarrundian, Zigoitian, Zuian, Kuartangon, Bernedon, Lagranen, Asparrenan eta Zalduondon eta altuak gainerako udalerrietan.
 - c. Ingurune eraikian ibai-uholdeen arriskua altua da Vitoria-Gasteizen, ertaina Burgos eta Arabako mendebaldean dauden udalerrietan, Armiñonen eta Arratzua-Ubarrundian, Asparrenen, Agurain/Salvatierran eta Kanpezun. Gainerakoetan baxua edo oso baxua da.
 - d. Kasu guztietan Vitoria-Gasteiz balizko eragin gehienak ditu.
- 2) Klima-aldaketaren ondoreen analisian eta klima-aldaketa arindu eta hartara egokitze aldera neurrietan sakontzeko orientabideak sartuko dira. Arintzeko energia berriztagarriak, batik bat fotovoltaikoa, sortzeko gaitasuna gehitu behar da; egokitzeko, berriz, azpiegitura hidrikoen arloan erabilerak eta ekintzak zehatz-mehatz arautu behar dira.
- 3) Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatuko dira. Horrez gain, ekosistemak berroneratu eta naturalduko dira lurraldearen erresilientzia mantentzeko. Ildo horretatik, funtsezkoa da hiriko eta hiri-inguruko berdeguneen artean konexioa bultzatzea eta ibai-ekosistemak txertatzea hiri-eremuetan bero-irlen ondorioak gutxitzeko eta klima-aldaketaren ondorioekiko erresilientzia laguntzeko.
- 4) Nekazaritza-sektorearen egokitzapena bultzatuko da, batez ere lehorteen eragina jasango baitu.

6 Lurralde-eredu berria

6.1 Lurralde-eredu berriaren laburpena


Lurralde-ereduaren proposamena ildo hauen inguruan antolatzen da:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

1. **Ingurumen-oreka.** Lurzorua antolatzeko proposamenak azpiegitura berde egituratua izango du, nekazaritza-balio altueneko lurzoruak errespetatu eta lurzoruaren urbanizazio-aukerak mugatzeaz gain. Mugikortasun jasangarriaren eredia bultzatuko denez, proposatutako ereduak jarduera antropikoen ingurumen-eragina mugatzen lagunduko du.
2. **Agertoki metabolikoa.** Baliabide energetikoak erabiltzean Euskadiko Energia Estrategia 2030ekin bat datorren aukera hautatuko da, eta baliabideak erabiltzean pixkana eraginkortasuna hobetuko da. Plana egitean jakitun da E32030 produkzio-prozesuen deskarbonizazio osorantz maila bat baino ez dela. Mendearen erdialdean lortuko da, Europako postulatuen ildotik.
3. **Ekitate eta egituratze soziala.** Irizpide horiek aplikatuko zaizkie, batetik, batez ere hiri-eremu ahulenetan hiria berroneratzeko hiriko ereduari eta, bestetik, landaguneak suspertzeari. Gainera, ikuspegi sozialari arreta jartzen dioten gobernantza-neurriak proposatuko ditu.
4. **Informazioan eta ezagutzen oinarritutako ekonomia.** Arlo honetan jarduera ekonomikoen digitalizazioa bektore bat izango da baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta lurraldean eragina murrizteko, baina, aldi berean, halabeharrezkoa izango da jarduera aurreratuekiko mendekotasun handia duen ekonomiaren bilakaera arrakastatsua, hala nola automobilgintzarena, ziurtatzeko. Ildo horretatik, ekonomia horiek epe laburrean sakonki aldatzera deituta daude.

6.2 Eredu berria lurraldeko erronkei aurre egiteko



Graf 42. Lurralde-matrizearen eredu ekonomikoaren funtsezko zerbitzuetan oinarritutakoa. Iturria: Salvador Rueda, 2021

Proposatutako eredu honako printzipio hauen inguruan antolatzen da:

1. **Lurralde-oreka berria**, indarreko eredu zabalgarria alde batera utzita:
 - a. **Landaguneak, bere logikarekin**, gai izan behar du:
 - i. Egungo ingurumen-eragina murrizteko.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

- ii. Kokagune txikietan biztanleak gehitzeko, ekonomia eta egonkortasun soziala dinamizatzen duten arrazoizko balioetara iritsi arte.
 - iii. Kohesiozko lurralde-oreka lortzeko, beharrei, biztanleen ongizateari, haien bizi-kalitateari eta naturaren legeei erantzun diezaien.
- b. **Hirigunea sistema irekitzat joko da** material, energian eta informazioan, **eta landagunearekin itxiko da**. Beraz, ezingo dio bizkarrik eman:
- i. Hirigunea eusteko elementu gisa landa- eta natura-sistemen erabilera baldintzatuko da, karga-gaitasuna eta muga biofisikoak gainditu gabe. Batetik, baliabideen hornitzaileak dira eta, bestetik, hondar-fluxuen "giltzurrunak". Hala, mekanismo naturalen bidez sistema horien berroneratzea ziurtatuko da.
 - ii. Garrantzi handiagoa emango zaie, bai eta ikuspegi ekonomikotik ere, landa- eta natura-munduko ekosistema-zerbitzuei. Berroneratzeko nekazaritza aplikatzearen ondorioz nekazaritzaren produktibotasunean mugak orekatuko dira ereduaren arabera lurraldea berronekatzeko funtsen bidez.
 - iii. Hiriko eredu trinkoa, antolaketan konplexua, metabolismoaren ikuspegitik eraginkorra eta gizartearen ikuspegitik kohesionatua indartuko da, Espainiako eta Euskadiko Hiri Agenden eta 2019ko LAGen aipamenei jarraikiz. Ildo horretatik, ez dira behe-dentsitateko aldiriak eta haiekin lotutako bide-sareak sortuko.
 - iv. Hiri-berroneratzearen aldeko apustu irmoa egingo da, bai bizitegi-eremuetan, bai ekonomia-jardueratan, eta hiri trinkoa, konplexua, metabolismoaren ikuspegitik eraginkorra eta gizartearen ikuspegitik kohesionatua egituratuko da.
2. **Elkar konektatuta dagoen azpiegitura berdea konfiguratzea**. Egungo unitateak (basoak, nekazaritza-eremuak, larreak, heskaiak, ibaiertzak, ur-ibilguak eta hezeguneak) segmentatuta eta banatuta daude, eta hori zuzentzeko konfiguratuko da. Modu horretan, Araba Erdialdeko gehieneko biodibertsitatea eta natura-aberastasuna bermatu eta mantenduko dira. Lehen aipatu den bezala, hego-ekialdeko ardatzetan dauden guneak, besteak beste, Izki edo Gasteizko Mendiak, bai eta ipar-mendebaldekoak ere, eremu guneekin (Gorbeia, Badaiaiko eta Arrato edo Arkamuko (Gibillo) ala Arrastariako mendilerroak) elkar konektatu behar dira. Gune horiek Araba Erdialdeko mugak gainditzen dituzte ipar-mendebaldean Amurrioraino eta ekialdean Trebiñuko Konderriraino iristeko.
3. **Garatuko den ekonomia honako hauetan oinarrituko da:**
- a. **Lurraldean goi-teknologiako jarduerak hedatzea**, besteak beste, informaziokoak eta komunikaziokoak, oinarritzakoak baitira lurralde adimendurako ekonomia desmaterializatuaren eta ezagutzan trinkoa denaren barruan. Halaber, pertsona juridiko anitzen artean arin antolatzeeko tresna da.
 - b. **Industriaren produkzio-egitura automobilgintzarekin lotutako jardueren bilakaerari eguneratzea**.
 - c. **Lurralde-matrizea zaintzea eta, horretarako, ekosistema-zerbitzuan birbanatzea**.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

4. **Efizientzia metabolikoa.** Helburua da berriztagarriekin gehieneko autosufizientzia energetikora, autosufizientzia hidrikora eta materialen nahiz elikagaien autosufizientziara iristea. Autosufizientzia konektatua lurralde guztian garatuko da, eta errazago iritsiko da landaguneetan.
 - a. Energia berriztagarria ekoizterantz trantsizioa egingo da, eta arauak aldatuko dira energiaren kontsumoa murrizteko. Azken finean, klima-aldaketa arindu eta horretara egokitu nahi da.
 - b. Eredu hidrikoaren barruan, uraren zikloa Uraren Esparru Zuzentarauaren irizpideetara egokituko da, eta natura-baliabide mugatua, baina berriztagarria dela onetsiko da.
 - c. Materialen eta hondakinen kudeaketa-eredua ekonomia zirkularrean oinarrituko da.
5. **Pertsona juridikoen kopurua eta aniztasuna gehitzea.** Lurraldean gobernantzaren historiak berak dagoeneko kontzejuen aurrekari garrantzitsua du, baina gehitzeko hiru bide erabiliko dira:
 - a. Lurraldeko kokagune garrantzitsuetan, kokapen-sistemen gune anitzak indartuko dira → **aniztasun antropikoa**
 - b. Elikagaiak eta natura-baliabideak emateko eta hondar-fluxuen multzoa jasotzeko gai izango dira lurralde-matrizearen esparruan biodibertsitatea gehituta → biodibertsitatea + **aniztasun antropikoa**
 - c. **Gizarte-kohesioa bilatzea**
6. **Tresna ekonomikoak, teknikoak, araugintzakoak eta antolakuntzakoak egituratzea.**

6.3 Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenak Araba Erdialdeko lurralde-eredurako ingurumen-oinarri sendoak ezartzen ditu. Ekosistema modura pentsatu da eta, xede horrez, lurzorua ekologia-, paisaia- eta nekazaritza-balio altuenaren arabera zonakatu da. Hala, natura- eta kultura-ondarea babesten da. Lurzoru urbanizaezinen antolamenduari dagokionez, 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ikuskatzean izandako paradigma aldaketa onetsi da, beraz, ikuskapen honek urbanizazioari kendutako lurzorua tratatzen du zenbait helburu lortzeko:

- 1) Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko lurzoru urbanizaezinean eta barne-uretan geodibertsitatearen eta biodibertsitatearen balioak, bai eta ekologia-, kultura- eta paisaia-balioak ere kontserbatu eta aktibatzea, LAGek zehaztu dituzten irizpideen eta proposamenen eta 2004ko LPPren ondorengo ingurumen nahiz arlokako legediaren arabera.
- 2) Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ekoizpenerako oinarri diren lurzoruak kontserbatzea eta nekazaritza-jarduera indartzea, elikagaien subiranotasunera iristeko gertuko elikagai osasungarriak ekoizten dituelako. Halaber, nekazaritza-, basogintza- eta larre-paisaia bizia, erakargarria eta bideragarria kudeatzea.
- 3) Azpiegitura berde eta urdinaren zereginari eta klima-aldaketara egokitzeko naturan oinarritutako konponbideei balioa ematea.
- 4) Hiriak berriz natural bihurtzearen aldeko apustua azpiegitura berdearen eskema kontzeptualean txertatzea lurraldea globalean integratzeko.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.3.1 Lurzorua zonakatzea

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek dituzten ildo berrietatik abiatuta, LPPren ikuskapenak lurzoru urbanizaezina berrantolatzean LAGetako sei kategoria ezarri nahi ditu (babes berezia, ingurumen-hobekuntza, basogintza, nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala, mendi-larreak eta gainazaleko uren babesa).

Gainera, lurraldean natura-arriskuekin eta klima-aldaketarekin lotutako afektazioak (akuiferoen kalteberatasuna, arrisku geologikoak, uholdeak izateko arriskua duten eremuak eta klima-aldaketarekin lotutako arriskuak) eta azpiegitura berdea (ingurumen balioak direla eta, babestutako espazioak, igarobide ekologikoak eta natura-intereseko beste espazio multifuntzional batzuk) kartografiatu dira.

6.3.1.1 Babes berezia

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek honako elementu hauek sartzen dituzte Babes Bereziaren kategorian:

- i. Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzean zeregin garrantzitsua duten eremuak, hala nola lurzoruak babestea edo akuiferoak kargatzea.
- ii. Galtzeko mehatxupean dauden edo nazioarteko hitzarmen edo xedapen espezifikoek bidez babes berezia eman zaien habitat naturalen laginak, egoera onean kontserbatuta.
- iii. Espezie mehatxatutzat zerrendatutako animalia- edo landare-populazioak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak nahiz nazioarteko hitzarmenen edo xedapen espezifikoek arabera babes berezia behar duten eremuak.
- iv. Landa-paisaia edo paisaia malkar harmoniatsuak, edertasun paregabekoak edo kultura-balioa dutenak.
- v. Geologia-intereseko lekuak (GIL).
- vi. Bakanak edo bereziak direlako nabarmentzen diren elementu naturalak, edo interes zientifikoa dutenak.

Gidalerro horiek Araba Erdialdeko lurraldean kokatuta, Babes Bereziaren kategoria honako elementu hauek osatzen dute:

- i. Natura Baliabideen Antolamenduko Planek Babes Bereziko eremu gisa ezartzen dituzten mugak.
- ii. Onetsitako Kudeaketa Planen arabera, Faunarako Interes Bereziko eremuak, hala nola Bonelli arranoarentzako eta bisoi europarrarentzako eremuak.
- iii. Geologia Intereseko Tokiak azaleratzea: Valderejoko itxitura periantiklinala, Subillako kareharriak, Añanako diapiroa edo Igoringo sakana, besteak beste.
- iv. Araba Erdialdeko Paisaiaren Katalogoari jarraikiz, honako paisaia-kalitateko helburu hauekin zerikusia duten mugak:
 - a. Esposizio handiko kokaguneen babesa sustatzea.
 - b. Agertoki-hondoetako kokaguneen babesa sustatzea
 - c. Paisaian zuhaitz-masa berezien babesa sustatzea
 - d. Natura-paisaiaren (harritsua eta higadurazkoa) babesa sustatzea
 - e. Kultura eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako kokaguneen ikusizko babesa sustatzea.
 - f. Harkaitz eta mendixken babesa eta kontserbazio bisuala sustatzea.
- vi. Beste elementu interesgarri batzuk edo kontserbazio-egoera bikaina dutenak, hala nola San Fausto, Jugatxi eta San Kristobal mendiak nahiz Atiega/Atiagako inguruneak.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.3.1.1.2 Ingurumen-hobekuntza

Ingurumen Hobekuntzaren kategorian honako hauek sartzen dira:

- i. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSn ezarritako Ingurumen Hobekuntzaren mugak eguneratu eta moldatzea.
- ii. Araba Erdialdeko Paisaiaren Katalogoari jarraikiz, honako paisaia-kalitateko helburu hauekin zerikusia duten mugak:
 - a. Meategi, zabortegei eta beste eremu degradatuen paisaia-integrazioa sustatzea.
 - b. Larre eta sastraken paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea.
 - c. Basoko landaketen paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea

6.3.1.1.3 Basogintza

Basogintzaren kategoriako lurzoruen proposamenak goi-mailagoko kontserbazio-tresnarik ez duten baso-lurzuak hartzen ditu. Halaber, Natura Baliabideen Antolamenduko Planen arabera, basogintzako eremutzat jotzen direnak sartzen dira.

Kartografia-iturri berrienak kontsultatu ostean, zenbait aldaketa daude, eta planak zaharrak direnez, batzuk ez dira eguneratuta ageri, beraz, LPSk basogintza-lurzorutzat hartzen dituen hainbat Babes Bereziko kategoriara pasatu dira.

6.3.1.1.4 Nekazaritza eta abeltzaintza eta Landazabala.

Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabalaren kategoriak bi azpikategoria ditu: balio estrategiko handia duten nekazaritza eta abeltzaintzako lurzuak eta trantsizioko landa-paisaiak. Lehenengoen mugak batez ere Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Basogintzako LPSk ezarri ditu (plan eguneratuagoek ezarri dituzten mugaketa txikiak izan ezik).

6.3.1.1.5 Mendi-larrea

Mendi Larreen zonakatze-proposamenak eremu gehienak Vitoria-Gasteizko iparraldean kokatzen ditu, Gopegitik N-622 eta A-3608 errepideetan zehar. Era berean, larreen azalera aipagarria dago Eremu Funtzionalaren mendebaldean, Quintarilla/Valleruca mendietan, eta, neurri txikiagoan, Nanclares de Oca/Langraiz Okako mendietan, Ullibarri/Uribarriko urtegiaren hego eta ekialdean eta Izkiko parke naturalaren inguruko paisaietan.

6.3.1.1.6 Gainazaleko uren babesa

Gainazaleko Uren Babesaren kategorian ibaiak eta errekek sartzen dira, haien babes-eremuekin batera. Kategoria hau mugatzeko, ibaien ardatzekiko Uraren Euskal Agentziako (URA) kartografiarik eguneratuena erabili da.

Ondoren, geruza egokitu da Ibaien eta Erreken LPSk xedatutakoaren arabera. Hala, ardatzei eta arroi mailak eman zaizkie (osagai hidraulikoa) eta ibaiartzen geruza honako hauen arabera eguneratu da: garatutako eremuen egungo egoera, komunikazio-azpiegiturak, garapen berriaren ahalmenak eta landa-eremua. Modu horretan, ibai bakoitzean erretiroak eta lurzoruaren kategoriazioa zehaztu dira.

Bestalde, Hezeguneei buruzko LPSren irizpenei eta udal-plangintzako gainazaleko uren babesei erreparatu zaie. Horrenbestez, kategoria honen barruan sartu dira urtegiak, haien afektazio-



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

eremuak eta ura gehieneko biltegi mailara iristean sortzen diren irlak. Batzuetan beste kategorია batzuetan sartzeko erabilerak izan arren, isolamenduak eta urtegiaren ingurunearekin lotura argiak erabaki hori hartzera eraman dute.

6.3.1.2 2004ko LPPrekiko eta indarreko plangintzarekiko aldaketak

2004ko LPPren arabera, lurraldea babesteko, kalifikazioa aldatuko ez duten landa-lurzoruak kontuan hartzen dira, eta, orokorrean, goragoko mailako tresnek, hala nola Natura 2000 Sareak edo onura publikoko mendiak, xedatutakoen barruan sartzen dira.

2004an halakoek 145.124,43 ha hartzen zituzten. Antolaketa-proposamenean % 64,7 Babes Bereziko lurzoruan sartu dira, % 18,75 nekazaritza zein abeltzaintza eta landazabalean eta % 18,64 basogintzan.

Indarreko hirigintza-plangintzari dagokionez, antolamendu-kategoriak aldatuko dira.

Babes berezia

Kategoria asko zabaldu da Basogintzaren kategoriaren kalterako. Natura 2000 Sareko eremu ugari sartu dira 2012. urtetik 2016. urtera. Nahiz eta eremu horiek zonakatzeko zehatza izan, mugarte horietan babes bereziko, kontserbazioko edo leheneratze ekologikoko eremuak sartzen dira, eta guztiak Babes Bereziko eremuetan txertatzen dira.

Era berean, kategoriari Geologia Intereseko Tokiak eta, kudeaketa-planak onetsi ostean, Faunarako Interes Bereziko Eremuak erantsi zaizkio, eta horiek ere kategoria zabaltzeari ekarpena egin diote.

Basogintza

Lehen aipatu den bezala, kategoria hau murriztu da, batez ere Natura Sarea edo GITren azaleratzeak, hala nola Pobesko konglomeratuak edo Subillako kareharriak, atera direlako, lehen Basogintzaren kategorian egon arren.

Nekazaritza eta abeltzaintza eta Landazabala.

Indarreko plangintzak ez du balio estrategiko altuaren edo trantsizioko landa-paisaiaren azpikategoriarik, beraz, alderatzea zailagoa da. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSrekiko, ordea, proposamenean balio estrategiko altuak azalera gutxitu du. Gainazaleko Uraren Babesaren kategoria sartu da, eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk ez du aurrez ikusten. Era berean, proposamenak balio estrategiko altuko mugak marrazten ditu, nahiz eta LPSk ez izan. Natura Baliabideen Antolamenduko Planak onetsi ondoren, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpen eta Landazabalaren Eremu gisa egindako zonakatzetik atera dira.

Trantsizioko Landa Paisaiaren kategoriari dagokionez, proposamenarekin azalera gehitu da, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSrekin alderatuz gero, egun nekazaritza-erabilera duten eremuak sartu baitira edo, baldintzak direla eta, nekazaritza-ahalmen handia dutenak baitaude, lehen Basoa - Mendi Mehatza kategorian egon arren.

Hori guztia kontuan hartuta, indarreko plangintzarekin erkatzen bada, Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabalaren kategorian 7.000 hektarea gehiago daude.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Ingurumen-hobekuntza

Kategoria honek Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk xedatutako antzeko azalera du; indarreko plangintzak xedatzen duenarekiko, ordea, murriztu da, nagusiki eskala-alderdiak direla bide. Ulergarriagoa izateko, geruza honek 10 hektareatik beherako mugak kendu ditu, beraz, askotan, indarreko plangintzak Ingurumen Hobekuntza gisa mugatutako zonakatze txikiak ezabatu dira, eta kategoria hori lurraldearen eskalan baino ez da irudikatu. Ildo horri jarraikiz, plan orokorrek, udal eskalan, Ingurumen Hobekuntzaren kategoria izan dezaketen balizko zonakatzeak muga ditzakete.

Mendi-larrea


Kategoria hau, Ingurumen Hobekuntza bezala, murriztu da, altueran zenbait eremu, mendilerroen eremu kakuminaletan kokatutakoak, Babes Berezira pasa baitira. Gainera, orokorrean, Natura 2000 Sarean sartuta daude.

Gainazaleko urak babestea.

Azalera arinki gehitu da, urtegiak eta trazadura eta ibilguen zenbait aldaketa sartu direlako, uholde-arriskuko azken kartografiaren arabera.

Proposamen hau planteatu da, baina udalerriek beren plan orokorretan udal-eskalan kategoriak (hala nola Ingurumen Hobekuntza edo beste kategoria batzuk) mugatu ahal izango dituzte, baldin eta behar bezala justifikatzen badira.

LPPa berrikusteko proposamena, 2021





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6.3.1.3 *Natura-arriskuen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriak*

Natura-arriskuak kontrolatu, arindu eta prebenitzeko LPPren ikuskapen honek hiru helburu nagusi ditu:

- i. Lehenengoari esker, Planaren zehaztapen eta gomendioei erantsi zaizkie arriskutsutasuna hobe ezagutzea eta arriskuen estimazioak Araba Erdialdean, LAGek izan duten eguneratzearen ildotik. Horretarako, aurrerapen zientifiko teknikoei eta kartografikoei erreparatu zaie, bai eta, nagusiki, arrisku bakoitza kudeatzean administrazio eskudunek plangintza-tresnak eta zehaztapenak definitzeko oinarritzat hartu dituzten aurrerapen horiei ere.
- ii. Bigarren helburua estuki lotuta dago lehenengoari. Lurraldeko plangintza-tresnari arriskuak prebenitu eta arintzeko arlokako plangintza-tresnek ezarri dituzten zehaztapenak, gidalerroak eta gomendioak erantsi zaizkio, horiek Europako zuzentzauek eta erregelamenduek nahiz Estatuko oinarritzko legediak xedatutakoetatik abiatuta definitu baitira.
- iii. Azkenik, hirugarren helburuan 2004ko LPPk zehaztutako zenbait interpretazio- eta aplikazio-eremu argitzen dira, harrezkero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak behin betiko onesten dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren esparruan sortu ziren arazoetan eta esperientzian funtsatuta.

Natura- eta klima-arriskuak, lurraldearen funtzionaltasuna eta konektibitatea kontuan hartuta, baldintzatzaile gainjarriek antolamendu-kategoriatan jarduera zehatzak garatzeko modua mugatu edo baldintzatzen dute.

6.3.1.3.1 *Akuiferoen kalteberatasuna*

Akuiferoen kalteberatasuna irudikatzeko zorupeko akuiferoen karga-eremuak mugatzen dira, baldin eta kutsadurarekiko kalteberatasun-maila altua edo oso altua badute. Ikuskapen honetan erreferentziatzat hartu dira, batetik, kalteberatasun ertain, altu eta oso altuen eremuei dagozkien mugak, kutsadurarekiko EAEko akuiferoen kalteberatasun-maparen arabera. Mapa Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egin zuen 1993. urtean. Bestetik, urtarilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren arabera, plan hidrologikoek EAEko eremu babestu gisa ezarritako mugei erreparatu zaie.

Uraren Esparru Zuzentzauek (UEA) dagoeneko interes hidrogeologikoko zenbait eremu zehazten ditu, kutsadurarekiko akuiferoen kalteberatasuna bereziki altua baita. Gainera, EAEko akuiferoen kalteberatasunaren kartografiari jarraikiz, halako arazo-mota kontuan hartu behar da, beraz, Eremu Funtzionalean kalteberatasun altua eta oso altua duten eremuak identifikatu behar dira, eremu horietan jarduketak prebenitzeko, zorupeko ibilguetan eragin baitezakete.

Horrenbestez, baldintzatzaile gainjarri horrek mugatu behar du zer eremutan saihestu behar diren lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta non gauzatu behar diren nekazaritza-jarduketak arretaz. Zati handi batean bat dator azpiegitura berdearen mugaketarekin, baina beste muga batzuk jartzen dira Peñacerrada/Urizaharraren ekialdean, Markinez eta Vitoria-Gasteizen inguruetan edo Espejoko ingurunean, besteak beste.

6.3.1.3.2 *Arrisku geologikoak*

Arrisku geologikoei dagokienez, higa daitezkeen eremuak mugatu dira. Kasu honetan, ikuskapenak erreferentziatzat lehendik zeuden mugaketak hartu ditu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Valderejo-Sobron-Arenazako mendilerroa HBBGrekin eta Arkamo-Gibijo-Arrastariako BGLrekin bat datozen eremuak mugatu dira, bai eta beste eremu batzuk ere, gehien bat zona malkartsuetan.

6.3.1.3.3 Klima-aldaketaekin lotutako arriskuak

6.3.1.3.3.1 Klima-aldaketaen agertokiak uholde-arriskua duten eremuak

Mugatzeko 500 urteko errepikatze-denborarako uholde-arriskuaren kartografiari erreparatu zaio. Kartografia hori arreta-printzipioaren ikuspegitik klima-aldaketaen ikuspegia sartzeko egokiena da. Bestalde, 2021eko ekainean 2022-2027rako Ebroko Demarkazioko Plan Hidrologikoaren (hirugarren zikloa) zirriborroari buruzko partaidetza publikoaren prozesua hasi da, eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planarekin batera doa. Uholde-arriskua duten eremuei buruzko kartografiarik ez du, baina hipotesien bilakaerari buruzko orientabideak ematen ditu marrazteko. Besteak beste, Zadorrak “arrisku global altua, baina arriskutsutasun baxuena du...”.

6.3.1.3.3.2 Baso-suteak

Baso-suteak izateko eremu arriskutsuenak identifikatzen dira, Eusko Jaurlaritzak sustatutako azterlanean oinarrituta. 2012ko urriaren eta 2014 abenduaren artean garatutako “*FORRISK: arrisku naturalak baso-masa atlantikoetan*” proiektuan oinarritutako informazioa da. Eskualde parte-hartzaile bakoitzean aurreikusteko moduko eta identifikatutako basoko arrisku batzuk kudeatzeko hartu beharreko neurriak ezagutzea izan zen proiektu haren helburu nagusia.

Emandako informazioak 1 ha-ko teselatan sailkatzen ditu EAEko lursailak baso-suteak izateko arrisku mailaren arabera. Kategoria ezberdinen balioak zehazteko, hiru parametrotan oinarritu gara: lursail bakoitzeko oihanpearen batez besteko altuera, lursail bakoitzeko oihanpearen batez besteko pisu lehorra, eta tesela bakoitzeko batez besteko zuhaitzaren lehenengo adar biziaren altuera.

6.3.1.3.3.3 Kalteberatasun hidrikoa

Lehendik eginda dauden azterlanek, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean Otxandioko eta Audikanako azpiarroetarako emaitzak dituzte. Otxandion urtean batez beste emaria % 10 eta % 17 bitartean jaitea espero da, bereziki, udazkenean eta udan batezbesteko emaria % 20 eta % 27 artean jaitsiko da mendearen amaieran. Era berean, Audikanan batezbesteko emari eskuragarria jaisteko joerak planteatzen dira.

2021eko ekainean 2022-2027rako Ebroko Demarkazioko Plan Hidrologikoaren (hirugarren zikloa) zirriborroari buruzko partaidetza publikoaren prozesua hasi da. Ebroko arroa batera hartuta, 2100erako ekarpenak % 20 murriztea espero da.

6.3.2 Azpiegitura berdea

Azpiegitura berdea funtsezkoa da lurralde-eredu jasangarria diseinatzeko. Ildo horri eutsiz, LAGek ekintza asko kontuan hartzen dituzte, eta ikuskerak hau azpiegitura berde konektatua sortzen saiatuko da, egun ingurumen-unitateek duten segmentazioa eta banaketa konpondu eta elkar konektatuta funtzionatzeko.

Ardatz nagusiak biodibertsitatea izan beharko du, ekosistemek behar bezala funtzionatzeko, haien erresilientziarako eta ematen dituzten zerbitzuen kalitaterako oinarria baita. Lehentasuna emango zaio Arabako Lautada osatzen eta inguratzen duten naturaguneen konektibitate




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ekologikoa bermatzeari eta Vitoria-Gasteizko Eraztun Berdea indartzeari. Eremu hori lotura modura hartzen da, eta bere zeregina da babes-eremua eta konektore ekologikoa izatea.

2019an onetsitako LAGek dagoeneko onesten dute Eremu Funtzionalaren zeregin nagusia Nafarroako iparraldeko eta Burgosko iparraldeko lurralde mugakideekin ekialde-mendebaldeko jarraipen ekologikoan. Jarraipen hori hiru ardatzen bidez gertatzen da: iparraldekoak Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak banatzen ditu (Aizkorri-Aratz, Urkilla-Elgea, Zaraya, urtegien iparraldea, Gorbeia, Gibijo eta Arkamu Gorobel mendilerroaraino); Lautadaren hegoaldean ardatz ertaina, Arabako Ibarretan zehar murgiltzen dena (Entzia, Gasteizko mendiak, Tuioko mendilerroa, Añana, Artzena-Sobron eta Valderejo) eta hegoaldeko ardatza, Arabako Errioxarekin eta Nafarroarekin mugakidea (Kodezko mendilerroa, Kantabriako Mendilerroa eta Toloño). Zeharkako (ipar-hegoaldea) lotura gisa azpimarratu behar dira Gibijo-Arkamu eta Badaia nahiz Arratoko mendilerroak Lautadaren mendebaldean eta Izi Eremu Funtzionalaren hego-ekialdean.



Aurreko irudian Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalan azpiegitura berdearen eskema sinplifikatu eta grafikoa ikus daiteke. Sarea egituratzeko honako elementu hauek erabiltzen dira:

- Ingurumen-balioak direla eta eremu babestuak
- Natura-intereseko beste espazio multifuntzional batzuk
- Sare hidrografikoa (sare urdina)
- Igarobide ekologikoak

Testuinguru honetan, LPPk eremu horien arteko konexioak indartu behar ditu, eta jarraipena balio handiko beste batzuetara zabaldu ere bai, hala nola Portillako mendilerroa, San Formerio mendira (Trebiñu), Lokizko mendilerroa, Aldaiako mendietara edo Lautadako uharte



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

hariztietara. Eremu horiek balio altukoak dira (aurreko egoera ekologikoetako azken bazterrak baitira), bai eta oso ahulak ere, zatikatuta daudelako. Azkenik, azpiegitura berdeak bere sarea Eratzun Berderaino eta Vitoria-Gasteizko azpiegitura berderaino zabaldu behar du, Gasteizko mendiekin Armentia basoaren bidez konektatzeko.

Biodibertsitatearen txoko eta konektore gisa sare hidrografikoaren zeregina Eremu Funtzionalan funtsezkoa da. Askotan, ekialdea-mendebaldea konektoreak zeharka lotzen ditu, eta Ebro ibaiarekin elkartu ere bai. Ibilgu nagusiak honako hauek dira: Zadorra, Omecillo, Tumecillo, Baia, Arakin, Jugalez, Ihuda eta Ega. Gainera, ibaiadar asko, bereziki Zadorrakoak, oinarritzakoak dira azpiegitura berdea jendea bizi den inguruneetan sartzeko (Dulantzi, Errekaleor, Batan). Hezeguneei dagokienez, nabarmendu behar dira Salburuako hezegunea, Bikuñako urmaela, Lacorzanako urmaela, ureztatzeko Añuako idoia, Añanako gatzagak, Arreoko lakua. Ez dira ahaztu behar Eremu Funtzionalako bi ur-masa handienak, hala nola Urrunagako urtegia eta Uribarri Ganboako urtegia.

Era berean, azpiegitura berdearen funtzionamendu zuzena horrek ematen dituen ekosistema-zerbitzuen kalitate eta kantitatearekiko proportzionala izango da. Zerbitzu horiek espazio-eskala handietan ebaluatzen direnean eta zenbait ekosistemetatik datozenean, Arabako Erdialdean gertatzen den bezala, paisaia multifuntzionala eratzen da, eta aldi berean hainbat ekosistema-zerbitzu ematen ditu.


Lurralde-eskalan hobe ulertzeko, ondoren, Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuetako kartografia marraztuta dago. Eskala kuantitatiboan emandako zerbitzuak “oso altutzat” jotzen diren eremuak bakarrik irudikatu dira, honako azpikategoria hauetan multzokatuta:

- i. Hornitzeko ekosistema-zerbitzuak: egurra eta elikagaiak.
- ii. Erregulatze ekosistema-zerbitzuak: karbonoa biltegiratzea, habitata mantentzea, airearen kalitatea erregulatzea, erregulazio hidrikoa eta polinizazioa.
- iii. Kulturako ekosistema-zerbitzuak: paisaiaren gozamen estetikoa eta aisialdia.

Azpiegitura berderako proposatutako mugaketan eremuak mugatzen dira, eta gehienek erregulazio-zerbitzuak ematen dituzte ekosistemek funtsezko funtzio eta prozesu ekologikoak betetzeari esker. Halaber, azpimarragarriak dira kulturalak, baina neurri txikiagoan, ikuspegi antropozentrikoa baitute. Beraz, subjektiboak dira eta ebaluatzea zaila suertatzen da. Hornidura-zerbitzuetarako naturaguneei dagokienez, Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala kategoriako eremuek mugatzen dute.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 43. Ekosistema-zerbitzuak Eremu Funtzionalean Iturria: Geuk egina

6.3.2.1.1 Ingurumen-balioak direla eta eremu babestuak

Kategoria honetan Natura 2000 Sareko eremuak sartzen dira, besteak beste, zenbait HBEG (Salburua, Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa edo Arabako Mendebaleko mendilerroak) eta KBE (Entzia, Aldaiako edo Arkamu-Gibilo-Arrastiako mendiak), naturaguneen saretik datozen mugaketekin batera. Batzuetan bigarrenak bat datoz N2000Srekin, Añanako diapiroaren kasuan izan ezik. Ingurumen balioak direla eta, guztira 19 eremu babestu daude.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.3.2.1.2 Natura-intereseko beste espazio batzuk

Kategoria honetako eremuak ez daude eremu babestuen aurreko bi kategoriatan katalogatuta, baina azpiegituran marraztu dira, ekologia- eta ingurumen-balioa altua dutelako eta ekosistema-zerbitzuak ematen dituztelako. Horietako eremu batzuk dira Gasteizko mendiak, Badaiaiko eta Arratoko mendilerroak edo Tuioko mendilerroa.

6.3.2.1.3 Igarobide ekologikoen sarea

Igarobide ekologikoen sareari dagokionez, lehen azaldu den bezala, honako agiri hauek aztertu eta erreferentziatzat hartu dira: EAEko Azpiegitura Berdea (2016) eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (2019).

Agiri horien arabera, azterketa bat egin da irizpide anitzekin, eta ingurumen-irizpideak kontuan hartu dira, hala nola landaretza, aldapak, espezieen aberastasuna edo habitaten zatiketa. Modu horretan, Eremu Funtzionalan mugaketa zehatzagoak definitu dira.

Igarobide ekologikoen kasuan, besteak beste, honako hauek ditugu: iparraldean, Gorbeia - Badaiaiko eta Arratoko mendilerroak eta ekialdeko Gasteizko mendiak -Entzia edo Izkikoak - Jaundel edo Izki - mendebaldeko mendilerroak. Ibai-igarobideei ibaiaren izena ematen zaie, hala nola Zalla, Zadorra, Dulantzi edo Baia.

6.3.2.1.4 Sare hidrografikoa

Sare hidrografikoa azpiegitura urdina deritzana sortzen du, eta haren balioak eta funtzioak igarobide ekologikoei pareka dakizkieke, eremuan elkar konektatzeko gaitasun handia dutelako. Gune horiek fauna- eta ekologia-balio altukoak dira, eta gainerako naturaguneen antzera, ekosistema-zerbitzuak ematen dituzte. Natura 2000 Sareak ibai-igarobide gehienak Kontserbazio Bereziko Eremu gisa mugatzen ditu. Kategoria honetan sartzen dira, bestea beste, Zadorra, Ebro, Olaeta edo Errekaleor ibaiak.

6.3.2.2 Jarraipen ekologiko eraginkorrerako irizpideak, neurriak eta ekintzak

LPPren helburu bat da elkar konektatuta dagoen azpiegitura berdearen sarea planifikatzea. Ildo horretatik, neurriak proposatzen dira, eremu horiek sare modura egiaz funtzionatzen dutela bermatzeko. Antolamendu-proposamenek ez dute inola ere lurralde-zatikatzeko areagotzen.

Ekosistemak kontserbatzean bertako flora eta fauna babestuko dira. Horrez gain, eremu batzuetan funtsezkoa izan daiteke leheneratze ekologikorako neurriak ezartzea. Helburua da bertako baldintzekin bat datozen erreferentziazko ekosistemak kokatzea, egiaz elkar konektatuta egoteko. Leheneratze-neurriak gehien bat eremu konektoreetarako edo beste gune kaltetu batzuetarako izango dira. Aurretik, lehengoratu nahi den eremuak ematen dituen prozesuetan eta funtzionaltasunetan oinarrituta, diagnostiko ekologikoa egingo zaie. Hala, ukitutako prozesu ekologikoak zehaztu eta lehengoratuko dira. Orokorrean, ekosistema-zerbitzu gehienei eusteko bost prozesu ekologiko zehatz ditzakegu:

- Higadura-prozesuak.
- Polinizazio-prozesuak eta fruituak nahiz haziak sakabanatzen dituztenak.
- Kolonizatu eta izaki bizidun berriak kokatzeko prozesuak.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

- Elikagaiak birziklatzeko prozesuak, gai organikoaren eta inorganikoaren arteko eraldaketa-gaitasunarekin zerikusia dutenak.
- Prozesu hidrogeomorfologikoak.

Eremu horietan zehatz-mehatz aztertu beharko dira eremuko ezaugarri naturalak, errepikatu eta ekosistema klimax egoerara iritsi arte garatzeko. Askotan, prozesuak moldapen-kudeaketa eskatzen du, hau da, jarraipena egingo zaio eta ebaluatu egingo da, esperotako baldintzak eta emaitzak lortzen ari diren jakiteko eta inplementatu behar diren ekintzak berriz planifikatzeko.

Ondoren, taula bat ageri da ekosistema batean izan daitezkeen eragin batzuekin eta leheneratze ekologikorako neurriekin. Neurriak Azpiegitura Berdearen eta Konektibitatearen nahiz Leheneratze Ekologikoen Estatuko Estrategiako oinarri zientifiko-teknikoetan funtsatzen da. Era berean, neurriak klima-aldaketari egokitzeko ekintzak dira.

ERAGINA	LEHENERATZE EKOLOGIKORAKO NEURRIA
Baso-masen ezegonkortasuna eta kalteberatasuna areagotzea	- Baso-masak arduraz kudeatzea - Mendiko ingurumen-zerbitzuak mantendu edo gehitzea - Aprobetxamenduaren jasagarritasuna bermatzea - Perturbazio-erregimenak kontuan hartzea - Masa mistoak eta irregularrak sustatzea
Suteak gehitzea	- Denboraldi luzez mozketaren hondakinak eta produktuak ez biltegitratzea - Landaketa homogeneoak saihestea - Landaretza naturalaren su-hesiak sortzea
Euriteak gehitu direlako higadura-prozesuak areagotzea	- Basogintza dela eta higadura-arriskua aztertzea - Basogintzak higadura-arriskuak ez dituela gehitzen bermatzea - Lurzorua babestea - Higadura-prozesuak zuzentzea
Haizeteak direla eta zuhaitzak kaltetzeko arriskua gehitzea	- Masa mistoak eta irregularrak sustatzea - Jatorrizko baso-habitata kontserbatu edo leheneratzea
Espezie exotikoen inbasio-arriskua areagotzea	- Landaketetan erabiltzen diren espezieak kontrolatzea - Espezie exotikoak zabaltzen saihestea - Jarraipen- eta ebaluazio-programak bultzatzea - Eragin ekologiko adierazgarriak sortzen dituzten espezie inbaditzaileak kentzea
Migrazioak gehitzea edo biodibertsitatea galtzea	- Kontserbazio-balio altuko habitaten eta espezieen inbentarioa egitea - Inbentarioan dauden habitata eta espezieak kontserbatzea - Monitorizatzea - Lurraldearen konektibitatea erraztea - Jatorrizko baso-habitata kontserbatu edo leheneratzea - Masa mistoak eta irregularrak sustatzea
Eskuragarritasun hidrikoa murriztea	- Landaketetan baldintza berrietara hobe egokitzen diren espezieak edo ekotipoak hautatzea - Lodiera baxuak mantentzea

Aipatu behar da gehienetan leheneratze ekologiko garbiena dela perturbazio baten ondoren datorren segida ekologiko naturala. Prozesu honi leheneratze pasiboa esaten zaio, eta kasu guztietan gertatzen da. Bien bitartean, aurreko taularen antzeko leheneratze aktiboko neurriek leheneratze pasibo naturala bizkortzen dute.

6.3.2.3 Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisen arteko elkarrekintza-puntuak eta haien kudeaketa

Aurre egin behar zaio azpiegitura berdea konfiguratzeari eta azpiegitura grisarekin konektatzeari, lurralde-matrizean bi sareek ondo funtzionatzeko.

Azpiegitura grisak lurraldea egituratzeko eta ardazteko ahalmen handia du, baina mehatxurik adierazgarriena da azpiegitura berdeaz ari garenean. Horregatik, gurutzaketak edo loturak




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

tratatzea funtsezkoa da azpiegitura berdeak sare konektatu bizi eta autosufiziente gisa behar bezala funtzionatzeko.

Ildo horri jarraikiz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren “Identificación de áreas a desfragmentar para reducir los impactos de las infraestructuras lineales de transporte en la biodiversidad” proiektuak xedatutakoaren arabera eta EAEko Azpiegitura Berdean (2016) eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako (2019) 12.1 eranskinean ezartzen diren metodologia eta printzipio gidariak kontuan hartuta, elkargune gatazkatsuenak aztertu eta identifikatu dira.



Graf 44. Azpiegitura berde eta grisaren elkarguneak (azterketa eta proposamena)

LAGak ikuskatu zirenean, ingurumen-azterketa estrategikoa egin zen, eta EAEko igarobide ekologikoaren sarea eguneratuta du. Bere kartografian zenbait kokagune islatzen dira, eta aurrerakin honetan arestian aipatu den iturriarekin haztatzen dira goiko irudiko emaitzara iristeko. Dena den, zenbait kokapen aztertu ondoren, ondorioztatu da EAEko igarobide ekologikoen sareko planoak Urrunaga eta Uribarri Ganboako urtegien artean oztopoa identifikatu arren, zatikatzeko-maila ezin daitekeela pareka aztertu diren gainerako elkarguneekin, beraz, ez da aurrerakin honen behin betiko zerrendan sartu.

Ingurune Natural eta Baso Politikako Zuzendaritza Nagusiak Garraio Azpiegiturek sortutako Habitaten Zatikatzeari buruzko Lantaldea sortu zuen, eta haren batzorde teknikoaren esparruan “Prescripciones técnicas para el diseño de pasos de fauna y vallados perimetrales” dokumentua idatzi zen. Dokumentu hori abiapuntutzat hartuta, balizko konektoreen tipologiak ezarri nahi dira lurraldea desfragmentatzeko eta bertan definitzen den metodologia oinarri bezala erabili da agiri honetan hizpatutakoa zehazteko.

Araba Erdialderako, iturri modura 2020ko Arabako Trafikoaren Mapa erabiliko da. Horren bidez, aztertutako tarteetan nahasita dagoen bide-sareko zati bakoitza sailkatzen da. Guztizko intentsitatea eta erreien guztizko kopurua kalkulatu dira.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Elkargunea	Bidea	IMD	Gutizko intentsitatea
Gorbeia	N-622	(10.001 < EBBI < 20.000)	EBBI = 18.500 (6)
	A-3600	(2.001 < EBBI < 5.000)	
Entzia	A-1	(10.001 < EBBI < 20.000)	EBBI = 30.750 (7)
	A- 3138	(501 < EBBI < 1.000)	
	Trenbidea	(10.001 < EBBI < 20.000)	
Arasur	A-1	(5.001 < EBBI < 10.000)	EBBI = 22.500 (7)
	AP-1	(10.001 < EBBI < 20.000)	
Arkamu – Baia – Badaiaiko mendilerroak	AP-68	(5.001 < EBBI < 10.000)	EBBI = 8.250 (5)
	A-3314	(501 < EBBI < 1.000)	
Arkamu – Baia – Tuioko mendilerroak	AP-68	(5.001 < EBBI < 10.000)	EBBI = 8.250 (5)
	A-3314	(501 < EBBI < 1.000)	
Tuioko mendilerroak - Zadorra - Gasteizko mendiak	A-1	(EBBI > 20.000)	EBBI > 20.000 (7)

Iragazkortasuna bi aldagaien haztapenean zehaztutako balioen arabera izango da, beraz, erreien kopurua eta intentsitate-maila gutxitu ahala, iragazkortasuna handiagoa izango da eta alderantziz. Hala, iragazkortasun-balioak 2 eta 8 artean kokatuko dira, 2 iragazkortasun altua eta 8 iragazgaitza.

Elkargunea	Errepidea	Tartea	Intentsitatea, haztapena	Erreien	Erreien, haztapena	Intentsitatearen hazt. + Erreien hazt.	Iragazkortasuna
Gorbeia	N-622	6	4	4	2	6	BAXUA
	A-3600	4	3	2	1	4	ERTAINA
Entzia	A-1	6	4	4	2	6	BAXUA
	A- 3138	2	2	2	1	3	ALTUA - ERTAINA
	Trenbidea	6	4	2	1	5	ERTAINA - BAXUA
Arasur	A-1	5	3	4	2	5	ERTAINA - BAXUA
	AP-1	6	4	6	3	7	BAXUA - NULUA
Arkamu – Baia – Badaiaiko mendilerroak	AP-68	5	3	4	2	5	ERTAINA - BAXUA
	A-3314	2	2	2	1	3	ALTUA - ERTAINA
Arkamu – Baia – Tuioko mendilerroak	AP-68	5	3	4	2	5	ERTAINA - BAXUA
	A-3314	2	2	2	1	3	ALTUA - ERTAINA
Tuioko mendilerroak - Zadorra - Gasteizko mendiak	A-1	7	4	6	3	7	BAXUA - NULUA

Ekosistemen defragmentazioa zenbait abiapuntutatik lan daiteke.

Lehen aipatu den bezala, hesi artifizial nagusiak bide-azpiegitura, urbanizazioa eta lurzoruen erabilerak dira. Kasu honetan, Azpiegitura Berdearen eta Konektibitatearen zein Leheneratze Ekologikoaren Estrategia Nazionalen xedatutakoaren arabera, honako jarduketak-ildo hauek bete beharko ditugu:

- 1.01 JARDUERA-ILDOA. Intereseko espezie eta habitat-moten konektibitateko funtsezko eremuak identifikatzea lurralde-matrizearen iragazkortasuna ziurtatzeko.
- 1.02 JARDUERA-ILDOA. Lehorreko eremuetan konektibitatea indartu eta hobetzea eta galera prebenitzea.
- 1.06 JARDUERA-ILDOA. Hirigunean konektibitatea indartu eta hobetzea eta galera prebenitzea.




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

- 1.07 JARDUERA-ILDOA. Konektibitate ekologikoa eta zatikatzeko-prozesuak jarraitzeko sistema garatzea, neurrien eraginkortasuna ebaluatze aldera.

Oro har, faunaren pasabideen balizko tipologiaren deskribapen laburra egin daiteke, ahaztu gabe kasu bakoitzean xehetasun-azterketa beharko dela, besteak beste, honako aldagai hauekin: espezie xedea, inguruko landaretza, tokiko klima, azpiegitura grisaren ezaugarriak, espezie xedeak habitat zatikatuan dauden gainerako espezieekin duen portaera eta harremana, etab.

6.3.2.3.1 Gorbeia elkartzea



Azpiegitura berdea


Paisaiaren unitate nagusia	Zuiako eta Urkabustaizko ibarrak
Ekologia- eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Altua
Ekoizpen-balioa	Ertaina

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	2
Erreien kopurua	7
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 18.500
Iragazkortasuna	Baxua - Nulua

Elkargunearen ezaugarriak

Baldintzatzaile topografikoak	Lubetaren gainean
Erreferentzia-ekoizpen-fauna-multzoa	Ugaztun handiak eta ornodun txikiak
Pasabiderik egokiena	Bide egokitua




6.3.2.3.2 Entziako elkartzea

Azpiegitura berdea

Paisaiaren unitate nagusia	Alegria-Dulantzi/Agurain/Salvatierrako lautada
-----------------------------------	--




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Ekologia-eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Ertaina
Ekoizpen-balioa	Altua

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	3
Erreien kopurua	8
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 30.750
Iragazkortasuna	Nulua




Elkargunearen ezaugarriak

Baldintzatzaile topografikoak	Lur-erazketen arteko tartea
Erreferentziazko fauna-multzoa	Ugaztun handiak eta ornodun txikiak
Pasabiderik egokiena	Pasabide garai multifuntzionala



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.3.2.3.3 Arasurko elkargunea




Azpiegitura berdea

Paisaiaren unitate nagusia	Ebroko ibarra
Ekologia- eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Ertaina - Baxua
Ekoizpen-balioa	Altua

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	2
Erreien kopurua	11
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 22.500
Iragazkortasuna	Nulua



Elkargunearen ezaugarriak


Baldintzatzaile topografikoak	Ibai-ibilguen gurutzaketa
Erreferentziako fauna-multzoa	Guztiak
Pasabiderik egokiena	Bide egokitua



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6.3.2.3.4 Arkamu – Baia – Badaia mendilerroetako elkargunea



Azpiegitura berdea


Paisaiaren unitate nagusia	Zuia eta Urkabustaizko ibarrakValles de Zuia y Urkabustaiz Kuartangoko ibarra
Ekologia- eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Altua
Ekoizpen-balioa	Ertaina

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	2
Erreien kopurua	6
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 8.250
Iragazkortasuna	Baxua

Elkargunearen ezaugarriak

Baldintzatzaile topografikoak	Ibai-ibilguen gurutzaketa
Erreferentziazko fauna-multzoa	Guztiak
Pasabiderik egokiena	Bide egokitua






Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6.3.2.3.5 Arkamu – Baia – Tuio mendilerroetako elkargunea




Azpiegitura berdea

Paisaiaren unitate nagusia	Lazcomonte igarobidea Tuio / El Rasoko mendilerroa Pibes eta Argantzongo ibarrak
Ekologia- eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Altua
Ekoizpen-balioa	Ertaina

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	2
Erreien kopurua	6
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 8.250
Iragazkortasuna	Baxua




Elkargunearen ezaugarriak

Baldintzatzaile topografikoak	Tartea lubakian + ibai-ibilguen gurutzaketa
Erreferentziazko fauna-multzoa	Guztiak
Pasabiderik egokiena	Ekoduktua + Bide egokitua



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

6.3.2.3.6 Tuioko mendilerro - Zadorra - Gasteizko mendietako elkargunea



Azpiegitura berdea


Paisaiaren unitate nagusia	Gasteizko mendiak eta mendi-oinak
Ekologia- eta lurralde-balioa	Altua
Paisaiaren balioa	Ertaina
Ekoizpen-balioa	Altua

Azpiegitura grisa

Bideen kopurua	1
Erreien kopurua	6
Trafikoaren batezbesteko intentsitatea	EBBI ~ 20.000
Iragazkortasuna	Baxua - Nulua

Elkargunearen ezaugarriak

Baldintzatzaile topografikoak	Tartea lubetan
Erreferentziako fauna-multzoa	Guztiak
Pasabiderik egokiena	Ekoduktua



6.4 Landa-habitata

6.4.1 Landa-kokaguneak mantentzeko irizpideak

Landa-kokaguneen bilakaera nekazaritzarako lurzorua eta, batez ere, balio estrategiko altua duena babesteari lotuta dago. Arlo honek landa-habitatean eragiten du, baina dagoeneko landu da aurreko artikuluan lurzorua zonakatzeari dagokionez. Gainera, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera sustatu behar da, elikagaien hornitzailea den neurrian, elikagaien nahikotasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak dinamika demografiko positiboak izan arren, Vitoria-Gasteizen garrantziak ezkutatu egiten du kokagune txikiak, tradizioz nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jarduerari lotutakoak, zahartze- eta despopulazio-fenomenoak jasaten ari



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

direla. Landa-kokaguneak mantendu eta suspertzeari esker, landa-lurzorua ekoizpenerako erabil daiteke eta paisaian ekarpen argia du, beraz, gainerako proposamenekin batera, nekazaritza-eredu berriturantz trantsizioa gauzatzeko proposamena egin behar da, enplegua eta bizi-baldintzak hobetu behar baitira. Bizi-baldintzak hobetzearen eremuan, kontuan hartu behar da nekazaritza-ekoizpen jasangarriagorantz jotzeko eskulan gehiago beharko dela eta hari laguntzeko etxebizitzaren eta ekipamenduaren arloan neurriak hartu beharko direla. Azken urteetan kokagune txiki horien dinamika erregresiboei erreparatuta, oro har, neurririk aproposena da lehendik dauden etxeak birgaitzea.

6.4.2 Nekazaritza-eredu berriturantz trantsizioa egin behar da landako susperraldi demografikoaren euskarri gisa

6.4.2.1 *Ekoizpen-sistema ekologikoetara bilakatzea*

Nekazaritza-jarduera mantentzen eta garatzen laguntzea da klima-aldaketa arintzeko estrategia bat, baldin eta nekazaritza-sistemetan erabiltzen diren teknikak ingurunea kaltetzen ez badute eta petrolioarekiko mendekotasun handia ez badute. Testuinguru honetan balio estrategiko berritua dute tradizionalak deritzan zenbait jardunek, natura-baliabideen eta lurraldearen kudeaketa jasangarria sustatzeaz gain, ekonomiaren ikuspegitik nekazaritza-jarduera bideragarria eta kalitatezko ekoizpena ahalbidetzen baitituzte.

Nekazaritza ekologikoa nekazaritza kudeatzeko eta elikagaiak ekoizteko sistema orokorra da. Sistema horretan konbinatzen dira ingurumen-jardun onenak, biodibertsitatearen maila altua, natura-baliabideen kontserbazioa, animalien ongizaterako arau exigenteen aplikazioa eta substantzia eta prozesu naturaletatik abiatutako produktuei esker kontsumitzaile zehatzen nahiekin bat datorren ekoizpena. Oraingo ekoizpen-moduak nekazaritza ekologikorantz pixkana eraldatzen badira, dagoeneko aipatu diren arazoak (higadura, biota edafikoa eta biodibertsitatea galtzea) murrizten lagunduko da. Horrez gain, nekazaritza ekologikoa ohiko nekazaritza baino % 20 enplegu gehiago sortzen ari da, batetik, lan-produktibitatea saritzen delako eta, bestetik, sektorean arduraldia txikiagoa delako. Hala, lanaldi partzialean lana gehitzen da.

Ekoizpen ekologikoa merkaturatze-kanal laburren ingurunean zenbait estrategia ardazten ari da. Bertakoen gustuetarako egokiagoak diren barietate tradizionalak eskaintzen ditu, eta urte-sasoia araberako kontsumoa berreskuratu da.

6.4.2.2 *LPPn nekazaritza-lurzoruari kategoriak emateko irizpideak*

Atal honetan hurbilketa bat egiten da, baina Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Teknikoek nekazaritza-kartografia eguneratzen dihardute, eta haiek egindako lanekin alderatu beharko da.

Europako akordioen ildotik, LPPren ikuskapenak onesten du nekazaritza-lurzoruetako azaleraren % 25 nekazaritza ekologikora bideratzea. Araba Erdialdeko nekazaritza-azaleraren % 25 gutxi gorabehera 20.000 ha dira lanberritutako azalera guztitik (78.000 ha inguru).

Lurraldean 20.000 ha esleitzeko hainbat irizpide konbinatu dira: oraingo eta aurreikusitako lurzoru ureztatuak, lurzoruen emankortasuna, uholdeak direla eta eragina murrizteko klima-aldaketari egokitzea, paisaiaren katalogoa, landare-elikagaien autosufizientzia, hiriguneekiko eta landaguneekiko gertutasuna.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Irizpide horiek guztiak integratzean lurzoruaren beharrak definituko dira:

- i. Gertuko elikagaien gehieneko autosufizientziara iristea, betiere nekazaritza ekologikoaren bidez ekoizten badira. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko biztanleei landare-produktuekin hornitzeko azalera teorikoa 21.700 ha-koa dela zenbatetsi da.

ELIKAGAIA	AURREIKUSITAKO AZALERA (ha)
Barazkiak	1.147
Zerealak	12.000
Ardi- eta behi-haragia	2.160
Esnea	5.377
Arrautzak	933
Guztira	21.717

Graf 45. Araba Erdialdeko biztanleentzat elikagaien hornidura. Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila

Barazkiak ekoizteko lurzoru optimoaren batezbesteko etekina (Ebb) honela definitzen da: ekoizpenaren eta azaleraren arteko zatidura. Barazkien kasuan, Ebb = 18.470 kg/ha da. Pertsona eta egun bakoitzeko batezbesteko kontsumoa 0,194 kg/egun/pertsona zenbatetsi da.

- ii. Lurzoruaren karbono organikoa gehitzea eta, ondorioz, lurzoruaren emankortasuna hobetzea.
- iii. Ohiko nekazaritzatik nekazaritza ekologikora aldatzean nekazaritzak urtean 180.000 tona gehiago harrapatuz gero, klima-aldaketa arintzen lagun dezake.
- iv. Akuiferoak deskontaminatu eta berreskuratzea.
- v. Nekazaritza ekologikoa hartzen duten lurzorueta uraren perkolazioa handiagoa da era euri-ur gehiago iragaziko da. Modu horretan, uholdeengatik eragina gutxituko da.
- vi. Nekazaritza ekologikoko lurzorueta higadura murriztea.
- vii. Nekazaritza-ekologikorako eremuan biodibertsitatea gehitzea eta bizilekuetan biodibertsitatea areagotzea.
- viii. Enplegua gehitzea, bereziki gazteentzako enplegua.

6.4.3 Landa-kokaguneak eta azpiegiturak nahiz ekipamenduak gaitzea

Araba Erdialdeko landaguneetako herri-txikien kokapen-sistemetan, batez ere Arabako Mendia eta Arabako Ibarrek eskualdekoetan, jardun behar da, etxebizitza eskuragarri gehiago egoteko, egoiliar berriak bereganatzeko modua baita. Ondare eraikia birgaitzeko orduan malgutasuna behar da, eta etxebizitza publikoen bidez alokairuko merkatua sortu ere bai. Azkenekoa Kuadrillek kudea dezakete. Etxebizitza gehiago eskaintzeaz gain, nahitaezkoa da bizigarritasun-baldintzak hobetzea, landa-eremueta nagusi baitira familia bakarreko etxebizitzak, eta prestazio termikoak hobe daitezke.

EAEko hiriko kalteberatsunaren bisorea aztertu ondoren, diagnostikoa egin zen, eta laburpenean aipatu diren datuak aintzat hartuta, landa-habitata ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik suspertzeko lehentasunezko kokaguneak dira landagune txiki batzuk honako udalerri hauetan: Lagran (Lagran), Harana/Valle de Arana (Done Bikendi Harana), Añana (Añanako



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Gatzagak), Gaubea-Valdegovia (Gaubeako Villanueva eta Espejo), Maeztu (Arraia-Maeztu), Berantevilla (Berantevilla), Bernedo (Bernedo) eta Campezo-Kanpezu (Santikurutze Kanpezu eta Antoñana).

Landa-kokagune asko errepidez konektatuta daude, eta globalean planteamendu berria egitea beharrezkoa ez izan arren, hobekuntzak izango lituzkete bide-segurtasunari dagokionez. Eremu horietan bizikletaz mugikortasuna gehitzen ari da, eta joera hori areagotzeko aukera dago. Euskadi eta Nafarroaren arteko bide berdea mugikortasun bigunaren adibide bat da landa-lurraldeak ardazteko. Garraio publikoan mugikortasunak eskatzen du eusteko hasitako esperientziei, hala nola biztanle gutxi dituzten kokaguneetarako eskepeko garraioari.

Era berean, telekomunikazioen sareak hobetu behar dira, lurralde guztian erabilerrazak izateko. Oinarrizko zerbitzuen sareak eraberritzeko orduan, autosufizientzia konektatuaren printzipioa planteatu behar da. Horretarako, gertuko baliabideak eta ondasun komunak kudeatzeko administrazio-batzarren sistemaren indarra aprobetxatu behar dira. Energia fotovoltaikoa sortzeko tokiko kudeaketa-erretarantz bidea adibide positiboa da.

Zirkulartasun-printzipioa aplikatuta ziklo metabolikoak ixtea kokaguneen baldintzak hobetzeko bitartekoa da. Ildo horretatik, hondakin organikoak eta kontsumoko ondasunen berrerabiltze-loturak berreskuratu behar dira.

6.5 Hiri-habitata

Eremu Funtzionaleko hiri-habitataren konfigurazioa egoera batzuen egiaztapenetik abiatzen da:

1. Eremu Funtzionaleko herritar gehienak udalerrian bizi dira, eta, zehatzago, Vitoria-Gasteizko hiri-eremuan.
2. Udalerri gehienetan, biztanleriaren bilakaera positiboa izan da, bi kuadrillatan izan ezik; Haranan eta, batez ere, Arabako mendialdean.
3. Udalerrien arteko eskala ez da hain baikorra. Oro har jokabide demografiko positiboa duten eremuetan ere, biztanle gutxien dituzten nukleo askotan despopulaziorako joera dago.
4. Ekonomia-jarduerarako lurzoruei dagokienez, alde handia dago okupazio-tasa nominala duten industria-poligono handien eta hutsik dauden lurzoru eraginkorren eta ohikoa baino lurzoru handiagoak (hainbat hektareatakoa) behar dituzten ekonomia-jarduerak egiten dituzten eskari berrien artean.
5. Berrikusi behar den LPPari dagokionez, nabarmendu behar da hiri-eremuko hornikuntzen gauzatze eraginkorra murriztu izan dela.

6.5.1 Eremu Funtzionaleko kokalekuen hierarkia

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko kokalekuen hierarkia-sistema termino hauetan planteatzen da:


1. Vitoria-Gasteiz egiten ditu Eremu Funtzionaleko eta bere kuadrillako **udalerri buru** funtzioak, tamaina demografikoa eta Euskadiko hiriburuen sistemaren barruan duen tokia direla eta. Arabako Erdiguneari zerbitzu publikoak eta pribatuak eskaintzen dizkion nodo nagusia da.
2. Biztanleriaren tamainaren eta ekipamenduen horniduraren ondorioz, eta lurralde historikoa banatzen duten kuadrillen buru direlako, **azpiburutzat** hartzen dira honako hauek:



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

- a. Kanpezuko kuadrilla - Arabako Mendialdea: Santikurutze Kanpezu Kanpezun. Landa-eremua da gehienbat eta ekosistemaren zerbitzu garrantzitsuak eskaintzen dizkio Eremu Funtzionalari.
 - b. Añanako kuadrilla / Arabako Ibarrek: Rivabellosa Jarduerentzako lurzorua eskaintzari dagokionez paper garrantzitsua du eta Miranda de Ebrorekiko duen hurbiltasunak baldintzatzen du haren funtzionamendua. Izan ere, lurzoru produktiboaren gaitasun handia berraktibatzen ari da.
 - c. Gorbeialdeko kuadrilla: Murgia (Zuia). Bizkaiko lurralde dinamikoekiko duen hurbiltasunak markatzen ditu eremuko dinamika ugari.
 - d. Arabako lautadako kuadrilla: Agurain/ Salvatierra. Vitoria-Gasteizko ekoizpen-sistematikiko duen hurbiltasunak eta osagarritasunak eta Iruñea-Vitoria-Gasteiz fluxuek markatzen dute eremua.
 - e. Bizkaiko Otxandio eta Ubide udalerriak, ez daude Arabako kuadrillen barne: Otxandio. Kuadrillen baliokidea den gobernantza-organismoak ez dagoen arren, horien barnean ez egoteak egokituak tratamendua ematea gomendatzen du. Nabarmendu behar da sektoreko kontu batzuetan, osasunean esaterako, udalerri horiek Bizkaiko Durangaldeko eskualdearen parte direla, eta beste batzuetarako, Legutio udalerriarekin lotzen dira. Udalerririk Gorbeialdeko kuadrillaren barruan egotea alternatiba bat izan daiteke, baina hitzarmen espezifikoak izan beharko lituzke.
3. Erdiguneko dinamika funtzionaletan paper esanguratsua dute mugetatik kanpo dauden udalerri batzuek; Burgosko Miranda de Ebro udalerriak, penintsularen iparraldeko trafikoen korapiloa delako eta Rivabellosaren papera ulertzen laguntzen duelako, eta Altsasuk, AP-1 martxan jarri zen arte Gipuzkoarako sarbidea zelako eta trafiko garrantzitsua artikulatzen jarraitzen duelako.
 4. Udalerri gaitasun handiko zerbitzuak eskaintzen udalerri azpiburuei laguntzen dieten edo lagun diezaieketen **nukleo artikulatzaileak** dira:
 - a. Arabako Mendialdeko Kuadrilla: Maeztu
 - b. Añanako kuadrilla / Arabako Ibarrek: Espejo (Gaubea), Langraiz Oka
 - c. Gorbeialdeko kuadrilla: Legutio, Gopegi (Zigoitia)
 - d. Arabako lautadako kuadrilla: Alegria-Dulantzi, Araia (Asparrena)



Graf 46. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako kokalekuen hierarkien proposamena. Geuk egina

6.5.2 Hiri-berroneratzea behar duten eremuen definizioa

6.5.2.1 Hiri-ehunduren dentsitatea areagotzea eta abandonatuta dauden edo gutxi erabiltzen diren industria-arloak berroneratzea: Berrikuntza Arkuaren kontzeptuaren bilakaera

Berrikusi beharrezko LPPa indarrean egon den aldian, Vitoria-Gasteizko hiri-ehundurak dinamika konplexuak izan ditu. Alde zaharra biziberritzeko esku-hartze publikoek arrakasta erlatiboa lortu dute, despopulazioa moteltzea eta espazio publikoak hobetzea lortu baita, mugatua izan den arren. Lurzoru urbanizagarriaren garapenaren ondorioz sortu diren auzoetan areagotu egin da biztanleria, hala nola Lakuan, Mendizorrotzan, Zabalganan eta Salburuan, baina kasu askotan, horrek alde zaharreko eta Zabalgana hiribideak, Juan de Garayk, Jacinto Benaventek, Zumabidek eta Tanis Agirrebengoak osatzen duten gerrikoaren inguruko auzoek biztanleak galtzea eragin du. Auzo horietako gehienak 1939 eta 80ko hamarkada artean eraiki ziren eta 35.000 biztanle inguru galdu dituzte 20 urtetan. Hutsik dauden etxebizitza ugari daude bertan eta herritarren zahartzea handiagoa da. Aipatutako zabalguneek, aldiz, biztanleria gazteagoa dute, etxebizitza aldaketen ondorioz. Alabaina, alda zaharraren eta zabalgune horien artean dauden auzoek toki estrategikoa dute hiri-ehunduraren barruan. Era berean, industria-poligono zaharrenek orube eskasak dituzte, eta erabiltzen ez diren eraikuntzen ehuneko esanguratsua dute.

Horrek aukera ematen du berrikusten ari den LPParen berrikuntzako arkuaren proposamena gauza hauek kontuan izango dituen eredura bideratzeko:

1. Bizileku eta industria ehunduren berroneratze koordinatua aipatutako ingurabideetan osatuko da, bilakaera-eredu mistoetara bideratuz. Lurzoru produktibo horien berroneratzea potentzialki kutsatutako lurzoruen azterketa-eragiketekin lotu behar da eta garbiketarako operazioekin. Egun erdigunetik igarotzen den trenbidearen linea lur azpian sartzeak hiriko auzoen arteko lotura hobetuko luke eta, era berean, berroneratze horri ekarpena egingo lioke. Eremu horietan



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-


askotariko erabilerak sustatzeak hirugarren sektoreko jardueren forma berrietara egokitzeko gaitasun hobe ahalbidetuko du; izan ere, industrialde klasikoak ez daude horretarako egokituta. Eraikitako parkearen dentsitatea areagotzeko ekintza puruak ez dira beharrezkoak kasu honetan, parkearen erabilera optimizatzekoak baizik, berroneratu ostean eremu periferikoen eskaintzarekin lehiatu dezaketen bizi kalitateko baldintzak eskaintzeko eta zerbitzuetara iristeko zentralitate handiagoa izateko. Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak mugikortasunaren arloan hartu dituen neurriak bat datoz LAGen postulatuekin eta gauza bera aipatu behar da beste neurri batzuekin ere. Gogoan izan behar da LAGek Vitoria-Gasteizko metropolialderako aipatzen dituen gidalerro espezifikoaren artean daudela udalerriaren urbanismoko bikaintasunerako ekimenak egitea, esaterako eraztun berdea, hiri-azpiegitura berdea edo alde zaharra berreskuratzea. Guztiak koherenteak dira planteamendu horrekin.

2. Miñako industrialdeko Parke Teknologikoa eta Legutioko Goiaingo poligonoa handitzeko lurzoruetan, bai eta Vitoria-Gasteizko aireportuaren mendebaldeko ertzean aurreikusitako garapenetan ere, lurzoruaren tamaina handiagoen eskariei arreta eskaintzea, baita dimentsiogatik edo izaeragatik bizileku-eremuekin bat egiteko zailtasun handiagoak izango lituzketen eremuetan ere. Indarrean dagoen LPParen aldaketak dagoeneko zehazten duen Jundiz- Billodako estazio intermodal berriak euskarri logistiko handia eskainiko die garapen hauei, errepideko eta trenbideko garraioaren arteko intermodalitate-sistema nagusi gisa. Izan ere, aukera emango die ibilgailu astunei Frantzia iparraldera heltzen diren trenetara iristeko, eta horrela trafikoaren dentsitatea eta A-1 ibilbidearen zati handi batean merkantziaren garraioak sortzen dituen isuriak murriztuko dira. Kasu honetan, dagoeneko industria-osagaiak dituzten lurzoruen gainean jardungo da, baina baita urbanismoaren aldetik oraindik eraldatu gabe dauden gaitasun handiko lurzoruen gainean ere, Horietan Eusko Jaurlaritzaren eragile publiko gisa estrategikoa da SPRILURren papera.

Diagnostikoaren laburpenean batez ere etxebizitzentzako eta ekonomia-jardueretarako erabiltzen diren eremuak berroneratzeko proposatu diren eremuak barne hartzen ditu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-




Graf 47. Vitoria-Gasteizko bizileku-eremuen zaurgarritasun oso altua, altua eta ertaina. EAEko eremu-zaurgarrien bisorearen eta UDALPLANen datuetatik abiatuta egina



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 48. Agurainen zaugarritasun ertaina duten bizileku-eremuak EAEko eremu-zaugarrien bisorearen eta UDALPLANen datuetatik abiatuta egina



Graf 49. Ekonomia-jarduerarako hiri-eremuak berroneratzeko lehentasuna duten arloak



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6.5.2.2 Kutsatutako lurzoruen kudeaketa

Gai honen inguruan eskuragarri dagoen informazioak kutsatzeko potentziala duten eremuak identifikatu ditu, aurrekarien arabera, eta ikerketa espezifikoaren bitartez zehaztu behar dira. Abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak, lurzoruaren kutsaduraren prebentziorako eta zuzenketarako ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duenak, lurzoruaren kalitatearen inguruko prozeduraren neurriak ezartzen ditu, eta beharrezkoa da zehaztapen horien kudeaketa azkarra egitea, kutsatutako lurzoruen hedapen erreala zehazteko.

Arreta berezia jarri beharko zaie bai ibaiak gora egiten duelako, bai euria dela eta uholdeak izateko arriskua duten eremuetan dauden kutsatutako lurzoruei. Izan ere, kutsatzaileak zabaltzeko eta gainazaleko edo lur azpiko urak edo beste eremu mugakide batzuk kaltetzeko arrisku handiagoa dago.

Potentzialki kutsatutako lurzoruen kartografia 500eko itzulera-denbora duen ibaien uholdeen kartografiarekin eta uholdeak izateko arriskuen kartografiarekin gainezartzea proposatzen da.

6.5.3 Arabako Lautadako eraldaketa-ardatza

Trenbidearen lerroaren bitartez Vitoria-Gasteizekin batera Arabako Lautada osatzen duten udalerriek tokiko zentraltasuna finkatzeko aukerak dituzte, Eremu Funtzionaleko landa-eremuari bizigarritasuna itzularazi ahal izateko. Ardatz hori indartzeko jardura hauek proposatzen dira:

1. Iruña Oka: trenbidearen egungo geltokiaren inguruan lurzoru urbanizagarria dentsifikaziorantz bideratzeko ikerketa egitea, batezbesteko dentsitatearen tipologiarekin eta erabilera mistoekin. Geltokiaren eta Zadorrako erriberaren artean oinezkoentzako lotura berria zehaztea.
2. Burgelu eta Alegria-Dulantzi: etxebizitzaren lurzoru Alegria-Dulantzi – tren-geltokia loturara bideratzea, batezbesteko dentsitatearen tipologiarekin eta erabilera mistoekin, baita Burgelu eta Dulantziren arteko bidegorriaren ezartzea ere. Erdiguneko eremuak uholdeak izateko duen arriskuaren kudeaketa egitea.
3. Agurain: Etxebizitzaren eremuko hego-ekialdean, Sagarmin kalerantz, hiri-berroneratzeko ekintzek izatea lehentasuna. Santa Barbara eta Egileor erreken arroetan zehar uholdeak izateko arriskuaren kudeaketa egitea.
4. Albeiz eta Araia: tren-geltokiaren eta Araia artean bizikletentzako ibilbidea egokitzea. Araia ibaiak uholdeak izateko duen arriskuaren kudeaketa. Ajuria eta Urigoitia Fundazioaren industria-hondakinen berroneratzea.
5. Hiriaren erdiguneko ardatzean unibertsitatea, autobus-geltokia eta aireportua sartzeta.
6. Geltokien eta inguruko udalerrien arteko bidegorriak eta garraio publikoa indartzea eta Armiñonetik Araia doan ardatzaren luzapenaren ikerketa egitea, mugikortasunari eta ibilbide bigunei dagokienez.

6.5.4 Hiri-hazkundearen perimetroak

Hiri-hazkundearen perimetroen forma LAGetako 11.1.a) artikuluan ezarritakoa da:

“Lurralde Plan Partzialetan udal-planek egokitu ditzaketen eta udalerri guztien bizilekuen eta ekonomia-jardueren eskaria kontuan hartzen duen hiri-hazkundearen perimetroa proposatzea”.




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Hiri-hazkunderaren perimetroak banaketa urbanoa saihesteko eta ikusi diren eskarien arabera lurzoruaren kontsumoa kontrolatzeko tresna dira. Ez dute lurzoruaren sailkapenik egiten, baina hazkunde-gaitasunen kuantifikazioa ezartzeko jarraibide grafikoa zehazten dute. Perimetroaren definizioak aukera eman beharko du lehendik dauden kokalekuekin hirian integratzeko eta hazkunde-prozesuak bideratzeko, baita nukleoaren arteko lurraldeen hutsuneak babestuz proposatutako eraldaketa-ardatzak finkatzeko ere. Proposatutako perimetroen trazaduran kontuan izan da 11. artikulua ez duela ezartzen perimetroak udalerriri guztietan erabili beharreko tresna izan behar direnik, eta, beraz, interpretatu da egokiak direla lurzoruaren okupazioaren udalerriz gaindiko dinamiketan eragin argia izan dezaketen lekuetan. Jarduera ekonomikoaren arloan, lurzoruaren okupazioaren udalerriaz gaindiko perimetro hauek zehaztu dira:

6.5.4.1 Arasur ingurua



Graf 50. Arasurren inguruan hiri-hazkunderako proposatu den perimetroa

Iparraldeko eremuan lurzoru urbano eta urbanizagarri gisa sailkatu diren 467 hektarea ditu ekonomia-jarduerarako, eta urbanizagarriak ez direnak hegoaldean. Mendebaldean finkatutako lurzoru urbanoen okupazioa ia erabatekoa den arren, Baia ibaiaren erriberean bi eremu oraindik ez dira garatu: I-06 BEPB El Vado eta El Vadoren iparraldeko I-08 sektorea. Arasur 1. faseko I-09 sektorea % 50 inguru garatu da, batez ere trenbidearen iparraldean. Arasur 2. faseko I-09 sektorea ez da bere horretan garatzera heldu, eta, egun, instalazio fotovoltaiko handia dago bertan. Hegoalderago, Lacorzanako Eguzki Parkeko Plan Bereziak beste instalazio fotovoltaiko handi bat aurreikusten du. Perimetrotik kanpo geratzen dira Lacorzanako Urmaleeko natura-eremua eta haren ingurunea. Eremu horretan Arasurreko 1. fasea industria-eremu gisa



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

finkatzeko perimetroa ezartzea aurreikusten da. Jarduketa eremuko eskaintza ugariak eta alboan dagoen Miranda de Ebroko lurzoruek baldintzatzen dute.

Araba Erdialdeko paisaiaren katalogoak lurzoru horiek “Araba Erdigunerako sarbidea Miranda de Ebrotik” Paisaiaren Interes Bereziko Eremuan sartzen ditu. Halaber, lurzoru horien interesa ez da egungo paisaiagatik, etorkizun hurbilean izango duenagatik baizik; izan ere, okupatutako lurzoruek eta paisaiaren balioen osagarriek itxura atseginagoa duen ingurua artikulatzeko aukera emango lukete. Paisaiaren Kalitatearen helburua lurzoru logistikoa paisaiaren aldetik integratzeko eremua berrordenatzea da, itxura eta pertzepzioa hobetuz, eta ekintzatzat ezartzen ditu honako hauek:

1. Landareak dituen muga perimetrala ezartzea, eremua integratzea ahalbidetuko duen eraztun berde gisa, eta Zadorra diseinuaren parte txertatuz.
2. Estalkietan landareak jartzea eta eguzki-panelak txertatzea.
3. Nekazaritzako lurzoruaren koroa zaintzea, paisaiaren muga baita.
4. Hobetzea ezinezkoa diren mugen zuzkidura-kalifikazioa.
5. Ertzeko pabiloien kanpo-diseinurako oinarri teknikoaren garapena, oraindik gauzatu ez diren pabiloien irudi homogeneoa sortzeko edo izaera komuna proposatzeko, lerro xumeekin eta kolore argiekin. Oinarri horiek Paisaia Interes Bereziko Eremuarekin (PIBE) estetika orokorra izan beharko dute.

Lacorzanako eguzki-parkea sortzea eta Arasurreko 2. faseko I-09 “tanta” erabilera berdinerako bihurtzea. Horrek esan nahi du lurzoru horien zati handi batek lur gaineko panel fotovoltaikoak izango dituela eta dagozkien proiektuetan ezarritako baldintza teknikoak izango dituztela. Nolanahi ere, eraikuntzentzako paisaiaren katalogoaren jarraibideak erabilgarriak dira oraindik Arasurreko lehenengo fasean egiteke dagoen zatirako.

Mendebaldeko zatian Exolum Rivabellosako instalazioak daude, CLH hidrokarburoak biltegitratzeko instalazioak. Instalazio horiek irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuak arautzen ditu, sustantzia arriskutsuak dauden istripu larriek eragin ditzaketen arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzekoak (Seveso), eta Kanpoko Larrialdi Plana eta 205 metroko radioa duen esku-hartze eremua eta 255 metroko radioa duen alerta-eremua ditu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6.5.4.2 Langraiz Oka-Vitoria-Gasteiz



Graf 51. Langraiz Oka-Vitoria-Gasteizerako proposatu den hiri-hazkunderen perimetroa. Mendebaldea



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 1. Langraiz Oka-Vitoria-Gasteizerako proposatu den hiri-hazkundearen perimetroa. Ekialdea

Perimetro horrek 3.979 hektarea hartzen ditu eta muturreko puntuen artean 16 km inguruko geometria osatzen du. Ekialdean Vitoria-Gasteiz dago, eta haren etengabeko hazkundeak, alde



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

zaharreko muinoko kokaleku zaharretik hasi eta berrienetaraino. Proposatutako perimetroaren zatirik zentralenean, halaber, Jundizeko eta Ehari Gobeuko industriguneak daude eta mendebaldeko muturrean, Zadorraren hegoaldeko ekoizpen-eremuak, nahiz eta bi eremu horien artean dagoen zatiak ez duen jarraipen urbanorik. Jundizeko geltoki intermodala industriguneen arteko jarraipena proposatzeko argudioa da, ez liokeelako izen bereko mendiari kalterik eragingo eta sinergiak sustatuko lituzkeelako.

Paisaiari dagokionez, “Vitoria-Gasteizko eraztuneko” Paisaiaren Interes Bereziko Eremua (PIBE) lurzoru urbanoak eta urbanizagarriak hartzen ditu barne, eta horren zati bat perimetroaren barruan dago (Mercedes Benz fabrikaren ingurua), baita “Vitoria-Gasteizko lautadaren hegoaldeko sarbidea (Zadorrako igarobidea)” Paisaiaren Interes Bereziko Eremuko zatirik handiena ere. Hortik kanpo geratzen dira trenbidearen ekialdean dagoen eremua eta Jundizeko aldatzeko geltokia. Alabaina, Iruña Okako udalerrian sartzen dira A-1aren eta Burgos-Vitoria-Gasteiz abiadura handiko linearako proposatu den ibilbidearen arteko lurrak. Perimetro horren barruan ekonomia-jardueretarako eta logistikarako dauden urbanizazio berrirako aukerak mendebaldean daude.

“Vitoria-Gasteizko lautadaren hegoaldeko sarbidea (Zadorrako igarobidea)” PIBEaren paisaiaren katalogoak azaltzen du berrantolatzeko ekintza-plan bateratua egiteko beharra dagoela, estetika komunerako proposamenarekin, erakartzeko eta paisaia hobetzeko. Paisaiaren kalitatea hobetzearen helburua da eremua berrantolatzea, industriaren lurzorua paisaiaren aldetik integratu ahal izateko, itxura eta pertzepzioa hobetuz eta etorkizuneko garapenetarako paisaien irizpideak txertatuz. Horretarako, mugako eremuak naturalizatzea proposatzen da; natura-elementuak txertatzea eta egokitzea, esaterako, Mendizorrotz erreka edo Subillabide eta San José de los Llanos poligonoen artean dagoen eremuaren birlandaketa; soinu pantailen eta landareen bitartez paisaia eta akustika integratzea; estalkietan landaredia jartzea eta eguzki-panelak txertatzea; HAPOren hornikuntzetan ekipamendu gisa sailkatutako lurzoruen inguruan nekazaritzarako lurrak zaintzea; hobekuntzak egin ezin diren ertzetarako alternatibak zehaztea; ertzeko pabilioiak diseinatzeko eta eremuko edozein jarduketetarako oinarri teknikoak garatzea; eta Jundiz-Billoda terminal intermodalaren paisaiaren diseinuari arreta jartzea.

Eremuaren barruan erabilera eta baldintza desberdin ugari daude. Eraztun berdeak hiriaren erdigunearen inguruan egiten duen muga faktore positiboa da, baina mendebaldean galdu egiten da, eremu industrialagoa baita. Perimetroa jarraitua da kontzeptuaren aldetik, baina asmoa da paisaiaren eta ekologiaren iragazkortasunerako hiru puntu ezartzea:


1. Gasteizko mendiak-Zadorrako meandroa, Langraiz Oka nukleoaren hego-ekialdean. Horrek balizko zoru urbanizagarriak autobidearen eta trenbidearen artean diseinatzea ekarriko du, iragazkortasun hori ekoduktuen edo antzeko irtenbideen bitartez bermatuz.
2. Gasteizko mendiek eta Zadorrako meandroak Jundiz mendiaren inguruko Mendizorrotz errekaaren ardatz naturala osatzen dute, eta ibilgua osatzen duten eremuetan dagoeneko finkatuta dauden industria-lurzoruek baldintzatzen dute. A-1 eta N-102 errepideek osatzen duten korapiloa, abiadura handiak indartuko duen trenbidea, Jundizeko geltokia, eta Subillabide poligonoa Jundiz mendebaldeko luzapenaren 21. sektorearekin lotzen duen trenbidearen paraleloa den ekonomia-jarduera garatzeko aukera dira lotura baldintzatzen dutenak.
3. Zabalganako basoaren eta Zadorrak Mercedes-Benz fabrikaren inguruan duen ibilguaren artean dagoen Ibaiaren errekaen jarraipena. Zehaztutako perimetroak Mercedesen zoru industrialak



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

hegoaldera luzatzeko duen aurreikuspenak ezingo du baso horren eta arroaren ardatz berdearen jarraipenaren kalterako izan.



Graf 2. Vitoria-Gasteizko hiri-hazkundearen mendebaldeko zatian proposatu diren lotura berdeak.

Bestalde, hiri-hazkundearen perimetroko mendebaldeko eremu honek lotura argia du “Zadorra Ertaina-Santa Katalina” paisaia-intereseko eremuarekin, izen bera duen ibaian zehar, eta Paisaiaren Katalogoak paisaia antolatzeke ekintza-plan bateratua proposatu du. Plan horrek trafiko astuna Jundizeko terminalera heltzeko irisgarritasunak izan ditzakeen baldintzatzaileak hartu behar ditu kontuan. Horregatik, komeni da ekintza-plan horren tratamendua adierazitako paisaiaren eta ekologiaren iragazkortasunerako puntuekin egokitzea. Horrek esan nahi du Langraitzera doan eraztun berdearen luzapenarekin hastea. Hiri-hazkundearen perimetroak Zadorraren bi alboetako ekosistemen fluxuarekiko duen iragazkortasuna Iruña Okako planeamenduaren berrikuspenaren hazkundearen konponbidearekin harmonizatu behar da.



6.5.4.3 Vitoria-Gasteizko aireportua




Graf 3. Vitoria-Gasteizko aireportuko hiri-hazkundearen perimetroa

497 hektareako gainazala du eta horien barruan daude egungo aireportua eta ekialdean ekonomia-jardueretarako erabiltzen diren lurzoru urbanizagarriak. Sektoreka banatuta ez dauden lurzoru urbanizagarri horien garapenak (Aireportuaren ingurua eta Aireportua) garraiorako azpiegitura horrek EAEko aireportuen sarean duen indar logistikoa sustatzeko aukera emango du, eta etorkizunean Jundizeko terminalarekin izan dezakeen loturak indartu dezake. Egun aireportuaren ekialdean sektoreka banatuta ez dauden lurzoru urbanizagarrien sailkapena ez da barne hartzen, hemen mugatutakoak garatzea baita lehentasun handiena duena, irisgarritasun hobea dutelako eta aireportuko egungo instalazioen sinergiarako potentzial handiagoa dutelako. Bestalde, aireportuaren ekialdera dauden lurak ez dira perimetroaren barruan sartzen, Vitoria-Gasteizko hiri-eremuaren iparraldeko ertzaren paisaiaren lasaialdia eragiten dutelako, eta, hein batean, uholdeak izateko arriskua dutelako. Gainera, Jundizeko terminal intermodal berriak nekazaritzarako balio handia duten lurretan duen okupazioa konpentsatzen dute.



6.5.4.4 Teknologia Parkea-Miñaoko poligonoa



Graf 4. Teknologia Parkearen-Miñaoko poligonoaren hiri-hazkundearen perimetroa

Perimetroak ekonomia-jardueretarako 251 hektarea ditu, eta horietatik 120 Teknologia Parkearen hiri-lurzorua dira. Eremuak gaitasun handiko bideen irisgarritasuna du (AP-1 eta N-240) eta biek fatxada-izaera dute. Eremu Funtzionalaren iparraldean jarduera ekonomikoa sustatzen du Goiain-Lladie perimetroarekin batera. Bertan, abian dagoen industria-lurzorua sustatzeko ekimen publikoa dago. Egun, lurzoru urbanizagarritik kanpo daude Teknologia Parkearen ekialdea eta mendebaldea; izan ere, ulertzen da epe ertainerako inguru honetan dauden beharrak proposatutako mugarekin ase daitezkeela. Nolanahi ere, egun sarbide bakarra duen eta eremua itxia den Teknologia Parkearen tramak inguruko lurrekin lotura egokia duela bermatu beharko da, bertan dagoeneko badauden bideak erabiliz. Halaber, A-3604tik parkera sartzeko intersekzioaren gaitasuna hobetu behar da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.5.4.5 *Goiaín-Lladie*



Graf 5. Goiaín-Lladieko hiri-hazkundearen perimetra

351 hektarea ditu eta barne hartzen ditu Goiaingo industrigunea hegoaldean eta N-240 errepidearen ekialdean urbanizatuta dauden eremuak, baita ekoizpen-jardueretarako lurzoru urbanizagarriak handitzeko SPRILURREK proposatzen dituen lurak ere. Iparraldeko triangeluaren jarduketa horrek orain arte ezarpen isolatuak izan direnei koherentzia emateko aukera ahalbidetuko du, bere tamaina handia gorabehera. Gainera, lurzoru ez urbanizagarrietan jarduketak egiten dituen logikatik hiri-trama eraginkorra sortzera igaroko da, Goiaini dagokionez eguneratuta dauden plangintzekin.

Eremu honetan esanguratsua da Urrunaga urtegirantz eta N-240rantz eraikita dagoen fronte egokia ezartzea, baita AP-1etik ikusgarri dagoen frontea eta zati honetan eraikita dagoen abiadura handiko trena ere; izan ere, Gipuzkoatik etortzen direnek tunela uztean ikusten duten Arabako lehen irudia baita. Halaber, esanguratsua da Santa Engraziko azpiegitura berdearen




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

proposamenean sartzea, zati horretan uholdeak pairatzeko arriskurik ez baitago. Beraz, tratamenduak bi baldintzak izan behar ditu kontuan.

6.5.4.6 Agurain



Graf 6. Aguraingo hiri-hazkunderen perimetroa

368 hektareako eremua da, gehienak ekonomia-jardueretarako sailkatuak, baina iparraldean badira urbanizagarriak ez diren lurzoruak ere, basoen eta nekazaritzaren eta landazabalen kategorian sartzen direnak. Araba Erdialdeko paisaiaren katalogoko “N1 igarobidearen (Agurain)” mugaketa berreskuratzen da, nahiz eta dagoeneko badauden hiriko bizilekuen ehunduraren zati bat eta dagoeneko aipatu diren lurzoru urbanizaezinak ere barne hartzen dituen. Paisaiaren kalitatearen helburua industriarako lurzorua paisaiaren aldetik txertatzeko eremua berrantolatzea da, haren itxura eta A-1tik duen pertzepzioa hobetuz. Aipatutako industria eremuetarako planteatu diren neurri berberak proposatu dira, Donejakue bidea txertatzeko baldintza gehituta.

Oraindik garatu ez den industria-lurzoruaren zati garrantzitsu bat ohiko trenbidearen lineak baldintzatzen du eta Iruñeranzko autobidearekin batera, eremuko hegoaldeko irisgarritasuna baldintzatzen du. Irisgarritasun hori Sallurtegi eta Langarika kaleetan sendotu beharko da. Eremuaren ekialdean etxebizitza ugari daude eta tren-geltokia dago, beraz, kontuan izan behar dira urak har ditzakeen ibilguak eta Langarika Plazaren ingurua eremu zaurgarria dela.



6.5.4.7 Asparrena



194 hektareako eremua hartzen du eta gehienak ekonomia-jarduerarako dira. Finkatutako hiri-lurzorua da, eremu txiki bat izan ezik (Salsamendi), eremu hori urbanizaezina baita. Araba Erdialdeko paisaiaren katalogoko “N1eko igarobidea (Donemiliaga)” Paisaiaren Interes Bereziko Eremuaren barruan dago. Katalogoak beste industria-eremu batzuetarako ezarri diren helburu eta neurri berberak proposatzen ditu. Aguraingo perimetroan gertatzen zen moduan, ohiko trenbidearen presentziak eta Iruñera doan autobideak lurzoru horien zati baten garapenerako potentziala baldintzatzen dute. Trenbidearen eta autobidearen arteko banda urbanizatu ezin daitekeen lurzoru gisa dago sailkatuta egun, eta autobidetik eta trenbidearen barreratik dagoen sarbidearen mugak direla eta mendebaldetik Egilazetik soilik hel daiteke, edo, ekialdean, Araiako geltokiaren hegoaldean dagoen bidetik. Horrek iparraldean dauden industriaguneekin planteatzen den lotura oro zailtzen du.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

6.5.4.8 Lantaron



Comuni3n kokalekuaren mendebaldean dagoen Lantaron udalerriko perimetroak 172 hektarea ditu, eta bertan daude Zubillagako poligonoak, industria kimikora bideratuak, eta Lantaron– SUI-2koak, askotarikoagoak. Halaber, S-2 lurzoru urbanizagarriaren sektorea eta A-2122 errepidearen eta Ebroren artean dauden bi poligonoen arteko eremuak barne hartzen ditu. AP-1ari esker lurraldeko irisgarritasun ona duen eremua da eta Arasurren inguruan sinergia potentzialak dituen. Horregatik, Arabako Ibarren eskualdean ekoizpen-jarduerak garatzea susta dezake.

Azalera handia behar duten enpresak hartzeko gaitasuna duen eremua da. Bertan, substantzia arriskutsuak dauden istripu larrietatik eratorritako kontrol-neurriak onartzen dituen irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren (Seveso) mende dauden hiru instalazio daude, eta Kanpo Larrialdietarako Planak dituzte.

6.5.5 Ekonomia-jardueretarako pakete handien dimentsionatua eta horiek ezartzeko jarraibideak

3.947	2.347	1.599	8.915
Ekonomia-jarduerarako lurzoruaren azalera osoa (Ha)	Azalera okupatua (Ha)	Azalera hutsa (Ha)	Gauzatzeke dagoen eraikigarritasuna (milaka m ² t)

LAGen arauen 12. artikulua seigarren puntuan zehazten du lurralde-plan partzialak izango direla ekonomia-jardueretarako lurzoruaren pakete handien dimentsionamenduaren azkeneko erantzukizuna izango dutenak. Diagnostikoan adierazi den moduan, berroneratzea behar duen hiri-lurzoruan ekonomia-jardueretarako hazkunde-gaitasun garrantzitsua du egun Eremu Funtzionalak, batez ere Vitoria-Gasteiz udalerriaren barruan (Gamarra, Betoñu, Ehari Gobeu)



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

eta hutsik dagoen hiri lurzoru urbanizagarrian. Beraz, udalerriaz gaindiko eskalan ez da sailkapen berriak egiteko beharrik hauteman. Eskala horretatik, beraz, honako hau da arlo horretako jarduketan lehentasuna: hiri-berroneratze industrialeko prozesuak dinamizatzea, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen analisiaren arloko aurretiazko kudeaketak barne, zehaztutako hiri-hazkundearen perimetroen barruan sartutako eremuetako planeamenduaren aurreikuspenak osatzearekin batera, eta, merkatuaren premien bilakaerari erantzuteko beharrezkoa izan daitekeen kasuetan, garapen-plangintzaren aldaketa edo berrikuspena egitea, lursailen neurriak eta haien kokapenak egokitzeko.

Vitoria-Gasteizko metropoli gunerako jarraibide espezifiko gisa LAGek 5. atalean (Berrikuntzarako Arkua Artikulatzea) Arabako Teknologia Parkea, aireportua eta industria-parkea eta merkantzien geltoki intermodala barne hartzen dituen eremu gisa ezartzen dituzte, beharrezko lurraldeko hutsuneak errespetatuz, eta iragazkortasuna eta paisaiaren integrazioa bermatuz, balio handiko jarduera ekonomikoak, industrialak, logistikoak eta teknologikoak egin ahal izateko.

Aurreko puntuko hiri-hazkundearen perimetroaren proposamena ekonomia-jardueren lurzoruetan oinarritzen da batik bat eta plana indarrean dagoen aldirako beharrezkoa izan daitekeen lurzoru mugatzen du.

2021-2026 Euskadi Next Berreskurapenerako eta Erresilientziarako Euskal Programak 16 ekimen planteatzen ditu Arabako Erdigunean eragina izan dezaketenak. Badirudi soilik Basquevolt Gigafactory poligonoetako ekonomia-jardueraren lurzoruaren eskariarekin lotu daitezkeela zuzenean, eta eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Miñao poligonorako proposatu den hiri-perimetroan behar bezala sartuko litzateke. Bestalde, partzela handietan, 10 hektareatik gorakoetan, lurzoru emankorrerako eskariak daudela hauteman da, eta perimetro horren barruan ezar daitezke, Miñao, Goiain-Lladien edo Lantaronen.

6.5.6 Bizilekuen kuantifikazioa

LAGen 13. artikulua bizilekuen kuantifikazioaren inguruko jarraibideak zehazten ditu, bizilekuen kuantifikaziorako IV. Eranskinean zehazten den formularekin. Era berean, hiri finkatuan gertatzen diren bizitegi-gehikuntzei eta lurzoru berrien okupazioaren ondoriozkoei tratamendu desberdina ematea ahalbidetzen du.

13. artikuluko 2. atalak adierazten du IV. Eranskineko zifra zehatzek balio argigarria dutela, eta metodologia aplika daiteke. Aurrerakin honetan Eremu Funtzionalerako IV. Eranskinerako zifra zehatzak erabiltzea erabaki da, kontuan izanik LAGek 2016an erabilitako zifrak murriztu egin direla eskuragarri dauden 2020ko azken zifretan. Halaber, kontuan izan behar da COVID-19aren osasun-larrialdiak Eremu Funtzionalerako dinamika sozioekonomikoetan izan duen eragina ez dela oraindik ziurra.

LAGen arauari erantsitako IV. Eranskinaren zifrek diote Arabako Erdigunean 16.531 etxebizitza izateko beharra dagoela, eta zifra horri harrotze-koefizienteak eta hutsik dauden etxebizitzak berreskuratzeko hipotesia gehituz gero, etxebizitzaren gehieneko gaitasuna 31.671koa da, aldiz, 137.814 etxebizitzako parkea dago. Kalkuluek ez dituzte kontuan hartzen ereduaren osagaiak. Plan honek uste du osagaiak hutsekoa izan behar duela Eremu Funtzionalerako udalerriz guztietan. Bestalde, 2020ko Udalplanen datuen arabera, Eremu Funtzional osoan lurzoru mota guztietan



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

ezartzeko gaitasuna 18.686 etxebizitza librekoa eta babestutako 22.945 etxebizitzakoa da. Horrek esan nahi du lurzoruaren egungo sailkapenek, oro har, 8 urterako eskaria betetzeko gaitasuna dutela, LAGen aurreikuspenen arabera. 2019an emandako baimenak 714 etxebizitzarentzat izan zirela kontuan izanik, EUSTATEk urteko lizentzien eta lurralde historikoaren arabera ateratzen duen balioaren azken bi urteetako joera orokorrari egokitzen zaio. Horregatik, beharrezkoa da plangintzaren etxebizitza gaitasuna LAGen irizpideen arabera egokitzea.

Udalerrriko egindako azterketan, Zalduondon eta Iruña Okan soilik gainditzen du etxebizitzaren behar guztiak (hau da, harrotze-koefizienteak eta hutsik dauden etxebizitzak berreskuratzea aplikatu aurrekoa) indarrean dagoen plangintzaren gaitasuna; 8 etxebizitzek gainditzen dituzte Zalduondon dauden 94ak eta 194k Iruña Okan dauden 1.604ak. 9 udalerritan, bi horietan barne, LAGen formula aplikatuta dagoen gehieneko etxebizitzaren gaitasunak etxebizitza libreak eta babes ofizialekoak ezartzeko gaitasuna gainditzen du. Iruña Okan, Zigoitia eta Legutition soilik da aldea 50 unitate baino handiagoa. Hau da, udalerrri batzuek etxebizitza-lurzoruaren sailkapen berriak eska ditzakete haien baldintza berezien arabera, baina udalerriz gaindiko behar orokorra izatetik urrun dago, eta tamainarengatik eta hiri-ehunduren diagnostikoaren arabera, lurzoru emankorrak berroneratzeko konponbide alternatiboak sor daitezke eskari horiek asetzeko.

Vitoria-Gasteizen kasuan, indarrean dagoen plangintzaren etxebizitzaren gehieneko gaitasunak tokiko etxebizitzaren beharra bikoizten du. 2021eko ekainean argitaratu zen Vitoria-Gasteizko HAPOa berrikusteko irizpideen eta helburuen dokumentuan landa-eremurako irizpidetzat hartzen da herrietan garatu ez diren lurzoru urbanizagarrien sektoreen desklasifikazioa eta garatu ez diren gauzatze-unitateak. Horretarako, lurzoru urbanizagarrian dagoeneko horrela sailkatuta dauden partzelak betetzeko apustua egin da. Dokumentuak berak "hiri konpaktua, konplexua eta kohesionatua" atalean proposatzen du hiriarekin lotura duten eta urbanizagarriak ez diren sektoreak desklasifikatzea (Salburua eta Zabalganako birpartzelazioarekin loturarik ez dutenak) eta hainbat sektoreren antolamendua berrikustea, hala nola 14 Olan eta 5b Zabalganakoa. Halaber, Lakuan erabilera mistoetarako hutsik dauden ekipamenduen partzelak birkalifikatzea eta hiriko aukera-eremuak berriro diseinatzea ere proposatu du.

	Egungo etxebizitzak	Gauzatzeke dauden etxebizitzak (UDALPLAN 2020)		LAGeko IV. eranskineko parametroak		Balantzeak	
		Etxebizitza libre (A)	Babes ofizialeko etxebizitzak (B)	Bizilekuaren guztizko beharra (C)	Bizilekuaren gehieneko gaitasuna (D)	D-B-A	C-B-A
<i>Agurain</i>	2.429	450	660	456	1136	26	-654
<i>Alegria- Dulantzi</i>	1.218	799	329	670	643	-485	-458
<i>Añana</i>	193	57	0	1	23	-34	-56
<i>Armiñon</i>	135	49	0	38	81	32	-11
<i>Arraia-Maeztu</i>	588	299	0	32	84	-215	-267
<i>Arratzua-Ubarrundia</i>	473	518	0	102	259	-259	-416
<i>Asparrena</i>	1.011	575	0	78	196	-379	-497
<i>Barrundia</i>	530	247	0	160	281	34	-87
<i>Berantevilla</i>	305	87	0	33	92	5	-54
<i>Bernedo</i>	518	339	0	12	62	-277	-327



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

	Gauzatzeke dauden etxebizitzak (UDALPLAN 2020)			LAGeko IV. eranskineko parametroak		Balantzeak	
	Egungo etxebizitzak	Etxebizitza librea (A)	Babes ofizialeko etxebizitzak (B)	Bizilekuaren guztizko beharra (C)	Bizilekuaren gehieneko gaitasuna (D)	D-B-A	C-B-A
Kanpezu	885	510	148	26	94	-564	-632
Burgelu	292	108	0	217	136	28	109
Erriberagoitia	561	321	0	129	283	-38	-192
Harana	251	67	0	-5	25	-42	-72
Iruña Oka	1.604	398	48	643	803	357	197
Iruraiz-Gauna	322	199	0	48	138	-61	-151
Kuartango	317	206	0	16	42	-164	-190
Lagran	270	240	0	3	22	-218	-237
Lantaron	629	399	8	49	134	-273	-358
Legutio	945	197	20	164	439	222	-53
Otxandio	615	141	207	97	257	-91	-251
Urizaharra	348	101	0	19	52	-49	-82
Erriberabeitia	573	562	0	505	332	-230	-57
Donemiliaga	463	487	0	31	84	-403	-456
Ubide	135	14	0	11	30	16	-3
Urkabustaiz	798	379	61	218	430	-10	-222
Gaubea	1.082	591	0	90	229	-362	-501
Vitoria-Gasteiz	111.137	8.961	21.430	12.009	24.080	-6.311	-18.382
Zalduondo	94	17	0	25	47	30	8
Zanbrana	341	171	0	28	77	-94	-143
Zigoitia	1.000	394	10	274	458	54	-130
Zuia	1.229	803	24	352	622	-205	-475
GUZTIRA	131.291	18.686	22.945	16.531	31.671	-9.960	-25.100

Graf 7. Egungo egoera, plangintzaren aurreikuspenak eta etorkizuneko bizilekuaren beharrak Eremu Funtzionaleko udalerrietan

Nolanahi ere, datuek erakusten dute babes ofizialeko etxebizitzentzako bideratu den lurzorua plangintzak aurreikuspen eskasa duela biztanle gutxien dituzten udalerrietan. Egoera horrek kokaleku txikien despopulazioari aurre egiteko dinamika galaraz ditzake; izan ere, kasu batzuetan, egun etxebizitza librearentzako diren lurzoruen zati bat etxebizitza ofizialeko etxebizitzaren beharrak asetzeko erabiltzea izan daiteke konponbidea. Dinamika demografiko atzeragarriak dituzten udalerrietan etxebizitza-beharrak asetzeko erabili gabe dauden etxebizitzak berreskuratzea aztertu behar da.

	Gauzatzeke dauden etxebizitzak			LAGeko IV. eranskineko parametroak		Balantzeak	
	Egungo etxebizitzak	Etxebizitza librea (A)	Babes ofizialeko etxebizitzak (B)	Bizilekuaren guztizko beharra (C)	Bizilekuaren gehieneko gaitasuna (D)	D-B-A	C-B-A
VITORIA-GASTEIZ	111.137	8.961	21.430	12.009	24.080	-6.311	-18.382



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

	Gauzatzeke dauden etxebizitzak			LAGeko IV. eranskineko parametroak		Balantzeak	
	Egungo etxebizitzak	Etxebizitza libre (A)	Babes ofizialeko etxebizitzak (B)	Bizilekuaren guztizko beharra (C)	Bizilekuaren gehieneko gaitasuna (D)	D-B-A	C-B-A
ARABAKO LAUTADA	6.832	3.400	989	1.787	2.920	-1.469	-2.602
ARABAKO IBARRAK	5.740	2.841	56	1.532	2.096	-801	-1.365
ARABAKO MENDIALDEA	2.860	1.556	148	87	339	-1.365	-1.617
GORBEIALDEA	3.972	1.773	115	1.008	1.949	61	-880
BIZKAIKO UDALERRIAK	750	155	207	108	287	-75	-254
GUZTIRA	131.291	18.686	22.945	16.531	31.671	-9.960	-25.100

Graf 8. Egungo egoera, plangintzaren aurreikuspenak eta etorkizuneko bizilekuaren beharrak Eremu Funtzionalako kuadrilletan

Kuadrillen azterketak erakusten du LAGen irizpideen arabera kalkulaturako bizilekuaren guztizko beharra asetzeko gaitasuna duela plangintzak, eta Gorbeialdean soilik dago defizit txikia, bizilekuaren gehieneko gaitasunari dagokionez. Eraitza horien ondorioz, LAGen eranskineko kalkuluaren hipotesiak gomendagarria izaten jarraitzen du, ez baitu ereduaren koefizienterik kontuan hartzen.

6.6 Paisaia, kultura eta natura ondarea, eta baliabide turistikoak

6.6.1 Eremu Funtzionalako paisaiari buruzko Katalogoaren ondoriozko zehaztapenak

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Paisaiari buruzko Katalogoa 2020. urtean argitaratu zen, eta tresna gisa planteatzen da Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin eta EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeke 90/2014 Dekretuarekin bat etorritik paisaia-unitateak kudeatzeko. Katalogoak paisaia-unitateak identifikatu eta hiru kategoriatan multzokatzen ditu: lautada zabalak, mendi-mazelak eta mendi-oinarriko ibarrak eta mendilerroak nahiz mendiak, dokumentazio grafikoan ikus daitekeen bezala.

Lautadak lau paisaia-unitate baino ez ditu. Azalera handietan zehar zabaltzen da, Vitoria-Gasteiztik ekialderantz, Nafarroaraino eta Ebroko ibar, Zadorra eta Ihudaren ur-bateratzeraino iritsi arte. Lautada gehienetan lurzoruak Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala kategorian sartzen dira.

Mendi-oinarriko ibarrei eta mendi-mazelei dagokienez, eremu hauetan zenbait kategoria elkartzen dira lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeari eutsiz: ingurumena hobetzeko eremuak (hala nola Laminoriako harrobiak, Aranbaltzaren inguruko eremuak edo Arkandetu eta Bilardetako eremua), baso-eremuak (Durruma Kanpezu, Kintana eta Uteri paisaia-unitatearekin bat datozenak) edo babes bereziko eremuak (besteak beste, Erroitegi edo Erroeta kontzejuaren inguruneak).



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-


Mendilerroei eta mendiei dagokienez, paisaia konplexuagoak eta anitzagoak dira, batez ere, Arabako Mendialdeko Kuadrillan, Eremu Funtzionalaren hego-ekialdean. Paisaia-unitate hauek guztiz bat datoz ikuskapenean azpiegitura berderako proposatzen diren mugekin, besteak beste, hauek sartzen baititu: Gorbeia, Kapildui eta Azazetako ibarra edo Izki eta Muelaseko mendilerroak Maeztu eta Kanpezu artean.

Paisaia-unitateak definitzeko ingurumen- eta kultura-ezaugarri erkideen eta propietate bisualen konbinazio bereziak espazioan zehar jarraipena du. Unitate bakoitza erraz hauteman daiteke, bereizteko erabiltzen diren eredu nagusiei erreparatzen badiegu.

Paisaia Interes Bereziko Eremuak (PIBE) dira helburuak, eta paisaia kontserbatu eta hobetzeko neurriak proposatzen dira 2019ko Katalogoan identifikatu diren beharren arabera. Paisaiaren bitxitasun-balio altuei, paisaiaren berezitasunari, paisaiaren hauskortasunari eta/edo populazioak ikusgai duenari jarraikiz diagnostikatu dira paisaiaren kalteberatasun-baldintzak edo beharrak. Era berean, paisaiekiko kanpoko faktoreak aintzat hartu dira, hala nola irauteko mehatxuak eta lurralde-nortasunari lotutako balioak nahiz balio estetikoak.

Halaber, Katalogoak Paisaia Interes Bereziko Eremuak bereizten ditu, eta espazioan jartzen du zein eremutan aplikatu behar diren paisaiaren kalitate-helburuak. PIBE-etarako zehaztapenak eta paisaiaren kalitate-helburuak LPPren proposamenara eramateko, honako hauek egin dira:

1. Espazioan ipinitako paisaiaren kalitate-helburuak LPPk arau ditzakeen kontzeptuetan txertatu dira.
2. Industrialdeei eta hiriko inguruari lotuta, PIBE konplexuenetarako oharak kontuan hartu dira hiri-hazkunderaren perimetroetarako irizpideak definitzeko.
3. Hiriguneaz kanpo gelditzen diren PIBE gehienei dagokienez, lurzoru urbanizaezinaren arauketak helburuak betearaz ditzake.





Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Graf 9. Araba Erdialdeko Paisaiari buruzko Katalogoan dauden paisaiaren kalitate-helburuekin (PKH) lotutako eremuak LPPren kategoria operatiboetara eramatea

	PKH		PKH		PKH		PKH		
Babes berezia	Ikuspegi-esposizio handiko kokaguneen babesa sustatzea.	Azpiegitura berdea	Eremu berdeak eta kulturalak egokitzea	Turismoa eta ondarea	Kontzejuen eta herrixken kontserbazioa indartzea	Ingurumen-hobekuntza	Meategi, zabortegi eta beste eremu degradatuen paisaia-integrazioa sustatzea.	Udal-plangintzan jarraibideak	Etorkizuneko hiri-garapenak paisaian txerta daitezen indartzea
	Agertoki-hondoko kokaguneen babesa sustatzea		Lotura-kokaguneen babesa sustatzea (IV)		Balio handiko eta hauskortasun bisual handiko guneen ikuspenaren babesa sustatzea		Larre eta sastraken paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea		Nekazaritza-azpiegituren hobekuntza bisuala indartzea
	Paisaian zuhaitz-masa berezien babesa sustatzea		Ibai, ibaiertz, hezegune eta ur-geruzen babesa, kontserbazioa eta hobekuntza sustatzea		Hiribildu eta hirigune historikoen babesa eta kontserbazioa sustatzea		Basoko landaketen paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea		Ahalmena duten industria-kokaguneen antolamendua sustatzea
	Natura-paisaiaren (harritsua eta higadurazkoa) babesa sustatzea		Ibaien, ibaiertzen eta hezeguneen berroneratzea eta babesa sustatzea		Kultura-kokaguneen kontserbazioa eta babes bisuala sustatzea				Bisualki hauskorrek diren hiri-periferiako eremuen antolamendua sustatzea
	Kultura eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako kokaguneen babes bisuala sustatzea		Berdegune bereziak babestu, kudeatu eta zabaltzea		Industria-ondarearen berroneratzea sustatzea				
	Harkaitz eta mendixken babesa eta kontserbazio bisuala sustatzea.								

Beraz, paisaiaren kalitate-helburuen transposizioa egiteko honako kategoria operatibo hauek zehazten dira, eta zonakatzeko proposamenaren atalean dagoeneko aintzat hartu dira:

1. Babes berezia: kasu honetan, ukitutako eremuak dituzten balioen arabera, LAGen matrizean babes bereziko lurzorutzat har daitezke. Horrenbestez, Arabako Lautadaren iparraldeko itxitura eszenikoaren lurzoruetan, adibidez, babesa zabalduko da.
2. Azpiegitura berdea: eremu hauetan paisaia-balioek ekosistema-zerbitzuei lagunduko diete, eta, ondorioz, azpiegitura berdeari ekarpena egingo diote.
3. Turismoa eta ondarea: eremu hauetan paisaiaren balioek ingurune eraikiarekin eta haren inguruarekin zerikusia dute, bai eta horien eta naturagunearen arteko harmoniarekin ere.
4. Ingurumen-hobekuntza: zonakatzeari buruzko lanaren bidez hala definitu diren lurzoruak osatzen ditu.
5. Udal-plangintzarako jarraibideak: proposamenak, oro har, eremu konplexuen tratamenduarekin lotuta daude, elkarrekintzan baitihardute azpiegiturek, hiriguneek eta naturaguneak. Dena den, hiriko perimetroak definitzean landu dira.



6.6.2 Kultura- eta natura-ondarea eta baliabide turistikoak


Arabako Foru Aldundiko ondasunen inbentarioak Eremu Funtzionalan guztira 4.000 kultur ondasun baino gehiago kokatzen ditu, eta haietatik 1.016 Vitoria-Gasteizen daude. Askotariko elementuen multzoa da. Lurraldeari begira, Paisaiari buruzko Katalogoak berariaz identifikatzen dituenak azpimarra daitezke honako kalitate-helburu hauen bidez:

1. Kontzejuen eta herrixken kontserbazioa sustatzea: Eremu Funtzionalak 307 kokagune ditu. Eremua orokorra da eta proposamen-planoan ez dira berariaz irudikatzen, errazago ikusteko.
2. Balio eta hauskortasun altuko guneen babes bisuala sustatzea. 5 eremu sartzen dira. Hiri-multzo eta kokagune txikiak dira, eta dorretxe tradizionalaren tipologia dute. 4 kasutan Arabako Ibarrek eta Arabako Mendialdeak eskualdeetan daude. Honako hauek dira: Mendoza; Tuesta; Villanañe, Baronatarren dorretxea eta Angostoko komentua multzoa; Urizaharrako Erdi Aroko hiribildua eta Antoñana. Halakoetan, plan bereziak egitea proposatzen da. Ildo horretatik, ikusizko arroak aztertu ondoren, ondasunak turismorako eta aisialdirako antolatuko dira.
3. Hiribildu eta hirigune historikoen babesa eta kontserbazioa sustatzea: Atal honetan plan bereziak idatzi eta ikuskatu behar dira, UNESCOren hiriko paisaia historikoaren gomendioan dauden irizpideak sartzeko (herritarren partaidetza, ezagutza eta plangintza hobetzea, tokiko baldintzak kontuan hartzea eta finantza tresnak).
4. Kultura-kokaguneen kontserbazioa eta babes bisuala sustatzea: Bigarren kategoriaren bidetik esku hartu behar da.
5. Industria-ondarearen berronartzea indartzea. Katgoria honetan elementu bakarra kokatzen da, hain zuzen ere, Araiako burdinola. Kasu honetan, jarduketak interpretazio zabalagoa du, ibarrarekin eta zentral hidroelektrikoarekin duen harremana kontuan hartuta. Hala ere, plangintza berezia tresna egokia da.

Natura-ondarean sartzen dira ingurune fisikoaren eta azpiegitura berdearen atalean aipatu diren eremu babestuak; atsedeen-eremuak, Garaio eta Landako probintzia-parkeak, eta Mendixurko hegazti-parkea, horiek guztiak Uribarri-Ganboako urtegiarekin lotuta. Biztanleen aisialdirako eta eremu horietako bisitariek turismoa egiteko garrantzi berezia dute. Proposatzen da eremu horiek sustatzea, Foru Aldundiko atsedeen-eremuk sarearekin batera, eta azpiegitura berdearen kudeaketarekin koordinatzea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 10. Probintziako atseden-eremuak eta azpiegitura berdea

6.7 Baliabideen kudeaketa jasangarria

6.7.1 Ura

6.7.1.1 Baliabide hidrikoak kudeatzeko irizpide orokorrak

Araba Erdialdeko LPPk ur-baliabideen kudeaketa jasangarriari aurre egiten dio, baliabide hidriko guztien egoera ekologiko ona mantendu edo berreskuratzeko. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan oinarrituta, LPPk hiria berroneratu eta birmoldatzeko politikak onetsi beharko ditu. Helburua da ibaietan eta ibilguetan eremuak berreskuratzea. Gainera, zorupeko urak babesteko lurralde-dimentsioa garatzen da, eta, xede horrekin, LAGek aipatutakoaren ildotik, prebentzio-politikak aplikatzen dira.

6.7.1.2 Arloko plangintzan aurrez ikusitako hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak eranstea


Araba Erdialdeko LPPk lehendik dauden azpiegiturretan hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko planifikatuta dauden jarduketak eransten ditu. Hala, ura erabiltzean eta hondakin-urak isurtzean jasangarritasun-irizpideak sustatu nahi ditu. Jarduketak **Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko 2016-2026 Plan Zuzentzailean daude**. Plan Zuzentzaileak jarduketak sailkatzen ditu, hornidurarekin lotutako jarduketan eta saneamenduarekin zerikusia duten jarduketan artean bereizita:

- **Hornidurarekin lotutako jarduketak:**
 - Kontserbazio-egoera txarrean dauden tangak edo edukiera gehitu behar dutenak berritu eta/edo handitzea. Kuadrilla guztiei eragiten die, Vitoria-Gasteizkoari izan ezik, baina bereziki Arabako Ibarrei eta Arabako Mendialdeari.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

- Galerak izan ditzaketan eta, ondorioz, uraren kudeaketa eraginkorrean laguntzen ez duten banaketa-sareak berritzea. Batez ere Arabako Ibarrei eragiten die.
- Ura iragazteko edo kudeatzeko sistemak instalatuta, uraren kalitatea hobetzea. Horrek nagusiki Eremu Funtzionalako mendebaldeari eragiten dio, eta eragin handiagoa du Arabako Ibarretan.
- Hornidura bermatzeko arazoetarako konponbidea, sarea konektatuta eta putzuen bidez baliabideak erregulatuta.
- Beste jarduketa estrategiko batzuk.




Graf 11. *Lehendik dagoen hornidura-sarea eta jarduketaren proposamena. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPP berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa eta beste iturri aipagarri batzuk.*

- **Saneamenduarekin zerikusia duten jarduketak:**
 - Arazteko sistema berriak ezartzea, baliabideen kudeaketa jasangarriagoa egiten laguntzeko eta hondakin-uren tratamenduan kalitate-estandarrak hobetzeko. Arabako Lautadan kontzentratzen dira jarduketa gehienak.
 - Lehendik dauden sistemetara edo Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzaileak proposatzen dituen etorkizunekoetara konektatzea. Konexio berriek batez ere Vitoria-Gasteizi eta Arabako Lautadari eragiten diote.
 - Kolektoreen sarea hobetzea lehendik dauden arazketa-sistemen eraginkortasuna hobetzeko.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

- Beste jarduketa estrategiko batzuk



Graf 12. Lehendik dagoen saneamenduko sarea eta jarduketaren proposamena. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPP berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa eta beste iturri aipagarri batzuk.

Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzaileak proposatutako jarduketei esker, hondakinen kudeaketa optimizatzen da, eta egun sor ditzakeen galerak murrizten laguntzen du.

LAGek ezartzen dituzten irizpideak kontuan hartuta, LPP honetan honako jarduketa-lerro hauek proposatzen dira:

- **Txertatzea Eremu Babestuen Erregistroan** dauden **eremuak**, hiriko eta haien zuzeneko jariatze-arroetako hornidura-bilketarekin zerikusia dutenak; erreserba hidrologikoak; ingurumen- eta natura-intereseko ibai-tarteak eta ibaien erreserba naturalak.
- **Txertatzea Eremu Funtzionalan lehendik dauden urtegiak**, urtegira iristen diren balizko ibaiadarren arroa barne.

Plangintzaren ikuspegitik, nekazaritzaren edo erauzpenaren sektorean ur-kontsumoaren aurreikuspenek kontuan hartzen dute ureztapen-mekanismoetan egungo joera-aldaketa baliabide hidrikoak aurreztean ekarpena egiteko.

6.7.1.3 Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalan ur-horniduraren gaitasuna ebaluatzea

URak 2020ko azaroan argitaratu zuen “EAEko Ur Eskarien Azterketaren Eguneraketa” azterlanaren arabera. Azterlanak 2027. eta 2039. urteetarako pronostikoa egiten du. Lehen mugarrria aukeratu da, LPPren indarralditik hurbilena baita.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Hurrengo taulan kontsumoa eskualdeen arabera banatuta dago. Jarduera bakoitzerako azterlanak 2027. urteari begira aurrez ikusitakoa da.

Eskualdea	Eskea (m ³ /urte) 2027an
Arabako Lautada	1.831.646
Arabako Ibarrek	1.440.130
Arabako Mendialdea	485.201
Gorbeia	1.359.078
Vitoria-Gasteiz	20.687.344
Ubide eta Otxandio	153.063
Araba Erdialdean, guztira	25.956.462

Graf 13. Araba Erdialdean ur-kontsumoaren aurreikuspena eskualdeen arabera

Informazio horretatik abiatuta, 2027. urtean hornidura-sistemek estali behar duten ur-eskea lortu da. Ondoren, egun eremuko arroek duten hornidura-gaitasunari buruzko informazioa jaso da. Kalteberatasun hidrikoaren gaineko atalean azaldutakoaren ildotik, Ebroko Arroaren Plan Hidrologikoari buruzko zirriborroak planteatutakoaren arabera, XXI. mendearen amaieran % 20 murriz daiteke, baina LPPren indarraldirako ez dago kalkulurik. Bestalde, 2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategiak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan ekoizpena murrizteari buruzko informazioa du, baina ez Ebroko Demarkazioari buruzkoa. Alabaina, mendilerro berdinek bi demarkazioetako ibaiak elikatzen dituztela kontuan hartuta, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren murrizketa-balioei erreparatu zaie Planaren aurretiazko analisia egiteko:

- **2027an** ekoizpen-gaitasuna % **4** murriztuko da.
- **2033an** ekoizpen-gaitasuna % **11** murriztuko da.

Ekoizpen-gaitasunaren murrizketa hori aintzat hartuta, ondoren, lehendik dauden arroen gaitasun hidrikoa eta arro bakoitzetik hornidura jasotzen duten udalerrien ur-eskea alderatzen dira.

Arroa	Eskea (hm ³)	Biztanleriarentzako balantzea (hm ³)	Aurrez ikusitako murrizketa	Etorkizunerako gaitasun hidrikoa	2027rako eskea
Zadorra	130.5	25.6	% 4	24.6	23.7
Baia	2.0	0.5	% 4	0.5	0.9
Jugalez	0.4	0.1	% 4	0.1	0.1
Omecillo	23.7	5.3	% 4	5.1	0.2

Graf 14. 2027. urtean gaitasun hidrikoaren eta eskearen arteko alderaketa

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, 2027ko agertokian Baiako arroak bakarrik izango lituzke hornitzeko gaitasunean balizko arazoak, eta ez lirateke garrantzitsuak izango Eremu



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Funtzionalaren bolumen globala kontuan hartuta. Nolanahi ere, arroan eraginkortasun hidrikoa hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke.

6.7.2 Energia

6.7.2.1 *Energia eta klima arintzeari buruzko irizpide orokorrak*

Araba Erdialdeko LPPk energia kudeatzean, oinarritzat du energia ez-berriztagarrien iturrien kontsumoak murriztu behar direla eta energia berriztagarrietatik sortutako energia elektrikoaren kontsumoa indartu behar dela, deskarbonizazioaren helbururantz aurrerapausoak emateko. Efizientziari buruzko helburu horretarako urratsak egin behar dira autosufizientzia energetikorantz, bai bere osotasunean, bai azken kontsumitzaileak kontuan hartuta. Hala, garraioaren ondoriozko energiaren galerak mugatu behar dira. Gainera, nazioartean erabaki diren atalaseen azpitik berotegi-efektuko gas-igorpenen balantze garbia murrizteko, energia kontsumitzen duten sektoreetan eragin behar da, erabilera eraginkorra eta efizientea egin dezaten. Horrez gain, CO₂-ko isurbideen gaitasuna handitu behar da, klima-aldaketaaren arazoa arintzeko.

Helburu horietara iristea ahalbidetuko duten azpiegitura berriak kokatze aldera, kontuan hartu behar dira, batetik, azpiegitura horien baldintzak eta, bestetik, Eremu Funtzionaleko ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-erronkak. Batera ezintasunak, disfuntzioak eta eragin onartezinak saihestu behar dira. Energiaren kudeaketa deszentralizatua proposatzen da, eta, xede horrekin, Araban maila anitzetan gobernantza-ehun aberatsa (kuadrillak, udalerrriak eta kontzejuak aktore itundu gisa) aintzat hartuko da. Horrez gain, indarrean den arloko plangintzari erreparatuko zaio, hala nola 2010-2020rako Arabako Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Planari eta Energia Berriztagarriei buruzko LPSri (egun ikuskatzen). Halaber, ez dira baztertuko Enargi Araba SA enpresa publikoaren sorrera edo EKIOLA kooperatiba energetikoen proiektua. Aktore horien ekoizpena eta kontsumoa kudeatzeko, irabazi-asmorik gabeko energia-bankua eratzea proposatzen da, lurralde-eremu bakoitzean energia berriztagarria sortu, banatu eta kontsumitzeko katea errazago kudea dadin. Proposatzen den sistema energetikoak autokontsumorako eta sorrera banaturako neurriak garatuko ditu, eta helburu horrekin, baliabide energetiko berriztagarriak aprobetxatzeko dira: eguzki-energia, energia hidraulikoa, biomasa, haizearen energia, energia geotermikoa, hondakin organikoen digestio anaerobikoa, etab.

Aztertutako aukerak trantsizioaren ikuspegitik ulertu behar dira. Egungo kontsumo-egoeratik abiatuta, beharrak estaltzeko oso-osorik energia berriztagarriantz jotzen bada, lurzoruaren eskea garrantzitsua litzateke. Ildo horri eutsiz, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia hurbilketa bat da. Efizientzia hobetzeko eta gaitasun berriztagarria areagotzeko erritmo jakina du, baina bitarteko puntua da asmo handiagoko aukeretara, besteak beste, oinarritzko erregimenaren hipotesira¹⁰, iristeko bidean. Nolanahi ere, 2030etik harago klima-neutraltasunerako bidean kokatzen dira.

¹⁰ Atal honetan, gizakiaren gorputzak atsedenean duen oinarritzko metabolismoaren analogiaz, azalpen-modura oinarritzko kontsumoaren kontzeptua erabiltzen da, lehenengoa fisiologian erreferentzia baita. Baliabide baten oinarritzko kontsumoa da baliabidea alferrik xahutu gabe familia edo erakunde zehatzari garapen duina ahalbidetzen diona. Kontzeptu honi esker, baliabideen gutxieneko kopuruak zehazten



6.7.2.2 *Energia berriztagarria sortzeko azpiegitura dimentsionatzea*

Haize-energia sortzeko jarduketek eragin bisual handia dutenez, proposatzen da sorrera-jarduketak tamaina handiko instalazio berrietarako teknologia fotovoltaiakoan oinarritzea eta, aldi berean, lehendik dauden haize-parkeak berrindartzea, berariazko atalean zehazten diren irizpideen arabera.

Dimentsionatzeko honako aukera hauek aztertu dira:

1. aukera: egungo kontsumoak osatuko lituzke, eta beharren % 100 energia berriztagarriekin estaliko litzateke. Modu horretan, energia berriztagarriekin gaur egun Eremu Funtzionalan sortutako ktep-ak kontuan hartuta, beste 746 ktep sortu beharko lirateke, eta bihurtze-faktorea (112 kWh/urte m²) aplikatuz gero, energia fotovoltaiarako 7.758 hektarea beharko lirateke.

2. aukera: Aukera honetan 1. Aukeratik garraioak sortutako energia-kontsumoa kentzen da etorkizunean energia berriztagarrien ekoizpen-beharrak kalkulatzeko. Ildo horri jarraiki, energia fotovoltaiarako 3.824 hektarea beharko lirateke.

3. aukera edo hautatutako aukera: antolamendu-eredu hau garatu da, eta Euskadiko Energia Estrategikoaren helburuak betetzen ditu eskea murrizteari dagokionez (sektoreen arabera, % 13 eta % 22 bitartean). Energia berriztagarrien ekoizpena % 126 handitu nahi du energia fotovoltaiakoa ekoizteko 1.317 hektareari esker.

4. aukera: hautatutako aukerarekin aldea honako hau da: 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak hitzartutakoari Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Planak (GJGP) ezartzen dituen helburuak gehitzen zaizkiola. Horren arabera, garraioaren sektorean petrolioaren deribatuen kontsumoa % 30 gutxituko da, beraz, berriztagarriak instalatzeko azalera handiagoa (guztira 2285 ha) beharko litzateke, hidrokarburoen bidez kontsumitzen den energia orekatzeko.

5 aukera: Energia eraginkortasun handiagoaz erabiltzeari dagokionez, aukera hau asmo handiagokoa da. Oinarrizko erregimenera pasako litzateke. Horri esker, baliabideen gutxieneko kopuruak zehazten dira, eta kostuko prezioan ezinbestez bermatzen saiatu behar da, energia-pobreziarik ez egoteko. Prezio librean baliabidearen kontsumo osagarriak, ordea, lagun dezake kontsumoa arrazoizko parametroen barruan mantentzen. Era berean, energia-eske guztia elektrizitate berriztagarriarekin estaltzea planteatzen da. Kontzeptu horretatik abiatuta, LPPren ikuskapenak honako hau proposatzen du:

- Bizitegiak: Egungo erabileraren % 50 (etxebizitza bakoitzeko gutxi gorabehera 4.000 kWh/urte).
- Industria: Egungo energiaren kontsumoa mantentzen da.
- Zerbitzuak: Kontsumoa % 35 murrizten da, bizitegirako portaeraren bide beretik. Zerbitzuen oinarrizko erregimena 40 ktep inguru litzateke.
- Lehen sektorea: Egungo kontsumoa mantentzen da.
- Garraioa: Egungo kontsumoa herenera murrizten da. Ibilgailu elektrikoa sartzea, modu jasangarri berriak garatzea, salgaiak trenaz gehiago mugitzea.

dira, eta kostuko prezioan ezinbestez bermatzen saiatu behar da, energia-pobreziarik ez egoteko. Prezio librean baliabidearen kontsumo osagarriak, ordea, lagun dezake kontsumoa arrazoizko parametroen barruan mantentzen.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

Premisa hauetatik abiatuta, 4.499 hektarea fotovoltaiako beharko lirateke.

6 aukera: Aukera honetan, 5. aukeran bezala, oinarritzko erregimenera pasatzen da; kasu honetan, ordea, industriaren sektoreak kontsumitutako energia ez da zenbatzen, eta gainerako sektoreetan kontsumo-murrizketak mantentzen dira, 5. aukeran zehaztutakoaren ildotik. Modu honetan, industriarena izan ezik, gainerako oinarritzko energia-beharrak betetzeko, 1.671 hektarea fotovoltaiako beharko lirateke.

	1. aukera	2. aukera	3. aukera	4. aukera	5. aukera	6. aukera
	Egungo kontsumoa (ktep)	Egungo kontsumoa garraiorik gabe (ktep)	Etorkizuneko kontsumoa (3E2030) (ktep)	Etorkizuneko kontsumoa (3E2030) + Ibil. elektrikoa (ktep)	Oinarritzko erregimena (ktep)	Oinarritzko erregimena industriarik gabe (ktep)
Industria	271.9	271.9	236.6	236.6	271.9	
Etxebizitzak	81.3	81.3	70.7	70.7	40.7	40.7
Zerbitzuak	60.3	60.3	47.0	47.0	39.8	39.8
Lehen sektorea	12.6	12.6	11.0	11.0	12.6	12.6
Garraioa	378.2	0	310.1	310.1	126.1	126.1
Lehendik dauden energia berriztagarriak	100.5	100.5	100.5	100.5	100.5	100.5
Energia berriztagarrietan ekoitzi behar dena	746	368	127	220	432	161
Azalera fotovoltaiakoa (ha)	7758	3.824	1.317	2.285	4.499	1.671

6.7.2.3 *Energia fotovoltaiakoa sortzen duten azpiegiturak kokatzeko irizpideak*

Kuadrillek definituko dituzte instalazioak hartzeko balizko eremuak. Ahal denean, hala nola industriagune handietan edo aparkalekuetan, panelak eraikinen estalkietan ipintzea sustatuko da. Horrez gain, landaguneko kokagune batean jarduten denean, energia hartzeaz gain, nekazaritza edo abeltzaintzarekin lotutako erabilera bat edo gehiago (besteak beste, erlezaintza edo artzaintza) sartzen eta bertan tokiko materialak, hala nola zura, erabiltzen saiatuko da.

Energia fotovoltaiakoa sortzen duten sistemak kokatzeko zenbait aukera aztertu dira. Hirigintza ekologikoaren postulatuekin koherentzia izan dezan, hasieran, nekazaritza-balioa duten lurzoruetan eragina murriztea bilatu da, beraz, dagoeneko artifiziai bihurtuta dauden lurzoruetara jo da. Autobideen eta autobien galtzadak eta ondoko zerrendak pergola fotovoltaiakoekin estaltzea Alemanian aztertzen ari da eta Hego Korean dagoeneko aplikazio esperimentalak daude. Horri esker, ekoizpena kontsumo-tokiari lotuko litzaioke, eta gutxi gorabehera 1.000 hektarea egongo lirateke eskura. Hala eta guztiz ere, konponbide hori oraingo errepideei buruzko arauketa-esparruan bateraezina da; beraz, proposatutako aukeran ez dira kontuan hartu.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 15. Autobietarako eguzki-pergolen eskema; Alemanian, Eguzki Energiaren Sistemetakako Fraunhofer Institutuan, aztertzen ari da.

Halaber, instalazio fotovoltaiakoak azpiegitura lineal handien ertzetan zehar antolatzea baloratu da, lurralde guztian zehar ez sakabanatzeko. Era berean, urtegietako edo ureztapen-putzuetako ur-xafla erabiltzea aztertu da. Eskala xehatuak, ordea, lurralde-plangintzari ihes egiten dio.



Graf 16. Instalazio fotovoltaiakoak errepideen ertzetan antolatzeko alternatiba.

Dena den, eraikinen estalkietan energia harrapatzeko azalaren “hobia” garrantzitsua da. Hala, aukera horri lehentasuna eman behar zaio, eta kooperatiba energetikoen eredu berriak dagoeneko hiriguneetan eta landaguneetan bultzatzen hasi dira eredu desberdinen pean. Arasurko inguruetan, EKIAN izenekoan, zorian ekoizteko sistemak daude, baina nekazaritzan balioa duten lurzoruetan eragin dezakete. Orain arte saihesten saiatu da. Bestalde, beste konponbide batzuk, hala nola plaka fotovoltaiakoekin aparkalekuak estaltzea, dagoeneko errealitatea dira Araba Erdialdean, oraindik gaitasun gutxi izan arren.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-




Graf 17. Arabako Teknologia Parkeko aparkalekuetan ekoizpen fotovoltaiakorako instalazioen adibideak


Zoruan kaptazio fotovoltaiakorako balizko eremuak zehazteko, lehen hipotesian lursailen aldapari buruzko baldintzatzaileak eta antolamendu-proposamenen baldintzak kontuan hartu dira.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-




Graf 18. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. %10etik gorako eremu malkartsuak baztertzea.




Graf 19. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Honako eremu baztertu hauek gainjartzea: % 10etik gorako aldapa dutenak, LPPn zenbait kategoria (nekazaritza-balio altua, basogintza, urak babestea eta babes berezia), hiriko perimetroa, autobien jabari publikoak, plangintzako hiriko lurzoruak eta urbanizagarriak, sistema orokorrak eta ekipamenduak



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 20. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Aurreko planoan baztertutako eremuak gainjartzea azpiegitura berdearen proposamenean sartzeagatik.



Graf 21. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Aurreko planoan baztertu gabeko eremuak; gorriz bereizi dira 10 ha-tik gorakoak. Lehendik dagoen sare elektrikoa gainjartzea.




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Eremuan 21.575 hektarea daude arestian aipatu diren arrazoiengatik baztertu gabe, eta horietatik 13.925 hektarea 10 hektareatik gorako orbanetan ageri dira.

Hipotesia esposizio bisualaren irizpidea aplikatuta fin daiteke. Batetik, kontuan hartuta lurraldean eremu bisual gehienak autobia handietatik ematen direla eta, bestetik, Uribarri-Ganboako eta Urrunagako urtegien aisialdiko erabilerari erreparatuta, bide-ardatzetan edo urtegiaren ertzetan 100 m-tik behin kokatzen diren puntuetatik lurraldeko gainerako tokietarantz eremu bisualak zehaztu dira, aintzat hartuta egungo lurzoru naturalean panelek 3 metroko altuera dutela.




Graf 22. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Autobietatik, autobideetatik, eskualdeetako errepideetatik eta urtegiatiko ertzetatik ikusten diren eremuak. Geuk egina, GINKO MDS05 azalaren eredu digitalaren arabera.


8.247 hektarea daude, lehen aipatutakoari jarraikiz, balio handiagoko kategoriatan sartu gabe eta aztertutako ardatzetatik ikusi gabe. Horietatik 3.736 hektarea 10 hektareatik gorako kokapenetan ageri dira.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-



Graf 23. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Aurreko mapako eremu bisualak eta aurretiazko analisiak emandakoa gainjartzea.




Graf 24. Kaptazio fotovoltaikorako balizko eremuak. Balioa duten lurzoruen kanpoko eremuak eta eragin bisualik ez dutenak.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Eraitza da ekoizpen-gaitasuna banatzeko aukera dagoela, baina irizpide horien arabera atomizatuta geldituko litzatekeela, eta lurraldean eraginak nabarmen zabalduko liratekeela. Horregatik, beste aukera bat aztertu da. Horren arabera, nahiz eta balioa duten lurzoru batzuen gainean eragin, jarduketak kontzentratzen direnez, eragina gutxiago sakabanatuko litzateke. Xede horrekin, honako hauei erreparatu zaie: lurraldean dagoeneko ingurumen-afektazioa eragiten duten azpiegiturarekiko (hala nola autobideak eta autobiak) gertutasunari, definitutako azpiegitura berdearen elementuak errespetatzeari eta lehendik dauden kokaguneekiko 300 m-ko gutxieneko distantzia mantentzekiari. Nolanahi ere, ez dira desiragarriak nekazaritzako eta basogintzako lurzoru emankorrenak hartzen dituzten landaguneko instalazio isolatuak edo azpiegitura berdeko elementuak. Eguzki-energia hartzean lehentasuna eman behar zaie garraio-azpiegitura lineal bereizi handien ondoan dauden eremuei, besteak beste, autobideei, lurralde-eraginak multzokatzeko eta elektrifikaziorantz bilakatuko den tren- eta bide-garraioari erraztasuna emateko.




Graf 25. Kaptazio fotovoltaikorako - eraginak kontzentratzeko eremuak

Arabako Ibarrek eskualdean kontuan hartzen dira Ekian eta Ekinea proiektuak, berriak (2019) eta jardunean daudenak Arasurko ingurunean. Guztira 291 hektarea lurzoru dira. Lautadan 708 hektarea proposatzen dira Agurain eta Echavarri-Urtupiñaren artean. Arabako Teknologia Parkearen inguruan, Vitoria-Gasteizko, Gorbeialdeko eta Arabako Lautadako Kuadrillak elkartzen diren horretan, guztira 783 hektarea proposatzen dira. Guztira 1.780 hektarea lurzoru proposatzen dira. Gaitasun horrekin 3. aukeraren (2030erako Euskadiko Energia Estrategiako postulatuak) eta 6. aukeraren (oinarrizko erregimena, garraiorik gabe) beharrak gainditzen dira, ziurrenik, LPPren indarraldiak data hori gaindituko baitu. Hala, 4. aukerako kopuruetera hurbiltzen da, 3. aukerarekin batera, ibilgailu elektrikoa indartuta. Industriaguneetan mugiaraz daitezkeen estalkien azalerak (500 hektarea baino pixka bat gehiago) aintzat hartuta, agertoki horiek aurki bete daitezke abian jartzeko lehentasuna duten elementuekin.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-



Graf 26. Ekoizpen fotovoltaikoa Arabako Ibarretan

Arabako Ibarretan ekoizpen fotovoltaikorako eremuek guztira 291 hektarea lurzoru dituzte, eta Arasurko ingurunean definitzen den hiri-hazkuntzaren perimetroan sartzen dira. Iparraldean bat dator EKIAN parke fotovoltaikoarekin. Haren eraikuntza duela gutxi amaitu da AP-1 autobidearen ondoan, eta 64 hektarea erabili dira. Bien bitartean, hegoaldean EKIENEA parkeko perimetroarekin bat dator. Lursaila Miranda-Logroño 220 kV-eko lineak zeharkatzen du. Bere perimetro gehienez Miranda de Ebroekin mugakidea da, eta aurreikusia dago epe laburrean eraikitzea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-




Graf 27. Ekoizpen fotovoltaikoa Arabako Lautadan - Arrietako ingurunean

Arabako Lautadan ekoizpen fotovoltaikorako proposatzen den eremua Aguraingo hiri-hazkundearen perimetroaren mendebaldean 1 km-ra baino gutxiagora hasten da, eta Arrietako ingurunea ukitzen du hiru eremutan, izen bereko ibairantz ematen duten mendi-mazeletan. 1 km-ra baino gutxiagora Vitoria-Gasteiz-Itsaso 220 kV-eko linea doa. Orokorrean, eremu horiek neurrizko aldapak dituzte, eta paisaiaren eragina sakabanatzea saihesten dute.



Araba Erdialdeko Ereku Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-



Graf 28. Ekoizpen fotovoltaikoa Arabako Teknologia Parkearen inguruan

Arabako Teknologia Parkearen ingurunean jarduketak planteatzen dira AP-1 autobidetik eta haren eta N-420 errepidearen arteko bidegurutzetik gertu doazen eremuak aprobetxatzeko. Bat dator AP-1 autobidetik Etxebarri-Ibiñarantz ateratzeko lotuneko ingurunearekin. Zerranda horrek AP-1 autobidearen aurrealdearekiko 2 km pasatxo ditu puntu horretatik ipar-ekialdera. Horrez gain, ekialdean, Miñao poligonoaren ingurunerako proposatu den hiri-hazkundearen perimetroa inguratzen duten zenbait eremu hartzen ditu. Goiaingo meandroko hegoaldeko lursailek oso aldeko aldapa eta orientazioa dituzte, beraz, eremu horretan AP-1 autobideko iparraldeko lurzoruak sartzen dira, betiere Santa Engrazia ibaira isurtzen duten zuhaitz-eremuak errespetatuta. Eremuak zeharkatzen edo inguruetan 220 kV-eko Vitoria-Gasteiz-Abadiño eta 400 kV-eko Barcina-Itsaso lineak ageri dira.

6.7.2.4 Haize-energia sortzen duten azpiegituretarako irizpideak


Araba Europako igarobide ekologiko handian kokatzen da. Europako Mendietatik Pirinioetan zehar Alpeetaraino doa, Frantziako Erdialdeko Mendilerroa zeharkatuta. Araba Erdialdean duen konfigurazioari erreparatuz gero, mendien gailur-lerroak oso hauskorak dira ingurumenaren eta paisaiaren ikuspegitik, baina, aldi berean, haize-energia sortzeko ahalmen handia dute. Horregatik, haize-energiaren arloko jarduketak lehendik dauden haize-parkeak berrindartzera bideratu behar dira. Berrindartze-ekintzek instalatutako potentzia nominala mantentzen dute, baina ekoiztutako energia handi dezakete, batetik, haize-sorgailuak eraginkorragoak direlako eta, bestetik, egungoek aprobetxa ezin dezaketen haize-erregimenetan funtzionatzeko aukera dutelako. Horrez gain, berrindartzeko eragiketei esker, haize-sorgailuen kopurua murriztu ahalko da. Gaur egun 107 daude parke aktiboetan, eta askoz gutxiago izatera pasatu daitezke, baina tamaina handiagoarekin. Lehenengo hurbilketan, pentsa liteke egungo haize-sorgailuak



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

erdira gutxitzea, eta bakoitzak 6 MW-eko potentzia unitarioa izatea, beraz, elementu gutxiagorekin 108tik 301 MW-era pasako litzateke. Nolanahi ere, ondoren azterketa xehatua egin beharko da, parkerako sarbideek haize-sorgailuen tamaina muga baitezakete. Elgearen kasuan, ziurrenik, haize-sorgailuen birbanaketak pertzepzio globalean ondorio txikia izango luke, baina Badaian iparralderago eremuak okupatzea saihestu daiteke.



Graf 29. Elgeako eta Badaiaiko haize-parkeak eta banako haize-sorgailuak. Halaber, Arabako lurraldeko industriaguneetan eta beste eremu antropizatu batzuetan sareari konektatuta, energia minieolikoa zabaltzea sustatuko da.

6.7.2.5 Proposamenen eragina Araba Erdialdeko karbonoaren balantzean

CO₂ igorpenen balantze baliokidea kalkulatzeko hiru parametro bateratzen dira: kontsumo energetikoaren erregimena, energia berriztagarrien balizko sorrera eta basoetako nahiz nekazaritza-lurretako CO₂-ren isurbide-gaitasuna.

Dagoeneko azaldu den 3. aukerari edo hautatutakoari jarraikiz, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ildotik, eskea sektoreen arabera % 13 eta % 22 bitartean murriztuko da, eta energia berriztagarrien ekoizpena % 126 haziko da. Beraz, guztira 674,7 ktep-eko eskea eta 127 ktep-eko ekoizpen berriztagarria badaude, iturri ez-berriztagarrien kontsumoa 547 ktep-ekoa litzateke. Hala, energia-iturri ez-berriztagarrietatik datorren energia-kontsumoa % 23 murriztuko litzateke, egungo kopuruekin alderatuz gero, eta igorpenek ere behera egingo lukete. Alderdi horri batu behar zaio karbonoa modu eraginkorragoan hartzen duten nekazaritza-moduetara pixkana pasatzen den neurrian, igorpenak murriztuko direla.

Atmosferako karbonoari dagokionez, basoek, landatutako lurrek, eta abarrek 552.194 tCO₂/urte hartzen dituztela zenbatetsi da. Laboreekin finkatutako CO₂-ren aldea arrazoitze LPP honek egiten duen proposamenari erreparatu behar zaio. Horren bidez, ohiko nekazaritzan diharduten 21.700 ha inguru nekazaritza ekologikora pasatuko dira. Azalera hau argi eta garbi proposatzen den antolamenduko nekazaritza eta abeltzaintzaren kategorietan sar daiteke.

Kalkulatzeko, bi laboratze-sistemen arteko kaptazio-aldea 9 tCO₂/urtekoa da nekazaritza ekologikoaren alde.



**Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-**

FINKATUTAKO BEG, GUZTIRA [TCO₂/URTE]

AGERTOKIA	Basoak	Laboreak	Larreak	Hiriko berdea	Guztira
EGUNGOA	154.245	145.900	47.749	7.989	355.883
LPPREN PROPOSAMENA	154.245	341.200	47.749	9.000	552.194

6.7.3 Ekonomia zirkularra

6.7.3.1 Ekonomia zirkularrari buruzko irizpide orokorrak

2019ko Hondakinen Behatokiko –Arabako Lurralde Historikoko Etxeko Hondakinen Inbentarioa– datuen arabera, gaur egun hondakinak kudeatzeko parametroak antzeko lurralde-konplexutasuna duten beste eremu batzuetakoekin aldera daitezke. 2030eko Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia, Foru Aldundiko arloko plangintzarekin batera, erreferentzia bat da arloan etorkizuneko ekintzak planteatzeko. Ekonomia Zirkularraren Estrategiak helburu modura ditu produktibitate materiala eta material zirkularraren erabilera % 30 gehitzea eta BPGd-aren arabera hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea.

6.7.3.2 Plangintza Sektorialarekin koordinatzea

Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana 2017-2030 onesten duen azaroaren 21eko 20/2018 Foru Araua arloan erreferentziazko esparrua da. Honako helburu hauek ditu:

1. Hiri-hondakinen kudeaketa-eremua hobeto koordinatu eta integratzea.
2. 2016ko balioekin erkatuta, 2030erako sortutako hondakinen pisua % 15 baino gehiago murriztea.
3. Gaika biltzen diren zatietan pixkana eta modu eutsian desegokiak eta arriskutsuak murriztea.
4. Berrerabiltzeko prestatzen diren zatien ehunekoa eta kopurua handitzea.
5. Hiri-hondakin birziklatuen kopuruak handiatzea 2020an gutxienez % 50, 2025ean % 55 eta 2030ean % 60, lurralde historikoan sortzen den pisu guztiaren gainean.
6. 2023az gero bildutako pisuaren ehunekoan biohondakinari hondakinei orokorrean ezartzen zaizkien birziklatze-helburu berberak aplikatzea.
7. Birziklatze-konponbide ugariren bidez balorizatutako hiriko hondakinen ehunekoa pisuaren % 15aren azpitik mantentzea.
8. Hondakinen sistemen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasun hobetua.

Programatutako ekintzen artean, LPPrako aipagarrienak dira Arabako hiri-hondakinak koordinatzeko organoaren bidez sistemen partzuergo-kudeaketa eta azpiegiturak:

1. Lehendik dagoen azpiegitura hobetzea.
 - a. Gaikako bilketaren eredu berritzaileak ezartzea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

- b. Landako puntu garbien sareari dagokion egungo eredua birplanteatzea; udalerrri buru bakoitzean bat ipintzea eta eskearen arabera landako zenbait puntu garbi garbigune bihurtzea.
- c. Berrerabilguneak eta garbiguneak handitzea, egokitzea eta duin egitea, zerbitzuko erabiltzaileen harrera-baldintzak hobetzeko eta bildutako zatiak baldintza egoki eta seguruetan jaso eta biltegitratzeko.
- d. Berrerabilguneak eta garbiguneetan bigarren bizitzako atalak egokitzea, berrerabiltze maila areagotzeko eta erabiltzaileen zein onuradunen profilak anitzagoak izateko.
- e. TMBrako plantan hobekuntzak ezartzea, balorizazio-prozesuek etekin hobea izateko, zabortegean deuseztatzen diren errefusaren material-bolumenak murrizteko eta gaika bildutako zatien tratamendua hobetzeko.
- f. TMBrako plantan lerro osagarria ezartzea, errefusaren eta hondakin bioegonkortuaren aprobetxamendu aurreraturako.
- g. Ontzien plantan hobekuntzak ezartzea, balorazio-prozesuetan eta, orokorrean, instalazioen funtzionamenduan etekina hobetzeko.
- h. Gardelegiko zabortegea ingurumen-baimen integratuaren baldintzetara egokitzea.

2. Azpiegitura berria sortzea.

- a. Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Salburuan garbigune berrien sorrera bultzatzea, batez ere, auzo eta hirigune berriak eraikitzearekin lotuta eta hondakinak onesteko irizpideak ikuskatzea.
- b. Hiriko eta erdi-hiriko (auzoka) puntu garbi finkoak eraikitzea, gaikako bilketa-azpiegiturak herritarrei hurbiltzeko.
- c. Vitoria-Gasteizko ingurunean titulartasun publikoko hiri-berrerabilgune bat sortzea, baita Planaren denboraldian identifika daitezkeen bestelakoak ere.
- d. Konpostatze-planta bat edo bi sortzea, Arabako Lurralde Historikoan gaikako bilketatik datorren biohondakina tratatzeko. Planta bat Eremu Funtzionalan kokatuko litzateke, hain zuzen ere, Vitoria-Gasteizen. Planta hori edo horiek eskualdeko beste konpostatze-planta txikiago batzuekin osatuko lirateke, indarrean den araudiak xedatzen dituen eskakizunetara egokitzen direla baiesten den neurrian eta konposterako tokiko merkatua dagoela egiaztatzen den heinean.
- e. Tamaina handiko hondakinak tratatzeko (erabat desmuntatzea) azpiegitura eraikitzea, ahal diren material gehienak berrerabili eta balioztatzeko.

6.7.3.3 Lurzorua baliabide gisa

LPPk lurzorua hiriko birgaitze-, leheneratze- eta eraberritze-eragiketen bidez birzikla daitekeen baliabide gisa onesten du. Hala ere, jarduketa kutsatzaileek baldintza dezakete. Horregatik, hiriko habitatari dagokionez, planteamenduak argi eta garbi lurzoruaren kontsumoa eustearen aldeko apustua egiten du, indarreko plangintzak stock garrantzitsua dagoela eta eskeak hazkuntza-aukera mugatua duela kontuan hartuta.

Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legeak lurzoru kutsatuak tratatzeko oinarriak ezartzen ditu. Kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

dituzten lurzoruei buruzko inbentarioaren arabera, kutsatuak egon daitezkeen kokaguneak bereziki Vitoria-Gasteizen, Agurainen eta Iruña Okan kontzentratzen dira. Berariazko azterlana izan ezean, azpimarratu behar da balizko egoera baino ez dela. Prozedurak arindu behar dira kutsatua egon daitekeen lurzorua egiaz egoera horretan dagoen zehazteko eta hala gertatuz gero, deskontaminazio-zereginak definitzeko. Helburua da krisian dauden produkzio-ehunen berroneratze-prozesuak arintzea.

6.8 Mugikortasuna eta logistika

6.8.1 Irizpide orokorrak

Araba Erdialdeko LPPk bultzatuko duen lurralde-eredu berria gainerako arloko plangintzekin lerrokatuko da motorrik gabeko garraio-moduak eta garraio publikoa sustatu eta bultzatzeko. Ildo horretatik, egungo mugikortasun-sistema eraldatu nahi da. Araba Erdialdeko LPPren Eremu Funtzionalan aldaketa hori gauzatzeko, lehentasuna eman beharko zaie garraio-modu jasangarriak sustatzearekin zerikusia duten jarduketei, hala nola honako hauei:

- **Bizikletetarako eta oinezkoentzako ibilbideak** garatu eta txertatzea.
- **Garraio publikoa** sustatzea.
- **Ibilgailu pribatuarekin** lotutako mugikortasuna **murritztea**.
- Garraio publikoaren sistemetarako gordetako plataformak garatzea.
- **Egungo garraio publikoaren geroakuetan eta geltokietan nodo intermodalak** garatzea beste garraio-modu jasangarriagoetarantz eta/edo motordunak ez direnetarantz aldaketa bultzatzeko.

Proposamenaren helburu globala da **ekosistema bat sustatzea mugikortasun-piramidea alderantzikatzen laguntzeko**. Xede horrekin, garraio publikoarekin intermodalitatea sustatuko da, eta motorrik gabeko garraio-moduen kuota gehituko da. Hala, ez da ahaztuko bidaia oro gutxienez oinez hasi eta amaitzen dela, nahiz eta ibilbidea laburra izan, beraz, ahal den neurrian, oinezkoentzako tarteak gehitu behar dira, eta hirian nahiz landagunean hesiak gainditzeko dituzten ibilbide seguruak egokitu behar dira.

Helburu horretara iristeko, **LPPk lehendik dauden garraio publikoaren geroakuetan nodo intermodalen sorrera bultzatuko du**. Nodo intermodalei esker, garraio publiko kolektiboaren sistemak (autobusa eta trena) **konektatuko dira lehendik dauden moduekin**, hala nola **eskearen arabeko garraioarekin**, eta **motordunak ez diren moduekin, besteak beste, bizikletarekin**. **Halaber, oinezkoentzako ibilbide seguru eta erakargarriak antolatu beharko dira**. Beraz, Planak bultzatuko duen mugikortasun-ekosistema lehendik dauden garraio publikoaren sistemetan oinarrituko da, eta motorrik gabeko garraio-modu jasangarrietarantz intermodalitatea sustatuko du.

Proposamen hau, sare telematiko eraginkorra ezartzearekin batera, oinarritzkoa da mugikortasun-eredu tradizionalak erabat aldatzeko eta erregai fosilen kontsumoa murriztuko duen sistema lortzeko, atmosferara CO₂ gutxiago igortzeaz gain.



6.8.2 LAGen proposamenak eta zenbait mugikortasunerako (oinezkoak, bizikletak, bideak, trenbideak, aireportuak eta logistika) arloko plangintza txertatzea


6.8.2.1 Bide-mugikortasuna eta oinezkoentzako eta bizikletetarako moduak txertatzea

Gainera, LPPren proposamenak Arabako Errepideen Plan Integralaren (AEPI) eguneratzeak, aldaketak edo ikuskapenak dituen jarduketak bildu ditu:

- **Ahalmen handiko sareari** dagokionez, **AEPIk 2004ko LPPk AP-1 autobiderako jarduketa aurrez ikusten du**. Azpiegitura berri bat du, N-104 eta A-132 errepideen lotunea Arkauten, alegia.
- **Oinarrizko sarean A-126 errepidea egokitu behar da** Bernedo, Angostinan Nafarroako muga eta Santikurutze Kanpezuren artean.
- **Eskualdeko sarean**, AEPIk **trazadura egokitu eta hobetzeko edo plataforma handitzeko** jarduketak ditu honako bide hauetan: A-2122, A-2625, A-2122, A-2126, A-2128, A-2622 eta A-2625.

Horrez gain, LPPk Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren jarduketa-proposamenak aurrez ikusiko ditu, eta bi jarduketa sartzen dira hiriaren kanpoko bide-sarean:

- **Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ingurabidea**. N-102 eta A-3102 errepideen arteko konexioa.
- **Vitoria-Gasteizko ekialdeko ingurabidea**. A-2130 eta N-104 errepideen arteko konexioa.



Graf 30. Bide-azpiegiturretan jarduketa planifikatuak eta proposatutakoak. Iturria: AEPI 2016-2027, Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalako LPP berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa, guk geuk egina



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Errepideen Plan Integralak hiriko saihasbideak gauzatzeko proposatutakoari dagokionez, Arabako LPPk bultzatuko du lehen errepide-sarean zeuden tarteak hiri-bide bihurtzea, baldin eta zenbait inguruabar direla bide, hala nola zeharbideak edo saihasbideak zerbitzuan sartzea, bide-funtzionaltasuna galdu badute.

Beraz, Arabako LPPren proposamenak helburu du tokiko eta auzoko sarea, beren-beregi trafiko motordun konbentzionalak erabiltzen duena, mugikortasun multimodalerako sare bihurtzea, motordunak ez diren erabilerekin (oinezkoak, bizikletak eta abereak) edo abiadura txikikoekin partekatzeak. Hiri-eremuetan, oro har, konexio horiek estaliak daude, nahiz eta hesiek, besteak beste, azpiegitura linealek, eragindako eremuetan indartu behar diren. Landaguneetan, ordea, moldapen-beharrak handiagoak dira. Mugikortasun motel eta seguruaren sareari esker, ohiko ibilbideak egin ahalko lirateke hirigune hurbilen artean eta, askotan, horien eta eskualdeko udalerrri buruen artean. Gainera, posible litzateke garraio publikoaren egungo geroak osatuko duten nodo intermodaletara iristea.

Sare horrek eskakizun gutxiago ditu segurtasunari dagokionez, beraz, zuhaitzak eta landaretza jartzeko aukera legoke. Hala, oinezkoek eta bizikletek erabiltzeko kalitate handiagoko ibilbideak (itzala udan, haizearekiko babesa, zentzumen-hobekuntza, etab.) lor litezke, eta nekazaritza-lurretan iragazkortasun ekologikoa izango da.

6.8.2.2 Tren-mugikortasuna

Trena funtsezko elementu izan daiteke Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalean hirien arteko garraioa ardazteko. LPPk trenaren eta gainerako modu jasangarrien artean sistema integratua antolatzea proposatzen du. Helburua da intermodalitatea sustatzea.

Planak egungo tren-sareen konexioa indartzea proposatzen du mugikortasunaren eta logistikaren arloan irizpide orokorrak bultzatzeko.

Definitu diren mugikortasun-helburuak kontuan hartuta, tren-mugikortasunaren ikuspegitik, Planak zenbait jarduketara ditu garatzeko:


- **Abiadura handikoaren eremuan:**
 - **Euskadiko Y gauzatzeko amaitzea** (2001eko EAeko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala). Gauzatutako trazaduraren artean konexioa amaitzea eta Vitoria-Gasteizen trena hirian txertatzea.
 - **Vitoria-Gasteizko etorkizuneko geltokian intermodalitatea indartzea.** Hirigunean Madril-Paris ardatzean alde zorupekoa izango da.
 - **Burgos eta Vitoria-Gasteiz artean tren-konexioa egikaritzea**, EAEn abiadura handiko trena ardazteko.
 - **Euskadiko Y eta Iruñearen arteko konexioa** gauzatzeko. LPPk Arabako Lautadaren bidez Altsasarekin konexioa Nafarroarekin konexio-aukeratzen hartzen du, LAGek adierazten dutenaren ildotik.
- **Distantzia ertaineko tren-konexioa, Vitoria-Gasteiz eta Iruñea elkartzen dituenak, indartzea;** trenbideen azpiegitura modernizatuko da eta pasabide-maiztasunak gehituko dira. Horrez gain, tren berriak sartuko dira ordutegi programatuaren arabera. Agurain/Salvatierra, Alegria-Dulantzi, Vitoria-Gasteiz eta Langraiz Okan geldituko dira, haien lurraldeetan herri horiek



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -AURRERAKINA-

erakarleak baitira. Miranda de Ebro-Bilbo linean geltokiak ezartzeko ahalmena aztertuko da: Pobes, Kuartango eta Izarra Urkabustaizen. Hala, ardatzaren inguruan aldirikoen sarea antola daiteke, Miranda de Ebrotik Altsasuraino zerbitzua izateko. Gainera, Vitoria-Gasteizen tranbiarekin intermodalitatea bermatuko da.

- **Trenbide-pasaguneak kentzeko obrak bultzatzea.** Gaur egun Manzanosen eta Pobesen trenbide-pasaguneak kentzeko obrak egiten ari dira.
- **Tren-geltokietan irisgarritasun intermodalaren hobekuntza** eta beste garraio-modu batzuekin konbinazioa **sustatzea.**
- **Jundizko terminal intermodalaren** konektagarritasunari dagokionez, LPPren gidalerroa da Vitoria-Gasteizko eremu metropolitarran lehendik dauden garraio-sistemetatik **etorkizuneko terminalerantz irisgarritasuna maximizatzea.**



Graf 31. Trenbide-azpiegituretan jarduketak planifikatuak. Iturria: Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionaleko LPP berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa eta beste iturri aipagarri batzuk.

6.8.2.3 Lurreko eta aireko mugikortasun-moduen logistika

Salgaien logistikaren arloan, LAGek helburu bezala dute lurraldeak konektagarritasun handiagoa izatea, nazioarteko salgaien garraiorako nodo logistiko bihurtzeko.

Gaur egun, trenak Estatuko salgaiak mugitzeko garrantzi gutxi du. Administrazioek horregatik dute helburu mugikortasun horretan trenak partaidetza handiagoa izatea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

EAEko helburu nagusiaren barruan garrantzi berezia du Jundiz-Billoda terminal intermodala egikaritzeko proposamenak (indarreko LPPren aldaketa, urriaren 9ko 145/2018 Dekretuaren arabera). Jundizko terminal intermodalaz gain, logistikan oso garrantzitsua da Arasurko plataforma logistikoa Añanako Kuadrillan, EAEn eta Burgosko Miranda de Ebro udalerriaren arteko mugan. Logistikaren arloan LPPk honako jarduketa hauek ditu:

- Orokorrean, EAEn eta, bereziki, Araba Erdialdean salgaiak mugitzeko trena elementu nagusi gisa finka dadin sustatzea.
- Eremu Funtzionaleko salgaien logistikari buruzko egituraren elementu estrategiko modura Jundizko eremuaren garapena finkatu eta indartzea. Jarduketa hau garrantzitsua izango da, nazioko lurraldean ADIFen terminal intermodalen sarean txertatuko baita.
- Bidez eta trenez hainbat salgai-ibilbide (Bilbora eta haren portura iristeko lineak, Irun-Paris konexio-lineak eta Ebroko Ibarreko igarobidea) elkartzeko orduan kokapen estrategikoa duelako, Arasurko plataforma logistikoa sendotzea.

Aireportuko logistikaren arloan, Vitoria-Gasteizko aireportuko zama-eragiketetan orain arte lurreko logistikan baino asko tona gutxiago mugitu dira. Hala eta guztiz ere, Jundiz-Billoda tren-terminal berriarekin intermodalitatea garatzeko aukerak kontuan hartuta, bi nodoen arteko zuzeneko konexioa planteatzen da.

6.8.3 Mugikortasuna garraio publiko intermodalean eta garraio garbiko moduak

6.8.3.1 Garraio publikoa Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzean

Ondoren, Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzean nodo intermodalak sortzea proposatzen diren udalerriak ageri dira:

- **Vitoria-Gasteiz.** Ardatzean mugikortasuna ardazteko elementu nagusi izango da, Eremu Funtzionaleko gainerako garraio publikoaren ibilbideekin konexioa ahalbidetuko baitu.
- **Langraiz Oka.** Nodo intermodalari esker, gune urrunduetatik (Mandaita edo Olabarri) garraio publikora irisgarritasuna gehituko da.
- **Alegria- Dulantzi eta Agurain.** Inguruneko guneei irisgarritasuna erraztuko zaie.

Beraz, Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzaren gune nagusietan nodo intermodalen proposamenek ahalbidetuko dute garraio-modu anitzetara aldatzea, baita aldaketa hori sustatzea ere, trena mugikortasun-modu nagusi izango delarik.

6.8.3.2 Garraiorako zentraltasun-nodoak

Egungo errepideko garraio publikoaren sarea eskualdeko hirigune nagusietan lehendik dauden geroekin **hiriko zentraltasun-nodoekin** (nodo intermodalak) **osatzea** proposatzen da.

Proposamen honek Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatzeko tren-geltokietan sortutako nodoak osatuko ditu, eta mugikortasun intermodalaren sarea eratuko da, erabiltzaileak oraingo garraio kolektiboaren moduetara hurbiltzen direnean, motorrik gabeko baliabideak erabiltzeko.


Nodo intermodal berriak LPPk definitzen duen gune-hierarkiaren arabera kokatuko dira:

- **Udalerri buruetako nodo intermodalak:**



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

- **Vitoria-Gasteiz**
- **Udalerri azpiburuetakako nodo intermodalak:**
 - Arabako Mendialdea: **Santikurutze Kanpezu**
 - Arabako Ibarrek: **Rivabellosa**
 - Gorbeialdea: **Murgia**
 - Arabako Lautada: **Agurain/Salvatierra**
- **Egitura-guneetakako nodo intermodalak:**
 - Arabako Mendialdea: **Maeztu**
 - Arabako Ibarrek: **Langraiz Oka eta Espejo**
 - Gorbeialdea: **Legutio eta Gopegi**
 - Arabako Lautada: **Alegria-Dulantzi eta Araia**



Graf 32. Nodo intermodalen proposamena tren-geltoki nagusietan eta hirigune nagusietan.

6.8.3.3 Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

Bizikleten mugikortasuna LPPren proposamenean txertatzeko, bizikletetarako ibilbideen egitura zabaldu nahi da, sarea sortu eta erabiltzaileek modu horrekin ohiko ibilbideak garatu ahal



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

izateko. LPPren oinarrizko alderdia da lehendik dauden gainerako garraio kolektiboaren moduekin (autobusa eta trena) ardaztea.

Bizikleta-bideen ibilbideen jarduketak Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialeko eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako proposamenetan oinarritzen dira.

Hurbiltzeko bizikleta-sarea definitzeak garrantzi berezia hartzen du ibilgailu pribatua gutxiago erabili eta moduari lotutako kanpoko ondorioak murrizte aldera modu-aldaketa indartzeko. LPPk proposatzen du bizikleta-sarea garatzea honako parametro hauen arabera:

1. Erabiltzaileen eskea maximizatzea ahalbidetuko duten tarteak, hau da, biztanle askoko tarteak eta modu honen erabilera historiko handiagoa duten tarteak.
2. Garraio-zerbitzu kolektiboekin (trena, autobusa...) nodo intermodalak garatzen uzten dituzten tarteak.
3. Eremu Funtzionalako jarduera-eremu nagusiak konektatzen dituzten tarteak eta, beraz, lanera iristeko bizikleta gehiago erabiltzen uzten dutenak.

Lehen aipatu diren irizpideak aintzat hartuta, LPPk ardatzei lehentasuna emateko orduan, erreparatuko die, batetik, bizikleta-mugikortasunaren ardatza garatzeari eta, bestetik, egun dauden bizikleta-ardatzak osatzeari. Ondoren, garatu behar diren tarteak adierazten dira:

- Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSn planifikatuta dauden bizikleta-bideak, Araba Erdialdeko LPPk definitutako Eremu Funtzionalan kokatutakoak.
 - **VC2** - Vitoria-Gasteiz – Arabako Teknologia Parkea
 - **VC3** – Urbina - Legutio
 - **VC4** – Vitoria-Gasteiz – Etxabarri-Ibiña
 - **VC5** – Vitoria-Gasteiz – Langraiz Oka
 - **VC6** – Alegria-Dulantzi – Burgelu
 - **VC7** – Amurrio – Murga industriagunea
 - **VC8** – Ribabellosa – Miranda de Ebro
- Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSn planifikatuta dauden ibilbide berdeak, Araba Erdialdeko LPPk definitutako Eremu Funtzionalan kokatutakoak.
 - **IV27** – Etxabarri-Ibiña – Gorbeia
 - **IV28** – Vitoria-Gasteiz – Oto – Murgia
 - **IV29** – Vitoria-Gasteiz – Zaldiaran
 - **IV30** – Vitoria-Gasteiz – Arrieta
 - **IV31** – Vitoria-Gasteiz – Okina
 - **IV32** – Legarda – Amarita
 - **IV33** – Vitoria-Gasteiz – Urduña (Badaiatik)
 - **IV34** – Alegria-Dulantzi – Donejakue bidea
 - **IV35** – Donejakue bideko jatorrizko ibilbidea Nafarroarekin lotunea
 - **IV36** – Ametzaga-Egilazko trikuharria ibilbide berdea eta Donejakue bidearekin lotune-adarrak eta GR-25 “Arabako Lautadako mendi-oinetan zehar bira” Zaldondo eta Agurainen eta GR-120 “Inaziotar bidea” Araian
 - **IV40** – Fontecha – Espejo




Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-AURRERAKINA-

- **IV41** – Espejo – Gaubea
- **IV42** – Pobes – Gesaltza Añana
- **IV44** – Izarra – Bitoriano
- **IV45** – Izarrako bide berdea Gujuliko ur-jauzirantz
- **IV46** – Urrunaga – Sabalain
- **IV47** – Betolaza – Buruaga

Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen PLSn adierazitako bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen proposamenaz gain, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan adierazten den bezala, LPPk beste ibilbide berezi batzuk kontuan hartuko ditu:

- Donejakue bidea
- Ardo eta arrainaren ibilbidea
- Inaziotar bidea

Donejakue bidearen eta ardo nahiz arrainaren ibilbidearen proposamenak dagoeneko 2004ko LPPk aurrez ikusten zituen, beraz, Plan honen helburua da ibilbide berdeen proposamena osatzea aurreko Planeko proposamenak abiapuntutzat hartuta.



Graf 33. Bizikleta-bide eta ibilbide berde planifikatuak eta LPPk proposatutako nodo intermodalak

6.9 Zeharkako gaiak

6.9.1 Irisgarritasun unibertsala

Irisgarritasun unibertsalaren arloan garrantzi berezia dute landa-kokaguneak suspertzeko ekintzek. Biztanleak gehituz eta zerbitzuak hobetuz gero, egoiliarrek errazago iritsiko dira. Era



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

berean, hiria berroneratzeko ekintzek helburu hori lortze aldera beren ekarpenak egingo dituzte.

6.9.2 Genero-ikuspegia

Proposatutako metodologia *gender mainstreaming*en metodologiaren ildotik doa. Metodologia horiek Espainiako lurraldean eta Europan zenbait kasu arrakastatsutan aplikatu dira. Eremuan Europako, Estatuko eta Erkidegoko gidalerroak eta Nazio Batuek laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik lurraldearekin lanean ari diren Emakumearen Munduko Konferentzietan lortutako ondorioak aplikatzen dira. Era berean, diseinu inklusiboaren ikuspegiak dituzte, informazio konplexua, dibertsitatea eta desberdinkeria kudeatzeko tresna erabilgarriak ematen baitituzte.

Bigarren tokian, LPPren printzipio gidariei eutsiz, 2030 Hiriko Agendarekin lerrokatzen da eta Hiri Agenda Bultzatu 2050 Erkidegokora egokitzen da.

6.9.3 Klima-aldaketara egokitzea

“Euskadin bereizmen handiko klima-aldaketaren eskualdeko agertokiak egitea” azterlanak (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila)¹¹ 2100eko agertokian moldapen-neurriak definitzeko datuak ditu. Ondorio operatiboak honako hauek dira:

1. **Ibaien uholde-arriskuei** dagokienez, Vitoria-Gasteiz da udalerririk kalteberena Zadorrako arroan eta 2100ean ertainetik altura igoko da arriskua Zuian eta baxutik ertainera Barrundia, Burgu eta Iruraitz-Gaunan.
2. **Lehorteak** maizago izateagatik kalteberatasun hidrikoa: kalteberatasuna handiagoa da mendebaldean, eta 2100erako gehitzeko joera du.
3. 2040ra arte bero-boladaren arriskua Vitoria-Gasteizen kontzentratzen da, eta 2100erako udalerririk horretan bertan gehituko da, Ebroren inguruarekin eta Lautadarekin batera. Lehortearekiko analisi berdinen arabera, prezipitaziorik gabeko egunen adierazlea eta lurraldeko beste baldintzatzaile batzuk kontuan hartuta, Arabako Ibarak eta Arabako Mendialdea izango dira, itxuraz, eremurik kaltetuenak.

Proiektzio horiei jarraiki, azpiegituren eta ekipamenduen sistemak egokitu behar dira kalteberatasun horri erreparatzeko eta Eremu Funtzionalean dauden udalerrietan kalteberatasun eta arrisku adierazgarriak badaude, hirigintza-plangintzan egokitzapen-irizpideak aintzat hartu beharko dira.

6.9.4 Osasuna

Osasun publikoaren arloan osasunerako erabakigarriak dira biztanleen osasun-egoeran eragiten duten faktoreak, bai isolatuta, bai eta beste faktore batzuekin batera ere. Faktoreak izan daitezke banakoak (adina, generoa, genetika), sozioekonomikoak (etxebizitza, enplegua, kultura, hezkuntza eskuratzea), ingurumenekoak (airearen, uraren, soinu-ingurunearen kalitatea), politika publikoak (hirikoak, etxebizitzarenak, garraioarenak...). LPPren

¹¹ <http://www.euskadi.eus/informacion/escenarios-proyectados-de-cambio-climatico-en-el-pais-vasco/web01-a2ingkli/es/>



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

proposamenek aldagai horietan eragiten dute mugikortasun aktiboan laguntzen duten neurrien bidez:

1. Bizitza osasungarria sustatzen duen hiriko eredua definituko da; mugikortasun motordunarekiko mendekotasuna areagotzen duten hiri-sare sakabanatuak eratzea saihestuko da eta gertuko zerbitzuen dentsitatea bultzatuko da.
2. Hiri-sareak eta landaguneak berroneratuko dira, beren ohiko gizarte-inguruneetan herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.
3. Azpiegitura berde integratu eta irisgarrian oinezkoentzako eta bizikletetarako mugikortasun bigunak indartuko dira, bizimodu osasungarriari laguntzeko.

Gainera, ingurune fisikoa antolatzeko, kutsatuak egon daitezkeen lurzoruetan tratamenduak arintzeko eta mugikortasun jasangarrirako proposamenen helburua da agente kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea. Proposatzen den nekazaritza-ereduak, lurzoru emankorren okupazioa mugatze aldera energia berritzailea ekoizteko sistemen kokapen-estrategiarekin batera, gertuko elikadura osasungarria sustatzen laguntzen du.

6.9.5 Euskara

Lurraldearen gaineko politikak Euskara Sustatzeko 2019-2022rako Plan Estrategikoarekin ardaztu behar dira. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiak eta euskararen munduko gizarte-eragileek hitzunak eta haien sareak aktibatu nahi dituzte, lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatzen dituzten baldintzak sortzen jarraitzeaz gain. LPPk Plan Estrategikoaren bi ardatzen gainean (gizarte-erabilera eta biztanle berriak) eragin-gaitasun mugatua du, baina, hala ere, udalerriekin eta kuadrillekin garatzeko ekintzak sartuko ditu.

6.9.6 Lurralde arteko harremana

Lurralde arteko harremanean ezinbestez Araba Erdialdeko baldintza bereziei erreparatu behar zaie. Eremu honetan Euskadiko beste eremu batzuekiko muga gehienak mendiekin bat datoz eta, beraz, harremanak natura-baliabideak eta biodibertsitatea kudeatzera bideratzen dira; bien bitartean, zabalago irekita dago Nafarroa eta Burgos alderantz. Honako hauek nahitaezkoak dira:

1. Trebiñuri dagokionez, azpiegiturak behar bezala ardazten saiatuko da. Lurralde historikoaren erdialdetik Arabako Mendialdeko eremuei zerbitzua emango diete, eta kokagunea zeharkatuko dute. Gainera, eremu mugakideetan zerbitzu erkideak emateko urratsak egingo dira.
2. Arabar Errioxako Eremu Funtzionalarekin modu egokian ardazten dela ziurtatuko da. Hura ere bere LPP ikuskatzen dabil, eta azpiegitura berderako Kantabriako mendilerroaren inguruan eremu aipagarriak partekatzen dira.
3. Aiara eta Arratiako Eremu Funtzionalarekin harremana garatuko da, Gorbeia parke naturalaren eta haren ingurunearen kudeaketa kontuan hartuta.
4. Ubidek eta Otxandio Durangaldearekin duten harreman funtzionalari erreparatuko zaie.
5. AP-1 autobidea aprobetxatuko da Debagoienarekin harremana sendotzeko. Hartan erabakigarria da Aizkorri-Aratz parke naturala antolatzea. Aldi berean, Goierriko Eremu Funtzionalarekin ardaztu behar da.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

6. Burgosko probintziarekin erlazioa indartuko da. Miranda de Ebro-Ribabellosaren ingurunean jarduketetarako hitzarmen-formulak bilatuko dira, harreman funtzionalak biziak izateko, logistika ardazteko eta eremu mugakideetan zerbitzuak emateko.
7. Altsasuko igarobidearen bidez Nafarroarekin harremana indartuko da, eta Foru Erkidegoa bere lurralde-estrategia ikuskatzen ari dela aprobetxatuz, ekintzak hitzartuko dira. Ildo horri eutsiz, Lautada zeharkatzen duen abiadura handiko trenaren aukera integratzea elementu aipagarria da. Horrez gain, Vitoria-Gasteiz-Iruñea bide-ardatza eta Altsasuko ingurunearekin erlazioa aprobetxatuko dira. Eskala hurbilagoan, Arabako Mendialdeko hegoaldeko barrualdea ardazten denean, Nafarroan Ega ibaiko ibarra partekatzen duten Marañón eta Cabredo udalerriekin dagoen harremanaren aprobetxatuko da.

6.10 Gobernantza

6.10.1 Ohar orokorrak

Araba Erdialdeko jabetza-araubidea (baso-azaleraren ehuneko laurogei baino gehiago eta lurralde guztiaren erdia baino gehiago jabetza publikoa da) eta lurraldearen osasun ona azaltzeko, neurri handi batean, historikoki Kontzejuek, Kuadrillek eta Aldundiak garatutako zereginari erreparatu behar zaio. Araba Erdialdeko LPPren helburuak lortzeko, haien zeregin protagonistari, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren ahaleginak gehitu beharko zaizkio. Rol berezia izan beharko dute, LPPn sartuta dauden ekintzen eta prozesuen zati bat bultzatu, koordinatu eta finantzatu beharko baitute.

Lurzoruen kalifikazioa eta Araba Erdialdeko LPPren araudia azaldutako ereduari egokitzen zaizkio, eta kalifikazio bakoitzak bere justifikazioa du Planaren helburuei erantzuteko. Horietara iriste aldera ez da nahikoa lurzoruen kalifikazioa finkatzea bakarrik, zenbait arloko tresnak (araugintza, finantzak, teknikoak eta gobernantza) antolatu behar dira, sinergiekin lan eginda, Planaren helburuak lortzeko.

LPPren helburuek mende hasiera honetako tokiko erronka eta erronka global nagusiei erreparatzen diete, eta informazioaren nahiz ezagutzaren aro honetan jasangarritasunarekin zerikusia dute. Erronkak gainditzeko berriz ere lurraldeko antolaketa historikoak baliagarriak izango dira, baina esku hartzeko gaitasuna antolaketa berriekin gehitu beharko dute, ziurtatu behar baita helburu horietara iristea.

6.10.2 Fluxu metabolikoak kudeatzeko gobernantza

Ekosistema-zerbitzuen zati bat eskuratzeko, antolaketa berriak sortzea proposatzen da. Helburua da fluxu metabolikoen egungo eragina murriztea eta, aldi berean, lurraldearen antolaketa mantentzeko energia, ur eta materialen baliabideak ematea. Antolaketa horiek zabaltzeak eta proposatzen den aldaketaren garrantziak enplegu-iturri nagusi izan beharko dute. Proposamena gomendio gisa egiten da gizarte deskarbonizaturantz egin nahi den bidean.

Xede horrekin, Arabako Foru Aldundiaren mende, Baliabide Metabolikoen Zentroa (BMZ) sortzea proposatzen da, baliabide berriztagarriekin AErako energia, ur, material eta elikagaien arloan autosufizientzia konektatu handienera iristeko. BMZk bektore metaboliko bakoitzerako berariazko antolaketa izango du, eta kuadrilla bakoitzeko energia, ura, materialak eta elikagaiak kudeatuko ditu.



6.10.2.1 *Energia kudeatzea*

LAGetako lurralde-estrategia berriak erronkatzat hartzen ditu energiaren efizientzia eta eraginkortasuna nabarmenki gehitzea, energia-iturri berriztagarriak orokorrean erabilia deskarbonizatzea eta autosufizientzia energetikorantz pausoak ematea.

Energia berriztagarriekin autosufizientzia konektatuaren maila handietara iristeko, Energiaren Bankua sortzea proposatzen da, kuadrillako bana. Irabazi-asmorik gabe eta jasangarritasunerako kudeatuko du Araba Erdialdean energia berriztagarrien ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-katea. Proposatzen den sistema energetikoak autokontsumorako eta ekoizpen banaturako neurriak garatuko ditu, eta helburu horrekin, lurraldeko baliabide energetiko berriztagarriak aprobetxatuko dira.

LPPk eguzki-energia ekoizteko toki egokiak definitzen ditu, baina lurzoru emankorrak eta/edo eragin bisual eta paisaia-eragin adierazgarria dutenak edo faunan eragiten dutenak erabili gabe. Plano bat definitu da balizko kokapenekin, Bankuak gauzatzeko edo egikaritzen laguntzeko. Eguzki-energia ekoizteko instalazioak lurzoru antropizatueta kokatuko dira, hau da, hiriko lurzorueta eta urbanizagarrietan, mugikortasun-azpiegitura linealekin lotutako eremueta: autobideak eta autobideak (autobideen zortasunekin zerikusia duten azaleretan, hots, ondo orientatuta dauden bazterbideetan, baldin eta gidarien segurtasuna bermatuta badago), trenbide bereziak, logistikako eremuak, goi tentsioko eta tentsio ertaineko zortasun-eremuak, aparkalekuen zabalgunekak, eraikinen estalkiak, hilerriak, zaborteak, etab. Debekatuta dago nekazaritza-, baso- eta natura-lurzorua okupatzea energia ekoizteko, Planak erabilera horretarako lurzoruen erreserban sartu ez badu.

Eguzki-energia hartzeari beste energia-iturri asko gehituko zaizkio gehieneko autosufizientzia energetikora iristeko.

Klima-aldaketa arintzearekin, pobrezia energetikoarekin, despopulazioarekin, eta abarrekin zerikusia duten helburuei aurre egiteko, energiaren oinarritzko erregimena definitzen da. Erregimen hark etxebizitza batean alferrik xahutu gabe duin bizitzeko energia-kontsumoaren muga ezartzen du. Oinarritzko erregimenean, etxebizitzaz gain, oinarritzko zerbitzuak (ekipamenduak, espazio publikoa, uraren eta hondakinen fluxu masikoak), tertziarioa, garraioa, etab. sartzen dira. 2,5 kide bizi diren etxebizitza batean 4.000 kWh/urte oinarritzko energia behar da. Gaur egun gutxi gorabehera 8.500 kWh/urte kontsumitzen ari dira. Etxebizitzan bezala, sektore bakoitzerako oinarritzko erregimenean kontsumorako mugak finkatuko dira.

Etxebizitzarako proposatu den antzeko muga finkatzearen helburua zenbait arrazoitan funtsatzen da:

Energiaren Bankuak kosturik gabe (izatekotan, mantentze-lanak) landaguneetan etxebizitza nagusien oinarritzko energia (ez bigarren bizitxeena) hornitu ahal du. Neurri horrekin biztanleak erroto nahi dira, eta pizgarri bat eman ere bai beste biztanle batzuk erakartzeko. Modu horretan, despopulazioaren ondorioak murriztuko dira. Oinarritzko muga gaituz gero, kostu bat sortuko da eta kurba esponentzial berriari egokituko zaio, eraginkortasunez alferrikako xahutzea ekiditeko.

Kosturik gabeko energia-kontsumoaren muga definitzea da tresnarik onena modu adierazgarrian energia-kontsumoa murrizteko.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Hirigunean pobrezia energetikoa eta energiaren kontsumoa gutxitzeko, etxebizitzek familia-gaitasun ekonomikoak atalase zehatzaren azpitik badituzte, kosturik gabe oinarritzko energia emango zaie. Era berean, landagunean edo hirigunean edozein etxebizitzak energia oinarritzko mugaren azpitik kontsumitzen badu, kWh-ko kostua oinarritzko muga gainditzen duen etxebizitzan baino askoz merkeagoa izango da. Energiaren kostua modu esponentzialean handiagoa izango da oinarritzko mugatik urruntzen den neurrian. Neurri honen helburua da batezbesteko kontsumoak etxebizitza bakoitzean 4.000 kWh/urtera hurbiltzea. Hala, egungo kontsumoaren erdia litzateke.

Bestalde, energia fotovoltaiko gehiago ekoizteko, eraikin mota guztietan eguzki-panelak ezartzea sarituko da. Hirigintza-plangintzak ibilbide luzea du energia berriztagarrien instalazioak eta, batez ere, eguzki-energiarenak hirigune historikoetan edo ondare eraikiaren gainean instalatzeko orduan. Premisa horiek aldatu behar dira. Eremu honetan asko aurreratu da, eta gaur egun dagoeneko teknologia, etekin eta eraikuntza-xehetasunei esker, instalazio horiek ondare eraikiaren estalkietan eta fatxadetan txerta daitezke.

6.10.2.2 Ura kudeatzea

Erabilera desberdinetarako kalitatezko uraren hornidura bermatu behar da, baina klima-aldaketarekin euri-erregimenean espero diren aldaketak aintzat hartu beharko dira. Hala, LAGen helburuei erreparatu zaie. Horien arabera, uraren eskeari hornidura-berme egokiarekin erantzungo zaio. Kalitateari dagokionez, beharrekin bat etorriko da. Dena den, emari ekologikoak mantenduko dira eta kontuan hartuko dira aurrezkiaren eta eraginkortasunaren aldeko irizpideak eta konponbideak.

Helburu horiek lortzeko uren bankua sortzea proposatzen da. Helburu hauek izango ditu:

- Ekosistema urtarak egoera ekologiko ezin hobera itzultzea, eta edozein narriadura osagarri saihestea.
- Baliabide hidrikoak emarien kantitatea eta kalitatea errespetatuta ustiatzea, produkzio sistemek erabiltzen dituzten baliabideak sortzean edo hiri-erabilerearako bideratzean ekosistemen karga-gaitasuna gainditu gabe. Azken urteetako ekarpen naturalen gainbeheran eta klima-aldaketaren balizko eraginean oinarrituta, baliabideen eta eskeen arteko dibergentzia sakonki aztertu behar da.

Uren bankuak Eskubideak Trukatze Zentro gisa (1999ko Urari buruzko Legearen erreforman sartutako irudi juridikoa) jardungo luke. Bankua arroko erakundeetan sartu beharko litzateke, konbina daitezen, batetik, esku-hartze publikoaren abantailak eta, bestetik, aldi baterako uraren erabilera-eskubideak eskuratzeko legeak ematen duen gaitasunaren araberrako malgutasuna. Emaizak positiboak izan daitezke aldi baterako borondatezko lagapen-akordioetara iristeko malgutasuna eta larrialdiko egoeratan nahitaezko erabakiak hartzeko arroko erakundearen administrazio-ahalmenak behar bezala konbinatuz gero.

Tokiko ura hirigintza-plangintzan (hiru mailen hirigintza) sartzea. Helburua da gehieneko autosufizientzia-mailetara iristea, eta, aldi berean, iturri urrunduaren ur-ekarpenak gutxitzea, ingurumenaren ikuspegitik oso "garestiak" direlako.

Ingurumen-kudeaketa, kalitatea eta lurraldean proiektzioa kontuan hartuta eskea kudeatzea; modu horretan, alde batera utziko da politika hidraulikoaren eskema tradizionala. Eskaeraren bilakaera ezagutze aldera eta aldaketetara egokitzen diren neurrien sorta zehazte aldera mekanismoak garatzea. Helburua da zenbait denbora-eskalatan bermea etengabe hobetzea.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenua

-AURRERAKINA-

Ura erabiltzean aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzea. Horretarako, besteak beste, honako mekanismo hauek baliatuko dira: erabiltzaile handiek (nekazaritza, industria eta hiria) batera kudeatzea, ur araztua berrerabiltzea eta, egoki bada, euri-ura aprobetxatzea. Xede horrekin, hiriko eta industriako hondakin-uren tratamendu-sistemek hobetzen jarraitu behar dute, bereziki hiriguneetan. Era berean, uraren zikloan energia-kontsumoak eta CO₂-ren nahiz berotegi-efektuko beste gas batzuen igorpenak murrizten saiatuko da.

Energiaren kasuan bezala, uraren oinarritzko erregimena definituko da, duin bizitze aldera biztanle eta familia bakoitzeko gutxieneko ur kopurua zehazteko. Energiaren antzera, prezioen politika definituko da.

6.10.2.3 Materialak kudeatzea

Eraikuntza-hondakinak eta udal-hondakinak berrerabili eta birziklatuta, autosufizientzia konektatuaren paradigma proposatzen da. Xede horrekin, Materialen Bankua sortuko da. Helburua da material eta objektu erabiliak produkzio-zikloan eta hiriko ekoizpenean berriz sartzea, bigarren bizia izan dezaten.

LAGen joerak ekonomia zirkularrean oinarritutako garapen-eredurantz egindako trantsizioarekin harremana du. Horren arabera, materialak atzeraelikatuko dira eta lurraldeak kontsumitzen dituen produktuak eta baliabideak ekoizpen- eta kontsumo-fluxuaren barruan mantenduko dira ahalik eta denborarik gehien, garapen jasangarrira iristeko eta, bide batez, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko.

AEko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko materialen aztarnak argi eta garbi gaintitzen ditu muga litosferikoak (% 478). Etengabe hedatzen ari den ekonomia linealak bultzatuta, materialak mugarik gabe atera, inportatu eta prozesatzen dira, lehengaiak ugariak eta merkeak direlako. Horri urruneko sistema logistikoak eranstean badizkiogu, baliabideak-produktuak-hondakinak kudeatzean ikuspegi zirkularrak baztertu ahal izan dira.

Eraikuntzako hondakinen fluxuek eraldaketa-prozesuak izan beharko dituzte berriz ere eraikuntzarako lehengai bihurtzeko. Birziklatze-prozesuak hobetu eta, ondorioz, material birziklatuen fluxua handituz gero, inportazioak jaitziko lirateke, baliabide natural gutxiago ateratzeaz gain. Modu horretan, ekonomia zirkularragoa eta erresilienteagoa sustatuko litzateke.

Adierazitakoaren ildotik, deskribatutako proposamenak interes argia du, hain zuzen ere, fluxu metabolikoak pizgarri modura erabiltzea biztanleak finkatu eta, hala badagokio, erakartzeko. Oso erakargarria da kosturik gabe energia eta ura ematen dituen oinarritzko erregimena ezartzea, betiere oinarritzkotzat hartzen diren kontsumoak gaintitu ez badira, eta, gainera, funtsezko tresna bihurtu daitezke kontsumoa mugatu eta autosufizientzia desiragarri iristeko. Pizgarri honi beste batzuk gehitu behar zaizkio, landa-herritarrak inplika daitezkeen nekazaritza organikoari esker fluxu metabolikoen eta elikagaien autosufizientzia konektatua lortzeko begira.

6.10.2.4 Lurzoruaren emankortasuna leheneratzea

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalan lurzoruen emankortasuna lehenera dadin sustatzeko lurzoruen emankortasuna zehatz-mehatz ezagutu behar da, baita lurzoru pobretuen baldintza edafikoak leheneratu eta hobetzeko programa garatu ere. Gai organikoa eskuratu eta gai organiko horren aplikazioa koordinatzeko, Gai Organikoaren Bankua (GOB) sortzea proposatzen



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

da. Berak hartu eta banatuko ditu nekazaritzako elikagaien industrietatik, abeltzaintzako deiekzioetatik, basogintzatik, hiri-hondakinen zati organikotik, araztegiko lohietatik, eta abarretik datozen fluxu organiko guztiak edo zati bat, behintzat.

Fluxu organikoak oinarritzakoak izango dira ongari eta pestizida kimikoak erabiltzen dituen industria-nekazaritza alde batera utzi eta nekazaritza organikoa ezartzeko.

Fluxu organikoak egonkortu ondoren lurzoruan botako dira, baina urak kutsatzea saihestuko da. Hala, ez dira gertatuko egungo jardunen poluzio-arazoak, ez baitira masiboki erabiliko ongariak, pestizidak edo egonkortu gabeko fluxu organikoak.

Funtsezkoa da lurzoruko biota berroneratzea, berotegi-efektuko gasak hartzeko eta Araba Erdialdeko lurzoruak CO₂-ren egiazko isurbide bihurtzeko, modu horretan deskarbonizatuko baita Araba Erdialdea.

6.10.2.5 Lurzorua kudeatzea

Baso-azalera guztiaren ehuneko laurogei baino gehiago eta lurralde guztiaren erdia baino gehiago jabetza publikokoa da. Horri esker, mendeetan zehar babestu da baliabide naturalak aprobetxatzeko sistema mankomunatu eraginkorrek eta konplexuak baliatu direlako. Garrantzitsua da lurzoruaren jabetza publikoa oso hedatua egotea LPPren ikuskeraren erroren zati bati aurre egiteko eta ahalik eta txikiagoarekin helburuetara iristeko. Etorkizun jasangarriagorantz egin behar den bidean aldaketa-prozesuak errazago baldintza daitezke lurzoruak jabetza publikoa dutenean. Azpiegitura berdearen konektagarritasuna, nekazaritza organikoa ezartzea, oinarritzako ekipamenduen zuzkidura eta abar dira ikuskeraren beharrek LPPren helburuak. Ekonomia- eta gobernantza-arrazoak direla bide, erraz uler daiteke helburuetara eta gidalerroetara errazago iristen dela lurzoruaren jabetza-erregimena nagusiki publikoa denean.

LPP sistematikoki eta oso-osorik kudeatzeko, Lurren Banku Publikoa sortzea proposatzen da, nekazaritza-jardueraren eredu berria susta dezan. Nekazari gazteek Europako estrategien planteamenduak abiapuntutzat hartuta nekazaritza eta abeltzaintzako modu berriei ekin nahi dietenean, lurrak eskuratzeko zailtasunak dituzte. Horrenbestez, komenigarria da dagoeneko hirigintzak erabiltzen dituen mekanismoetara jotzea interes orokorreko beharrei erantzuteko. Nekazaritzarako kalitate oneko lurrak lortu behar dira ildo horretatik eredutzat har daitezkeen esperientziak bultzatzen. Horrez gain, Bankuak eraldaketak sustatuko ditu LPPko aginduek lortzeko, lurzoruaren erabilera berriak abian jartzeko. Egoki bada, LPPk dituen helburuak garatzeko lurzoru berria erosi du edo hiri-lurzoruak beste sailkapen bat izan dezan eragingo du.

6.10.2.6 Naturaren eskubideak

Kultura-arrazoiengatik, gizakiak beti erabili du natura eta, gainera, abusuz, haren osagaiak, prozesuak eta legeak kontuan hartu gabe. Naturaren legeak ez ditugu inondik inora ezagutzen, eta horren azal dezake, neurri batean, egungo jasangarritasunik eza. Naturak ez du defendatuko duen inor. Bere burua “defendatzen” du, eta hala egiten duenean gainditzen gaitu. Klima-aldaketaren azalpenak adierazgarriak dira.

Gure hiri eta lurraldeen antolaketa naturarekiko nagusitasun-harreman batean oinarritzen da, eta eraginak ziurgabetasunen goranzko prozesuaren azalpenak baino ez dira. Modu horretan, hurrengo belaunaldien etorkizuna arriskuan jartzen ari gara.



Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena

-AURRERAKINA-

Naturarekin harremana aldatu behar da, eta oreka berri bat bilatzea ezinbestekoa da, non gizakiaren ekintzak aintzat hartu behar dituen naturaren beraren osagaiak eta legeak. Harreman berri hori da, hain zuzen ere, LPPren ikuskapeneko lurralde-ereduaren zutabe bat. Egungo hiriaren/eskualdearen ereduaren ordeztu besterik gabe jo behar da harremana orekatzeko honako hauen artean: hiria eta landa, hiria eta lurraldea, gizakia eta natura; izan ere, funtsezkoa da lurralde-eredu jasangarriagoa eraikitzeak. Nahitaezkoa da egungo aurreratzeko gaitasuna areagotzen duen ereduak. Aurreratzeko gaitasuna areagotu nahi bada, dudarik gabe, naturak bere eskubideak izan behar ditu.

Naturaren eskubideak defendatzeko arau-agertokiak gure pertsona juridikoentzat ardaztu duguna baino askoz sinpleagoa izan beharko du. Naturaren eskubideekin alderatuta, asko zailagoa da gure erakundearen eskubidea ulertzea. Egungo ziurgabetasunaren agertokiari erreparatzen badiogu, arrazoiz pentsa dezakegu oraingo babes-sistema ez dela nahikoa.

Zaintzeko eta defendatzeko askotariko lanpostu asko gehitu behar dira.